Oro baino gorago ezartzen zituen menturaz Georges Lacombek, Hugo Schuchardt, bere ''jainko ttipia'', P. Lerfittek dion bezala, eta Uhlenbeck holandiar linguista handia: Biekin harremanetan izan zen bizi guzia. Bien lan batzuen bazituen 14-18 eko gerla aintzin, frantsesera berak itzuliak eta R.I.E.V. argitaratuak. Bainan gero zorigaitzezko gerla etorrizen.

1914 eko ekainaren 17 an, gerlaren bezperan, Georges Lacombek Piarres Broussaini salatzen dizkio bere xedeak eta

planak: Jean Etchepare orduan Alduden mediku den euskaiariaren laguntzarekin Letretako dotorgoa ari du prestatzen Aldudeko euskarari buruz. Bere oharrak sailkatu ditu: hiztegizkoak alde batetik ezarriz, gramatikazkoak bestetik. Gutun berean aipu ditu Vinson, Saroihandy, Winkler, Trebitsch eta Van Eys, orduan hil berria. Uhlenbeck aldiz Euskal Herrian egon-aldi bat egitera nahi luke bildu. Henri Bergson filosofo ezaguna Frantses Akademiara deitu baitute, haren sartzeko hitzaldia heleraziko dio... emanen duenean. Erromako elizak ordea bere "Index" eko liburu gaiztoen zerrendan sartu omen ditu jakintsun handi horren idazki nagusiak: "Hanbat hobe, funtsean - dio Lacombek bere adixkideari - beti Inkisizioaren mendean bizi baikara, "ecclésiastiquement parlant",". Azkenean Hazparneko jaun mediku euskaltzaleari galdatzen dio, ez ote lituzkeenetz bere alaba Jenofa tipiaren lehen hitzak artoski bildu nahi, nehork ezpaituke lan holakorik egin oraino Euskal Herrietan.

G. Lacomberen omenaldia. Baiona 1976-1-26.

"Carpe diem, carpe horam, dies brevis est, oportet boulotare(sic)", "Goza ezak eguna, goza orena, laburra baita eguna. Behar diaguk egin lan...", idazten zion ondoko aldian adixkide berari (Angoulême-tik 1914 eko aboztuaren 30 ean), bainan 1916 eko uztailean, Lorrenako mugetan, gure Georges Lacombe itsuski kolpatua zen eta beso bat ere galtzen zuen.

Hilabetea gabe, aboztuaren 11 an, Amiens-eko ospitaletik, berriz idazten dio Hazparneko auzapez adixkideari, eskerrak bihurtzen dizkiola igorri goxokerien gatik. Uhlenbeckez mintzo zaio eta Baionako Euskaltzaleen Biltzarraz eta oraino trebe ez izana gatik, esku ezkerraz berak sinatzen du"G. Lacombe".

Gerla ondoan berriz hartzen du gure euskalariak R.I.E.B.en idazkaritza. Aldudera ere itzuliko da hango euskalkiaren lantzeko: 1918 ko abendoaren 21 ean Martin Landerretcheri idazten dio 600 orrialde badituela bilduak, hizkelki horren fonetikaz, morfologiaz eta hiztegiaz. Eta Hazparneko Herriko Etxean, 1921 eko martxoaren 8 an, euskaltzain sartzeko egunean, Azkuek erraiten dio berari: "Betorkigu argitara len bai len ta ordu onean Aldudeko euskera" ("Euskera" 1920-1921, II - 2, or. 63). Bainan Lacombe hil ondoan, Henri Gavelek paper hoik bilatuko dituenean, bizpalaur ehun fitxa doi-doia aurkitzen ditu, 10 bat orrialdetan argitaratzen dituenak: "Les notes de Georges Lacombe sur le basque des Aldudes" par H. Gavel, "Eusko-Jakintza" 1947, 1952, VI, 1-10.

Badakigu ere 1930 ez geroz Ziberoko euskalkiei buruz itzuli zela bereziki Georges Lacombe, bizkitartean Telesforo Monzonek etzuen horrelako lanen hatzik hatzeman, haren bibliotekaz jabetu zelarik.

Azkenean, bizpalaur hilabete hil aintzin, 1947 eko apirilean, Jose Migel Barandiaranek abiatu zuenean "Eusko-Jakintza", hogoita hamar bat artikulu bazauzkala gogoan idatzi zion Lacombek. Zorigaitzez bat bakarrik zuen burura ereman, bere azkena, Sen Matiuren itzulpenez, "Eusko-Jakintzak" atera zuena ("Eusko-Jakintza", 1947, I, or.494, J.M. Barandiaranen oharra).

Bere euskaltzain sartzeko hitzaldia egin zuelarik Hazparnen Georges Lacombek, erasiak egin zizkion "Eskualdunean" Jean Etchepare adixkideak, baizik eta horrelako

hitzaldi batek hogoi edo hogoitabost orrialde eskatzen zituzkelarik, harenak etzauzkala sei baizik ("Eskuara" in "Eskualduna", 1921, XII, 30). "Euskaltzaindiari ospe gehiago behar zitzaion erakutsi... Broussain baten bizia xehetasun gehiagoren gai ere zen", berriketariaren arabera.

Guk orai berdin xehetasun eta ospe gehiago zor genioke Georges Lacombe euskaltzain zenari, bainan gure ustez gure sei orrialdeak bete ditugu eta funtsean guk ez bezala ezagutu dutenek zerbait erranen dukete. Gaiten beraz gaurkotz ixil.

BONIFAZIO ETXEGARAI ETA KORTA

Zumaia, 1978-VI-4

Jose Antonio Arana Martija

Euskaltzaindia eragile dala, eta beren eskariari erantzunaz, esukaltzain eta euskal gizon ospetsu ziren Seber Altube eta Karmelo Etxegarairen goratzarretan parte hartu nuen Arrasaten eta Azpeitian denporatxua dala. Berriz ere hona izan naiz deitua Bonifazio Etxegarai eta Kortari omenaldia eskeintzerakoan, eta esan beharko dana da zer dalata ni, goratzartutako gizon honen eta zuen aurrean agertzeko meritu gabekoa naizenez gero, Zumaian gaur mintza zorian jarri nauten. Erantzun bakar bat dauka galdera honek: Altube eta Etxegarai anaiak Gernikako Kanposantuan lurperatuta daude, eta gainera, bata bestearen alboko hilobietan; hori dala ta, hiru gipuzkoar hoiek azken atsedena hartu duten nire herritik, zuek, Bonifazioren jaioterriko adiskideak agurtzera nator. Mahaipuru eta zuen baimenekin aurrera, noakizue, bada.

I. ETXEGARAI SENDIA

Zoritxarrez, gure kultur gaiak ezezagunak direnez gero, alor hortan punterengo izan diren gizonak ezjakintza eta zapalketako lainoetan estaliak geratzen zaizkigu. Karmelo eta Bonifazio Etxegarairen berriak ez dira hemen Zumaian ezezagunak izango, noski. Baina Euskalerrian zehar ez dira asko izango anaiak zirela ere dakitenak. Don Boniri dagokion omenaldi hontan bere sendiko xehetasunak ematea ez da bada, ene ustez, gehiegikeria izango.

Fernando Maria Etxegarai pasaitarrak, 1825 inguruan Errenteriako Magdalena Segunda Etxeandia emaztetzat har-

tu zuenean, ez ekien etxe garai eta handi hori, urteak joanda, kulturaren oinarria bihurtuko zela. Etxegarai eta Etxeandiko semeak, Rafael eta Joakin lehenengoa Santanderen eta bigarrena Gipuzkoan, sendi ikertzaile eta idazle ugarien iturri dira. Lehenengo Karlistadako iskanbila baretu ondoren, seme nagusia, Rafael, ez dakigu Iparragirre bezala fiskalaren aginduz, joan zen Santander aldera. Dena dela, semealaba bi ditu: Anparo eta Evilasio. Josefa Abascalekin ezkontzen da semea eta senaremazte hoiengandik lau izanen dira haurrak: Moises, Erasmo, Konsuelo eta Karmen. Moises, gero Beasainen hilko zena, Elvira del Colladorekin ezkondu zen, eta hoien semeak gaur bizirik dauden Jesusa, karmeldarra, eta Jose Luis dira. Erasmo, itsastarra, gaztaroan eta ezkongabe hil zen. Konsuelo gure Karmelo Etxegaraikin ezkondu zen 1897an eta urte bi barru, lehenengo seme zen Fernando jaiota, Gernikan hauzotu ziren; gero, nere hirian, Karmelo –jaio berri hil zena– Konsuelo eta Joakin jaioko ziren. Laugarren Evilasioren alaba, Karmen, Joakin Gonzalez Domenechekin ezkondu zen eta ezkontza hortik datozkigu Rafael, Karmen, Karlos, Ana Maria eta Joakin Gonzalez Etxegarai. Lehenengo hirurak ikertzaile eta idazleak dira, eta azkenengo Joakin, apaiza. Denetatik ospetsuena Karlos Gonzalez Etxegarai dugu, Bizkaiko Diputazioko Artxibari eta Liburuzaina, eta egunotan Madrilen Estaduko Bibliotekeen zaindari orokorra.

Fernando eta Magdalnearen bigarren semea, ostera, Gipuzkoan geratu zen. Pasaietan jaio zen 1830an. Baina hau ere, lehenengo Karlistada amaituta, Iraurgirantza etorri zitzaigun, Azpeitiara. Han ezagutu zuen Josefa Ignazia Dominika Korta eta Izagirre, Urrestilako Inazio Maria eta Azpeitiako Mikaela Inaziagandik 1833an jaioa. Eta Azpeitian, amona eta amaren etxean jaio ziren Karmelo 1865an eta Karmen Etxegarai Korta. Bigarren Karlistadak berriro jendea tokialdatu zuen eta Joakin eta Josefa, gurasoak, semealaba biak hartuta, Zumaiara jo zuten, aita hemengo portuko Kapitan izendatua izan zen eta. Hemen, Zumaian, Karmelok oraindik hamairu urte bete gabe, 1878ko Ekainaren 5ean jaio zen Bonifazio Maria del Karmen Jose Etxegarai Korta Etxeandia eta Izagirre. Bihar, goizeko zortzi eta erdietan zumaitar ospetsu hau jaio zenetik ehun urte beteko dira.

Ia urte biko haurra dugu Bonifazio, eta Karmelok ere hamabost betetako izango ditu, 1880ko Apirilaren 26an aita

Joakin hiltzen zaigunean. Josefa, alarguna, larri dabil haurrei tajuzko heziketa eta irtenbidea emateko. Karmelok estudio distiratsuak daramazki eta zelan edo halan laguntzea merezi du. Santanderreko osaba prestatzen da lobaren arazoetan ardura eta babesa emateko. Eta Karmelok ere Santander aldera jo behar du. Han jarraitzen du bere erdi mailako estudioetan. Baina txiroek poza laburrean goza, eta berriz Etxegarai sendiari datorkio zoritxarra: 1883an saminez erori da osaba eta Karmelo, nahigabetua, amaren magalpera dator Zumaiara. Hamazortzi urte baino ez ditu eta Zumaiako Udalaren Idazkaritza hutsik egon arren, adin horren eragozpenez ukatzen diote ogibidea. Manuel Gabriel Beobide, Parrokoa, Bonifazio jaio eta hurrengo egunean bateatu zuena, Etxegaraitarren prolemak askabidetzeko bihotzabalez lehiatu zen eta azken baten 1884an Karmelo Gipuzkoako Diputazioan enplegatu zuen. Gero izanen dira Madrilera eta Escorialera joan etorriak, bere lehenengo liburuak. Eta 1894ko Abenduaren 6an Bizkaiko Diputazioak aurkeztuko zuen Karmelo Hiru Probintzietako Kronista bezala. Hurrengo urtean, 1896an, etorri zen Karmelo Gernikara ama eta nebarrebak Zumaian utzita. Lehen aipatu dudan bezala, 1897.eko Hazilaren 18an ezkondu zen Karmelo Konsuelo Etxegaraikin Santanderen. Ez dauka oraindikan etxe apaindurik Gernikan eta 1898ko Abenduaren 25an Menendez y Pelayori zion bezala, bere familia Zumaian zegoen. Hurrengo urtean Karmelo, Josefa bere ama, Konsuelo emaztea eta Fernando seme nagusia Gernikan hauzotzen dira.

Garai hortan Bonifazio Madril aldetik dabil lege karrerako estudioetan. Bere haurtzaro eta gaztaroaren ardatza Karmelo da hain zuzen. 1925an anai nagusi hau hiltzen denean, Euskalerriaren Alde aldizkarian idatzitako nekrologi baten esanen digu Bonifaziok hura izan zela anai gainetik aita eta maisu. Karmelo Diputazioan onartua izan zenean, eman zituen Bonifaziok bere lehenengo eskola pausuak. 1892 inguruan, Karmelo Madrilen zegoen bitartean, Donostiako Institutoan erdi mailako estudioak egiten ari zen Bonifazio anaiaren laguntzarekin; eta nagusia Kronista izendatu eta Gernikarantza jo zuenean, Bonifaziok Escorialeko Agustinoetara jo zuen Deretxo estudioak egitera. 1900an, legegizon eginda, agertu zen Bonifazio Gernikan, Etxegaraitar bat bezala, betiko bezala Karmeloren familian eta amaren ondoan.

II. BONIFAZIO IDAZLEAREN HASIERAK

Hogeitabi urte bete arte, Zumaia izan zen Bonifazioren bizileku eta erdigunea. Eta hemengo euskal giro barnean hasi eta hezi zen jaioterriko euskararen gozotasun eta aberastasuna edoskiaz. Txikitan eskolan zebilela jakingo zuen, Karmelogandik noski, Juan Olazabal zumaitarrak 1652an eraiki zuela lehenengo herriko eskola. Eta gizaldi berean Baltasar Etxabe, margolari eta idazleak, "Discurso de la Antigüedad de la Lengua Cántabra Bascongada" argitara eman zuela. Txikitan ezagutuko zuen Eusebio Gurrutxaga, Alkatea, eta bederatzi urtedun zela, 1887an kai berria eraiki zaneko jaietan parte hartuko zuen. Jose Maria Zubia, "Mari", 1866an itsasoan ito zenaren ipuinak ere entzungo zituen eta kontuan eduki bere *Arritokieta* idazlana 1895an argitaratu zuenean. Eta nola ez ezagutu Karlos Uriarte, herrikidea, 1850an Bergarako Seminarioan Matematika Katedratiko izan zena eta 1871tik 1897arte Donostiako Institutoko Zuzendari, eta bere zuzendari, noski, izan zena. Zorionez hemen daukagu gure artean Julene Azpeitia, Bonifazio baino hamar urte gazteagoa (parkatu, Julene, zure adina agertzea); berak inork baino hobe ager lekiguke zein zen haur giroa Zumaian XIX. gizaldiko azken urteetan.

Dena dela, euskara izan zen Bonifazioren lehenengo hizkuntza, Josefa amaren bularretik xurgatua eta hirian, kaletik eskolara, etxetik jolasetara, menditik ondartzara, eleizatik kaira Bonifaziok ikasi eta erabili zuena. Eta arimaz eta hitzez euskaldun zanarentzat, ezinbesteko irteera euskaraz bere burua agertzea zen. 1893an, hamabost urte bete orduko, Euskalerria aldizkarian, argitaratzen du Bonifaziok bere lehenengo olerkia: *Baserrian*. Eta urte berean eta hurrengoan, bertan errebistan, beste olerki batzu ere. Baina hamasei urte dituala, Gipuzkoatik kanpo lehenengoz dijoakigu gure Etxegarai gaztea. 1894an antolatzen dira Donibanen Euskal Jaiak eta haien berri emango digu idazlan luze batetan. Erderaz lan hau idatzi arren, jaietan eratu zen lehiaketan euskarazko izdazlan bat aurkeztu zuen Bonifaziok: *Euskalerria bere ohiturak, usantza eta libertade zaharrak*. Lan luze eta biribildua, 40 bertso ditu eta. Baina lanaren mamia nahi dut momentu hontan aipatu: olerki gai hutsak utzirik, ematen digu Etxegaraiek idazlan honetan bere etorkizuneko zaletasunaren ata-

ria: etnologia eta lege saila. Hurrengo urteagaz batera emango digu beste etnologi saileko lan bat bertan aldizkarian: *El Arbol y las Hogueras de San Juan.*

Zenbaterarte bere bihotzeko Zumaiari lotuta dagoen gure idazle maitea lehen aipatutako lan baten adierazten digu: *Arritokieta. Recuerdos de Zumaya.* Amabirjinaren besperan, Irailaren 7an, eta jaieguneko Beluko Mezan Arritokietako baselizan egiten diren eleizkizunen berri ematen digu Bonifaziok; eta idazlanaren bigarren zatian, arrantzale eta ermitan zegoen arrain-zutoinen ipuina azaltzen du lan horretan. Donostian idatzi zuen lan hau 1895ko Irailaren 8an. Geroago, Escorialen zegoala, herrimina agertzen du *Zumaia* izeneko artikulutxo batetan. El Colegial aldizkarian argitaratu zen 1899.eko Martxoran idatzi zuen lantxo hau eta ohartxo baten esaten zuen bezala, idatzi zuen "para rendir a Zumaia el tributo de cariño y admiración que me exige el amor que profeso a mi pueblo natal".

Eta eten gabe jarraituko du 1897 arte bere lanak argitaratzen. Urte hontan berri bat aipatu behar da Bonifazioren bizitzan: Euskalzale errebistan agertzen da Etxegarairen olerki bat: *Lore Maitia.* Jakina da Azkuek sortutako aldizkaria zela Euskalzale eta orduan irtenberria; eta jakin behar dana da sortze honetan Domingo Agirrek parte hartu zuela. Azkue eta Agirre, lekeitiarra eta ondarrutarra, abadekiak batera izan ziren Gasteizen; eta ondarrutarrak ez bakarrik begi onez, arduraz ere eta lanez laguntzen zion lekeitiarrari bere xedeetan. Zumaiara etorria zen Agirre Karmeldarren kapeilau eta Karmelo bitarteko zela ezagutuko zuen honen anai gaztea, Bonifazio, eta azkenengo lau urte zehar "Euskalerrian" argitaratutako honen lanak. Erraz lortuko zuen bada Agirrek bere adiskide Azkueri lehenengo pausuetan laguntzeko Etxegarairen idazlantxo hau. Eta Agirre aipatukeran beharezkoa da Bizkaia eta Gipuzkoa artean beti izan diren sinbiosian Gipuzkoa garaile aitortzea: Agirre Ondarrutik Zumaiara etorri bazan, eta hemen gaur izendatu direnak aipatzerakotan, Villasante Gernikatik Arantzazura, Altube eta Etxegarai anai biak, bat gehiago hain zuzen, joan ziren Gipuzkoatik Bizkaiara. Eta nahiko ez balitza, Julene Azpeitia izan dugu Zumaiatik etorrita, hainbat urte zehar, Bilbon, Abadinon, Ean eta Durangon, Bonifazio hil zen azken toki hontan. Lau eta bi irabazi duzue giputzak sinbiosi honetan.

Hurrengo urte bietan, Escorialen hurrunduta bizi da Bonifazio. Ez du astirik ezertxo ere idatzi eta argitaratzeko. Baina lege karrera amaituta Gernikara datorrenean, Fermin Herranen Biblioteca Bascongada delako bilduman, 184 horrialdeko liburu bat argitaratzen du *Cuadros* izenburuarekin.

III. OGIBIDEKO LEHENENGO PAUSUAK GERNIKAN

Gure mendearen hasieran Bonifazio Etxegarai, ordutik aurrera "Don Boni", Gernikan hauzotzen da. Legegizon titulua dakar, baina legegizon faltarik ez da Gernikan. Goragoko maila batera joteko oposizioak gertatzen ari da Don Boni eta bitartean, bizi egin behar da eta, Udaleko Epaile tokian jartzen da, orain ere Karmeloren laguntzarekin, noski. Seme biak etxean daudela hil da Josefa Korta, ama, 1903ko Abuztuaren 2an. Bere alargun lehenengo urteak behargorrian pasa bazituen, ezan damutuko Josefa hilzorian, bere biziaren bukaerara helgaraian: seme biak, trebeak, jarorrak, jakitunak, ospetsuak zeuzkan alboan azken agurra ematen. Consumatum est, esango zuen Jainkoaren besoetan.

Lau urte beteko ditu Don Bonik Gernikan. Aldi honetan, gernikar bat eginda, bertako kultur mugimendu guztietan parte hartzen du zumaitarrak. Ekinaldi bi, paperetan aurkitu ditudanak, aurkeztuko dizkizuet. 1904ko Otsailaren 2an, Agustino Ikastetxean antolatzen da antzerki eta musika jaialdi bat; Don Boni apuntadore hautatzen dute. Belarri gogorra zela dio bere loba Joakinek, baina musikazale bezala aitor dezaizueket. "Gernika" abesbatza sortu zuen Sebero Altubek urte haietan, eta Donostian, 1904.eko Irailaren 11an izango zen lehiaketarako saioetan zebiltzen jo eta ke gernikarrak. Orduko partitura baten Don Bonik idatzita hitz hauk daude: "nik, giputz sustsua izan arren, Gernikako abesbatzaren garaipena goratzen det nere herritarren gainetik". Hemen sortuko zen, beharbada, bere musikarako zaletasuna. Gero Madrilen zenbat eta zenbat musika entzun beharko zuen Plaza de Orienteko 2an bizi izan zenean Cubiles pianojotzailea hauzoan zeukan eta. Baina Madrilera joan orduko bazeukan musikaren ardura. 1903.eko Uztailaren 22an Menendez y Pelayori egindako eskutitz baten dio Karmelok:

> Mi hermano se propone acudir a la Biblioteca de usted para consultar algunas cosas, especialmente las que se refieren a la crítica musical y sobre todo las que tienen relación con la reforma wagneriana.

Ostera hau urte bereko Urrilaren 8an baino lehenago eginda zeukan Don Bonik, fetxa horretan Karmelok eskerrak ematen dizkio Don Marcelinori harreragaitik eta.

Nahiz eta idazlan garrantzitsuenak izan ez, badauzka Bonifaziok musikaz egindako kritikak. 1915an, "Euskalerriaren Alde" albistarian, idazlan oso mamitsu bat argitaratu zuen: *Mirentxu en Madrid. Impresiones del estreno de esta Opera.* Lan oso ezaguna da Euskal Musikaren Bibliografian Guridiren Operari dagokion hau, eta hala agertzn du Jon Bilbaok bere harrigarrizko lanetan. Baina badira beste lan batzu inon aipatzen ez direnak; Txistulari aldizkarian agertu ziren eta Don Boniren Bibliografia osotzeko premiatsu da hemen azaltzea:

Domingo. TX. Epaila-Apirila, 1928.

Música y danza. TX. Epaila-Apirila, 1929.

Homenaje cordial al sabio y al artista, Aita Donostiari eskainia, TX. Maiatza-Ekaina, 1933.

Baina Gernikara berriz etorrita, 1904an gaude. Ordurako oposizioak deituak izan dira. Eta Karmeloren karta batetan azaltzen denez, Don Boni oso lanpetu dabil. 1904.eko Urtarrilaren 11ean, idazten dio Menendez y Pelayori:

> Actualmente le ocupan atenciones muy ajenas a la literatura ya la crítica musical.

Caceresko Hauzitegiaren Idazkaritza irabasten du lehiaketan eta hara doa Gernika utzita. Handik denpora gutxi barru, Sevillako Hauzitegira goratua da. Han zegoela, Castro Urdialeseko Rikarda Irabien hartzen du emaztetzat eta berarekin zazpi semealaba izango ditu: Pilar, Jose Maria, Klaudio, Karmen, Rikardo, Elbira eta Maria Dolores. Sevillan urte batzu eginda, Oviedoko Hauzitegira dator. Eta 1910an bere bizi guztirako ogilana lortzen du Madrilen: Tribunal Supremo delakoan Gela batetako Idakaritza. Hemen iraungo du heriotzararte.

IV. EUSKALTZAINA ZUMAIAN

Hogeitasei urte beteko ditu Don Bonik Zumaiatik kanpo. Baina ez du bere jaioterria ahaztuko eta euskaltzain hautatu dutenean hemen nahi izango du bere sarrera ospatu.

Mende honen hasierako euskal kulturaren berbizkundeak Zumaian ere eman ditu bere fruituak. Musika alorrean aipatu beharko da Antonio Trueba, 1855an Zumaian jaioa, Etxegaraitarrekin harremanak izan zituena: 1881 "Iziarko Ama" zerizkion ereslanak Karmeloren hitzak daramazki. Truebaren ikasleak, beste batzu artean, Jose Maria Beobide Goiburu, Zumaian 1882an jaioa, eta Jose Maria Olaizola Azkue, berton 1883an jaioa. Musikoa baino bederatzi urtegazteagoa izan zen irudiegile Julio, Zumaian 1891an jaioa. Margolaritza eta irudigintzan aipatu beharko da Zumaian Zuloagak zeuzkan etxe eta museoa.

1905ean agertu zen Zumaian, Parrokiko organulari hautatua, Luis Urteaga. Baina Txomin Agirre olerkari eta nobelaria eta Urteaga musikua, erdi batera doaz Zumaiatik: bat zerura 1920ko Urtarrilaren 14ean, eta bestea Donostiako San Bizente Parrokiara 1919an. Bien hutsunea betetako Jose Maria Olaizola, herriko semea, dator Oñatitik. 1921ko Abenduan, Karmeldarren Ikastetxeko 50. urteburua ospatzeko Domingo Agirreri eskaintzen diote zumaiarrak omenaldi bat, Azkuek, Karmelo Etxegaraik eta Olaizolak parte hartuz, hau bere koruaren zuzendari.

1922an Eusko Ikaskuntzak Bonifazio Etxegarai bere barnean onartuko du, Deretxo sailean.

Domingo Agirreren Euskaltzaindiko tokia betetzeko Seber Altube Lertxundi euskaltzain hautatua da. Bergarako Luis Eleizalde ere mundu honetatik dijoakigu 1923ko Uztailaren 24ean, eta Hazileko 22an, bere hutsunea betetzeko, Karmelo Etxegarai hautatzen dute beste euskaltzainek. Lau hilabete hil orduko, 1925ko Ekainaren 25ean egiten du Karmelok bere Euskaltzaindian sarrera. Hona hemen, Altube eta Etxegarai, Gernikan hauzotutako giputz biak, Euskaltzaindian onartuak. Baina Altubek 1963an hil arte iraungo du; Karmeloren hutsunea, ostera, nahi baino lehen gertatuko da, Hazilaren 4ean hilko da Gernikan eta.

1926ko Urtarrilaren 29an egiten du Euskaltzaindiak bere hileroko batzarrea Donostian. Azkue, Kanpion, Urkijo, Lande-

rretxe, Olabide, Intzagarai, Intza eta Lakonbe euskaltzainak, eta Muxika eta Garitaonandia euskaltzain ordezkoak batzen dira. Hona hemen zer dion agiriak:

Donostia'n, Aldundi-Jauregian, 1926'ko Ilbeltza'ren 29'an.

Batzar ontara aurreko agirian aipatzen diran euskaltzain berak datoz eta baita ere ordekoak.

I.—Etxegarai Karmelo euskaltzain zanaren utsa bete bear litzake, araudiak agintzen duanez. Igaro dira iragarri-aroaren bi ilabeteak ta Euskaltzaindiak, bitarte ortan, ez du iñoren eskabiderik artu.

Orain ordea Azkue jaunak, Urkijo ta Landerretxe laguntzaille dituela, idazki motx baten bitartez, BONIFACIO ETXEGARAI dakar, bere anai zanaren orderako.

Olabide euskaltzain jaunak, ara zer dion Euskaltzaindiari. «*En las condiciones de falta de libertad con que se procede a la elección, el que suscribe juzga que no puede contribuir a ella, prescindiendo de los méritos y simpatías que para el mismo tengan los que sean votados.-Raimundo Olabide, S. J.*»

Idazki auxe dala-ta naiko ta luze autuan egon ondoren, Euskaltzaindiak erabaki du, autarkitara jotzea, Azkue, Urkijo ta Landerretxe'k dakarten euskaltzain-gaya, bein Euskaltzaindi-mayean azaldu dan ezkero.

Autarkitara jo da ta ara nola datorren:

Bonifacio Etxegarai-6
Utsean -1

Olabide jaunak eztu autarkirik bota izan nai.

Heldu zen azkenean sarrera egiteko garaia. Zumaiako Udaletxean egin zen ospakizuna 1926.eko Urrilaren 29 an. Elias Arrospe Alkateak ireki zuen jaia, eta hala zion:

Zumaitarak: Ondo ezagutzen dezute izkeltzain berria: Boni itz erdiz, batzuek, eta Bonipaxio besteak deitzen diogu laztantsuz.

. . . . . .

Zumaiarak. «Laudemus viros gloriosos»...

Izki guren oek eskatzen diguten bezela, beste aldi batean Franziska Etxezareta, gutar emakume oroigari ura, eta Txomiñ Agire erdi baño geyago zumaitar zan euskaltzale bikaiñ ta idazle garbal ura goratu giñuzen bezela gaur Etxegarai'tar Bonifazio gure uritar jakintsu au aipatzen degu; eta bere izena Etxabe, Olazabal, Goiguru, Sasiola, Azpiazu eta beste ilezin izenakin gaurtik alkartzen degu.

Ta uriko seme gailenduak goratzean gure uritxoa goratzen degu; GORA BADA IZKELTZAIN BERI, GURE ETXEGARAI'TAR BONIFAZIO JAUNA.

Euskeran azaltzen den Euskaltzaindiaren agiriak hola dio ospakizun honi buruz:

Zumaya'ko Udaletxean, 1926'ko Urila'ren 29'an.

Zumaya'ko Udaletxean, Euskaltzaindiak jai ospetsu bat izan du. Bertako Udalak Euskalzaindiari atariyan agur egin diyo ta onek ere, berez erantzun. Agurren ondoren, Udaletxeko gela - nagusiyan, Azkue maipuru jari da, aldamenez izanik bertako Alkate jauna, Elizako apaiz-laguntzaile edo koajutore bat, apaizburua eritik urun dalako ta Eusko-Ikaskuntzako zuzendari Julian Elortza jauna.

Bonifazio Etxegarai euskaltzain autuaren sarera da ta berau zumayara izanik, eri guziyak onetsi nai luke ta egiyaz eritar geyenak jai ontan olde-oldez daude. Gizozte aundiyak bete beterik dauka gela.

Or daude Azkue ezik, euskaltzain jaun abek: Urkijo,

Landeŕetxe, Eguskitza, Olabide, Intza, Intzagarai, Lakonbe ta Etxegarai autua, urgazletatik Belaustegigoitia ta Zinkunegi.

Otoitzez asi da batzaŕaldi ageri auxe.

I.—Eŕiko eresbatzak, berebiziko ederki, euskal-eresi bat abestu du.

II.—Bonifazio Etxegarai jaunak egin du bere saŕerako itzaldi eder ta ondo moldatua. *Basetxe izenak* auxe da itzaldiyaren gaya ta eŕuz ekaŕi dizkigu, zati zatiz ilbanduak ta zeazbide askoz adieraziyak. Itzaldiya bukatu duenian txalo asko egin zaizkiyo, batez ere, Euskaltzainburuak ezautailua lepotik bera ipiñi diyonean.

III.—Eresbatzak beste euskal-eresi bat abestu du.

IV.—Intzagarai euskaltzain jaunak itzaldi eder batez erantzun diyo Etxegarai jaunari.

V.—Beste abesti bat.

VI.—Euskaltzainburuak itzaldi motx bañan mamitsuz amaibidea eman diyo batzaŕaldi oni ta ondoren gelan gaudenok, zutik jaŕi-tä, *Gernikako* abestu degu.

Eŕi guziyak danboliñaz euskalzañai lagun egin digute geon ostaturarte. Eskeŕak Zumaya'ko eŕi euskaldunari, batez ere bere Udalari.

Honaino agiri ofiziala. Azpimarkatzekoak dira: Olabidek bederatzi hilabete lehenago ostopoak jarri bazituan Don Boniren aurka, txalo jotzaile artean batu zela Zumaian euskaltzain lagun berriren sarreran. Eta musika aldetik, batzarraldia eresiz apaindua izan zela; baina Jose Maria Olaizola Eresbatzaren zuzendari izan zela gogoratuz, zumaitarrei eskatuko nizueke otoi bat hil zorial dagoen zumaitar ospetsu honen alde.

Don Bonik Euskaltzaindian hainbat lan agertu zituen. Laburki aipatzera noakizue agirietan azaltzen direnak:

— 1926ko Hazilaren 25ean, Bilbon, Etxegarri Jaunak adierazi digu egin nahi lukela legegizon artean dabiltzen hi-

tzen hiztegitxo bat. Oraingoz ez dakar besterik: *belena* eta *karkaba* nolaz eta zertaz esaten diren.

– 1927.eko Otsailaren 25ean, Iruñean, Etxegarai Jaunak antxinako Nafarroako Fuerotik ateratako hitz euskaldunak bere lan batean dakarzki eta ederki agertu.

– 1927.eko Apirilaren 28an, Bilbon, Etxegarai Jaunak irakurri digu *Nombres vascos en los espacios intermedios entre casas*. Epaile artean eta hauzi arazoetan ibili litezken hitzak lan honek zerbait ere berritzen dizkigu.

– 1928.eko Urrilaren 26an, Donostian, Etxegarai Jaunak esan digu zertan den ta nora dijoan oraintsu sortu den "Federación de Acción Popular Vasca". Etxegarai berorek Euskaltzaindiaren ordetza bazkun berri hortan egin lezake.

– 1930.eko Otsailaren 28an, Donostian, Etxegarai Jaunak Jose Maria Lakarra jaunaren lan bat irakurri digu *XVI. gizaldiko toki izenak*.

– 1930.eko Abenduaren 22an, Donostian, Altsasun Euskararen alde egiteko ziren Jaietarako Euskaltzaindiaren ordezkari hautatua da Etxegarai Jauna.

– 1931.eko Otsailaren 27an, Donostian, Etxegarai Jaunak bere lan bat dakar: *"Ara" zer dan toponimian*. Eredutzat izen asko aipatu ditu.

– 1931.eko Apirilaren 29an, Iruinean (Errepublika deklaratuta hamabosta barru) Etxegarai Jaunak esan digu Madrilen axtian gertatu dena. Euskalerritik joanak ziren hainbeste Jaun euskal bazkuntz askoren izenean, gure izenean Etxegarai bera, Ministro Jaunari eskatzera: hemengo ikastoletan bertako irakasleak euskaraz erakutsi ditzatela irakasgai guztiak. Esan digu zein harrera ona egin zien Ministroak. (Nere aldetik gehitu behar det, orain 47 urte, mende erdi noski, azaldu ziren kezkak orain ere bizirik daudela eta ez dugula ezertxo ere aurreratu; orduan ere Ministroak diplomatikoak ziren eta orain bezala hitz onak eman, harrera beroak egin, baina ezer ebatsi ez).

– 1931ko Uztailaren 2an, Donostian, Etxegarai Jaunak esan digu Eusko Ikaskuntzak euskara azterketak egiten dituala, irakasle, ikasle eta azterketa eskatzen duten beste askorentzat. Epaileak Apraiz (Angel), Etxegarai bera eta Escalera

Maidagan Jaunak izan dira. Euskaltzaindiak begi onez ikusten du.

Eta larregi luzatu ez nadin, gai hau sarratzera noa, beste puntu bat ere adierazi nahi dut eta.

V. EUSKAL LEGELARIA

Don Boniren lehenengo gaiak erlejio giroko olerkiak izan ziren. Baina 1894an ikusi dugu euskal ohiturak eta lege zaharrak aztertzen hasi zela. Deretxo karrera amaitu zuenenan bazeukan oinarri eta sustrairik lege alorrean azterketak egiteko, eta orduan hasi zen gure Foruen berezitasunak eta legedi publiko eta pribatua estudiatzen. Hainbat eta hainbat idazlan argitaratu zituen gai honetaz bere bizi guztian eta laburpenez aipatu dezakeguna 1929an Espasa Enziklopediarako bereziki idatzi zuena da: hogei horrialdeetan ematen digu VASCONIA hitzaren muina; eta berak estudiatzen ditun lau zatietan adierazten digu legelari usmoa:

1. Origen del nombre Vasconia.
2. Historia.
3. Derecho.
4. Idioma.

Hona hemen Don Boniren lau arduretatik nagusienak gure kultura finkatzerakoan. "Euskadi" hitza zela eta eztabaida batzu sortu ziren bere eta Justo Garaten artean. Baina jakitun artean, argia egiteko diren eztabaida honek, laster gainditzen dira; eta Justo Garatek Eusko Ikaskuntzari Euskalerriko Historia idazteko Bonifazio Etxegarai proposatu zion. Hila zen Karmelo, gure historiaegile trebeena, eta Bonifazio zen gai honetan ere ikertzaile eta idazle artean egokiena.

1921an hasia zen Deretxo alorreko estudioak argitaratzen. Hauk dira, urtez urte, garrantzitsuenak:

1921 *El hogar, alma del Pueblo Vasco* (Hermes)
1922 *A propósito de la palabra "belena"* (EEA)
1923 *Moción sobre Derecho Vasco* (EID)
La vida civil y mercantil de los vascos a través de sus Instituciones (RIEV eta separata)

1924 *Costumbres del País. La ofrenda post-nupcial* (EEA)
1925 *Significación jurídica de algunos ritos funerarios del País Vasco* (RIEV eta separata)
Estudio jurídico de los contactos entre copropietarios, patrones, tripulantes y fogoneros (Arrantzako Batzarrean).
Nombres de Mojones (EEA)
1926 *Recogiendo una alusión* (Matriarkadoari buruz) (RIEV)
1927 *Algunas voces vascas en el Fuero General de Navarra* (Euskera)
1930 *Moción sobre el Apéndice Civil del Código Civil* (EID)
Nombres vascos de los espacios intermedios entre casas (Euskera)
1932 *Proyecto de creación de un Instituto de Derecho Vasco* (EID)
1933 *Al margen de unos textos de Gorosabel* (Yakintza)
Errores en la interpretación del Derecho Civil Vasco (Yakintza)
La vecindad. Relaciones que engendra en el País Vasco (RIEV)
1934 *Cuestionario de Derecho Popular Vasco* (Yakintza)
1935 *Aspectos jurídicos de la Zamacolada* (Yakintza)
1950 *Derecho Foral Privado* (RSBAP en 3. Monografia)
1951 *Los ritos funerarios en el Derecho Consuetudinario de Navarra* (49 horriko liburuxka)
1953 *Una posible supervivencia de una costumbre antigua* (BRSBAP)
1956 *Eficacia de la Carta Puebla de 13 de setiembre de 1256* (Tolosari Omenaldi Liburuan).

Lan hauen mamia ikusita esan dezakeguna da Madrilen barik hemen, bere herrian, estudio horrek osotzeko zehaztasunak lortu zituela, bere herrikidekin harremanetan eta ekandu herrikoiak ohartuaz. Horregatik ibili zen Don Boni gure geografian zehar izenak, hitz herrikoiak, esaera zaharrak, toponimoak etabar anotatzen, bereziki bertoko Deretxoari dagozkionak, Eusko Ikaskuntzak eman zion ardura beteaz. Eta bere lanak esku artean erabili beharko dituzte gure belaunaldiko euskal legelariak, Deretxoko Hiztegia osotzeko ari den Taldeak eta Deretxorako Euskal Akademia sortzeko asmoz dabiltzenak.

Bonifazio Etxegarai eta Kortaren bizitzaz lan hau amaitzeko esan behar dudana da 1956ko Gabon egunean, Durangon, bere arima zintzoa egan joan zela. Bere gorpua Gernikako Kanposantuan datza. Eta bere lanak, Euskadiren nortasuna mugatzekotan, hilezinak dira. Goratzarre hau amaituta, Don Boniren izpirituą gurekin beti izan dadila.

LOPEZ MENDIZABAL-DAR IXAKA-REN MENDEURRENA

Donostian, 1979, apirilak 27

Euskaltzainburuaren hitzak

Jaun-Andreak:

Bi urte doi-doi iragan dira Ixaka jaunak utzi gintuenetik, eta haren mendeurrena gainean dugu, 98 urteko hil baitzen.

Guztiok dakigu euskal letren patriarka genuela Ixaka jauna. Inprimeria eta argitalpen arazotan bere bizi guztian buru-belarri sartua. Odolean zekarren Ixaka jaunak horretarako grina. Gizaldiz-gizaldi ezagutu baitzuen bere etxean inprimeriaren bidez euskal kultura bultzatzeko arrangura.

XVIII. mendeko erdi aldera Francisco de la Lama jaunak inprenta bat jartzen du Tolosan. Jaun hau uste dut bizkaitarra zela jatorriz bederen. Gure Ixaka-ren arbaso edo biraitona. Haren etxean hainbat euskal liburu ikusten ditugu argitaratuak: Añibarrorenak, Kardaberazenak, eta beste asko.

Zarauzko Frantziskotar Mixiolarien artean bazen garai hartan fraide bat, Agustín Ventura de la Lama, segur-asko inprimatzaile honen anaia. Komentuko kronikak dioenez (1), fraide hau fruta arbolak eta belar osasungarriak zaintzen oso trebea zen, eta belar horiek gero gaisoen artean partitzen zituen.

Horren bidez, nik uste, izango zuen sarrera Aita Añibarrok Tolosako inprimatzailearengana.

Pixka bat geroago, Aita Juan Mateo de Zabalak Lécluse Frantziako jakintsuarekin har-emanak izango ditu. Eta har-

---

1) Ikus Villasante (Luis), "El Colegio de Misioneros Franciscanos de Zarauz" *Scriptorium Victoriense* (1974), 316.

eman horiek gehienetan Tolosako Mendizabal inprimatzailearen bidez izaten ziren (2).

Gero, berriz, XIX. mendeko azken aldean guztiok dakigu zer-nolako hazkundea izan zuten euskal argitalpenek Tolosako Eusebio Lopez-i eskerrak. Deitura aldatzen da, baina etxe bera zen: La Lama, Mendizabal, Lopez, Lopez-Mendizabal.

Gure Ixakak, bada, etxean gizaldiz-gizaldi ezagutu zuen euskal kulturaren aldeko grina.

Unibertsitate mailako estudioak egina zen gure Ixaka. Euskaltzaindiko ere bagenuen, noski. Urgazle, Euskaltzaindiaren sorrera egunetik, eta Ohorezko 1957. urtez geroztik.

Gerrakoan Argentinara joan behar izan zuen, eta han ere, guztiok dakigunez, Editorial Ekin delakoa sortu zuen.

Ez noa Ixaka jaunaren lan guztien aipamena egitera. Jon Bilbao-ren Eusko Bibliographia eskutan hartu besterik ez duzue zenbat diren eta zein alor desberdinetakoak diren ikusteko; baina denak euskararen ingurukoak.

Adinean aurrera goazenok badakigu garai batean zenbat erabiltzen zen gure Ixakaren *Manual de Conversación Castellano-Euskera*, eta bai Aita Bera Kaputxinoarekin batean egin zuen *Diccionario Castellano-Euskera, Euskel-Erdel Iztegia* ere. Liburu hauek makina bat aldiz bir-argitaratuak izan dira!

Baina Ixaka jauna gure begiko eta guztiz gogoangarria da beste arrazoi batengatik ere: euskal eskolaren aitzindari izan zelako, alegia. Ospe handiagoko lanak egin zitzakeelarik, haur euskaldunarentzat irakurgai eta eskola liburuak egitera lotu zen. Eta horretan bai begi ernea izan zuela! Ongi baitzekian euskarak iraungo baldin badu, landare berriak zaindu behar direla, euskal eskolaren oinarriak jarri behar direla.

Aurten Haurraren Nazioarteko urtea ospatzen dugu. Eta, hain zuzen, Ixaka-ren mendeurrena alde batetik, eta haur euskaldunaren urtea bestetik, horra bi gertakari egutegiak elkarturik ekarri dizkigunak; eta zinez batak bestearekin lotura dutela aitortu behar. Guk ere halaxe, elkartuak, alegia, ospatu nahi ditugu.

---

2) Ruiz de Larrinaga (Juan), *El Vascófilo Franciscano R. P. Fr. Juan Mateo de Zabala*; San Sebastián, 1927.

ISAAC LOPEZ MENDIZABAL EUSKALTZAIN OHOREZKOA

Donostia, 1979-IV-27

Juan San Martin

Jaun-andre adiskideok:

Hil honen 11.ean bete dira ehun urte Ixaka Lopez-Mendizabal jauna Tolosan jaio zela. Liburuen giroan sortu ere, Mendizabal inprimatzaileen familian.

Juan Ignazio Mendizabal izan zen inprimategiari hasiera eman ziona eta argitaratu zuen lehen liburua Agustin Kardaberazen *Esku liburua* izan zen, 1826. urtean, gero ere han bertan zenbait aldiz birargitaratuko zena. Juan Ignazioren alargunak bide beretik jarraitu zuen 1840tik 1877ra arte eta Ixakaren aita zen Eusebio López-ek 1878tik 1900era arte. Eusebio, Mendizabal batekin ezkondua zen eta emendik sortu zen López-Mendizabal deitura elkartua.

A. Villasantegandik gero jakin dudanez, La Lama-tarren inprimategiaren jarraipenez sortu omen zen Mendizabaltarrena, elkarren ahaidekoak zirenez, eta hau hola delarik, XVIII. mendetik datorkigu, 1782. urtetik bereziki, J. A. Mosquera eta Fr. C. Zubizarretaren *Giopón Manual de Tipografía Vasco-Navarra* (Iruñea, 1974) delakoaren 56. orrialdean ikus daitekenez.

Euskal Literturak eta eliz liburuak harrera ona zuten etxe honetan eta joera horrek markatuko zuen haur sortu berria. Lehen ikastaroak Tolosan bertan bete zituen eta handik Deustuko Unibertsitatera joan zen ikasketa nagusiak burutzera. 1897an Salamanca-n esaminatu zen. Ikasle azkarra omen zen eta Filosofia eta Letrak bukatu ondorean Madrid-eko Unibertsitatera jo zuen Legeak ikastera, eta 1900. urtean amaitu zuen karrera hau. Madrid-eko Uniber-

tsitatean hartu zituen doktor tituluak: 1899an Filosofia eta Letretakoa eta 1903an Deretxokoa. Bere tesiak hauek izan ziren: "Cantabria. La guerra cantábrica y el País Vasco en tiempo de Augusto" (80 orrialdeko lana, urte berean argitaratua) eta "Fueros de Guipúzcoa" (argitara gabea).

Nik ez dut izan Kantabriako guduaren tesi hura irakurtzeko aukerarik, baina, Ixakak, hil arteraino eutsi zion hemen erromatarrik sartu ez zen usteari. Hobeto esan, Euskal-Herria Erromako inperioaren menpekoegon ez zen usteari.

Nik ere ez dut uste menpeko bihurtu zenik, baina horren beharrik ere ez zuten izango. Hemengo artzai, arrantzale eta laborari tipiegandik ez bai zuten ezeren beharrik, meatokiena izan ezik. Meatokiak ordea, hemengo jendeak ez zituen aprobetxatzen, oso guti baizik.

XVI-XVII. mendeetako idazleak idatzi zuten euskaldunek erromatarrekin Ernio mendin izan zuten gudua, Batxiller Zaldibia (1560) eta Baltasar Etxaberen (1607) lanak lekuko. Baina historiagile serioak ez zioten jaramonik egin. Gure Iztuetak ordea, puztu zuen arazo hau, eta Juan Venancio Arakistainek kapitulu oso bat eskaini zion bere kondaira liburuan eta geroztik ez da izan euskaldunon buruetatik kentzerik. Azkenean Txirrita berak ere parte hartu zuen eta bertso borobillak bete zituen. Adolf Schulten-ek gai hori aski sakon aztertu zuen eta Santander eta Burgos alderago jarri zuen Kantabriako gudua, *Los cántabros y astures y su guerra con Roma* deritzan lanean.

Bestalde, argi dagoenez, aspalditik ezagutzen ziren Nafarroan eta Araban erromatarrek eraikitako hiriak. Nafarroako hiriburua, Iruña eta Trespuentes-ko hiri hondarra ere Iruña da. Zalantzarik gabe, sustrai ber-bera du Irunek ere. Gipuzkoako hiri honen elizondoan erromatarren bizi lekuak aurkitu bai dira eta bertako Santalen ermitan hilobiak. Orain argiago ikusten dugu erromatarren Oiarso-k Bidasoa eta Oihartzunekin duen kidetasuna, inguru hoien izentzat, Arditurriko meatokiak Irunen zen itsas-kaiari loturik.

Agirietan oinarritzen ez diren teoriak, maiz, horrela eroritzen dira. Ixakaren garaiko uste haiek baztertu ziren eta Schulten-en iker lanen ondorean hor dugu Ignazio Barandiaranen arkeologi lana, *Guipúzcoa en la Edad Antigua. Proto-*

historia y romanización. (Donostian, 1973), gai honen azken frututzat.

Baina, goazen zuzenago Ixaka Lopez-Mendizabal euskaltzale eta euskalari suharrak gure kulturaren alde eman zituen lan ugariak ikustera.

Ixakak egin zituen ikasketa mailak gogoan hartzera, zientzia ikerketarako gertaturik zegoala esango genuke eta hemen eman behar zituela bere lanerako ahaleginak. Baina, bai zera, iker lanetan oso guti ahalegindu zen gizona. Bere euskaltzaletasun garrak beste bide batetik eraman zuen. Hizkuntzaren alorra gorririk zegoela ohartu zen eta kultur biderako behar zituen oinarrizko lan xeheri heldu zion. Honek ez du esan nahi ikerketarik egin etzuenik, baizik gehien gehiena, luberriko alorrak jorratzeari ekin ziola, itxuraz lanik arruntenak eskatzen zituzten sailetan aritu zela.

Liburu askoren egilea izatez aparte, euskal kulturako zein aldikaritan idatzi zuen baino errazgo zaigu non ez zuen idatyi jakitea. Gure mende hontan oso aldizkari guti izanen bai dira, Ixakak, euskaraz edo erdaraz, bere zenbait lan argitara gabeak. Adibidez, ikusi besteriz ez dago, Jon Bilbaoren *Eusko-Bibliographia*-ren V. tomoko 215-216 orrialdeak. Bertatik ohartuko gara Ixakaren etengabeko langintzaz.

Euskaraz, haurren heziketarako prestatu zituen liburuak honako hauek dira: *Aita Santu Amargarren Pio'ren dotriña laburra* (1907), *Zenbakiztia* edo Arimetika (1913), *Umearen laguna* (1920) eta irakurgai hontatik atera zuen irakurtzen ikasteko *Martin Txilibitu* (1931) deritzan liburutxoa, *Xabiertxo* (1925), *Nekazaritza* (1929), *Seaska-Abestia* (1932) eta *Erleak, beren bizitza eta oiturak* (1933). Liburu guziok Tolosako bere inprimategian argitaratu zituen eta geroztik, gehienok, zenbait aldiz argitaratuak izan dira.

Baita ere, Tolosako inprimategian atera zituen, euskara ikasteko metodo honek: *Manual de conversación castellano-euskera* (1908) eta *¿Quiere usted hablar en euskera?* (1932). Gainera, bigarren hau, M. Mendiskoren laguntzaz frantzezera itzulia ere argitaratu zuen, *Boulez-vous parler le basque?* (Donibane-Lohizun, 1938). Bestalde, Bilbon, *El Euskera. El idioma vasco* (1915) hitzaldia eta Tolosako bere etxean *Diccionario vasco-castellano, castellano-vasco* (1916), geroztik

hainbeste aldiz argitaratuko zena eta gure egunotan, zerbait gehituta, oraindik salgai aurkituko duguna.

Mendearen lehen partetik 1936. urtera arte arduratu zen Lopez-Mendizabaldarren inprimategiaren zuzendari eta euskarazko liburu asko argitaratu zituen; baina, gaur egun ikus daitakenez, bere bizitzako lanik probetxugarriena, euskararentzat praktikoena, hezkuntzarako testugintzan eman zuen. Lan handiagoetarako ikasia bazen ere, euskaltzale kementsua zenez, beste inor baino lehen ohartu zen irakaskintzarako liburuen beharrez, eta lan apal eta zehe hauei gogoz heldu zion. Honegatik, lehen aldiko ikastolak, gerra aurrekoak ez ezik, baita gerra ostekoak ere, hasierako materiala izan zuten bere emaitza horri esker. Baina, gai hontaz, nik baino argitasun zehatzagoak emango ditu gerraondoko ikastola mugimenduan hainbeste lan egin duen Karmele Esnal andereño adiskideak, ondorean agertuko digun hitzaldian.

Anaiarteko gudu madarikatu harek bere inprimategia deseginik eta bere burua herbesteraturik ikusi zenean ere, kementsu jarraitu zuen euskal ikerketan eta euskararen alderako lanetan. Hainbeste aldizkaritan argitaratu zituen lanak eta Buenos Aires-en ideki zuen euskara erakusteko akademia ditugu lekuko. Baina, ez hori bakarrik, ez; liburugintzari ere jarraitu zion. Eta deserritua izan zen garaiko lanak ditugu honako hauek: *Otoitzak* (Buenos Aires, 1942), *La Lengua Vasca* (Buenos Aires, 1943). *Breve historia del País Vasco* (Buenos Aires, 1945) *El País Vasco. Descripción general* (Buenos Aires, 1946). Baita ere hitzaldien separatak, Argentinako hiri nagusi hartan eman zituen hitzaldienak.

Hoietan badira *El idioma vasco contemporáneo de la época glacial* (1953) eta *El idioma vasco, testigo excepcional en la Historia* (1953) bezalako lanak, maitasunaren sentimentuz eginak baina gaur egun zientzaiaren aldetik onartu ezinak. Zeren hizkuntza, mintzaira zalutzat ulertu nahi baldin badugu, ezin gaitezke joan Eneolitos garaitik harat, eta, ordukoa gaur konprenitu ahal izatea ere, ezinezkoa zaigu. Agiririk aurkeztu ezin den garai hoiek hobe ditugu laga.

Aipatu ditugun lan guzi hoien ondotik, eta urte askotako langintza burutuz, 1958an argitaratu zuen Buenos Aires-en

Etimologías de apellidos vascos lan mardula, 25.000 deituraren esan nahiak ikertzen dituena, bere zazpiehun eta larogeta hamalau orrialdeetan.

Euskaltzaindia sortzean, 1919an, laguntzaile izendatua izan zen. Urteak aurrera, urgazle edo laguntzaile izateko baino meritu gehiago zuen Ixakak, baina Azkue berak jartzen omen zituen oztopoak. Azkuen *Diccionario vasco-español-francés* (Bilbao-París, 1905-1906) deritzan hiztegi handia argitaratzean, bere hitzaurrean, geroago esku-hiztegi bat argitaratzearen eskaintza egin zuen eta 1916an Ixakak argitaratu zuena plajiotzat hartu omen zuen.

Bi hiztegiok ikusten dituena laster ohartuko da zein desberdinak diren, batez ere kriterio desberdinez burutuak. Azkuek eskaintzen zuena, bere lan handiaren laburpena bai zen, eta Ixakak handik ezer hartu bazuen ere, hiztegi guzietan ohi den bezala, hizberri edo neologismoak ere pilaka sartu zituen eta hau ez zen Azkueren aburuzkoa. Egia da, garaiko giroak bultzaturik, bere hiztegia egiterakoan neologismo uskorekin baliatu zela, baina hala ere, orduko gehienak baino neurri gehiagorekin ibili zen. Honegatik zion Julio Urkixok *Manual de conversación*... aurkeztean: "La obra está admirablemente presentada. Uno de los principales méritos del señor López-Mendizabal es el de haber sabido sustrasr a las exageraciones de léxico de algunos de sus correligionarios, que tanto afean no pocas publicaciones modernas" (RIEV, t. II, 1908, p. 675). Dena dela, Azkuek setati jarraitu zuen hil arteraino.

Nikolás Ormaetxea, gure "Orixe", euskaltzain oso izendatzea pentsatu zenean. Honek erantzun zuen, bera baino lehenago zela Ixaka López-Mendizabal, langintzaren aldetik meritu handiagoak zituenez, eta honentzat uzten zuela berari eskaintzen zitzaion aulkia. Eta, hara hor gerraondoko euskaltzainak kinka larrian nola aurkitu ziren. Orixe ere buru gogorra izaki eta amor ematerik etzuen. Eta Orixeri esker, jarri zuen hauziagatik, Euskaltzaindikoak erabagiren batera behartu zituen. Eta, 1957an, erabagi hau honela izan zen: Ixaka Lopez-Mendizabal euskaltzain ohorezko izendatzea eta Orixe bera euskaltzain oso.

Baina egiaren argitara gauzak azaldu beharrik baldin badugu, gaur egungo euskaldunok, ondo dakigu gauzak alde-

Isaac Lopez-Mendizabal.

rantsiz direla eta ohorea Euskaltzaindiarentzat izan zela Ixaka Lopez-Mendizabal bezalako gizon bat bere erakundeko izateaz.

Gaur edonor egongo gara Norbert Tauer-ek 1954an Ixakaren alde egin zuen aitorpenarekin: "Neretzat zorion aundia da eukaldun argi onekin ogei urteen igarotzean alkaridaztean egotea eta idazki ederren bidez ezagutu ditut bere biotz ona, adimen zorrotza eta Euskadi ta euskerarenganako maitasun sakona" (Bol. del Instituto Americano de Estudios Vascos, V, 1954, p. 38).

Denbora joanez, gure barneko tiki-miki hoiek txikikeriak iduritzen zaizkigu. Inoiz gizon handien artean ere izaten dira holako txikikeriak eta era hortakoa izan zen gure Azkuerena ere. Gaur ordea, setakeria hoien gainetik ikusten dugu bi gizon hoien handitasuna, bi gizon hoiek gure mende honen hasieratik egin zuten oinarrizko lana. Eta hoiek jarritako oinarriei esker, gaur egun loratzen ari zaigu. Ereinaroak uztaroa lortzen bai du.

1957an euskaltzain ohorezko izendatu zenetik, Azkuek jarritako beto edo eragozpideak gainditu ondorean, Ixaka zaharturik zegoen Euskaltzaindiari bere lanak eskaini ahal izateko. Handik lasterrera etorri zen sorterrira, itsuturik,

bere asken egunak hemen igaro nahirik, Iparragirrek bezala, bere hezurrak hemen uzteko.

Gutako askok bisitatu genuen Donostian Santxo "el Sabio" kaleko bizilekuan. Nik neuk orduan ezagutu nuen personalki. Lan eder eta jakingarri bat ere eskaini zigun: "Etimología de Xabier" zeritzana eta EUSKERA aldizkarian argitaratu genuen (EUSKERA, XIII, 1968, 73-82 orr.) eta Euskaltzaindiaren urre-eztaiak ospatuz 1968ko abenduaren 4an Iruñako Foru Diputazioan egin genuen batzar hartan mahaiburukide genuelarik "Herbesteetako euskaltzale eta euskalariak oroituz" zeritzan hitzaldi polit bat eskaini zigun (argitara gabea).

Egia esan, jaun beneragarria zen Ixaka Lopez-Mendizabalekin, Euskaltzaindia ez ezik, Euskal-Herri guzia dugu zordun.

1977ko otsailaren 27 itzali zitzaigun Tolosan bertan, baina bere gogoa ez zaigu itzali, xere lana hor dugu lekuko. Eta, arestian esan dudan bezala, Euskaltzaindiak bere ohorezko izendatu bazuen ere, ohorea Euskaltzaindiarentzat beretzat zen holako gizon bat bertako izatearekin.

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

BERGARAKO ADIERAZPENEAN AGINDUTAKOA BETETZEAZ

Jaunak:

Bergarako Biltzarraren ondorio bezala, Euskaltzaindiak agertu zuen Adierazpenean hunako puntu hauetaz hainbat lasterren erabakiak edo behintzat argitasun zehatzagoak emango direla agintzen da: 1) H letrari buruz, 2) Bustiduren grafiaz, 3) Deklinabideaz, 4) Erakusleen formaz.

Hortaz gainera, Ministerio de Educación y Ciencia eta Ministère de l'Education direlakoei eskabide bat zuzentzeko erabakia hartu zen.

Orduan eginkizun gelditu ziren puntu hauek ea, bada, orai nola burutzen ditugun.

Ene ustez, goian aipatutako lau puntuei buruz lau batzordetxo behar dira izendatu, puntu bakoitzerako bana, bakoitzak presta dezan proposamen bat gero Euskaltzaindiak bere erabakirako oinarri bezala hartuko duena. Eta gauzak astiroegi edo geldiroegi joan ez daitezen, batzorde bakoitza ez da komeni ugariegia izatea: bi edo hiru pertsona aski dira, eta pertsona berbera ez dadila bi edo hiru batzordetan egon.

Beraz, batzorde hauek beharko genituzke izendatu orai: 1) H letrari buruzkoa, 2) Bustidurei buruzkoa, 3) Deklinabideari buruzkoa, 4) Erakusleei buruzkoa.

Eta batzorde bakoitzak ikus dezala zer proposamen konkretu pasa diezaiokeen Euskaltzaindiari. Beti Bergarako Adierazpenaren hildotik, noski.

Ministerioei —Madrilgoari eta Parisekoari— egin behar

zaien eskabidea ere gaur pentsatu behar da nola eta zer eratara egin.

H letrari buruzko grafia –hori ere esan zen Bergarako Biltzarrean– behar da definitiboki finkatu, eta hortarako beharrezko ikusten da Euskaltzaindiak argi eta garbi esatea zein diren Hdun hitzak. Hortarako, noski, gertatu behar da Hdun hitzen katalogoa, ahal den osoena. Iparraldeko euskaltzainek Bergararako eratu duten txostena eta Ibon Sarasolaren Hiztegi Arauemaileak H letrari eskeintzen dion atala, bibiak kontutan hartuz, uste dut errazki egin daitekeela lan hau. Batzordetxo hunek egingo baldin balu langintza hau, a zer mesedea euskara batuaren ortografia finkatu eta bateratzeko! Gero Euskaltzaindiak balio ofiziala emango lioke Hatxetegi huni.

Bergarako Adierazpeneko 5. puntuak ere agian azalpen luzexeago bat eskatzen du. Puntu hau, dakizutenez, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta lantzearen alde agertzen da, baina ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz. Azpiegitura hori zer den beharbada pixka bat azaldu beharko litzateke.

Donostian, 1978, irailak 29

EUSKALTZAINDIKO BATZORDEEN BIR-ANTOLAKETA

Bilbon, 1978, abenduak 29

Euskaltzaindiko sail, atal eta batzorde guztien organigrama *Euskera*-n agertu zen, 1971. urtean, 160. orrialdean. Beraz, denbora asko pasatu da bitartean.

Geroztik, beste batzorde berri batzuk ere jarri dira, organigrama hartan ageri ez direnak.

Batzordeetako jaun batzuk hilak dira, beste batzuek ez dute lanik egin. Zenbait batzorde zaharkituak dira. Beste zenbaitek beren zeregina bete zuten eta gaur hoien beharrik ez dago. Beste batzuk ez dira sekulan martxan jarri, paperean egonarren. Etab.

Beraz, mundu guzti hau berriro aztertu, gaurkotu eta antolatu beharra dago.

Lan luzea da eta arduraz egitekoa.

Gaur hasiera emango diogu. Hasiera bakarrik. Dena burutzeko eta erabakitzeko asmorik gabe.

Idazkari ordearekin batzordeen egoerari eta gaurko premiei gain-begiratu bat bota ondoren, txosten hau prestatu dut gaurko batzarrerako. Hemen denon artean eztabaidatuko ditugu gauzaok. Erabakia, nahi baduzue, beste baterako utziz.

Euskaltzaindiko sail eta batzorde guztien partiketa nagusi bat era huntara egin daiteke: 1) Egiturari dagozkion batzordeak 2) Gaien batzordeak.

Egiturazkoak, izenak berak dioenez, Euskaltzaindiaren beraren azpiegituraz zer-ikusi dutenak dira. Besteak, berriz

—Gaien batzordeak—, hizkuntza alorreko gai edo sail berezi batzuk aztertzeko, bultzatzeko edo iristeko eginak.

Gaien batzordeen artean beste partiketa bat egin daiteke oraino: A) Iraunkorrak B) Suntsikorrak.

Iraunkorrak dira beren izatez betiko edo behintzat luzarorako sortuak direnak. Suntsikorrak, berriz, epe laburrerako eta momentuko xede konkretu bat lortzeko eginak direnak. Agi denez, hauek xede hori lortuz gero deseginak gelditzen dira.

Has gaitezen, bada, beste gabe, Egiturazko batzordeekin.

Atal huntan hauk sartuko nituzke: 1) Euskaltzaindiaren Ekonomi-Batzordea 2) Euskaltzaindiaren Liburutegiaren Batzordea, eta 3) Euskaltzaindiaren bost Ordezkaritzak, hots, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea eta Baiona.

1) Euskaltzaindiaren Ekonomi-Batzordea. Denok ikusten dugu Batzorde hunen beharra eta garrantzia, batez ere Bai Euskarari kanpaina egin denetik. Herriak eman digun dirua beharko da ongi kontrolatu eta administratu. Bestela, herriaren aurrean fidagarritasun guztia galduko genuke. Gainera, hartutako diruen kontu eman behar zaio herriari eta baita diru hori zertan eralgiko den esan ere, behintzat handizka. Euskal kulturaren alorrean zenbait obra, laguntza horri esker egin direla edo egiteko bidean direla, ikus dezala, alegia. Esate baterako, Euskararen Lekukoen Bilduma, Euskaltzaindiaren Liburutegi eta Artxiboa, etab. - Batzorde huntako buru, Juan San Martin izango da, Diruzain izendatu dugunez gero. Eta berari lan huntan laguntzeko, batzordekide bezala, Juan Jose Zearreta eta euskaltzain oso bat, ahal delarik, (Eusebio Erkiaga?, E. Knörr?). Hoietaz gainera, Kontseilari bezala, Bai Euskarari kanpaina eratu zuten jaunetarik batzuk gehitzen dira: Elorriaga, Castañares eta Aurmaneko bat (berek proposatuko dutena).

2) Euskaltzaindiko Liburutegiaren Batzordea. Liburutegia eta Artxiboa behar bezala egokitzea eta publikoaren kontsultarako idekirik edukitzea asmo zahar bat zen, orai arte diru eskasiagatik egin ahal izan ez dena. Orai, ikusten dugunez eta zorionean, amets hau egia bihurtzeko bidean dago.

Batzorde hunen buru Alfontso Irigoyen izango da, Liburuzain denez gero. Batzordekideak: Jose Antonio Arana Martija eta Nikolas Alzola. Euskaltzaindiko liburutegia egokitzea, behar diren erosketak egitea etab., hoien kontu gelditzen da, beraz. Halako xahupen eskerga edo neurriz kanpoko bat egin nahi denean, ordea, Zuzendaritzakin kontatu behar dute.

3) Euskaltzaindiaren Ordezkaritzak. Ordezkaritza guztien buru Euskaltzaindiaren Idazkariak izan behar du, Arautegiak berak dioenez (11. artikulua; ikus *Euskera* (1972), 202). Beraz, Jose Maria Satrustegi jaunak. Hunen lana da Ordezkaritza guztien arteko koordinaketa egitea edo zaintzea.

Gainerakoan, hiriburuetako Ordezkaritzak era huntara taxutuak gelditzen dira:

Bilboko Ordezkaritzaren buru eta idazkari, J. L. Lizundia.

Gasteizko Ordezkaritzaren buru: E. Knörr. Denboraz hartu beharko da Gasteizen gela bat bertan bulegoa ipintzeko, eta langileren bat ere bai, zenbait orduz bederen han egongo dena. Entzun dudanez, bada emakume bat, Itziar Rekalde, hortarako prest dagoena.

Iruñeko Ordezkaritzaren buru: J. M. Satrustegui. Iruñeko bulegoa jazten eta atontzen ari direla badakit. Han ere langileren bat beharko da, Satrustegiri bulego lanetan laguntzeko.

Baionako Ordezkaritzaren buru: Jean Haritschelhar jauna. Idazkaria: Charritton jauna.

Donostiako Ordezkaritza. Hemen dugu hutsune bat handia, eta aspaldidanik gabiltza nola hornitu ez dakigula. Donostia hain garrantzi handiko tokia izanik, Euskaltzaindiaren ordezkari bat bertan edo inguruan egotea beharbeharrezko da. Eta ez dugu. Askotan neri deitzen didate Arantzazuko puntatik hara joateko, baina ez da itxura. Euskaltzaindiaren ordezkari izango den euskaltzain oso bat Donostian edo inguruan behar dugu. Gipuzkoan euskaltzain oso berri bat izendatzeko garaia datorrenean, uste dut premia hau kontuan eduki beharko dela. Gainerakoan, idazkari edo sekretaria egoki bat badugu Donostian: Maria Pilar Lasarte.

Beharbada, eta euskaltzain oso bat ez dugun bitartean, Joseba Intxaustiri eska dakioke Ordezkaritzaren erantzukizun hau har dezan probisionalki. Ez dakit nahiko duen, ordea, bestelako lanetan ere buruz gain sartua baitago.

II
GAIEN BATZORDEAK

1) Euskeraren Lekukoena. Hau konfirmaturik gelditzen da. Beraz, buru L. Mitxelena. Idazkari: L. Villasante. Hoietaz gainera, beste jaun hauek osatzen dute batzordea: P. Lafitte, J. M. Satrustegi, A. Zavala, L. Akesolo, N. Alzola eta Jean Haritschelhar-ek.

2) Irakaslegoaren batzordea. Buru: A. Irigoyen. Idazkari: X. Mendiguren. Hoietaz gainera, beste hauek ere osatzen dute batzordea: E. Knörr, X. Kintana, J. A. Letamendia, P. Uribarren, I. Laspiur, Txillardegi, Charritton, J. L. Goikoetxea, J. M. Mujika eta A. Ozamiz.

3) Euskera aldizkariaren batzordea. Guti gora-behera, lehen bezala gelditzen da, aldaketa ttipi batzuekin. Beraz, batzorde hunetan, beren karguengatik, hunako jaun hauk sartzen dira: Euskaltzainburua, Buruordea eta Idazkaria. Hoietaz gainera L. Mitxelena, A. Irigoien, L. Akesolo, P. Lafitte eta J. Intxausti. Lan ejekutiboa argitalpenen arduradunak egingo du: R. Badiolak.

4) Bertsolarien batzordea. Lehengo berbera, izen batzuk aldatuz halere. Beraz, A. Zavala, Juan Mari Lekuona, A. Irigoien, Bordari, Itzaina, Izeta, Aranalde eta J. M. Iriondo. Emile Larre, Antton Aramburu, Abel Muniategi. Buru: Zavala. Idazkari: J. M. Iriondo.

5) Herri izendegiarena. Buru, L. Mitxelena. Idazkari, J. L. Lizundia. Hoietaz gainera, J. M. Satrustegi, E. Knörr eta J. L. Davant. Gainera, tokian tokiko kontseilariak hartuko dira E. Larre. Charritton.

BATZORDEEN BIR-ANTOLAKETA

(segida)

Donostian, 1979, martxoak 30

Euskaltzaindiko batzorde eta sail guztietan berriztatze eta gaurkotze bat egin beharra ikusten da. Joan den Abenduko batzarrean berriztatze lan honi hasiera eman zitzaion. Eta gaurko txostenak haren segida izan nahi du. Segur aski, gaur ere ez zaio buru emango lan honi. Dena dela, zati bat egiten baldin badugu, urrats bat gehiago izango da. Uste dut lan hau garrantzizkoa dela eta patxadaz egin beharrekoa. Dena bukatzen denean, organigrama bat aterako da eta bertan Euskaltzaindiko sail guztiak begi kolpe batean azalduko zaizkigu.

Gaien batzordeetan bost aztertu eta onartu ziren Bilboko batzar egunean –joan den Abenduko 29ko batzarrean, alegia–.

Beraz, hel diezaiogun orai seigarrenari:

6. *Oinarrizko euskararen batzordea.* Buru: Imanol Berriatua. Idazkari: Joan Jose Zearreta. Horietaz gainera honako beste hauekin da osatua batzorde hau: Txillardegi, X. Kintana, J. L. Goikoetxea.

7. *Alfabetatze-Euskalduntze batzordea.* Juan San Martin, Jagon-saileko buru denez gero, izendatzen da batzorde honen buru. Batzorde honek bi sail edo azpibatzorde ditu: batari deritza "Bulego har-emanen azpibatzordea", eta besteari "Gidaritza teknikoaren azpibatzordea" –testuen aztertzea etab. dagokio honi–. Bulego har-emanen azpibatzordea eskualdeka banatua egongo da, era honetara: Gipuzkoan J. San Martinek izango du ardura, Araban E. Knörr-ek, Nafarroan J. M. Satrustegik –edo berak proposatzen duen beste

batek—, Bizkaian J. L. Lizundiak, Iparraldean Charritton jaunak. Gidaritza teknikoaren azpibatzorderako nortzuk izendatu, nik ez dakit. Beharbada Jon Aurre jaunari beharko zaio iritzia eskatu. Dena dela, bi edo hiru jaun izanen dira.

8. *Administralgo hiztegiaren batzordea.* Gaur-egun batzorde honen premia garbi baino garbiago sumatzen da. Euskara administrazio hizkuntza bihurtuko baldin bada, jendeak behar du jakin administrazioan erabiltzen diren hainbeste izen euskaraz nola diren. Uzei-n badabiltza jaun batzuk Politika hiztegia egiten, eta jaun horiekin eta beste batzuekin egiten dugu batzorde hau. Bi atal ditu: Egileena eta Kontseilari edo kontsultoreena. a) Egileen atala. Buru: J. Haritschelhar jauna —herriko alkate baita—. Idazkari: J. L. Lizundia —herriko idazkari izan baita—, eta gero beste hauek: F. Mendizabal, X. Kintana, J. A. Arana-Martija. b) Kontseilari edo kontsultoreen atala: J. M. Lojendio, Jesus Oleaga, Patxi Zabaleta, Rica, Muniategi, Itzaina, Iztueta, elizaren aldetik E. Etxezarreta.

9. *Elebitasun lege projektorako batzordea.* Elebitasun lege edo dekreto hau oraindik ez da irten. Entzun dudanez, 5 borradore egin dira jadanik. Beraz, horretarako jarri zen batzordeak oraindik badu zeregin, eta dekretoa irten ondoan ere, segur aski, premiazko izanen da antzeko arazoetan bere iritzia eta laguntza emateko. Jaun hauek osatzen dute, bada, batzorde hau: J. M. Satrustegi, E. Knörr, Letamendia, Lizundia, Mendiguren, P. Uribarren; eta Nafarroako arazoetan kontsultore gisa, Kepa Larunbe.

BATZORDEEN BIR-ANTOLAKETA

(Bukaera)

Donostia, 1979, apirilak 27

Abendu eta Martxoko batzarreetan aritu ginen Euskaltzaindiko batzorde eta sail guztien gaurkotze lan honetan. Gaur ere horretan arituko gara, baina oraikoan lanari buru ematen diogularik.

Izan ere, azkeneko batzarrean bi batzorde bakarrik gelditu ziren guztiz erabaki gabe: 10 eta 11. batzordeak, hots, Herri jakintza batzordea eta Aditz batzordea.

10. *Herri jakintza batzordea.* Batzorde berri honen zeregina izango da herriko hizkerak, euskalki mintzatuak, herri literatura ahozkoa etab. jasotzea eta aztertzea. Batzorde buru, Antonio Zavala izendatzen da. Batzorde idazkari, J. M. Satrustegi. Hauez gainera honako jaunek osatuko dute batzorde hau: A. Irigoien, E. Larre, Aita Iratzeder, Aita J. Mokoroa, Paul Guilsou, G. Lpz. de Guereñu.

11. *Aditz batzordea.* Batzorde honek, denok dakigunez, lan ederra egin du. Oraindik ere zerbait egin dezakeelakoan, guti gora behera lehen bezala uzten dugu. Beraz: L. Mitxelena buru, P. Altuna idazkari. Hauez gainera honako jaun hauek osatzen dute Atal Eragilea: P. Lafitte, J. L. Davant, I. Berriatua. Kontseilarien atala, berriz, beste hauek: A. Irigoien, L. Akesolo, D. Intza, P. Iraizoz, X. Kintana, F. Mendizabal, I. Bastarrika, J. J. Txillardegi.

Eta honenbestez uste dut burutua gelditu dela Euskaltzaindiko batzorde eta sail guztien bir-antolatze lan hau.

Idazkari ordeak egingo du organigrama bat gaur-egun Euskaltzaindiak dituen sail eta batzorde guztiekin, nor non

dagoen etab. ezarririk, norbera kontura dadin. Organigrama hori hurrengo *Euskera*-n agertuko da.

Abenduko batzarrean Donostiako Ordezkaritzan buru izateko, probisionalki bederen, Joseba Intxaustiren izena proposatu zen; baina berarekin hitz egin beharra zegoen. Orduan, Ameriketan aurkitzen zelako, ez nuen hitz egiterik izan. Gero, berriz, hitz egin dut, eta prest dago kargu hori onartzeko, zenbait mugarekin.

Abenduko batzarre berean esan nuen zein premiatsu zen Donostiako Ordezkaritzaren arazoa konpontzea. Edozeinek daki Donostiak eta Guipuzkoak zer pisu daukaten euskal kulturaren munduan eta ezin eduki dezakegu hemengo geure Ordezkaritza beti umezurtz. Jaun egoki baten faltaz horrela eduki dugu luzaz. Noizbait aurkitu dugu jaun hori. Egia da berez kargu hau, ahal dela, euskaltzain oso den norbaiti dagokiola, baina horietako bat ez dugun bitartean uste dut Intxausti jauna aukerakoa izango de la Euskaltzaindiaren errepresentazioa Donostian eramateko: Donostian bizi da, oso gizarteko da, ezagutza asko dituen gizona da, euskal kulturaren munduan guztiz sartua, etab.

Beraz, batzarreak onartzen baldin badu, Donostiako Ordezkaritzaren buru Joseba Intxausti jauna izendatzen da.

EUSKALTZAINDIKO SAIL E

Egiturazkoak
Buru: L. Villasante

Zuzendaritza
Buru: L. Villasante
Buru-orde: J. Haritschelhar
Idazkari: J. M. Satrustegi
Diruzain: J. San Martin
Idazkari-orde: J. L. Lizundia

Iker Saila
Buru: L. Mitxelena

Herri jakintzarena
Buru: A. Zavala
Idazkari: J. M. Satrustegi
Kideak:
X. Diharce
A. Irigoyen
E. Larre
P. Guilsou
G. Lpz. de Gereñu

Aditza
Atal eragilera:
Buru: L. Mitxelena
Idazkari: P. Altuna
Kideak:
J. L. Davant
P. Lafitte
I. Berriatua

Kontseilarien atala:
Kideak:
D. Intza
P. Iraizoz
A. Irigoyen
I. Baztarrika
J. L. Alvarez
X. Kintana
F. Mendizabal

Ordezkaritzen koordinaketa
Koordinaketa buru:
J. M. Satrustegi
Bilboko bulego-buru:
J. L. Lizundia
Donostiako ordezkari:
J. Intxausti
Donostiako idazkari:
M.ª P. Lasarte
Gasteizko ordezkari:
E. Knörr
Gasteizko idazkari:
I. Rekalde
Iruñeko ordezkari:
J. M. Satrustegi
Iruñeko idazkari:
G. Insausti
Baionako ordezkari:
J. Haritschelhar
Baionako idazkari:
P. Charritton

Herri Izendegia
Buru eta Gipuzkoatik:
L. Mitxelena
Idazkari eta Bizkaitik:
J. L. Lizundia
Arabatik:
E. Knörr
Nafarroa Garaitik:
J. M. Satrustegi
Nafarroa Beheretik:
E. Larre
Zuberoatik:
J. L. Davant
Lapurditik:
P. Charritton

Herri-Administralgo hiztegia:
Buru: J. Haritschelhar
Idazkari: J. L. Lizundia
Kideak:
X. Kintana
F. Mendizabal
J. A. Arana

Kontsultariak:
J. M. Lojendio
M. Itzaina
J. Oleaga
P. Zabaleta
E. Etxezarreta
P. Iztueta
A. Muniategi
M. Rika

Euskararen lekukoena
Buru: L. Mitxelena
Idazkari: L. Villasante
Kideak:
J. Haritschelhar
P. Lafitte
J. M. Satrustegi
A. Zavala
L. Akesolo
N. Alzola

BATZORDEEN ORGANIGRAMA

Ekonomi Batzordea
Buru: J. San Martin
Diru-begirale: X. Gereño
Eragile: J. J. Zearreta
Kontsultariak:
A. Elorriaga
J. Castañares
"Aurman": B. Artola

Jagon Saila
Buru: J. San Martin

"Azkue" Bibliotek
Buru: A. Irigoyen
Idazkari: J. A. Arana
Kidea: N. Alzola

"Euskera" eta argitalpenak
Buru: L. Villasante
Buru-orde: J. Haritschelhar
Idazkari: J. M. Satrustegi
Kideak:
A. Irigoyen
P. Lafitte
L. Mitxelena
L. Akesolo
J. Intxausti
Eragile: R. Badiola

Bertsolariena
Buru: A. Zavala
Idazkari: J. M. Iriondo
Kideak:
A. Irigoyen
E. Larre
J. M. Aranalde
F. Artola
M. Itzaina
M. Izeta
J. M. Lekuona
A. Aranburu
A. Muniategi

Alfabetatze-Euskalduntzearena:
Harremanetakoa:
Buru eta Gipuzkoarako:
J. San Martin
Arabarako: E. Knörr
Nafarroarako:
J. M. Satrustegi
Bizkairako: J. L. Lizundia
Iparralderako: P. Charritton

Gidaritza teknikoa:
X. Mendiguren
P. Uribarren
J. J. Zearreta

Irakaslegoarena
Buru: A. Irigoyen
Idazkari: X. Mendiguren
Kideak:
E. Knörr
P. Charritton
X. Kintana
I. Laspiur
J. A. Letamendia
P. Uribarren
J. J. Zearreta
J. L. Goikoetxea
J. A. Mujika
A. Ozamiz

Oinarrizko euskara
Buru: I. Berriatua
Idazkari: J. J. Zearreta
Kideak:
J. L. Alvarez Enparantza
X. Kintana
J. L. Goikoetxea

Elebitasunaz harremanak
Buru: J. M. Satrustegi
Idazkari: J. L. Lizundia
Kideak:
E. Knörr
J. San Martin
J. A. Letamendia
X. Mendiguren
P. Uribarren

ALTUBE-TAR SEBER JAUNAREN MENDEURRENA
Euskaltzaindiaren IX. Biltzarra Arrasaten

Jaunak: 1979.urteko atarian gaude. Eta dakizuten bezala, urte hori Seber Altube jauna jaio zeneko ehungarren urtea dugu. Bidezko denez, Euskaltzaindiak nahi du urte muga hau ospatu. Eta ospatu ere ez nolanahi, hark landu zituen alorretako lanak berari eskeiniaz baizik.

Gure asmoa hau zen, bada. Haren omenez bi Biltzar egitea: bat, udan, Gernikan, atzerriko euskalariei deituz; eta beste bat, heldu den urteko abenduan, Arrasaten, euskal gramatikari buruz.

Baina badirudi gehiegitxo dela, eta ez dagoela asti handirik kanpoko euskalarien biltzar hori prestatzeko. Beharbada, Topaketa moduko zerbait egin ahal izango da zenbaitzurekin, eta hori hasiera bat bezala har daiteke, gero astiroago, hemendik bi urtera edo, kanpoko euskalarien Biltzar ospetsu bat ospatzeko. Edozein modutan ere, Jagon-saileko buru den Juan San Martin jauna arduratuko da Topaketa hunen arazoaz. Zer egin daitekeen etab. ikustea, bere esku uzten da, bada.

Beraz, ni hemen Gramatika Biltzarraren arazoari lotuko natzaio xoilki.

Biltzar hau, esan dudan bezala, Arrasaten izango litzateke.

Egunak ere hautatu dira: 1979. urteko Abenduaren 20tik 23ra.

Batzordeen ezarketa. Biltzar hunek ez du izango, Bergarakoak izan zuen bezala, Soziologi eta Estadistika Batzorde-

rik. Beraz, aski da bi Batzorde jartzea: Hizkuntz batzordea eta Antolakizun batzordea.

L. Mitxelena eta euskaltzainburugoko jaunekin hitz egin ondoan, hunako izen hauk proposatzen dira batzordeok osatzeko:

Antolakizun Batzorderako. Buru: José M.ª Satrustegi. Idazkari: Jose L. Lizundia. Eta bi hauetaz gainera, Euskaltzaindiaren aldetik beste jaun hauek osatuko dute batzordea: Mikel Lasa, Juan Jose Zearreta eta Imanol Laspiur-ek. Gainera Arrasateko ordezkari batzuekin gehituko da batzorde hau. Arrasaten bertan izango du batzorde hunek bere bulegoa: Biltzarraren antolakizun bulegoa.

Hizkuntz Batzorderako. Batzorde hau bi atalez osatua jartzen da: a) Kontseilariak b) Eragileak.

a) Kontseilarietarako jaun hauk proposatzen dira: L. Mitxelena buru, Jean Haritschelhar, Pierre Lafitte, Alfontso Irigoyen eta L. Villasante.

b) Eragileetarako, berriz, Patxi Goenaga, J.A. Letamendia, J.A. Mujika, R. Badiola eta Pedro Pujana.

Batzorde idazkaria: Letamendia, eta Idazkari ordea: M.ª Pilar Lasarte. Batzorde hunek Donostiako Ordezkaritzan izango du bere bulegoa.

Heldu den Otsaileko lehen egunetan egin beharko dute beren lehen bilera Batzorde biek.

Biltzarreko gaiak. Orokorki hartuz, euskal Gramatika izango da Biltzarreko gaia. Gai hau, ordea, zabalegia izanik, Fonologia eta Ortografi arazoak kanpoan utziko dira. Beraz, Morfologia eta Sintasia hartzen dira gaitzat. Hobeki esateko, eremu hortako zenbait puntu.

Batzordeetako jaunei, nahiz Euskaltzaindiko guztiei eta problema hauetaz arduratzen diren gainerako guztiei ere eskatzen zaie ekar ditzatela, arren, Biltzarrean aztertzeko egokiak iruditzen zaizkien gai batzuk. Edozeinek daki euskal gramatikan anitz gauza dagoela ondo aztertu, argitu eta finkatu gabekorik. Epe bat jartzen da, beraz, gaiak aurkezteko. Epea: Otsaileko 23a (Euskaltzaindiko batzar eguna).

Aurkezten diren gaiak ikusi ondoan, Hizkuntz Batzordeak egingo du hitzaldien eta hizlarien programaketa.

Gainerakoan, Bergarako Biltzarrean bezala, Arrasatekoan ere egon daitezke bai hitzaldiak eta bai txostenak ere. Hitzaldiak enkarguz eginak izango dira eta ondo mugatutako puntu berezi batzuei buruz. Hizkuntz Batzordeak enkargatuko ditu hitzaldiok. Txostenak, berriz, nahi duenak egin ditzake gogoko duen gaiari buruz, baina beti ere Biltzarreko eremu barruan egotekotan.

Azkenik, Bergarakoan bezala, Batzorde orokor eta koordinatzailea ere izango da. Beronen burua, Aita L. Villasante. Eta Idazkaria, J.L. Lizundia. Batzordekideak, berriz, L. Mitxelena, J.M. Satrustegi eta J.A. Letamendia izango dira.

Bilbon, 1978, abenduak 29.

KONTSONANTE BUSTI-PALATALEN GRAFIAZ EUSKALTZAINDIAREN ERABAKIA

Euskaltzaindiak, beste arloetan bezala honetan ere orok euskaraz ortografia bat berbera erabiltzea beharrezko dela ikusirik eta Resurrezio Maria Azkue, euskara batzeko asmoz "gipuzkera osotua" proposatu eta bultzatu zuen lehen Euskaltzainburu ospetsuak arrazoiz orniturikako bide beretik abiaturik eta egungo eguneon, zorionez, delako joera ortografiko hori hedatzeko bide sendoan doala ikusirik, hurrengo erabakia hartzen du, izkribuz baliatzen diren guztiei etorkizunerako hobetzat gomendatuz:

1. Euskaltzaindiak ontzat hartzen ditu *ñ, ll, tt, dd, x* eta *tx* kontsonante palatalen grafiak balio adierazkorra duten kasuetan, hala nola *andereño, haurño, ñabar, llabur, ttantta, edder, Maddalen, goxo, hortxe* hitzetan agertzen direnak.

2. Egituraren bidez, aurreko *i-* bokala dela medio, leku batzuetan sortu diren palatalizazioetarako, ordea, *-in-, -il-, -it-, -int-* eta *-ind-* erabili behar dira, palatalizaziorik egiten ez den eskualde eta alderdietan bezalaxe, hala nola *baina, mutila, ditu, pinta-, indarra,* eta abar.

3. Halaber erdaratikako hitzetan, despalatalizazioaren bidez sortu den grafia ontzat harturik, hala nola *Espainia, gaztaina, teila* eta abar.

4. Halaber ez dira erabili behar *x* eta *tx,* sibilante palatalak seinalatzeko ditugun grafiak, egituraren bidez, aurreko *i-* bokala dela medio, sortu direnean, hala nola *aizea, itsua, gizona,* eta ez *axea, itxua, gixona,* azkenengoa gizon txikia edo kaskarra adierazteko erabiltzen ez baldin badugu, halako hitzak hipokoristikotzat har baitaitezke.

5. Toponimian, ordea, historia hurbileko egituraren bidez sorturikako palatalizazioa ez baldin bada, *i-* gabeko kontsonante palatalen grafiak erabiliko dira, hala nola *Iruñea, Urruña, Mañaria, Mañeru, Oñati, Amallobieta, Mendexa, Etxaleku,* eta abar, baina *Markina, Abadino.*

6. Ortografia lege hauek berdin balio dute edozein euskalkitan eginikako izkribuetarako ere.

7. Erabaki hauek grafiari begira daude eta oraingoz ahoskatzeaz ez da ezer adierazten.

Batzordeko diren Jose Luis Lizundia, Ibon Sarasola eta Alfonso Irigoyen-ek, eskatu bezala Euskaltzaindiari zuzentzen dioten proposamendua:

(Euskaltzaindiak onartu eta erabakia Donostian, 1978ko Azaroaren 24eko batzarrean).

Donostian 1978-X-27

HEZKUNTZA MINISTERITZARI EGINDAKO ESKEA

Euskaltzaindi honek, Maixu-Maistren Eskola Unibertsitarietan euskara sartzeari buruz bere Bergarako VIII. Biltzarrean hartutako erabakiak aurrean eraman nahirik, biltzarre hartan hartu zen 6. erabakia zehaztu eta konkretatu nahi izan du. Erabaki hark hau dio:

> "Gure irakaskuntzaren behar gorriaz jabeturik, "Ministerio de Educación y Ciencia eta "Ministère de l'Education" direlakoei eskaria zuzenduko die: Irakasle prestakuntza-eskoletan biderik zabalenak eman ditzaten, beharrezko baita:
>
> a) Edozein sailetan, eta maila guztietan ikasten ari dena euskaraz irakasteko gai bihur dadin eta,
>
> b) Euskal Herriko eskola horietan, guztietan, sor dadin Filologia, Euskal saila".

Euskaltzaindi honek egoki iruditu zaizkion jestioak egin ditu, arazo hau zehatz sakontzeko, euskal Herriko Unibertsitateko euskarako Koordinatzaileen eta konkretukiago Maixu-Maistren Eskola Unibertsitarietako euskarako irakasleen eta, Euskaltzaindi honek, beronek, antolatua duen Elebitasuneko batzordearen eritzia jasoz. Datu guztiak bildu ondoren, proposamendu hauetara heldu da:

1. Heziketa Orokorreko Bigarren Mailako ikasleei ofizialki eta ganoraz euskara irakatsi ahal izateko, beharrezkotzat jotzen da Maixu-Maistren Eskola Unibertsitarietan Euskal Filologia Saila jartzea. Horretarako:

a) Euskal Hizkuntza eta Literaturako Katedrak sortu beharko dira, Euskal Herriko Eskola guztietan, zein Araban, zein Bizkaian, zein Gipuzkoan, zein Nafarroan, aurrera egiteko beharrezkoak diren irakasleak eta diru-laguntzak ezarriz.

b) Maixu-Maistren Eskola Unibertsitari hoietako euskarako irakasleek, Euskal Herriko Unibertsitateko "Filosofia y Letras" delako Kafultateko Filologia Euskal Saileko arduradunen laguntzaz, Filologiako sail horretarako Plangintza Orokor bat egingo dute Euskal Herri osorako.

2. Heziketa Orokorreko Bi Mailetan euskal Irakasleak nahita nahiezkoak direnez, behar diren pausoak emanen dira Eskola hauetatik ataratzen diren irakasle berriak elebidunak izan daitezen. Horretarako beharrezkotzat jotzen da:

a) Eskola Unibertsitari hauetan euskara nahi ta nahiezko ikasgai orokortzat hartzea eta Espezialitate desberdinetako ikasle guztiek eta karrerako urte guztietan ikastea.

b) Irakasle berriek, biharko egunetan heuren zeregina ongi bete dezaten, beharrezko ikusten da Eskola Unibertsitari hauetan euskal irakasleak jartzea eta Departamendu bakoitzean irakasle elebidunak izatea honela bakarrik ikasi ahal izango dute euskara eta Espezialitate bakoitzeko hiztegi teknikoa.

– Hau dela eta, Eskola Unibertsitari hauetako Hizkuntza-egoera konpontzen ez den artean, izan beharko dute bertarako egin daitezken oposaketak. Hau, denau, jakina, bertako irakasleek eskuraturik dituzten orain arteko eskubideak ukatu gabe.

3. Une honetan, bestalde, Maixu-Maistren Eskola Unibertsitari hauetako Plangintzak berriztatzen ari dira. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da:

a) Euskal Herriko Eskola Unibertsitari hauetako Plangintzak, Euskal Herriko egoera konkretua eta bertako beharrizanak kontutan harturik egitea, nahiz eta karrerak berez bereak dituen ikasgaiak eta alorrak baztertu gabe egin.

b) Plangintza berri hau egiterakoan, gure Irakaskuntzaren geroan zerikusia duten erakunde guztiek parte dutela, egin beharko da. Hau da:

- Maixu-maistren Eskola Unibertsitarietako Irakasle-Ikasleen eritziak kontutan harturik.
- Eusko Kontseilu Irakaskuntzako Kontserjeriak esku duela.
- Nafarroako Irakaskuntzako Kontseilu Nagusiak parte duela.
- Euskaltzaindiaren ikuspegiak eta eritziak aurrez jasoz.
- Euskal Herriko Unibertsitateko I.C.E., laguntza hartuz.

Euskaltzaindi honek, premia-premiazkotzat jotzen du, Euskara egoki eta serioski Maixu-Maistren Eskola Unibertsitari hauetan jartzea, Eskola hauetatik irteten diren maixu-maistra berriak elebidun atera daitezen. Hori dela eta, plangintza berri hau datorren ikasturtean hasirik aurrera eramatea eskatzen da.

Euskaltzaindi honek, bestalde, irakasle elebidunen premia hain gorria izanez, irakasle elebidun horiek prestatzen diren bitartean, berehalako pauso batzu eman ditzala eskatzen dio Ministerio de Educación y Ciencia delakoari. Ministerio horrek Eusko Kontseilu Irakaskuntzako Kontserjeriarekin batera, halako udako ikastaro batzu eskaini behar dizkie orain, borondate hutsez, Eskola Unibertsitari askotan euskara ikasten ari diren ikasle ugariei.

Honela, gerora begira, irakasle elebidunak ateratzeko plangintza egokia egiten den artean, gaur egunez hauetako Eskola Unibertsitarietan euskara ikasten ari diren ikasleei laguntza eskainiz, hiru urtetako epe laburrean mila bat irakasle elebidun egiteko aukera sortzen da.

Guztiau azaldu eta eskatu nahia du Erakunde honek, ni beronen lehendakari izanik, bilkura orokor batetako erabakiaren arabera, Bizkaiko Jaurerriko Diputazioaren Etxean.

Bilbon, 1978.eko Abenduaren 29

Fr. Luis Villasante-Lehendakaria

HEZKUNTZ ETA ZIENTZIAKO MINISTRO JAUN AGURGARRIARI

MADRIDera

Esta Real Academia de la Lengua, ha juzgado conveniente realizar las gestiones pertinentes ante este Ministerio de Educación para concretizar el acuerdo tomado por esta Corporación en su IX Congreso, celebrado en la villa de Bergara, referencia a la implantación del euskara en las Escuelas Universitarias de Formación de Profesores de E.G.B. del País Vasco. Dicho acuerdo, dice así en su párrafo 6:

> "Haciéndose eco de la crítica situación del euskara en la Enseñanza, se presentará la siguiente petición tanto al Ministerio de Educación y Ciencia como al "Ministère de l'Education", para que den las máximas facilidades en los Centros de Formación de Profesorado, a fin de que:
>
> a) En cualquier especialidad y a todos los niveles se formen profesores capacitados para la impartación de las materias en forma bilingüe en todos los niveles.
>
> b) Se establezcan en todas las Escuelas de Formación de Profesorado la Sección de Filología Vasca."

Para ello, consultados los Coordinadores de clases de euskara de la Universidad del País Vasco, el actual profesorado de euskara de diversas Escuelas Universitarias de Formación de Profesorado de E.G.B. y la Comisión de bilingüísmo de esta Real Academia, se ha llegado a las conclusiones siguientes:

1. Es indispensable que se establezca la Sección de Filología Vasca en las Escuelas de Formación de Profesorado de E.G.B. a fin de que se forme el profesorado específico de lengua vasca que imparta el euskara en la 2.ª etapa de E.G.B. Para ello, se juzga urgente:

   a) La creación de las correspondientes Cátedras de Lengua y Literatura Vasca, en todas las Escuelas Universitarias de Formación de Profesorado de E.G.B. de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya con las oportunas designaciones de profesorado y correspondientes dotaciones.

   b) El Profesorado de euskara de dichos Centros de Formación de Profesorado de E.G.B., elaborará, en estrecha vinculación con la Especialidad de Filología Vasca de la Facultad de Filosofía y Letras, un plan común de dicha Sección de Filología Vasca para todo el País Vasco.

2. Se darán los pasos necesarios para que todo el alumnado de las Escuelas Universitarias de Formación de Profesorado del País Vasco, termine sus estudios siendo bilingüe. Para ello se ve necesario que:

   a) El euskara sea introducido en estas Escuelas Universitarias de Formación Profesional como asignatura común a cursar por los alumnos de todas las Especialidades y a lo largo de todos los años de la carrera.

   b) Es necesario dotar a estas Escuelas Universitarias de Formación de Profesorado de profesores de euskara y a los diversos departamentos de las mismas de profesores bilingües, para que el alumnado pueda adquirir juntamente con el euskara y su didáctica, el conocimiento de la terminología científica específica de la Especialidad que cursan tanto en castellano como en euskara y así prepararse para su futura labor bilingüe.

— Por ello, en tanto no se resuelva satisfactoriamente la normalización lingüística de estas Escuelas Universi-

tarias, se congelarán las oposiciones dentro del País Vasco, todo ello sin perjuicio de derechos adquiridos.

3. Dado que se están elaborando los nuevos Planes de Estudio de las Escuelas Universitarias de Formación Profesional de E.G.B., se considera necesario que:

   a) En las Escuelas Universitarias de Formación de Profesorado de Bilbao, Pamplona, San Sebastián y Vitoria, se elaboren dichos Planes de Estudio, teniendo en cuenta las necesidades lingüísticas-culturales del mismo, sin menoscabo de las materias comunes a cursar a nivel estatal.

   b) En la elaboración de dichos planes de Estudio se tenga en cuenta la voz representativa de los diversos estamentos implicados:

      – El Profesorado y Alumnado de las diversas Esucelas Universitarias de Formación de Profesorado de E.G.B., tanto estatales como privadas.
      – La Consejería de Educación y Ciencia del COnsejo General Vasco.
      – Junta Superior de Educación de Navarra.
      – Real Academia de la Lengua Vasca.
      – I.C.E. de la Universidad del País Vasco.

Esta Corporación académica considera de máxima urgencia la adecuada implantación de la enseñanza del euskera en las Escuelas de Formación de Profesorado de E.G.B. para la conveniente preparación bilingüe del profesorado de E.G.B. Por ello considera que esta planificación debe implantarse a partir del próximo curso escolar.

Mientras se forman esas promociones bilingües, este Ministerio de Educación y Ciencia, en estrecha colaboración con la Consejería de Educación y Ciencia del Consejo General Vasco y la Junta Superior de Educación de Navarra, debe proveer, en plan de urgencia, a la formación del profesorado bilingüe necesario, ofreciendo para ello al alumnado que actualmente cursa clases de euskara en dichas Escuelas Universitarias de Formación de Profesorados E.G.B., la oportuni-

dad de completar el aprendizaje del euskara mediante cursos intensivos de verano.

De este modo, al mismo tiempo que se planifica la formación bilingüe del Profesorado para el futuro, cabría completar la formación lingüítica vasca que un gran número de alumnos están recibiendo en la actualidad en muchas de estas Escuelas Universitarias, pudiÇndose conseguir en el reducido espacio de tiempo de tres años cerca de un millar de profesores bilingües.

Es todo lo que tiene el honor de exponer y solicitar a V.E., est Corporación académica de mi presidencia por acuerdo adoptado en sesión plenaria, celebrada el día de la fecha en el Palacio de la Diputación Foral del Señorío de Vizcaya.

Bilbao, 29 de diciembre de 1978

Fdo.: Fray Luis Villasante-Presidente

EXCMO. SR. MINISTRO DE EDUCACION Y CIENCIA

MADRID

EUSKARA BATUA, EUSKALKIAK ETA TOKIAN TOKIKO HIZKERAK

Jaunak:

Joan den urtearen Iraileko batzarrean zenbait batzordeño jarri ziren Bergarako Biltzarraren ondorio bezala eman behar diren Agiri, Erabaki etab. prestatzeko, eta gero Euskaltzaindiak, hala behar dela uste baldin badu, onart ditzan.

Han jarri ziren batzordeñoak hauek dira: Bustidurena, Erakusleena, Deklinabidearena eta H letrarena.

Bustidurena erabaki zen. Erakusleenak gaur du txanda. Besteak ere bidetan dira.

Bergarako Biltzarraren aginduz Hezkuntza Ministerizari egin behar zitzaion eskea ere onartu eta bidali zen.

Bergarako Biltzarraren Adierazpenean bada oraino beste puntu bat, 5.a, argitasun eske gelditu zena. Zein da Euskaltzaindiaren jarrera euskalkiei eta toki bateko hizkerei buruz? Adierazpenean esaten da Euskaltzaindia horiek lantzearen alde dela baina beti ere ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz.

Iraileko batzarre hartan aipatu zen Adierazpeneko puntu hau eta esan zen beroni buruz ere zerbait esan beharra dagoela, batez ere *azpiegitura* hori zer den xehatuz; baina horretarako ez zen batzordeñorik izendatu.

Beste aldetik, puntu hau garrantzitsua dela ez da dudarik, zeren gaur tiroak Euskaltzaindiari hortik heldu baitzaizkio. Hots, euskalkien eta herriko euskararen izenean.

Azpiegitura hitza Adierazpenean sartzeko eskatu zuena

Mitxelena jauna izan zen. Beraz, berarengana jo nuen xehapenen bila ere. Eta eman zizkidan.

Horiekin Agiri moduko zerbait prestatu nuen. Gero Mitxelenari eta beste zenbaiti erakutsi nien, eta horiengandik hartutako aholkuekin gaur hemen aurkezten dudan Agiri proposamen hau taxutu da.

Ikusiko duzuen bezala, Agiria ez da deus konkretuki erabakitzeko egina izan. Baina erabaki konkretuak garrantzi handia badute ere, ez dute gutiago, nik uste, honelako Agiriek, hizkuntz hauziei jarrera edo ikuskera orokor batetik oratzen dietenez gero.

Gaur Agiri proposamen hau irakurri egingo dugu eta euskaltzain osoen artean zabaldu, oharrak egiteko hilabeteko epea emanez. Eta batzarreari hala iruditzen bazaio, Martxoko batzarrean onartuko da.

1979, Otsailak 23

EUSKARA BATUA, EUSKALKIAK ETA TOKIAN TOKIKO HIZKERAK

Euskaltzaindiaren Agiria

Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarreko Adierazpenak, bere 5. puntuan, honela dio:

"Euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla uste du Euskaltzaindiak, *ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz".*

Agiriaren beharra. Maiz entzun eta irakurri ohi da Euskaltzaindia euskara batuaren alde eta herriko euskararen eta euskalkien etsai bihurtu dela. Euskararen batasuna helburu bat guztiz opagarria izanik ere, horren aurretik daudela euskalkiak; beraz, horietatik hasi behar dela. Batasuna azkeneko eta urruneko jomuga besterik ez dela, eta jomuga hori euskalkien bidez eta euskalkietan barna bilatu behar dela, etab.

Horiek hola, beharrezko gertatzen zen oinarrizko hauzi honetan Euskaltzaindiak bere jarrera eta aburua ager zezan. Eta hain zuzen, hori egin nahi izan du Adierazpeneko 5. puntua eman duenean eta bai horren segida eta hazkunde den gaurko Agiri hau ematean ere.

Adierazpen horretan tokian tokiko hizkerak eta euskalkiak aztertu eta landu behar direlako ustearen alde jartzen da Euskaltzaindia. Beraz, bego hau argi eta garbi eta goraki aitortua.

Bi eraskin edo baldintza ipintzen dira, halaz guztiz —beharrezkoak baitira, euskalkien lantze hori onerako, eta ez kalterako, gerta dadin—: 1) Ortografia, eta 2) Hizkuntzaren azpiegitura zaintzea.

Ortografia bakarra. Ortografia zaintzearen ohar horrek ez du esplikazio handirik behar. Euskara hizkuntza bat da, eta ez hizkuntza asko. Hizkuntza osoarentzat ortografia bat onartua denez gero, begien bistan da ortografia bakar hori erabili behar dela bai euskalkietan eta bai euskara batuan ere.

Ez dira, bada, arrazoizko inoiz entzun ohi diren argudioak: "Euskalkietan idazten denean H letra ez da erabili behar: hori euskara baturako da". Edo: "Euskara batuan bustiduren grafiak ez dira jartzen, baina euskalkian bai". Etab.

Hizkuntzaren barnean ortografia bat baino gehiago erabiltzeari kaltegarri deritza Euskaltzaindiak. Hori da, gainera, euskalkiak eta euskara batua hizkuntza desberdinak bezala jotzea.

Honekin ez dugu ukatu nahi, bestalde, salbuespenak egon daitezkeela. Adibidez, linguistika lanetan eta toki jakin bateko euskara den bezala jaso nahi denean bidezko izan daiteke H ez jartzea, edo Z eta S ez bereztea, bustiduren grafiak jartzea, etab. Orobat, herri mailako literatur mueta batzuetan H ez erabiltzea edo puntuazio marka berezi batzuk jarri behar izatea gerta daitekeena da, eta Euskaltzaindiak ez du deus horren kontra. Beste arrazoi berezi bat ere bada bertsolaritza, dagoen horretan, alegia, bere fonetismo guztiekin, argitaratzeko. Bertsolaritzak ahozko hizkera baitu bere oinarria; eta hitzak gramatikaratzen hasiz gero, neurria eta puntua galdu egingo lirateke askotan. Baina lege orokor bezala honako hau hartzen du Euskaltzaindiak, oinarrizko baita, hots: Euskara hizkuntza bat dela eta ez hizkuntza asko, eta hizkuntza horretan ortografia bat bakarra behar dela, bai euskara batuan eta bai euskalkietan.

Hizkuntzaren azpiegitura edo euskararen oinarri batua. Bigarren oharrak, berriz, honela dio: euskalkiak lantzean hizkuntzaren azpiegitura zaindu behar dela. Adieraz dezagun laburki horrekin zer esan nahi den:

"Euskaltzaindiak uste du, eta hori ez da uste hutsa zehazki froga daitekeen iritzia baizik, badela oraindik, lehen ere izan den bezalaxe, euskara bakar bat euskalkien ñabardurak estaltzen eta itxuraldatzen ez duena. Euskalkien eta

tokian tokiko hizkeren arteko bereizkuntzak, egungo egunean ere, axaleko itxuraldatzeak dira batipat, hizkuntzaren muin sakona bere iraunkor hartan uzten dutenak. Hizkuntzaren oinarri batu hori, eta oinarri horren egitura (euskalki guztien egitura komuna), dira beti gogoan eduki behar ditugunak, gure ahaleginak euskararen batera-biderako, eta ez berezirik daudenen sakabanatzeko, izan daitezen'' (Mitx.)

Ikuspegi honen arabera, euskara batua ez da bakarrik urruneko jomuga bat edo alde guztiz eginkizun den helburu bat. Aitzitik, euskara berez ere bat eta batua da, eta batasun horren seinaleak bere erraietan daramatza.

Beste hitzez esanik, euskalkiak baino lehen, eta horien azpitik edo gainetik –nahi duzun bezala–, hor da euskara batu hori. Beraz, euskara batua erabat hizkera artifiziala eta asmatua delako uste hori, ez da uste zuzena. Euskalkiak baino lehen hor da euskara. Eta euskara hori helburuan baino areago abiapuntuan aurkitzen da; iraganean, etorkizunean baino gehiago. Zuhaitzek ez diezagutela basoaren ikusbidea galeraz, otoi.

Euskalkien axaleko ñabarduren gainetik hor da hizkuntzaren muin sakon eta iraunkor hori, hizkuntzaren oinarri batua, alegia, eta hori da beti gogoan eduki behar duguna, baita euskalkiak lantzen direnean ere.

Hizkuntzaren oinarri batu horretaz jabetzeko, ordea, txit komenigarri da norberaren euskalkiaz gainera besteren bat ere ezagutzea eta euskara bere osotasunean hartzea. Zeren orduan, eta orduan bakarrik, ikasten baitugu euskalki eta toki bateko hizkeran aurkitzen diren fenomeno guztiak ez direla maila berean jartzekoak eta ez zaiela denei balio berdina aitortu behar. Badira, alegia, zenbait gauza euskara bakar horren agergarri eta adierazle direnak, eta badira halaber axaleko itxuraldatzeak, zoko bateko eta beranduko agerpideak, etab.

Euskalkia lantzen duenak nolabait jakin behar luke hori, hizkuntzaren oinarri batuari leialtasuna gorde diezaion. Bestela gerta daiteke –eta sarri gertatzen da gaur–, euskalkien aitzakiaz hizkuntzaren barnean hesiak geroago eta gogorrago bihurtzea, elkarganatu beharrean bata bestetik urrunduaz

joatea. Eta joera zatikatzaile hori Euskaltzaindiak ez dezakeela onart esan beharrik ez dago.

Hemen ez ditugu xeheki eta bana-banaka aipatuko euskararen muin sakon horri dagozkion gauza guztiak, asko baitira. Adibide bat edo beste bakarrik jartzen dugu: deklinabide mugagabea, "a" organikoaz bukatutako hitzak, euskalki guztietan legezko den aditz jokoa eta euskal hitzurrena.

Euskaltzaindiak, bada, uste du hizkuntzaren oinarri batu horri kasu eman behar zaiola euskalkiak lantzean. Bestela hizkuntzaren batasuna arriskuan jar daiteke.

(Donostian, 1979ko Martxoaren 30eko batzarrean onartua)

Declaración de la Real Academia de la Lengua Vasca "Euskaltzaindia"

EL EUSKARA COMUN, LOS DIALECTOS Y LAS HABLAS LOCALES

La Resolución del VIII Congreso de la Academia, en su 5.º punto, dice así: "La Academia estima que los dialectos y hablas locales deben ser objeto de estudio y de cultivo, respetando la ortografía y la estructura subyacente (*under*lying) del idioma".

Urgencia de esta Declaración. Con frecuencia se oyen y leen razonamientos como los siguientes, a saber: que la Academia se ha definido por el euskara unificado y por ende ha vuelto la espalda al euskara popular y a los dialectos. Que aun cuando el euskara unificado sea un objetivo deseable, antes que él están los dialectos; que es preciso, por tanto, partir de éstos. Que la unificación no es más que una meta última y lejana y que hay que caminar hacia esa meta partiendo de los dialectos y a través de los mismos, etc.

En vista de estos slogans que se esparcen se hacía preciso que la Academia expresara su posición y actitud ante el problema. Y esto es justamente lo que ha querido hacer al aprobar el citado 5.º punto de la Resolución de Vergara e igualmente al preparar la actual Declaración, que no es otra cosa que continuación y desarrollo del dicho 5.º punto.

En la citada Resolución la Academia toma posición en pro del estudio y cultivo de las hablas locales y de los dialectos. Quede, pues, claro que ésta es la inequívoca postura de la Academia.

Sin embargo, se añaden dos precisiones o condiciones, por juzgarlas necesarias para que el cultivo de los dialectos sea de signo positivo y no negativo, para la lengua. Estas dos

condiciones son el respeto a la Ortografía y a la infraestructura de la lengua.

Unidad ortográfica. La necesidad de que se guarde la ortografía no requiere grandes explicaciones ni justificaciones. El euskara es un solo idioma y no una multiplicidad de idiomas. Una vez que se ha adoptado una ortografía para la lengua, es evidente que esa ortografía única debe ser empleada tanto en los dialectos como en el euskara unificado.

No son pues sostenibles los razonamientos que a veces se alegan: "Cuando se escribe en dialecto no se debe emplear la letra "H"; eso queda para el euskara unificado o común". O bien: "En el euskara unificado no se ponen los signos de las palatalizaciones, pero en el dialecto, sí", etc.

La Academia juzga que es pernicioso para el idioma el emplear diversas ortografías dentro del mismo. Además eso es tratar los dialectos y el euskara común como si fueran lenguas diferentes.

Con esto, por otra parte, no queremos ignorar que puede haber salvedades. Por ejemplo, en trabajos de investigación, en que se trata de presentar un habla local tal como es, puede estar justificado el no emplear la "H", o el no distinguir la "Z" y la "S", el poner los signos de los sonidos palatales, etc. Igualmente, en ciertos géneros de literatura popular puede ser lícito el no servirse de la "H" o el recurrir a signos gráficos especiales; la Academia no tiene nada que alegar contra ello. No hay duda, tampoco, que existen razones válidas para que los trabajos de los bertsolaris se publiquen tal y como son, con sus fonetismos peculiares, ya que este género se basa en el habla oral, y si se gramaticalizaran las palabras, se perturbaría muchas veces la rima o la medida de las sílabas.

Pero como principio general la Academia establece lo siguiente: que el euskara es un solo idioma y no varios, y que dentro de ese único idioma debe observarse una única ortografía, tanto en el euskara unificado como en los dialectos.

La estructura subyacente de la lengua o fondo común del euskara. La segunda salvedad dice textualmente: "Al cultivar los dialectos se debe respetar la estructura subyacente de la lengua". Expongamos brevemente qué es lo que se quiere dar a entender con esto:

"La Academia opina —y esto no es una mera opinión sino un dictamen que puede demostrarse rigurosamente—, que existe todavía, como ha existido en el pasado, un euskara único, que no ha sido recubierto ni transformado por las variedades dialectales. Las particularidades de los dialectos y de las hablas locales, aun hoy en día, son más que otra cosa transformaciones superficiales, que dejan intacta la esencia profunda y perenne del idioma. Este fondo común de la lengua y la estructura de dicho fondo —que es a su vez la estructura común de todos los dialectos—, es lo que siempre habrá de tenerse en cuenta, si queremos que nuestros esfuerzos se encaminen hacia la unificación, y no hacia una mayor dispersión de los diversos dialectos" (Mich.).

En conformidad con esta perspectiva, el euskara unificado no es solamente un objetivo lejano o una meta que está totalmente por alcanzar. Al contrario, el euskara de suyo es ya uno y se halla unido en su fondo, y las señales de esta unidad aparecen claras en su estructura.

Dicho con otras palabras: antes que los dialectos, por debajo o por encima —como se quiera— de ellos, nos encontramos con el euskara uno. Por tanto, la opinión de que el euskara unificado es un lenguaje artificial o totalmente inventado, no es conforme a la verdad. Antes que los dialectos se halla el euskara. Más bien que en el punto de llegada el euskara se encuentra en el punto de partida; en el pasado, más bien que en el futuro. Los árboles no deben impedirnos ver el bosque.

Por encima de las particularidades superficiales de los dialectos se halla la sustancia profunda y permanente del idioma, el fondo común de éste. A este fondo común se debe prestar atención preferente, incluso cuando se cultivan los dialectos.

Mas para poder reparar en este fondo común de la lengua es altamente conveniente que, además del propio dialecto nativo, se conozca algún otro y se atienda a la totalidad de la lengua. Porque entonces, y sólo entonces, caemos en la cuenta de que no todos los fenómenos que se dan en un determinado dialecto o habla local deben ser justipreciados y valorados igualmente. Mientras unas particularidades son propiedades y manifestaciones del euskara único, otras, por el con-

trario, son diferenciaciones superficiales, de carácter local o tardío, etc.

El que cultiva el dialecto debería ser consciente de algún modo de todo esto, a fin de que se mantenga fiel a esa sustancia común del idioma. De otro modo, puede ocurrir —y ocurre hoy con frecuencia—, que con el pretexto de los dialectos se estén haciendo cada vez más espesos e insalvables los tabiques existentes dentro de la misma lengua; o sea, que en vez de aproximarse las variedades, se alejen mutuamente cada vez más. Es claro que la Academia no puede favorecer esta tendencia a la dispersión.

No vamos a mencionar individualmente todos los hechos que revelan o pertenecen a ese fondo común, ya que son muchos. Indicaremos alguno que otro como botón de muestra: la declinación indefinida, las palabras que terminan con "a" orgánica, el juego de los tiempos verbales que subyace a todos los dialectos y la ordenación típica de las palabras en euskara.

La Academia estima, por consiguiente, que se debe prestar una atención preferente a este fondo común de la lengua al cultivar los dialectos. De otro modo podría ponerse en peligro la unidad de la lengua.

(Declaración aprobada en la sesión celebrada en San Sebatián el 30 de marzo de 1979).

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

EUSKALTZAINDIARI ERREGUA

Bilbo, 1978-XII-29
Xabier Kintana

Jaun-andre euskaltzainok!

Guztiok dakizuenez, egunotan gure parlamentariek Autonomi Estatutu projektu bat bukatu dute, gaur, hain zuzen, Gernikan ofizialki berretsi ondoan, Kontseilu Nagusiak Madrileko Gobernuari aurkeztuko diona. Projektu horren textua, ordea prentsak argitara emana du eta bertan euskarari ukitzen dioten puntu aipagarri batzu agertzen dira.

Honela, 6. artikuluak euskara gure Herriko hizkuntza jatorra dela dio, eta beroni, gaztelaniarekin batera, eremu autonomoan erabateko ofizialtasuna eskaintzen zaio. Honez gainera, gaurko egoera diglosikoa gainditzeko asmo argiak azaltzen ditu textuak, Euskal Herriko bizilagun guztiek hizkuntza biak ezagutzea helburu. Giza eskubideen nazioarteko agiriaren bidetik, Espainiako Konstituzioak ez bezala, autonomi textuak "inor ezin daitekeela hizkuntzagatik diskriminatua izan" dio, horrela hizkuntza baten derrigortasuna, edozeinena, kondenatuz. Euskaltzaindia, bestalde, euskararen arazo guztietarako, jo beharreko erakundetzat dauka projektuak, ipar Euskal Herriarekiko hizkuntz harremanak ukatu gabe gainera. Guzti honengatik, ene ustez, Euskaltzaindiak, gutun baten bidez, bere eskerrak bidali beharko lizkieke Kontseilu eta parlamentariei, gure Herriaren hizkuntzaz eta beronen Akademiaz ukan duten ardura txalotuz.

Izan ere, bere egunean, Euskaltzaindiak berak autonomi aurreprojekturako bere eskaria igorri zuen, hartan euskarari eta erakunde autonomoen euskal terminologiari zegozkien arazoetan berarekin kontsultatzeko eskatuz. Textua, ordea, gaztelaniaz pentsatu eta burutua izan da, euskaraz egindakoa

azken orduko itzulpen sinboliko bat besterik ez delarik. Berau ordea, ez da harritzekoa. Alde batetik, ez da sekretu bat, gaurkoz, eta zoritxarrez, gure parlamentari gehienek ez dakitela euskaraz, eta, bestalde, oraingo textuak hemengo herriaren eritzira agertu aurretik, Madrilen aztertu eta agian ukitu beharra duela, eta horretarako jakina, erdaraz egin behar. Garrantzi handiagoa edukiko du, beraz, Madrilen onartu ondoko textuak, huraxe ofizial bakarra izango baita.

Ba da textuan, baina, nerau biziki kezkatzen nauen puntu bat, euskarari eta euskaldunoi zuzenki dagokiguna, Euskaltzaindiaren aurrean, horrexegatik, adierazi nahi dudana. Madrilera presentatzeko den textuaren lehen artikuluak honela dio: *"El Pueblo Vasco, o Euskal-Herria, como expresión de su realidad nacional y para acceder a su autogobierno, se constituye en comunidad autónoma bajo la denominación de Euskadi o País Vasco..."*. Dakusagunez, izaki politiko autonomoak ofizialki hartu nahi dituen izenak *Euskadi* eta *País Vasco* dira. Izenok, bestalde, ez dira bata euskaraz eta bestea erdaraz, soilki, emateko, bigarrena euskaraz ezin erabil daitekeen arren, lehena erdaraz ere, eta textuan bertan, erabiltzen delako. Horretara, autonomi textuak, *País Vasco*-rekin batera *Euskadi* ere dakar (ikus 6.1. eta 7.2. artikuluak), erdararako izen biak sinonimo ofizialak gertatuz.

Euskaraz egiten dugun guztiok, ordea, jakin, ba dakigu geure hizkuntzaz mintzatean, geure nazioa adierazteko eskuharki darabilgun izena, Euskadiz gainera, Euskal Herria dela. Hauxe izan da, bestalde, Sabino Aranak 1901.ean besterik asmatu arte, gure Herriak bere burua adierazteko mendez mende erabili duen bakarra, horregatik besterik ere ez balitz ere, bestea bezain errespetagarria. Horretaz oharturik, gainera, aurreko estatutu-projektu guztietan (Lizarrakoan, gestoreenean eta plebizitatuan), *Euskadi*-ren parean *Euskal Herria* ere eman izan da, biak berdintsu. Oraingoak, aldiz, Euskal Herria "Pueblo Vasco"tzat agertzen badu ere, ez dio beroni inolako ofizialtasunik onartzen.

Lotsa naiz, barru barruraino lotsa gainera, ondoan esan eta eskatu behar dudanaz, baina ene kontzientzia, bestela, ez legoke lasai. Herri normal batetan herritar guztiek ba dakite, jakin, zein den beren hizkuntzaz egunero darabilten nazio izena, gurean, aldiz, jende gehienek, gure parlamentariak barne,

euskara ez dakitelarik, holako egoera penagarrira helduak gara: euskaraz ez dakitenez euskaraz dakigunoi geure Herriaren izena zein den erabakitzera. Egoera normal batetan, noski, nire eskaria absurdua litzateke, baina ez da hori, zoritxar haundiz, gaur duguna. Euskaltzaindiak Kontseiluari, erakunde izenen euskal terminologiaz den bezainbatean, beraren esanak kontutan edukitzeko eskatu zion, bai beronek eskaria onartu ere. Euskaltzaindiak, bestalde, herri eta herritarren izendegia moldatzean ardura berezia agertu du beti gure Herriaren izen jatorrak gordetzeko. Geure Nazioaren izan historikoa, Euskal Herria, izendegi horretako lehen izena dugu. Absurdua litzateke, ene ustez, herri eta udalen izenez kezkatzea, geure Herri osoaren deituraz ahantziko bagina.

Honetaz, zera eskatu nahi diot Euskaltzaindiari, bere egitekoa beteaz eta autonomi Estatuaren textuak berak eskaintzen dion ahalmenaz baliatuz, Kontseiluari, eskerrak emateko gutunaz batera, diktamen tekniko eta erregu gisa, textuan, Euskadi izena inondik ere baztertu gabe, beronen parean eta hura bezain ofizialtzat, Euskal Herria ere jartzeko. Berau egiteko, bestalde, aski litzateke textu autonomikoaren azken itzulpena egitean *Euskadi o País Vasco* dioen tokian, euskaraz *Euskadi edo Euskal Herria* agertzea.

Hauxe da, beraz, Euskaltzaindiari egiten diodan eskaria.

EUSKAL-HERRI HITZA EZ BAZTERTZEAZ

Mila bederatzirehun eta irurogeita hemezortziko martxoaren seian Eusko Kontseilu Nagusiak egin zuen batzarrean, Hezkuntza eta Kultur Kontseilarien proposamenduari jarraituz, *Euskaltzaindia* Euskal Herri mailan organo ofizialtzat hartze erabaki zuen, euskara landu, zehaztu eta batzeko arazoetan.

Bidenabar, Kontseiluak bere laguntza eskatzen zion Euskaltzaindiari haren zereginak ahal den hobekienik betetzeko.

Euskaltzaindiak ohore haundiko eginkizun hau behar bezala bete nahian, Baionako Eusko Erakustokian urtarrilaren hogeita seieko batzarrean, Eusko Kontseilu Nagusiari begiramendu guziarekin agerpen hau egitea, aho batez erabaki zuen:

Aspaldikoa den *Euskal Herria* izena, ezin dela inola ere baztertu erderazko País Vasco delakoaren ordain bezala, nahiz Euskadi hitza ere erabili.

Horrela jakinarazten dizut Batzarraren aginduz.

Jainkoak urte askotarako gorde zaitzala.

Baiona 1979. Urtarrilaren 26an.

José M.ª Satrustegi-Idazkaria

Eusko Kontseiluko Lehendakari Jauna.

BILBO

QUE NO SEA RELEGADA LA PALABRA EUSKAL-HERRIA

En sesión del Consejo General del País Vasco celebrada el día seis de Marzo de mil novecientos setenta y ocho, a propuesta de los Consejeros de Educación y Cultura, se acordó adoptar a la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia como órgano oficial del País Vasco, para la conservación, cultivo, fijación y unificación de la Lengua Vasca.

Acordó, al mismo tiempo, solicitar de la Academia toda colaboración necesaria a efectos de la acción del Consejo.

Euskaltzaindia tratando de cumplir debidamente el honroso deber que se le ha encomendado, en sesión académica celebrada en el Museo Vasco de Bayona el día veintiseis de enero de mil novecientos setenta y nueve, acordó por unanimidad comunicar al Consejo General Vasco, la conveniencia de que no sea relegada la palabra tradicional *Euskal Herria* como equivalente onomástico del término País Vasco, aunque igualmente pueda usarse también al vocablo Euskadi.

Lo que traslado a V. E. para su conocimiento y efectos.

Dios guarde a V. E. muchos años.

Bayona, 26 de enero de 1979.

José M.ª Satrustegui-Secretario.

Sr. Presidente del Consejo General del País Vasco.

BILBAO

BATZAR-AGIRIAK

1978-VII-28

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1978eko Uztailaren 28an, arratsaldeko 4etan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, J.L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigaray, P. Lafitte, E. Larre, L. Mitxelena, J.M. Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; L. Akesolo, N. Alzola, M. Atxaga, P. Charritton, X. Garmendia, J.M. Lekuona, J.A. Letamendia, J.L. Lizundia, J.A. Retolaza, M. Zarate, A. Zatarain, J.J. Zearreta euskaltzain laguntzaile, J. San Martin Idazkari dela.

Lojendio eta Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.
Ohin den otoitzarekin hasi da batzarra.
Ekaineko batzar agiria onartu da.

a) *HARREMANAK:*

Idazkari ordezkoak hartu diren liburu zerrenda irakurri du eta emaileei eskerrak ematea erabaki da.

CIEMEN, Centro Internacional Escarré sobre les Minories Etniques i Nacionals delakoaren gomita jaso da. Abadia de Cuixà (66.500 Prades. France) delakoan Abuztuaren 16tik 23 bitartean izango dituzten bileretara.

Kepa Enbeita "Urretxindorra" zenaren jaiotza ehunerteburuko omenaldiari Euskaltzaindiaren babesa ematea erabaki da. Omenaldi hau Bergarako Biltzar egunetan izango da. Irailaren 4tik 9ra, baina arratseko 9etan izango dira hitzaldiak Muxikan eta bertako programa osatzen duten euskaltzainek Bergaratik joan ezinik ez dute.

J.J. Zearretak, ondoko egunetan Donostian, Iruñean eta Eibarren irakasle titulurako egingo diren etsaminen berri eman du.

b) *GOIZEKO BILKUREN BERRI:*

Goizeko bilkuretan, jaun hauk bildu dira: L. Villasante, buru, J. Haritschelhar, J.L. Davant, L. Mitxelena, A. Zavala, P. Lafitte, X. Diharce, A. Irigaray, J. Hiriart-Urruty, E. Larre, J.M. Satrustegi, J. San Martin, J.M. Lojendio, L. Akesolo, N. Alzola, J.L. Lizundia, J.J. Zearreta eta J.A. Letamendia jaunak, beraz, euskaltzainak, eta "Euskara eta euskal literaturaren lekukoak" izeneko batzordekoak.

Lehendabizi, atzo, Matienan (Abadiño-Bizkaia) Zuzendaritzak egin zuen batzarraren berri eman da. "Bai Euskarari" kanpainaren ondorenak

aztertu ziren eta esku artean ditugun beharrizanak: barne azpiegitura hobetzea eta bizkortzea; Ordezkaritzetako lankideen egoera sendotzeaz eta hauei eman behar zaien laguntza: CharritTon, Lafitte, Knörr eta Satrustegi jaunak ari baitira eginkizun hoik betetzen; Bergaran egingo den Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra eta bertarako "Siadeco"k egiten diharduen soziologi-estadistika azterketa; aditz batuaren argitalpenaren mentsa *Hitz egin* deritzan oinharrizko euskararen finantziaketa; *Euskararen Liburu Zuria*ren kreditoa garbitzea; *Estudio Socio-lingüístico del Euskara*ren laburpena prestatzea eta argitaratzea. Egintza hauek la milioi pezetako zuloa uzten digutela kalkulatu zen, eta "Bai Euskarari" kanpainatik jaso denarekin lehen lehenik horren betebeharra agertu zen. Zuzendaritzakoak ondoren "Bai Euskarari" kanpainaren antolatzaileekin bildu ziren, lanaren lehen kontu ematea agertzeko eta finantzabideen jarraipena eta iraupena aztertzeko. Finantziabide hoietarako Zuzendaritzak proposatzen du Ekonomi Kontseilu bat osotzea, alde batetik kanpaina eraman dutenekin, eta bestetik Euskaltzaindiaren ordezkariak: diruzaina eta ekonomi eragilea, beren karguen arrazoiengatik eta kargurik ez duen euskaltzain bat. Euskaltzaindiaren ordezkari hoien esku egongo litzateke kontu begiratzea bestalde.

Lehen izendaturikoetatik landa, beste premia batzu ere aipatu dira: "Euskara eta euskal literaturaren lekukoen" bilduma eratzeaz eta argitaratzeaz; liburutegia antolatzeaz eta osotzeaz; ordenadore lanez, publizitateaz; Udal Izendegia argitaratzeaz; etb. Datorren urtean, Seber Altuberen mendeurrena dela eta antola daitezen Biltzar biez ere hitz egin da, bata gramatikari buruzkoa eta bestea Nazioarteko euskalari eta euskal linguisten mailakoa. Txosten hau onhartzen da, eta baita ere, funtsean behintzat, agertutako asmoak.

Euskara eta euskal literaturaren lekukoak.

Gai hontaz Euskaltzainburuak txosten bat irakurtzen du berriz, hots, Ekaineko Euskaltzaindiko bileran irakurri zuen berbera, puntu batzu zehaztuz.

Villasantek, A. Zavala eta L. Mitxelena euskaltzainek eginiko txostenen asmoa jasotzen du lehendabizi. Ondoren, bilduma honen garrantzi eta beharrizan gorria; zer argitara, nola eta nork nabarmenduz.

Gero hauetariko puntuz puntu azaldu eta oharrak egin dizkiote.

Azkenez, eraskin gisara zera proposatu du, hots, euskal literaturako egile eta lan nabarmenen zerrenda; hasi XVI. mendean eta egunerartekoa.

d) *"BAI EUSKARARI" KANPAINAREN AURRE KONTU EMATEAZ:*

J.J. Zearreta ekonomi arduradunaren txostena, asmoa sortzetik, kanpainaren historia eta ondorioa adierazi ditu. Eskerrak eman beharrezkoen artean, jaun hauk azpimarkatu ditu: "Aurman" publizitate etxeko E. Ibabe, eta J.M. Beaskoetxea; I. Azpitarte eta P.M. Basañez jaialdi eratzaileak; J. Castañares finantza-gizona; J.M. Covian saleroslea; A. Elorriaga ekonomilaria; I. Juaristi ekonomilaria. Hoiez gainera, baita ere N. Baste-

rretxea artista, kanpainarako irudigina eta T. Monzon euskaltzain laguntzailea bertarako kantagilea den aldetik. Euskaltzaindikoen artean, kanpaina hontako lanetan gogotsu aritu diren, J. San Martin, J.M. Satrustegi, E. Knörr, J.L. Lizundia, J. Intxausti, J.J. Zearreta bera, "Jakin" eta "Uzei" taldekoak eta kanpainaren arduradun izendatu zen X. Gereño. Diru bilketan sarrerak 55.000.000 pezetara igo dira; izan diren gastoak, prentsa-irratieako publizitate, material erosten eta zenbait liberaturen ordaintzez, 20.000.000 pezeta. Beraz, irabaziak 35.000.000 pezetara igotzen dira. Oraindik, bilketak amaitu gabe daudenez, geroago emango dira kontu zehatzagoak. Diru biltzeko iturri asko idekirik gelditzen zaizkigu ondoko urteetarako eta posible izango zaigu urtero hogetamar milioitik gora biltzea.

J.M. Satrustegik, gehigarriz, oharpenak egin ditu, kanpainaren ekintzari buruz eta jasotzen dugun diruz ditugun zenbait asmo agertuz, bereziki barne egituraz, lekukoen bildumaz, kanpoko euskalari eta euskal linguisten Nazioarteko Symposium bat egiteaz eta abar.

"Bai Euskarari" kanpaina hau dela eta, Volksunie alderdiko flamendar diputatuek domina bat eman digute, beren oroiz, eta Getxoko "Itxasargi" elkarteak hiri hartan eratutako jaialdian kopa bat eman zigun. Guztiei eskerrak ematea erabaki da.

e) *BERGARAN EGINGODEN EUSKALTZAINDIAREN VIII. BILTZARREKO EGITARAU AGERTZEA:*

J.L. Lizundiak sailkaturik eman ditu antolakizun, soziologia eta estadistika eta hizkuntza batzordeen programak. Hitzaldi gelak entzungailuz nola eratuko diren, hitzaldien inguruan izango diren jaialdiak eta abr., Gero, hitzaldiak zertan diren eta hauen ordenamendua. Azkenik, hartu diren txostenen zerrenda irakurri du.

J.A. Letamendiak gaineratu ditu zenbait ohar, batez ere etorri diren txostenei buruz.

f) *EUSKAREN IZTERLENGUSUAK DIRELA ETA:*

L. Mitxelenaren txostena. Laguntza bati lotzeko, lehen lehenik oinarrizko bibliografiaz jabetzearen premia agertzen du. Gure arteko askok, hontaz axola guti agertzen dutenez hutsune larri bezala salatzen du, zenbait adibide agerreraziaz.

Ohi den otoitzarekin amaitu da batzarra.

Euskaltzainburna — *Idazkaria*

Luis Villasante — *Juan San Martin*

1978-VIII-25

Donostian, Gipuzkoako Diputazio Jauregian, 1978.ko Abuztuaren 25ean, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, J.L. Davant, A. Irigoyen, F. Krutwig, E. Larre, P. Laffite eta J.M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J.L. Alvarez Enparanza, X. Aranburu, M. Atxaga, J.M. Iriondo, X. Kintana, J.A. Letamendia, J.L. Lizundia, M. Ruiz Urrestarazu, P. Xarriton, J.M. Torrealday eta A. Zatarain euskaltzain laguntzaileak, E. Knörr idazkari bezala egiten duelarik.

Diharce, Hiriart-Urruti, P. Larzabal, Lojendio eta San Martin jaunek beren ezin etorria adierazi dute.

Ezer baino lehen, Euskaltzainburuak ongi etorria ematen dio, Batzarrearen izenean, F. Krutwig euskaltzain jaunari, urte askotan halabeharrez urrunduari.

a) *HARREMANAK*

Datorren asteazkenean, 30ean, Logroñon, Juan Bautista Merino Urrutia, euskaltzain ohorezkoaren *El vascuence en la Rioja y Burgos* deritzan liburuaren argitalpen berriaren aurkezpena egingo da. Ihaz erabaki bezala, lan hau, "Instituto de Estudios Riojanos" eta Euskaltzaindiaren erdibanako argitalpena da. Aurkezpen hortara, Euskaltzaindiaren ordezkari bezala, E. Knörr, J.L. Lizundia eta N. Alzola jaunak joango dira.

"Andima Ibinagabeitia" sarirako mahaiburuko jaun hauk izendatzen dira: J.L. Alvarez Enparanza, P. Xarriton, eta A. Zatarain.

A. Irigoyen liburuzainak jasotako liburuen berri eman du, eta emaileei eskerrak ematea erabaki da.

J. Haritschelhar, euskaltzain buruordeak, atzo 24ean, Baionan egindako bileraren berri eman du. Asmoa "Association pour la création d'un Institut d'Etudes Basques à Bayonne" delakoa sortzea da. Kontseilua eratu da, Julian Ajuriagerra, buru eta Hartischelhar buruorde direlarik. Elkarte honen xedea: Bordele, Pabe eta Toulouseko Unibertsitateen babespean, euskal alorreko ikerkuntzatan saiatzea da.

J.L. Lizundia, idazkari ordeak, Bilboko Frantziako Kontsulari bisita egin dio, honen deia jasorik. Euskaltzaindiaren Iparraldeko nortasun

ofizialez aritu ziren. Arazo berean, Haritschelhar jaunak aipatu du nola Baionako Suprefetarekin harremanak hasi dituen eta laster Iparraldeko zazpi Euskaltzainek jaun hau bisitatuko dute eskabidea ofizialki tramitatzeko.

b) *GOIZEKO BILKURAREN BERRI*

Goizeko bilkuran, jaun hauek bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buru-ordezko, J.L. Davant, L. Mitxelena, E. Knörr, F. Krutwig, A. Irigoyen, J. Loidi, J.M. Satrustegi, X. Kintana, J.L. Lizundia, P. Laffite, E. Larre, J.A. Letamendia, J.M. Torrealday eta Martin Ugalde. Oregik ezin etorria adierazi du.

Ondoren, J.L. Lizundiak, Antolakizun Batzordearen Idazkariak, Bergarako Biltzarrearen prestalanak zertan diren azaldu du. Hitzaldi, txosten eta eskabideen xerokopia ere ukitu du, honek ematen duen lana aipatuz. Baita gomitak izan dira mintzagai: Alde batetik lau Diputazioei zuzenduko zaie bana, eta Eusko Kontseilu Nagusiaren Kultur eta Hezkuntz Kontseilariei, bestetik.

Prentsa-bulegoa Haritschelhar, Satrustegi, Torrealday, Ugalde eta Iriondo jaunek osatuko dute. Kanpoko harremanak, berriz, E. Knörr-en ardurapean izango dira.

Batzartuek aho batez ikusi dute komenigarri, Euskaltzaindiaren argitalpenak eta beste ("Euskara batua zertan den, esaterako) bertan izan daitezen salgai. Norbaitek Arantzazuko Txostena aipatu du eta Mitxelenak Aditz Batua.

Gero, Biltzarrearen Programa irakurri da eta J.A. Letamendiak, Hizkuntz Batzordearen Idazkariak, ber lana aurkeztu du, aurkibide bat gaika.

Bergarako Biltzarrean lau motako mintzaldiak izango dira: hitzaldiak, txostenak, eskabideak eta elkarrizketak.

Biltzarrean parte hartzeko txartelak banatuak dira: Euskaltzaindiaren egoitzetan eta Bergaran bertan ere bete ahalko dira.

d) *P. Xarritton: "P. Broussainen paperak"*

P. Xarritton euskaltzain laguntzaileak irakurri du bere txostena. Broussain euskaltzainaren gutunez aritu da bereziki, eta horietatik jakin ahal ditugun berri ugariez. Areago, dio Xarritton jaunak, 1900-1920-erat euskal gauzak ikertu nahi dituenak behar-beharrezko izango du gutuneria hau.

Azkenean, gutunok argitaratzearen inguruan ageri diren koska aipatu ditu.

e) *X. Kintana: "Georgiako bidaiaren zenbait berri"*

Ondoren, X. Kintana euskaltzain laguntzaileak Georgiako bere egonaldiaren berri eman du. Harrera ezin hobea egin zioten, esan du, eta ikerlanari ekin, batez ere Georgieraren euskararekiko dukeen ahaidetasu-

nari. Honek denbora luzeago eskatzen du, ahaidetasun balitz erabat argitzeko. Eskerrak eman ditu Euskaltzaindiaren laguntzagatik eta aurrerantzeko bere asmoa agertu, hots, lan hontan jarraituz.

Elkarrizketan gai hontaz Krutwig jaunak hartu du parte, egitekoaren zailtasuna azpimarratuz.

Euskaltzainburua — *Idazkaria*

Luis Villasante — Juan San Martin

1978-IX-8

Bergarako Mintegian, 1978.eko Irailaren 8an, goizeko 12 t'erdietan bildu dira: L. Villasante buru delarik eta J. Haritschelhar buruordezko, honako euskaltzain osoak; J.L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigaray, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre, E. Knörr, F. Krutwig, L. Mitxelena, J.M. Satrustegi, eta A. Zavala, J. San Martin idazkari dela.

X. Diharce, P. Larzabal eta J.M. Lojendiok ezin etorria adierazi dute, beren ordezkaritza eta, botuetara erabakirik hartu behar balitz, beste honako euskaltzain hauen eskuetan –P. Lafitte, J. Haritschelhar eta A. Irigaray– uzten dutela beren ahala, aditzera emanez.

Bergarako Udalbatzarrari, eta U. N. E. D.-eko zuzendaritzari, bereziki, eskerrak ematea erabaki baita ere Biltzar hau eratzen lagundu diguten guztiei.

Euskaltzainburuak hitz batzuk zuzendu dizkie batzarkideei bilkura honek duen garrantziaz eta Euskaltzaindiaren arauak gogoraziz. Ondorean Biltzar Nagusian erabili diren gaiez erabaki batzuk hartu beharra, batez ere euskararen batasun bideari jarraitzeko eta irakasle eskoletan euskara zar dadin eskaria egiteko.

Batzordetxo bat izendatzea erabaki da batzarreko hitzaldi eta elkarrizketak magnetofonotik jaso eta publikatzeko.

1923.eko Irailaren 8an, duela 55 urte Euskaltzaindiak Donezteben egin zuen batzarrean eman zela L. Eleizalde Bergararraren hilberria.

Ondorean honako agiri hau aho batez onartu da:

Euskaltzaindiak bere VIII. Biltzarraren ondoan adierazpen hau agertzen du:

1. Biltzarrerako egin diren azterketei esker, garbi ikusi du duela hamar urte Arantzazun eskainitako batasun asmoak eta arauek izan duten baietza eta eragina.

2. Hori horrela delarik, orduan hartu zen bidetik, euskararen batasun lanak aztertzea, sakontzea eta aintzinatzea nahi du.

3. H letrari buruz iparraldeko zazpi euskaltzainen lana baliozkoa iritzirik, oinarritzat hartzen du. Horretarako hainbat lasterren argitasun zehatzagoak emango ditu.

4. Bustiduren grafia alde batetik, deklinabidea eta erakusleen formak, bestetik, aski ikertuak daudelakotz, erabakiak hartzeko premia ikusten.

5. Euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla uste du, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz.

6. Gure irakaskuntzaren behar gorriaz jabeturik, "Ministerio de Educación y Ciencia" eta "Ministère de l'Education" direlakoei eskaria zuzenduko die: Irakasle prestakuntza-eskoletan biderik zabalenak eman ditzaten, beharrezko baita:
   a) Edozein sailetan, eta maila guztietan ikasten ari dena euskaraz irakasteko gai bihur dadin eta.
   b) Euskal Herriko eskola horietan guzietan sor dadin Filologia Euskal saila.

7. Batasunerako bidean ari diren Erakunde eta Elkarte guztiekin premiazko harremanak indartzeko nahia aditzera ematen du.

Euskaltzainburua — *Idazkaria*

Luis Villasante — *Juan San Martin*

1978-IX-29

Donostian, Gipuzkoako Diputazio Jauregian, 1978ko irailaren 29an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buru ordezko, A. Irigoyen, P. Laffîte, J. San Martin, J.M. Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; J.L. Alvarez Enparantza, X. Aranburu, F. Arregi, I. Beobide, P. Charritton, Y. Etxaide, J. Fernandez Setien, X. Garmendia, X. Kintana, J.L. Lizundia, L.M. Mujika, A. Zatarain eta J.J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, E. Knörr eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Abuztuaren 25eko eta irailaren 8ko agiriak onartu dira. Bigarren hau onartzeaz, adierazpenezko punduak erabakitzerakoan A. Irigaray jauna alde beharrean aurkitu zenez, honako hau agirian jartzea eskatzen du: "Oharpen bat eginen nuke, datorren agirian ezartzeko. Joan den Batzarreko agirian, esateko geldatu zan, Irigaray euskaltzain jaunak izkuntza batuaren ortografia era batez onartzean, bere botoa zabaltzen zuela, bezperan P. Iraizoz, Loidi eta nihauren izenean irakurria izan zen azalpenaren iru puntuak aipatuz, eta azkeneko momentoan ezin bestez Batzarretik at zegoela bototaren egitean, azken agiriaren lerroetan bestela ulertzen dan arren.

Dena dela, erabakia, botoetara gabe zeuden guztien artean aho batez hartu zen.

a) *HARREMANAK:*

Liburuzainak hartu diren liburuen beri eman du, eta emaileei eskerrak ematea erabaki da.

"Felipe Arrese-Beitia" olerki sariketarako epai mahaiko L.M. Mujika, A. Irigoyen eta J.M. Lekuona jaunak izendatu dira, eta "Bitor Garitaonaindia" antzerki sariketarako I. Beobide, X. Garmendia eta P. Charritton jaunak. Urriaren bukaerako erabakia hartu beharra adierazi da.

Luis Eleizalde zenaren alaba eta biloba azaldu dira Bergarako Biltzarraren ondotik, pena agertu bere berri lehenagotik ez jakitzea. Beren

guraso eta euskaltzaina zenaren oroiz brontzezko domina bana ematea erabaki da Miren Eleizalde Urritia, Itziar Eleizalde Urrutia, Benigna Eleizalde eta Carlos Bastero Eleizalde-ri.

b) *GOIZEKO BILKURAREN BERRI:*

Euskaltzain laguntzaile eta Hezkuntzako Kontseilari den C. Santamaria jaunak elebitasunaren lege proiektoa igorri digu ikus eta ohartzeko. Lan hau egiteko batzorde bat izendatzen da: J.M. Satrustegi, E. Knörr, J.A. Letamendia, J.L. Lizundia, X. Mendiguren, P. Uribarren eta Kepa Larunbe jaunek osatua.

Azpeitiko Udalaren eskaria, euskaraz dakien ala ez onezpena emateko ahaldun bat eskatzen digu epai-mahairako eta Jose Maria Iriondo azpeitiar eta laguntzailea izendatu da.

Haritschelhar jaunak Hezkuntza Ministeriora idatzi duten gutuna irakurri du, Euskaltzaindia Frantziako Estatuak bere barna on har dezan.

Gipuzkoako Aurrezki Kutxak Gabriel Aresti euskaltzain laguntzaile zenaren omenezko poesi bilduma, *Agiriak* deritzana gertatu du eta bere aurkezpena azaroaren 24an, Euskaltzaindiaren hileroko batzar ondorean egingo du, Diputazioan bertan.

Bigarren batzarrean, euskaltzainez gainera, Bergarako batzarkide hauek bildu dira: J.L. Alvarez Enparanza, P. Altuna, J.A. Loidi, X. Mendiguren, X. Kintana, J.L. Lizundia, J.J. Zearreta, P. Charritton eta J. Intxausti. Euskaltzainburuak hitz batzuk irakurri ditu Bergarako Biltzarrari buruz eta ondorean hango lanak begiratu eta zenbait erabaki zehatz hartzeko, hona batzorde honek izendatu dira:

1) Bustiduren batzordea: A. Irigoyen, I. Sarasola eta J.L. Lizundia. Gai hau denez aurreratuena eta bizkorren erabaki dezakeguna. Datorren batzarrerako txosten bat egingo dute.

2) Erakusleen batzordea: P. Altuna, X. Kintana eta J.L. Alvarez. Eguberrietarako erabakia ekartzekotan gelditzen dira.

3) Deklinabidearen batzordea: X. Garmendia, L. Villasante, A. Irigoyen. Eperik gabe.

4) H-ren batzordea: Haritschelhar, Mitxelena, Davant, Lafitte. Batzorde bakoitzean arduradun. Irigoyen, Altuna, Villasante eta Haritschelhar jauna izendatu dira.

d) *J. SAN MARTIN: "TXORI IZENAK EIBARREN"*

Eibarren ihizarien laguntzaz bertakotzat ezagutzen diren berreunenbat txori izenen zerrendaren adierazpena egin du, euskarazkoaren ondotik gaztelarazkoa eta zientziakoa jarriaz. Erabili duen bilabidea eta erabili dituen nomenklatorren berri emanaz, izenen lekukotasuna finkatzea eta ornitologia unibertsala mugatzea izan du helburu.

e) *"BAI EUSKARARI" KANPAINAREN BATZORDEKOAK ESKERTZEA*

"Bai Euskarari" kanpaina eratzen eta aurrera eramaten hainbeste lan egin duten batzordekoei gure esker ona agertu zaie eta ekintza eder horren eta Euskaltzaindiaren oroitzapena izan dezaten, opariz, *Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, Liburu zuria,* Axularren *Gero* eta L. Eleizalderen omenez Bergarako Biltzarrerako egin ziren dominetatik bakoitzari bana ematen zaie euskaltzainburuaren eskutik. Jaun sarituok hauek dira: Bittor Artola, Iñaki Azpitarte, Pedro M.ª Basañez, Jose M.ª Beaskoetxea, Jon Castañares, Juan M.ª Covian, Alberto Elorriaga, Enrique Ibabe eta Iñaki Juaristi.

f) *KONSTITUZIO BERRIAREN AURREZ AURRE:*

X. Kintanak agertu du Espainiako Estaduak proposatzen duen Konstituzio berriak gure hizkuntza legez baztertzea dakarrela. J. San Martínek gogoratzen du ekaineko batzarraren amaieran hori aditzera eman zuela. Gai hontaz elkarrizketa aski luzea izan ondorean honako agiri hau idatzi da Gobernuari, Gorteetako Lehendakariari, Eusko Kontseilu Nagusiari eta lau Diputazioei eta prentsari igortzeko.

Euskaltzaindiak, 573/1976 erret dekretuz, Juan Carlos I Errege jaunak berak, beste eginkizun batzuren artean, hizkuntzaren enplegua aintzinatzea eta beraren eskubideak zaintzeaz arduratzeko onartu zuenez, azalpen bat egin nahi du betebehar hontaz, jendaurrean jakinaraztera beharturik aurkitzen delako, orain eztabaidatzen ari den Konstituzio-projektuaren 3. artikuluak gaztekania ez diren beste hizkuntza nazionalak bereztaturik uzten dituela.

Akademia honek, arazo honetaz inork galdetua izan ez denak, goian aipaturiko artikulu hori, gainera, Espainiako Estaduak Ginebran sinaturiko Giza Eskubideen Agiriaren letrarekin eta ez izpirituarekin bat ez datorrela gogorarazi nahi du.

Horrela ba, artikulu horren oraingo testua gure kizkuntzak orain arte Historian zehar pairatu duen baztertze-politikaren jarraipena dela uste dugu, hura Estaduaren oinarrizko legeetan horrela kontsakratuz. kratuz.

Donostian, 1978.eko Irailaren 29an

La Real Academia de la lengua Vasca-Euskaltzaindia, que fue reconocida por Real Decreto 573/1976, por S.M. el Rey D. Juan Carlos I, por el que se le encomienda, entre otras funciones, promover su uso y velar por los derechos la lengua, se siente obligada a señalar públicamente que el artículo 3.º del proyecto de la Constitución, actualmente en debate, considera de forma discriminatoria a las lenguas nacionales distintas del castellano.

Esta Corporación académica, no consultada al efecto, quiere recordar que el artículo indicado, además, no se aviene ni con la letra ni con el espíritu de la Declaración de los Derechos Humanos de Ginebra, suscrita por el Estado español.

Creemos pues, que la redacción actual de este artículo supone la continuidad de la política de marginación histórica de nuestra lengua y su consagración en la ley fundamental del Estado.

San Sebastián, 29 de setiembre de 1978

Beste gabe, ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua — *Idazkaria*

Luis Villasante — *Juan San Martin*

1978-X-27

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1978.eko Urriaren 27an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin, J.M. Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; J.L. Alvarez "Txillardegi", X. Aranburu, F. Arregi, M. Atxaga, I. Beobide, I. Berriatua, P. Charritton, J. Fdez. Setien, J. Intxausti, X. Kintana, M. Lasa, J.M. Lekuona, J.A. Letamendia, J.L. Lizundia, L.M. Mujika, I. Sarasola, J.M. Torrealday, J. Oregi, M. Ugalde, P. Uribarren, A. Zatarain eta J.J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaun-andreak.

Davant, Diharce, Hiriart-Urruty eta Larzabal jaunek ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Iraileko batzar agiria onartu da.

a) *HARREMANAK:*

A. Irigoyen liburuzain jaunak hartu diren liburuen berri eman du. Emaileei eskerrak ematea erabaki da.

Hil honen 31.ean Bizkaiko Aurrezki Kuntxak literatura sariak banatzea egingo du eta komitatuak gara.

Gerediaga Elkarteko lehendakariak Durangoko XIII. Liburu eta Disko Azokarako epai-mahaia osatzeko eskaria egiten digu eta honako hauek izendatzen dira: L.A. Aranberri "Amatiño", Anjel Lertxundi "Andu" eta Juan San Martin.

Euskaltzaindiaren bulego berria Arbieto kalean idekiko da Bizkaiko Diputazioak eman digun etxebizitzan; oraingo etxean liburutegi eta artxiboak jarraituko dute.

b) *GOIZEKO BILKUREN BERRI:*

A. Irigoyen jaunak irakurri du KONTSONANTE BUSTI-PALATALEN GRAFIAZ Euskaltzaindiaren erabaki-proposamena, euskara idatziaren batasunerako: "Euskaltzaindiak, beste arloetan bezala honetan ere orok

euskaraz ortografia bat bebera erabiltzea beharrezkoa dela ikusirik eta Resurrezio Maria Azkue, euskara batzeko asmoz "gipuzkera osotua" proposatu eta bultzatu zuen lehen Euskaltzainburu ospetsuak arrazoiz orniturikako bide beretik abiaturik eta eguneon, zorionez, delako joera ortografiko hori hedatzeko bide sendoan doala ikusirik, hurrengo erabakia hartzen du, izkribuz baliatzen diren guztiei etorkizunerako hobetzat gomendatuz:

1. Euskaltzaindiak ontzat hartzen ditu *ñ, ll, tt, dd, x* eta *tx* kontsonante palatalen grafiak balio adierazkorra duten kasuetan, hala nola *andereño, haurño, ñabar, llabur, ttantta, edder, Maddalen, goxo, hortxe* hitzetan agertzen direnak.

2. Egituraren bidez, aurreko *i-* bokala dela medio, leku batzuetan sortu diren palatalizazioetarako, ordea, *-in-, -il-, -it-, -int-,* eta *-ind-* erabili behar dira, palatalizaziorik egiten ez den eskualde eta alderdietan bezalaxe, hala nola *baina, mutila, ditu, pinta, indarra* eta abar.

3. Halaber erdaratikako hitzetan, despalatalizazioaren bidez sortu den grafia ontzat harturik, hala nola *Espainia, gaztaina, teila* eta abar.

4. Halaber ez dira erabili behar *x* eta *tx,* sibilante palatalak seinalatzeko ditugun grafiaz, egituraren bidez, aurreko *i-* bokala dela medio, sortu direnean, hala nola *aizea, itsua, gizona* eta ez *axea, itxua, gixona,* azkenengoa gizon txikia edo kaskarra adierazteko erabiltzen ez baldin badugu halako hitzak hipokoristikotzat har baitaitezke.

5. Toponimian, ordea, historia hurbileko egituraren bidez sorturikako palatalizazioa ez baldin bada, *i-* gabeko kontsonante palatalen grafiak erabiliko dira, hala nola *Iruñea, Urruña, Mañaria, Mañeru, Oñati, Amallobieta, Mendexa, Etxaleku,* eta abar, baina *Markina, Abadino.*

6. Ortografia lege hauek berdin balio dute edozein euskalkitan eginikako izkribuetarako ere.

7. Erabaki hauek grafiari begira daude eta oraingoz ahoskatzeaz ez da ezer adierazten.

Batzordeko diren Jose Luis Lizundia, Ibon Sarasola eta Alfonso Irigoyen-ek, eskatu bezala Euskaltzaindiari zuzentzen dioten proposamendua. Donostia, 1978-X-27.

Hiru jaunok aurkeztua onartzen da.

Andima Ibiñagabeitia Saria, 1978. Venezuelako Euskera Lagunen Elkarteak jarriko saria, lehenengoari 1.000$ eta bigarrenari 500$, honako lan hauentzat erabaki da: 1. *Sagardogintza Euskal Herrian* eta 2. *Akustika.* Plikak idekitzean honako hauek agertzen dira egile: Jose Uria Irastorza eta Iñaki Azkune Mendia. Epai mahaiko: J.L. Alvarez "Txillardegi", P. Charritton eta A. Zatarain jaunak.

J.M. Satrustegi jaunak eman du Bilinguismo Dekretuaren projektuaren berri, esanez, orain bi urte Euskaltzaindiak gertatua kontuan izanik

eta Euskal Kontseilu Nagusiaren Hezkuntza kontseilaritzakoa oinarritzat harturik eta Hezkuntza Ministeriokoa kontutan harturik aztertu dela.

Aditz batzordekoek egin duten lanaren inprimategiko frogak eta eginak dituzten oharren berri eman dute. Lanak, inprentaratuak, laster argitaratzekotan dira.

A. Irigaray, E. Erkiaga, J. Gorostiaga, J.M. Lojendio, M. Lekuona, A. Iraizoz, A. Intza eta A. Labaien euskaltzain jaunen txostenaren berri eman da. Irakurleen artean euskara idatziari buruzko inkesta egitearen aldeko azalduaz Bergarako Biltzarretarako izendatu zen estadistika batzordekoekin bilera batera dei egitea erabaki da, gai hontaz arduratu zirenezkero, azterketa nola hobetu estudiatu ditzaten.

J.A. Arana Martija jauna Euskaltzaindiko liburutegia ordenatzeko eta gaurkotzeko kontratatzea erabaki da.

d) *SIADECO: "EUSKARAREN NORMALIZAPENERAKO PLANGINTZA BATEN OINARRIAK":*

Euskararen egoera eta ikuspegiaren azterketarako dagoen Batzorde Koordinatzaileak SIADECO etxeari agindutako hirugarren lanaren aurkezpena.

SIADECO-ko Iñaki Larrañaga izan da aurkeztzaile. Sarrerako hitzetan agertu du holako lan batek eskatzen dituen punduak zer diren: Helburuen definitzea, bitartekoen edo medioen aukeratzea, lehentasun edo prioritateen erabakitzea, programa zehatzak arlo bakoitzean markatzea eta behar diren finantzia bideak aurkitzea. Ondorean, hiru zatitan berezi du liburuaren edukia edo kontenidoa: Gaur egungo (1975-ko) egoera, datozen urteetako eboluzioa (1985-erako) eta eskakizun orokorrari erantzuteko beharko diren ekipamendu eta dirutza. Gaur egungo euskaldun kopurua, azterketan eman duenaren arabera 638.000 dira, eta honela banaturik: % 8 Araban, % 10 Bizkaian, % 45 Gipuzkoa, % 11 Nafarroan eta % 34,5 Ifar Euskal Herrian. Euskal Herri guziko biztanleak kontuan harturik, % 22,7 dira euskaldunak. Azken hamar urteko abantailak gogoan harturik, ekintza bere bidetik jarraituz, markatzen ditu helburuak, eta gauzak aurrera eramateko zenbat diru kostatuko den ere bai.

Euskaltzainburuak zenbait hitz egin ditu lan eder eta sakon honi buruz, partaide izan direnei eskerrak agertuz.

Ondorean elkarrizketa aski luzea izan da gai beraren inguruan. Tarteka marteka agertu denez, gaur, euskaraz idazten ari diren gehienak estudianteak eta langileak direla.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua — *Idazkaria*

Luis Villasante — *Juan San Martin*

1978-XI-24

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1978.ko Azaroaren 24an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, J.L. Davant, X. Diharce, J. Iriart-Urruty, A. Irigoyen, F. Krutwing, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin eta J.M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J.M. Aranalde, P. Arregi, M. Atxaga, P. Charritton, J. Fdz. Setien, J. Garmendia Kortadi, X. Garmendia, J. Goikoetxea Maiza, X. Kintana, J.L. Lizundia, A. Zatarain eta J.J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dela.

E. Knörr, P. Larzabal, L. Mitxelena eta A. Zavala jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Urrileko batzar agiria onartu da.

a) *HARREMANAK*

Espainiako Gobernuko Lehendakariaren idazkaritzatik hartu den gutunaren berri eman da. Konstituzio berriaren proiektoari aintzin tituluko 3. artikuluari Euskaltzaindiak egin zion oharra hartu zutela eta jakinaren gain jartzen direla aditzera emanaz. Baita ere, E.K.N. eta Bizkaiko Diputazioaren gutunak, gai berari buruz.

Agiriak deritzan liburua, Gipuzkoako Aurrezki Kuntxak G. Aresti zenaren omenez argitaratuaren aurkezpena urrengo baterako atzeratua izan dela aditzera ematen du idazkariak.

A. Irigoyen liburuzainak hartu diren liburuen berri eman du eta emaile diren guziei eskerrak agertzea erabaki da.

Xenpelar sariaz, lanak hartzeko epea bete da eta epai-mahaia izendatzen da: A. Zavala, J.M. Lekuona, J.M. Aranalde eta F. Artola "Bordari".

A. Irigoyenek liburutegia eratzen ari den J.A. Aranaren lanen berri eman du.

b) *GOIZEKO BILKUREN BERRI*

Kargu berritzeak, Arautegiaren 28. 29. 30. 31. eta 32. artikuluen (ikus *Euskera*, 1974, 369 orr.) arabera, 12 euskaltzain oso bildu dira eta beste hiruk beren bozen ordezkoen izenak eman dituzte izkribuz. Bozketak, era honetara izan dira: euskaltzainburutza, 14 boz L. Villasanteren alde eta 1 P. Lafitteren alde; Buruordetza, 14 boz J. Haritschelharren alde eta bat zuri; Idazkaritza, 13 boz J.M. Satrustegiren alde eta 2 zuri; Diruzaintza, 14 J. San Martinen alde eta bat zuri. Denak erdiak eta bat gehiagorekin irten direnez, ondoko bi urteetan jaun hauek osatuko dute Zuzendaritza: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, J.M. Satrustegi idazkari eta J. San Martin diruzain.

Gainerakoan, ahobatez, A. Irigoyen izendatzen da liburuzain eta J.A. Arana Martija laguntzaile. Ordezkaritzetan, P. Charritton Baionako idazkari eta E. Knörr Arabako buru. Horietaz gainera, Iker sailaren arduradun, L. Mitxelena, eta Jagon sailarena, J. San Martin izango dira.

Euskal Idazleen Elkartea Durangoko Euskal Liburu Azokan bildurik eta Euskaltzaindiaren babespean jartzeko eskaria egin zuen. Onartu da.

Bertsolari txapelketak berriztatzeko ahaleginak egitea erabaki da, eta horretarako datorren hilaren 22an, bertsolaritza batzordea bilduko da.

Bustidureli buruzko erabakiak onartu dira, L. Villasante-ren txosten eta A. Irigoyenek eman dituen oharren ondorean. Bozketara joaz, 14k baietza eta lek ezetza. Kontsonante busti-palatalen grafiazko txostena, azken erabakitakoa, A. Irigoyenek irakurri du.

Arkitektura hiztegiari onespena eman zaio. Gai honen batzordeko arduradun zen Jose Migel Zumalabe jaunak ezin etorria adiarazi du eta lan hontan parte hartu dutenen izenean Elhuyar elkarteko Iñaki Azkune eta Euskal Herriko Arkitektoen Kolegio Ofizialeko Jose Mari Aranburu jaunek eman dute lanaren berri.

d) *ADITZA BATZEKO BATZORDEAREN HISTORIAZ ZERBAIT*

X. Kintana jaunaren txostena. Batzordeko idazkariak eman zituen argitasunei zenbait ohar egin dio. Argitasun horiek *Euskera*, XXII 2. aldia, 1977.eko Uztailetik Abendura, 667-672. orrialdeetan agertu ziren.

e) *ERRAMON INTZAGARAI SORRERAKO EUSKALTZAINAREN OROIMENEZ BERE MENDEURRENA*

Juan Jose Arrue jaunaren txostena. Erramon Intzagarai "Elurmendi" zenaren ehunurte buruan bere omenez, bere bizitza eta lanei buruz mintzatu da. 1878an sortu zen Donostian bertan. Euskaltzaindiaren sorrerako euskaltzainetako bat, 69 urtekin hila, euskal idazle, irakasle, olerkari eta kondairazale zena.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua — *Idazkaria*

Luis Villasante — *Jose Maria Satrustegi*

1978-XII-29

Bilbon, Bizkaiko Diputazio jauregian egin du Euskaltzaindiak urteko azken batzarra, 1978.eko Abenduaren 29an. Arratsaldeko lauretan bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordea, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin eta A. Zavala euskaltzainak; P. Altuna, J.L. Alvarez "Txillardegi", N. Alzola, P. Charritton, J.A. Etxebarria, X. Gereño, X. Kintana, J.L. Lizundia, J. Oregi, J.A. Retolaza, P. Uribarren, J.J. Zearreta eta Mikel Zarate laguntzaileak, J.M.ª Satrustegi idazkari dela. Ezin etorria adierazi dute: Davant, Diharce, Hiriart-Urruty, eta Larzabal euskaltzainak.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Villasante jaunak, mahai buruan dagoen Diputazioko lehendakari Amorrortu jaunari eskerrak eman dizkio, gure Bilboko ordezkaritza berria sortzerakoan eginak dituen ahalegin aipagarriengatik.

Era berean, gero, J. San Martin jauna eskertu du idazkaritzan orain arte egin duen lan isil eta neketsuagatik, diruzain karguan jarraituko duelako poza agertuz; eta J.M.ª Satrustegi idazkari berriari ongietorria eman dio.

BATZORDE LANAK

Gaur zortzi, Gipuzkoako Diputazio jauregian batzordeek eginolako bilkuren berri eman da: a) Altuna jaunak, Bergarako Biltzarreko adierazpenean agindutako erakusleei buruzko erabaki proposamena aurkeztu du, hortarako izendatu zen batzordearen izenean. Hilabete barruko zuzenketa epea irikitzen da. b) Uribarren jaunak, Bergarako Biltzarreko adierazpenaren 6. puntuan erabaki bezala, Hezkuntza Ministeritzari zuzentzeko batzordeak prestatu duen eskaria irakurri du. Zuzenketa txiki batzu eginda igorriko da. d) Aita Zavalak bertsolaritzaren egoeraren berri eman du, adieraziz, premiazko ikusten duela batzordeak bertsolari txapelketak eratzea. e) Mendiguren jauna, irakaslego batzordearen izenean mintzatzekoa zen, eta Zearreta jaunak egin du haren ordez. Euskaltzaindiaren titulua aterako dutenen gaitasunari buruz eta dauden tituluen gaurkotzeaz aritu da.

GOIZEKO BILKURAREN BERRI

Euskaltzainburuak datorren urtean, Arrasaten, egingo den Euskaltzaindiaren IX. Biltzarrari buruz, goizeko euskaltzain osoen erabakia adierazi du. Seber Altuberen omenetan izango da eta Abenduaren 20tik 23ra, gai nagusia, gramatika izanik, batez ere *morfologia* eta *sintasia*. Urtarrileko batzarra baino lehen oharrak bidaltzea komeni da. Hizkuntz batzordeak esango du gero horietatik zein aukeratu. Biltzar hontarako, batzordeak honela izendatuak gelditzen dira: *Hizkuntz batzordea* bi atalez osotua: a) *Kontselariak:* L. Mitxelena buru, J. Haritschelhar, A. Irigoyen, P. Lafitte eta L. Villasante. b) *Eragileak:* J.A. Letamendia, R. Badiola, Patxi Goenaga, Jose Antonio Mujika eta P. Pujana. *Batzorde idazkaria:* J.A. Letamendia eta *idazkari-ordea:* M.ª Pilar Lasarte. *Antolakizun batzordea:* J.M.ª Satrustegi buru, J.L. Lizundia idazkari, M. Lasa, I. Laspiur eta J.J. Zearreta, Arrasate bertako zenbait ordezkariekin gehituz.

Euskaltzainburua — *Idazkaria*

Luis Villasante — Jose Maria Satrustegi

1979-I-26

Baionan, Euskal Erakustokian, 1979.eko Urtarrilaren 26an, goizeko lletan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordea, J.L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigaray, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin, J.M. Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; Odon Apraiz, euskaltzain ohorezkoa; J.L. Alvarez "Txillardegi", P. Andiazabal, F. Artola, I. Berriatua, R. Canblong, P. Charritton, J.B. Dirassarre, M. Goienetxe, J.L. Lizundia, E. Salaberri, eta J.J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak; J.M. Satrustegi idazkari dela.

A. Zumalabe eta A. Irigaray jaunak, Eusko Ikaskuntzaren izenean etorriak dira.

EUSKALTZAINEN BATZARRA

Lehendabizi, euskaltzain osoen batzarra egiten da, bertan Abenduko batzar agiria onartukeran, euskaltzainburuak ohar bat egiten du, argituz, Arrasateko Biltzarrerako oharrak bidaltzeko epea Otsaileko batzarrean amaituko dela, ez Urtarrilakoan agiriak dioen bezala.

X. Kintana eta A. Irigoyen jaunek egina zuten eskaria aipatu da. "País Vasco" erdal esaera adierazteko, alegia, Euskal Herria esaera jatorra ezin dela baztertu, nahiz Euskadi ere berdin erabili. Ontzat ematen da agerpen hau. Eusko Kontseilu Nagusiari eta prentsari bidaltzea erabaki da.

J.M. Satrustegi, lekukoen bildumaz eman zitzaion eginkizunez mintzatu da. Liburuen neurria aipatu du, batez ere, eta inprimagintzan ikasiei galdetu ondoan, *Liburu Zuria*ren neurria dela oso neurri egokia, jakinara zi digute. Neurri horretan egingo da, beraz.

Otsailaren bian egingo da, Donostian, Arrasateko Biltzarra antolatzen joateko izendatuak diren batzorde bien bilkura. Gipuzkoako Diputazioan, goizeko lletan. Egun berean, arratsaldean, Aresti zenaren olerki bilduma aurkeztuko du Aurrezki Kutxak.

BATZAR IREKIA

Ondoren, Erakustokiko aretoan egin da Georges Lacombe zenaren ehun-urteburua ospatzeko gertatua zen batzar irekia.

L. Villasante jaunak egin du ongi etorria.

P. Lafitte, Lacomberen lekuko euskaltzainak, prestatu du haren biziko xehetasunen ikuspegia, aipatu ditu bere lanak eta pentsabidea.

P. Charritton, hanhemenka banatuak diren eskutiz eta idazkiez mintzatu daizo bait gauza aipagarr%adieraziz.

Odon Apraiz jaunak, bere biziko gordailu aberatsetik eman ditu, frantsesez, Lacombe zenarekin izandako harremanen berriak.

Eta azkenik, Baionako ordezkaritzaren buru eta idazkariak, J. Haritselhar eta P. Charritton jaunek, arratsaldeko bilkura eta prentsa aurrekoa iragartzen dituzte. Erakustokian bertan izango da, eta hiru puntu eabiliko dira:

a) Parisera egina duten, Euskaltzaindia Iparraldean ere ofizialki onartzeko eskaria. Zonbait hilabeteren buruan erantzunik izan ez duen idazkia.

b) Baionako ordezkaritza irekia dela jakinarazi, eta Charritton dela idazkari. Port Neuf, karrikako 15ean izango da Euskaltzaindiaren bulegoa.

d) Bai Euskarari kanpainaren antzeko zerbait egitea Iparraldean ere. Bilkura honetara euskaltzaindikoetatik aparte, Iparraldeko zenbait talde euskaltzale eta kazetariak deituak dira.

Euskaltzainburua — *Idazkaria*

Luis Villasante — Jose Maria Satrustegi

1979-II-23

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1979.eko Otsailaren 23an, arratsaldeko lauetan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordeko, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Laffite, E. Larre, J. San Martin, J.M. Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; J.L. Alvarez Enparantza, F. Arregi, M. Atxaga, I. Berriatua, P. Charritton, J.M. Etxaburu, X. Garmendia, X. Kintana, J.A. Letamendia, J.L. Lizundia, J. Oregi, P. Uribarren, A. Zatarain eta J.J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak; J.M. Satrustegi idazkari dela.

J.L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabalek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Urtarrileko batzar agiria onartu da.

a) *GOIZEKO BILKURAREN BERRI:*

Euskararen gaurko egoerari buruz egindako azterketa laster argitaratzeko dela jakinarazi du SIADECO-k. Laburpena Martin Ugalde jaunak egin du. 20.000 ale aterako dira.

Uda aldean egitekoa zen Euskalarien Aurkiketa oraikotz atzeratzea erabaki da. Horren ordez, Seber Altube zenaren mendeurrenari hasiera emateko, Euskaltzaindiak Abuztuko batzar irekia, hilaren 27an, Gernikan eginen du.

Euskaltzainburuak, Mitxelena jaunaren laguntzaz egindako proposamen bat ekarri du, "Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak" izenekoa, Bergaran aipaturiko punduari hedadura emanez. Hilabete baten epea uzten da oharrak egiteko.

P. Altunak, Erakusleen batzordeak egindako proposamena irakurri du, eta euskaltzain osoek orokorki ontzat eman dute, ohar batzu eginez. Pundu bi gelditu dira, beste alde, geroago berrikusteko: 1) *Hauk, hauek,* nominatibo eta ergatiboa bereizteko, biak ontzat eman behar diren ala bat. 2) *-tatik -tarik,* geroago deklinabideko batzordeak aztertzeko utzi da.

b) *DAGOZKIEN BATZORDEEN AZALPENA:*

"Andima Ibinagabeitia" sarirako lanen epea irekirik gelditu da, aurtengo tesina edo saio lana literatur alorrekoa izanik.

A. Irigoyen eta J.A. Aranak "AZKUE Bibliotekan" egindako lanen berri eman dute, eta eskuratutako liburu guztien zerrenda dakarte.

J.L. Lizundiak "Udalen izendegia" datorren hilabeterako atera ahal izango dela jakinarazten du, lau Aurrezki Kutxa Munizipalek babesturik 100.000 ale argitaratuko dira.

A. Zavalak, bertsolari batzordearen berri ematen du. Bertsolarien iritziak entzunik, zaila ikusten da oraikotz txapelketa egitea.

d) *TXOSTENAK:*

J.M. Satrustegik, "Aizkibel euskara batuaren aintzindari" izeneko txostena irakurri du, euskaltzale honen esku-izkribu bat Tolosan agertu dela aditzera emanez.

J. Oregik "Itzulpen batzuei buruz" kezkak agertu ditu bere txostenean. Eztabaida sortu da eta Euskaltzaindiak ikusiko du.

Madrilen elebitasunaren legeztapena atzeratzeak sortzen duen kezka larria agertu dute batzarkideek, eta salaketa egin beharrean aurkitzen da Euskaltzaindia.

Euskaltzainburua — *Idazkaria*

Luis Villasante — Jose Maria Satrustegi

1979-III-30

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1979.eko Martxoaren 30ean, arratsaldeko lauetan bildu dira: L. Villasante buru, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Laffitte, E. Larre, J.M. Satrustegi eta A. Zabala euskaltzain jaunak; J.L. Alvarez Enparantza, I. Berriatua, P. Charritton, J.M. Etxaburu, X. Kintana, J.A. Letamendia, J.L. Lizundia, L.M. Mugika, R. de Rijk, A. Zatarain eta J.J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak; J.M. Satrustegi idazkari dela.

J.L. Davant, X. Diaharce, J. Haritschelhar eta P. Larzabalek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Otsaileko batzar agiria onartu da.

a) *GOIZEKO BILKUREN BERRI:*

Batzordeen birrantolaketa. Honako batzorde hauek berriztatu edo jarri dira: *Oinarrizko euskara:* I. Berriatua buru, J.J. Zearreta idazkari, J.L. Alvarez Enparantza, X. Kintana eta J.L. Goikoetxea;

Alfabetatze-Euskalduntze: hauek bi azpibatzordetan banaturik:

Harremanetakoa: J. San Martin buru eta Gipuzkoako harremanetarako, E. Knörr Arabarako, J.M. Satrustegi Nafarroarako, J.L. Lizundia Bizkairako eta P. Charritton Iparralderako; *Gidaritza teknikoa:* Irakaslego batzordekoak eta prezeski: X. Mendiguren P. Uribarren eta J.J. Zearreta.

Herri Administralgo hiztegiñoa: J. Haritschelhar buru, J.L. Lizundia idazkari F. Mendizabal X. Kintana eta J.A. Arana Martija; kontsultari gisa: J.M. Lojendio, M. Itzaina, J. Oleaga, P. Zabaleta, E. Etxezarreta, P. Iztueta, A. Muniategi eta M. Rika.

Elebitasunaz harremanak: J.M. Satrustegi buru, J.L. Lizundia idazkari, E. Knörr, J. San Martin, J.A. Letamendia, X. Mendiguren, P. Uribarren eta K. Larunbe.

Aurrerago berriztatu zen bertsolari batzordean J.M. Iriondo idazkari izendatu da.

Jaso diren oharrak kontuan izanik, "Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak", Bergarako Biltzarraren adierazpena onartu da.

J.M. Satrustegi jaunak magnetofoi bilketaren berri eman du. Hamaika zinta hartu dira, Altsasu, Arrokiaga, Elantxobe, Gernikako Errenteria, Lekarotz, Ligi-Atherei eta Maulen jasoak. Hauetatik zazpi ontzat eman dira.

Irakaslego batzordea bildu da, beste alde, programa berriak zehazten jarraitzeko. Helburuaz jabetu eta iritziak entzun ondoren, zenbait xehetasun hobeki mugatzeko utzi dira gaurkotz. D eta B mailako azterketak, Donostian Maitzaren 19an, eta Durangon Maiatzaren 26ean izango direla jakinerazi dute.

Euskaltzain buruak, Holandako urgazle Rudolf de Rijk jaunari ongietorria eman dio.

b) *TXOSTENAK:*

J.L. Lizundia jaunak "Herri administralgo hiztegiño baten eskabide eta premiaz" bere txostena irakurri du. Euskararen normalizapenak eskatzen du, Udaletxe, Hauzitegi, Legedi eta beste eginkizun ofizialetan erabiltzen diren arazo eta burubide mugatuak, hitz zehatzekin adierazi beharra.

Gramatika gaietako izendegiarekin hutsune bera dugula aipatu du gero X. Kintana jaunak. Lan biak behar beharrezkoak dira.

J.M. Etxaburu jaunak "Kultura hitzen laburpena" izeneko idazkia irakurri du, aurre hitzari *a* kentzea gaizki omen dagoela esanez. Bestelako iritziak ere agertu dira.

Elhuyar-ko M. Zalbide jaunak, Matematika, Fisika, Kimika, Biologia, Anatomia, Zoologia eta Teknologia gaiei buruz egin duten hitzen maiztasunaren bilduma mardula aurkeztu du.

Azkenekotz, "Euskera" 1978eko bigarren alea banatu da. Bergarako Biltzarran erabilitako-gai guztien bilduma da.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua — *Idazkaria*

Luis Villasante — Jose Maria Satrustegi

1979-IV-27

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1979.eko Apirilaren 27an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordeko, J. Hiriart-Urruty, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin, J.M. Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; J.L. Alvarez Enparantza, J.M. Aranalde, X. Aranburu, J.A. Arkotxa, F. Arregi, M. Atxaga, J. Berrojalbiz, P. Charritton, K. Esnal, J. Estornes Lasa, J. Fernandez Setien, J. Goikoetxea "Gaztelu", J. Goikoetxea Maiza, F. Mendizabal, J. Intxausti, X. Kintana, J.L. Lizundia, P. Uribarren, A. Zatarain eta J.J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaun-andreak.

J.L. Davant, X. Diharce eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Martxoko batzar agiria onartu da.

a) *GOIZEKO BILKUREN BERRI*

Datorren hilabeteko Batzarra Iruñean egingo da, aurtengo egutegiak dioen eran, Maiatzaren 25ean. Egun horretan, Nafarroako ordezkaritza ofizialki irekiko da, denbora berean lau nafar euskaltzaleen mendeurrena ospatuz. Luzaideko "Bordel" bertsolariaz, J.M. Satrustegi mintzatuko da. Bidankoze-ko Prudentzio Hualdez, Juan San Martin. Kaparrosoko Aita Arrigaray, Aingeru Irigaray euskaltzainak aipatuko du, eta Arantzako Aita Lezo kaputxinoaren berri, Ataungo Bonifazio aitak emango du.

Batzordeen birrantolaketa burutu da, *Herri jakintza* eta *Aditzarena* osotuz. Donostiako ordezkaritzako buru Joseba Intxausti izendatu da.

Herri jakintza batzorderako izendatu dira: A. Zavala buru, J.M. Satrustegi idazkari, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Larre, P. Guilsou eta G. Lopez de Gereñu.

Aditz batzorderako: L. Mitxelena buru, P. Altuna idazkari, P. Lafitte, J.L. Davant, I. Berriatua, A. Irigoyen, D. Intza, P. Iraizoz, X. Kintana, F. Mendizabal, I. Bastarrika eta J.L. Alvarez.

Basauriko Udalak bertako bi funtzionari izendatzerakoan, epai mahairako Euskaltzaindiko norbait eskatu du. J.J. Zearreta, edo ta ordezkotzat X. Mendiguren izendatu dira.

b) *DAGOZKIEN BATZORDEEN AZALPENA*

Euskera aldizkariaren aurtengo lehen alea, XXIV. zenbakia, prestatu du dagokion batzordeak.

J. San Martin diruzainak, ekonomi batzordearen izenean, azken hiru hilabeteetako diru kontua eman du.

d) *HARTUEMANAK*

Mikel Zarate laguntzailearen heriotzaren berri txarra eman du euskaltzain buruak, euskararentzat eta batez ere Euskaltzaindiarentzat galera haundia izan dela aitortuz.

Elebitasunaren dekretua Madrilen onartzean Karlos Santamaria laguntzaileak hortan izan duen arduragatik eskerrak ematen zaizkio.

J.M. Zabaletak eskuzko euskal dokumentazioa mikrofilmez biltzeko asmoa agertu du. Garrantzitsua da eta beharrezkoa honelako lana eta Euskaltzaindiaren babesa eskaini zaio.

e) *BATZAR IREKIA*

Xabier Aizarna, Diputatu Orokorrari, zorionak eta ongietorria emanik, Ixaka Lopez Mendizabal zenaren ehun-urteburuko omenaldia egin da.

Euskaltzain buruak ospakizunaren aurkezpena egin du, Tolosako idazle eta euskaltzain ohorezkoaren merezimenduak aipatuz.

Juan San Martinen txostenak Ixaka Lopez Mendizabal zenaren bizitza eta lana gogora ekarri ditu, ekintza nagusiak azpimarratuz.

Karmele Esnal, irakasleak, ikastola eta haurren testugintzan Ixakak izan duen garrantzia adierazi du, batez ere *Xabiertxo* liburuaren zabalkunde eta balioa azpimarratuz.

Eta Xabier Aizarna, Diputatu berriaren hitzekin amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua — *Idazkaria*

Luis Villasante — Jose Maria Satrustegi

BATZAR-TXOSTENAK

LITERATURA

AIZKIBEL EUSKARA BATUAREN AINTZINDARI

1979-II-23

Jose M.ª Satrustegi

Arantzazuko Batzarra, 1968an, euskara batuaren oinarriak finkatzen hasi zen egunetik hona, gauza asko esan eta idatzi da gure artean, bai abiada honen alde nola aurka. Ez noa orain batzuen eta besteen arrazoiak aztertzera. Nola edo hala, bere hutsune eta merezimenduekin hamar urtez egindako lana hor dago. Historia da, euskara zaharraren historia berriena besterik ez bada ere. Gaur gaurkoa eta bizia.

Arantzazuko bideak, beste alde, aspalditik urratzen hasiak ziren; galtzara ebakia genuela esango nuke nik, euskalzale ospetsuen gogo eta asmoz behintzat. Asko dira gure hizkuntzaren etorkizuna euskara batuaren baitan dagoela ikusi zuten gizonak. Ez zuten beti bide egokiena zein zen sumatuko; baina helburua nun zen bazekiten.

Aintzindari hauen izenak ikasi eta beren burubideak aztertzea, zor zaien esker ona itzultzea da, eta gure hizkuntzaren azken urteetako urratsak hobeki neurtzea.

Aizkibel

Azkoitiko seme argi Jose Franzisko Aizkibel (1798-1865) izan zen euskara batuaren aintzindarietako bat. Meagintza eta landare jakintzan oso ikasia zen eta gai horietaz lortu zuen liburu bilduma, bere garaian, hoberenetakoa bezala jotzen zuten.

Euskal liburuen zaletasuna ere bazuen, beste alde, biblioteka ona izan behar zuen. Euskalzale sutsua izanik, euskaraz idazten baino gehiago saiatu zen euskal gaiak erdaraz

erabiltzen. Hiztegiaren sarreran berak dioenez, erdaraz ikasi aurretik hasi zen latin ikasten. Sortzez euskaldun garbia zen beraz, baina atzerrian bizitu zen ia bere denbora guzian.

Aipatutako euskal hiztegiaren aurrean ortografiaz kezkaturik agertzen zaigu gehien bat. Gaztelerari ikusten dion abantail edo alde ona, hain zuzen ere, mintzatzen den era berean idazte hori da. Euskararen ortografia berriz, nahaste borraste haundian dagoela adierazten du. Hegoaldeko eta Iparraldeko idazkerak hain desberdinak, alde batetik, eta hain alde haundia idazle batzutatik besteetara. Denbora hartako giroa zorrotz salatzen du, eta nolabait idazkera bakarra lortu nahia. Bere burutapenak espantu hutsean gelditu ez ditezen, baturantzeko urrats batzu ematen saiatzen da. Ekintza baten lehen oinarriak.

Ez duela buruan ortografia berri baten asmatzale izateko fantesiarik, aitortzen du, "pero quisiera llamar la atención de los que son capaces de examinar con seriedad este punto".

Beste hizkuntza batzutan maisu haundi diren jaunen iritziak jasorik euskararentzat egokiena iduritzen zaion bidea proposatzen du, ortografiaren arloan:

1) Hizkuntza batek ez lukeela, mintzatzean ahozkatzen ez den letrarik ortografian onartu behar.

2) Letra bakoitzak soinu bakarra, eta abots bakoitzarentzat hizki bat, bere bigarren proposamena. Dirudienez arrera ona izan du ehun urteren buruan burubide honek, hitzez eta idazkiz haizatu baitzaigu azken urte hauetan. "Doble sonido que para el vascuence no puedo digerir" zioen berak.

3) Hizki bat bidazkatzea ere ez zitzaion gogoko, nun eta etzen haurñoen joskera adierazteko, "cuando no hacen funciones de diminutivos en que tienen sonido más añiñado". *Ttipia, ttottua, asserre.*

4) Ez du ontzat ematen H mutua, baina ez, noski, mututzat daukalako; herri arrotz baten kutsadura dela uste duelako baizik. Iparraldekoei buruz, hau dio: "plagio de la lengua de la nación que domina". Batez ere, konsonante ondoko H guzien aurka agertzen da.

Bere kezka nagusia, beste alde, batasunaren lanbide hau aurrera eramateko on izango den Akademia bat sortu beha-

rra da. Nahiz eta batasunaren behargorria ikusi, dio berak, hitz asko ortografia txarrarekin idatzi behar izan ditut, idazleek erabiltzen dituzten eran aiseago aurkitzeagatik "en tanto no se forme una Academia compuesta de los hombres más ilustrados del país bascongado, tanto franceses como españoles, *que es de absoluta necesidad para los adelantos de nuestra lengua y para que con el tiempo, modificando las diferencias de ortografía y pronunciación, y generalizando indistintamente las voces de los diferentes dialectos, en la escritura y literatura, se forme una lengua común, comprensible para todas las provincias*".

Axularrek berak GERO-ren hitzaurrean salatu zituela banaketa honen eragozpenak, esaten du gero; eta berrehun urteren buruan ez omen dira traba hauek zuzendu, gizon langile eta trebe batzuen, hala nola Akademia baten hutsunea ginuelako. Bere aldetik zerbait egin nahian, Hiztegirako K ontzat ematen du, q eta c gogorraren ordez; G, griegoz *gama* hizkiak duen doinu leuna adierazteko, eta U baztertuz idazten du hiztegian.

"Andre Dena Mariaren ilhabethia" (Bayona, 1838) liburuxkan idazkera hori erabiltzen omen du egileak; baina, lehenagotik abiaturik omen zegoen Aizkibel ortografia horrekin izkiriatzen, 1832an egindako hiztegiaren atala lekuko duela. Horrela dio berak.

Esku izkribua

Orain arte aipatu ditudan berriak ezagunak ziren azkoitiarraren idazkietan. Errepikatu ere, behin baino gehiagotan errepikatu dira azken urte hauetan.

Duela zenbait ilabete, Aizkibel-en beste esku iskribu bat agertu da Tolosan, Udaletxeko Artxiboan. Hamasei orrialde ditu, "Euskera" izenburuarekin. Toledon, 1856eko maiatzaren 24an izenpeturik dator eta, bertan dioenez heritasun haundi baten ondotik, idazlari bati berak esanez egina izan behar du. Juan Garmendia Larrañaga adiskide zintzoak helduarazi dit.

Lehenbiziko orrialdeetan euskararen zahartasuna aipatzen du. Bere ustez, hizkuntza honen beherapena eta kutsu

zaharreko bereiztasunen galtzea, aspalditik dator. Behar bada erroma eta kartagotarren denborak baino lehenagotik. Horrek badu batasunaren arazoarekin zer ikusia. Hizkuntzen erorpenaren eskutik omen dator euskalkien ugaritzea.

Banaketa horretan, euskalki batzuk oinarrizko erro gehiago gordetzen dute besteek baino. Helendarren hizkuntza eredutzat harturik, dorio eta eoliotarrek omen zuten sustrairik gehiena gorde; jonio eta atikoek berriz iturritatik baztertuenik gelditu zirenak.

Joera hau, euskarari dagokionez aztertzen du gero. Bizkaiera ikusten du berak, antziñako sustraiak hobekienik gorde dituen euskalkia; gipuzkerak eta lapurtarrak baino atxikimendu gehiagorekin. Gaur gure euskalkien artean ikusten duen ezberdintasuna oso larria bezala salatzen du; hebreo eta arabiarren artekoa baino sakonagoa, esate baterako.

Helendarrekin gertatua amets luke berak euskararentzat. Harien hizkuntz banaketa atenastarrek garaitu zuten, beren hizkuntza helendar guziena bilakatuz. Euskaldun guziek ulertu lezakeeten euskara literario edo klasiko bat nahi zuen denontzat.

Hizkuntzaz beste alde, alde politiko garrantzi haundikoa ikusten zion batasunari. Etnografia aldetik Euskal Herri osoa batuko luke hizkuntzak. Mende baten edo bien ondoan beste euskalki guzien gain nagusituko litzateke batua, eta elkar ulertu ezin duten zazpi herrialdeetako jendeak trabarik gabe aditu gintezke. Eta hemen dator orain arrazoi politikoa: bi estadu indartsuen menpean erdibiturik dagoen herri batek lortu ezin duen batasun politikoaren ordez, hizkuntz batasuna behintzat izango luke.

Beste mesede asko ikusten dio Aizkibelek euskara batuari. Literatura sorketak bultzada haundia izan lezake, liburu gehiago saltzeko bide izango bait litzateke euskaldun guziek ulertu dezaketen mintzairan idaztea. Gramatika eta hiztegiak izango ginuzke, eta ez saltzeko bildurrez argitaratu gabe dauden esku-izkribu asko zokotatik atera eta argia ikus lezakete.

Eta begiak lehen aipaturiko herrietara itzuliz, lehenago beste hizkuntza zahar hauek gainditutako gora behera eta eragozpenak, zergatik euskaldunok ez ditugun gainditu behar galdetzen du Aizkibelek kinka larrian.

Literatura funtsezkorik ez badugu ere; dio gero, Pirene hego eta ipar aldetik badugu herri bat ohitura zaharrez aberatsa eta oso berezia, lege moldez aparta, zorion eta gobernabidez pare gabea eta bere hizkuntza zaharraren aldetik Europa osoan antzekorik ez duena. Horrexegatik bazter guzitako hizkuntzalari ospetsuak zai omen zeuden euskalarien azterketei, Espainia eta Europako hizkuntzarik zaharrenetarako bait zeukaten.

Aizkibelek batasuna, euskararen iturburura joanez egingo lukeela adierazten du esku-izkribu honetan. Erro bakoitzak bere adierazpen berezia zueneko egoera garbira, alegia, oraiko euskalkiak kontuan gehiegi hartu gabe. Hasierako egoera hori aztergarri dela zioen, eta ezagutzen ditugun hizkuntza guzietan aberatsenen eta landuenaren pareko dauka. (Puede desafiar a la lengua más rica y más culta de las que se conocen, porque reúne una riqueza inmensa de elementos primordiales a la construcción más sencilla y económica que se pueda inventar.)

Akademia

Batasun honen lortzeko behar beharrezkoa ikusten du Euskararen Akademia bat sortzea. Bakarka egiten diren lanek erretzen dituzten indarrak ditu gogoan. Elizgizonen heziketa lehen mailakotzat jotzen du eta hortarako gramatika oinarrizko on bat egiten ahalegindu beharko omen dugu.

Aita Zabalaren aditz azterketa "Verbo regular vascongado del dialecto vizcaino", ez zaio atsegin. Astarloaren bide okerretik omen doa (siguiendo en parte las erradas huellas del Sr. Astarloa). Euskal Akademiaren eginkizunetako bat hizkuntzalarien iritziak elkartzea izango litzateke. *Quisiéramos que hubiera una Academia donde poder discutir este punto y otros muchos en que no estamos conformes los aficionados a esta lengua.*

Gramatika gaiak ikusten ditu, beraz, Academiaren lehen egitekoa bezala. "Se necesita trabajar para la unión etnográfica por medio de una gramática general razonada de la Euskera, aprobada y autorizada por una Academia compuesta de hombres competentes en la materia. Si en el día no se pudie-

ran hallar tan inteligentes por falta de estudios preliminares, con este título se formarían dentro de unos años.''

Egia esateko neretzat pozgarri gertatu da Aizkibelen idazki hau. Arantzazuko Batzarra baino ehun urte lehenago euskaldun ospetsu batek adierazitako asmoak, ia hitzez hitz aurrera eramaten ari garela ikasteak argibide pozgarria sortu dit.

Denok dakigu, zoritxarrez, euskara batuaren bidea ez dela batere erraza gertatu. Aurka dauden jaunak hizkuntz arrazoiez eraginik ala setakeriaz dabiltzen, ez dagokigu guri epaitzea. Izan ere, alkian jarria, denborea berean bere buruaren epaile txarra gertatuko litzateke. Eman dezaiogun geroari denbora eta historiak epaituko gaitu.

Euskaltzaindian gaudenok, beste edozeinek bezala, huts egiteko arriskua badugu. Eta geure kezka eta zalantzak izan ditugu. Bainan, euskaltzale ospetsu baten ahoz edo lumaz, Euskal Herri osoaren aspaldiko amets bezala agertzen zaigun ekintza garrantzitsua aurrera daramagula jakiteak pozten gaitu.

- Euskaltzaindiak 60 urte bete ditu.
- Euskara batuak hamar urteko bide latzena burutu du.
- Ortografia eta deklinabidea zehazturik gelditu dira.
- Oinarrizko gramatika baten lehen urratsetan gabiltz, eta Arrasateko Biltzar Nagusian bultzada bat eman nahi zaio.

Hainbeste zirikada, oztopo eta salaketaren oihan beltzean, beste horrenbeste lan kopuru gure hizkuntzaren iraupenerako eskaintzea izan behar luke Euskaltzindiaren hutsei erantzun bakarra.

HIZKUNTZA

EUSKARAREN IZTERLENGUSUAK DIRELA ETA

1978-VII-28

Koldo Mitxelena

Biziki poztu naiz *Euskera*-ren azkeneko zenbaki mardulean, 22 (1977), 907-909, Swadesh-en izenarekin topo egin dudanean, eta hona non: Txillardegi, "Euskararen eta Kaukaso-ko hizkuntzen berezkuneaz". Swadesh dela eta glotokronologia dela, hagitz gazteago nintzen urteak etorri zaizkit gogora, aspaldixko honetan ez baitute ez batak ez besteak inoiz izan zuten bezalako arrakastarik.

Swadesh hizkuntzalari trebe eta saiatua izan zenik ez du inork duda egingo. Ospe onekotzat daukagu askok, gainera, komunista (edo) izanik, jasan zituenak jasan zituelako bere buruari ukorik ez egitearren.

Ez nioke, beraz, deus kendu nahi. Halaz guztiz, eta orduko eta geroko gorabeheren berri zerbait dakidalarik noraezean, ez dut uste Swadeshen legerik inon eta inoiz izan denik. Gehienez ere, Swadeshen formula bat dugu, besteri aski eta gehiegi zor diona. Berak aitortzen zuenez, bestek (Lees-ek, nik uste) eskainia baitzuen, honek berriz besterengandik mailebatua zuelarik. Formularen muina, fisikan ongi ezaguna hainbeste aldi eta lekutan erabiltzen denez gero, harako ekuazio diferentzial xinple baino xinpleago hartan baitatza:

$$-\frac{dy}{dt} = Ay$$

Baina honetaz, inork izatekotan, Txillardegik berak luke zer erakuts. Hurrengo urratsa, jakina, hizkuntzalarien esku gelditu zen, hauek bakarrik erabaki baitzezaketen, gutti gorabehera bederen, ze heinetan aldatzen den mila urteren

buruan hizkuntza baten oinharrizko hiztegia: hots, zenbat hitz galtzen diren ehuneko, berrien truk, epe horretan.

Halaber, Txillardegik, azaltzen dituen erakuskarien arabera, ez ditu batere errespetatzen Swadeshek berak, baita behar ere, jarri zituen jokalegeak: jokoak ez luke, bestela, inolazko zentzurik. Eta hona lehenbizikoa: itzulpenak zirt edo zart, gerta ala gerta (*a cara de perro*, gaztelaniaz esaten denez), behar dira egin, erdal (ingeles) hitzaren ordainik zuzenena bilatuaz eta emanaz. Ezin daiteke, esate baterako, 'su' berdin 'erre'-rekin, eta gure *su*-ri dagokion georgierazko kideustekoak horixe, 'erre' alegia, adierazten du, oker ez banabil. Orobat, 'heart' ez da *gogo, bihotz* baizik; 'full' ez da *ase, bete* baino. Et sic de ceteris.

Hizkuntz ahaidetasunera, etorki komunera, gatozenean, bidenabar diot, badabil gure artean halako ilunbe hodeitsuren bat. Konparaketan, gureak, bakarka doanez, ez du istilu berezirik sortzen. Ez da, ordea, beste horrenbeste gertatzen hariaren hango muturrean. Bi maila bereizten dira, izan ere, dirudienez behintzat, eta hiru berezi behar lirateke, erdian hirugarrena sarturik. Georgiera esatea guttiegi esatea da, bai baititu ahaideak, eta ahaide hurbilak gainera: hizkuntza kartvelikoez, hego-aldekoez, ari naiz, jakina. Kaukasoko hizkuntzak aipatzea, berriz, gehiegixko ere bada, "iberokaukasiko" deitura daramatenak baizik hartzen ez baditugu ere, han usatzen diren gainerako guztiak (oseta eta) bakandu ondoan. Irudipenezkoa baizik ez baita, orain arte behintzat, multzo hori guztiori ahaidetasun kontuan biltzen duen lokarria. Bada eskuarteko libururik aski egoera horretaz argi eta garbi mintzatzen denik.

Esanak esan, ez nituzkeen esango halako ikara batek hartu ez banindu "Georgia-ko aztertzaileei jakin erazteko" *zer* ote dugun gogoan pentsatzen hasi nintzen orduko. Gure anaitzakoei (eta Lizardigandik hartzen dut hitza) zerbait jakineraztekotan, *dossier* osoa eman beharko diegu aditzera. Eta Txillardegik darabilena ez dago osorik, hor sartzen baita eskubide osoz gai horretan behinik-behin ezagun den baino ezagunago izatea merezi lukeen, eta Donostian bertan agertua dugun lantxo bat: "El método léxico-estadístico y su aplicación a las relaciones del vascuence", *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* (izena osorik

doa, laburdurarik gabe, bada ezpada), 17 (1961), 249-281. Tovar zuen egile eta lankideen artean honako hauek ageri ziren: Karl Bouda, René Lafon, W. Vycichl eta (honek badu bere gatzozpindua) Morris Swadesh bera. Argitaratzea bere bizkar izan zuenak ere ez zuen lan makala hartu.

Berandu konturatu naiz aipamena ez zela premiazkoa, *Euskera*-ren zenbaki horretan bertan aurki baititeke, Tovar-en artikuluan, 476gn. plaman bereziki. Diodan hiru Kaukaso-ko hizkuntza erabili zituela Tovar-ek, baten ordez, eta G. A. Klimov-en hiztegi etimologikoa oraindik argitara gabea bazen ere, Txikobavarena erabilia izan zela hizkuntza kartvelikoei buruz. Matematika oinharriak ere aski garbiro azalduak daude, Tovar-en adiskide bati eskerrak.

Premiazkotzat daukate hor barrena ikertu nahi den gaiaz artean egin diren azterketak ezagutzea eta aipatzea. Hori, gainera, beti erraza izan da gurean (aski da maizenik hiruzpalau aldizkari gainbegiratzea); are errazagoa orain, Jon Bilbaoren obrari eskerrak. Ez dut uste, bada, Peneloperen lan-deslanean segitzea komeni zaigunik, egunez egina gauez desegiten dugularik. Duela hamabost urteko kezkak eta asmoak ez daude hain zaharkituak non eta besterik gabe zokora daitezkeen.

IKERKETA

PIARRES BROUSSAIN-en paperak

1978-VIII-25

P. Xarritton

1920 eko apirilaren 27 eko gauean, Orthez-Départ-eko bere kusi Luis de Saint-Jayme-en etxen, burmuineko odolkolpe batez hil zen bapatean, Piarres Broussain hazpandar euskaltzale handia. Hazparne Jauregizaharreneko bere bulegoan begiratuak zituen bere gaztaroko eta helduaroko lagun eta adixkiden eskutitzak, bere ahaide ta etxeko en gutunak, bere kargu ta ofizioz bildu kondu ta paperak, hots berrogoi bat urtez eskuratu bere bizi guziko paper xehe ta larriak oro.

Ondotik Ameli Baratchart bere alargunak kutxa handi batzutan ezarri zituen eta errespeturekin zaindu, han berean behin, eta gero Jauregizaharrenea saldu zuenean, 1934 ean, Baionako bere etxean, 28 Lormand karrikan.

Ama hil zitzaionean Baionan, 1962 eko uztailaren 13 an, andere Jenofa Broussain-Leroy-k zituen bere aita zenaren paper guziak ekarri Lehuntza Nagileko bere etxerat. Andere hunek dizkigu paper horiek oro eskutarat eman, denak bereiz genetzan eta fotokopiaz har, bai Baionako Euskal Museoarentzat, bai Euskaltzaindiarentzat.

Piarres Broussain, "amerikano" seme, etxeko-seme ona baitzen, bazuen bere Barrandegiko etxe-partearekin, bere mediku-irabaziarekin eta gero bere emaztearen dotearekin edo bere herriko auzapez bezala, doi bat diru eta funts gobernatzeko: hor daude beraz salerospen, mailegu edo prestamu kondu, bankari, notari, ofiziale edo etxetiar paper xeheak gaurko kontularier, duela ehun urteko ekonomiaren berri eman liezaieketenak.

Barnagodanik Piarres Broussain ezagutu nahi lukeenak, baditu lehen lehenik, bere amaren, haurrideen, koinaten,

emaztearen, alaben, sehien eskutitzak. Nahiz Piarresen beraren erantzunak eskas ditugun, etxekoen solasetarik nabari da nor zer zen etxekoentzat gure gizona. Eta menturaz hobeki ezagut dezakegu oraino bere gaztaroko lagun eta adixkiden idazkietarik. Etxekoen ganik ikusten dugu alabainan zer izan ziren Barrandegiko familiaren gora beherak eta nola hartzen zituen Piarresek etxeko atsegin eta atsegabeak, batzutan ere etxekoen arrenkurak eta kexuak. Bainan orroitu behar gara hogoi urte luze iragan zituela Broussainek, joan den mende hondarrean, Pariseko medikuntza eskoletan. Orduko lagun eta adixkiden eskutitz gehienak begiratu ditu Hazparneko mediku eta auzapez euskaltzaleak. Paper horitu horiek eskuratzean gogoratzen zaizu beihalakoaren erran zaharra: Norekin habilan erradak, nor haizan asmatuko diat. Hain xuxen Euskal Herriko gazte lagunez bestalde eta Uruguayar edo Frantses bat edo biez beste lagun guziak, Quebectiarrak zituen gure hazpandar ikasle gazteak. Hor ditugu lekuko heien eskutitzak: Laberge (8), Prévost (6), Ouimet (3), Godin, Chrétien, Benoît, Daru, Villeneuve, gaur ere izen ezagunak Montréal, Valleyfield edo Sherbroocke-n itzuli bat egiten duenarentzat. Ez du egia erran iduri, politika kezka handirik badutela oraino gazte hoiek guziek, gazte solas arinak derabiltzate gehienetan, bainan bagaude Broussain gazteak ez ote zuenetz ordukotz sendi Québec-eko problemak bazukeela Euskal-Herriko-aren zerbait eite.

Hasteko, Uruguayko bere adixkide Francisco Fernandez delako mediku batentzat, 1887-tik 1914-erat igortzen dizkion 18 gutunetan Piarres Broussain "Querido Vasco mío", "Ene Euskaldun maitea", da beti.

Hor ditugu gero Euskal-Herriko ezagun eta lagunen eskutitzak: Zakur errabiatu batek ausiki duen herritar bat Parisen lagundu duelakotz, edo beste edozoin zerbitzu han gaindi egin duelakotz, eskerrak bihurtzen dizkiote, Hazparneko Lorda, Londaitzbehere, Durruty, Diharce, Beheranek, bai eta Kanbo, Uztaritze eta bereziki Baigorriko adixkidek. Baigorriarrak dira alabainan Mocoçain apeza, 13 gutun utzi dizkiguna, Minjonnet adixkidea (13), Mendiboure medikua (8) eta Ernautene. Hauiekilan ditu Broussain gazteak kurritu bakantza denboretan Euskal Herrietako mendi gehienak eta hauiek berek dute bildu nahiko Baigorrirat bere eskolak bururatuko dituenean.

Azkenean badakigu Durruty mediku zenaren segida hartu zuela Piarres Broussain-ek bere sorterrian, mende hunen hatsarrean. Berehala sartu zen Harriague-Morroxko-ren lagun, herriko kontseiluan. Geroxeago ezkondu zen, 1904 ean eta Morroxko hil zenean ondoko urtean, hunen ordain, Hazparneko auzapez jarri, berak kargu hori utzi arte, kontseilari jeneralgoa hartzeko, hiltzeko bezperan.

Hazparne herriak bere auzapez zenari joan den apirilaren 16an eskaini dion omenaldian, Janpiarre Larremendik aipatu ditu herri-gizon bezala Piarres Broussainek ibili urrats larrienak: bozkaldien gora beherak, gerla denborako harat hunatak, herri-lurretako lanak. Horien ororen berri xeheak badaude gure gizonaren paperetan.

Bainan oroz gainetik Euskaltzaleen eta Euskaldungoaren historiarentzat dira interesgarri Piarres Broussain, Euskaltzale eta Abertzale handiaren paperak. Alde batetik, Azkueren Hiztegiarentzat eta Kantutegiarentzat bildu zituen hitz, hizkuntza eta kantu edo pertsuez beste asko baditugu, gure medikuak, Hazparne, Aiherra, Isturitze, Bezkoitze, Lekuine, Heleta, Gerezieta edo Bardotzeko bizpahiru ehun etxetan, bere erien ikusten zabilalarik bilduak zituenak eta paper muttur batzutan bere eskuz notatuak. Oro har 1000 hitz eta hizkuntza, 12 kantu edo pertsu-berri paper kondatu ditugu: aztergai pollita orai beretik, unibertsitari gazte batentzat.

Bestalde eta azkenekotz hor dugu Euskaltzaleen 'eskutiztegia'' 230 zenbaki dauzkana: 100 frantsesez idatziak, 80 euskaraz eta 50 gaztelaniaz.

Hoitarik 80 bat badira Azkuerenak, Jean Haritschelharek bere Hazparneko mintzaldian aipatu dituenak, erdiak euskaraz dira, eta 7 dira bakarrik orai arte ''Euskaran'' agertuak. Ez dugu guk berriz hemen erraite beharrik zoin aberatsak diren bai Azkue ta Broussain-en lanen eta lagunen ezagutzeko bai XX mende huntako lehen laurdenaren historia aztertzeko gure Herrian. Hor daude ere beste eskutitz guziak: Hiriart Urruty-ren 28ak, Constantin (16), Etchepare (4), Larrieu (3), Guilbeau (3) Dourisboure Mendiondo lagunenak, Arbelbide (10), Daranatz (8), Adema-Zalduby (3), Haristoy, Dubarat, Etchegoyen, Heguy apezenak bai eta Georges Lacombe (16), Frédéric de Saint Jayme (6), Sabino de Arana

Goiri (5). Estanislao de Aranzadi (4), Pochelou (4), Amédée Larrieu (3) Darricarère (3), Webster, Gavel, Garmendia, Mugica, Urquijo, Eleizalde eta Dibildos adixkide minarenak ere oraindik elgarretaratu ez ditudanak, batzu familiakoen artean baitohatzi.

Dena dela, izen horien sailak berak erakusterat emaiten digu, 1900 etik 1920-erat ez dela egin Euskal Herrietan ez Euskal jai, ez bilkura, ez biltzar, ez batasun, ez lan funtsezkorik, gure Euskaltzale hunek lagundu gaberik edo bederen jakin gaberik. Horra zergatik "Eskualduna" astekariaren historia edo "Eskualzaleen Biltzarrarena" edo "Cercle d'Etudes Euskariennes" edo "Eusko-Ikaskuntza" edo "Euskaltzaindia"rena edo "Euskara Batua"rena aztertu nahiko duenak beharko dituen nahi-t-ez ikertu eskutitz hauk.

Neure solasaren berme, eta astirik banu, Euskaltzaindi hunen historiaren hastapenari tokatzen zaion pundu bat argitzeko irakur niezazuke Koldo Eleizalde-ren 1919-ko irailaren 30-ekoa.

* * *

Hondarrean galde bat egiten diot neure buruari: zer gertatuko ote da eskutiztegi honekin? Andere Jenofa Broussain-Leroy beren jabeari itzuli baino lehen, paper hauien bi kopia hartzen ari dira Baionako Museoan. Bainan ez ote luke merezi eskutiztegi hunek, lehenik osatzea, Azkue, Daranatz, Lacombe, Arana Goiri edo beste eskutiztegietan aurki datezkeen Broussainen erantzunak bilatuz eta bilduz? Gero berriz hor genuke dokumentu horien argitaratzearen problema. Hots beti gure sustraiak ezagutzearen ta guretzearen problema. Dena den problemak ikustea ere zerbait bada. Mediku zaharrek zioten, "gaitz ongi ezagutua erdi sendatua dela". Halabiz.

ZULOAGAREN MARRAZKIA EUSKALTZAINDIAN

Bergara, 1978-V-26

J. San Martin

Aspaldi ohartua nintzen Euskaltzaindiko bulegoan aurkitzen zen Zuloagaren marrazkiz. Baina azpian zeraman sinadurak ordea zalantzaz kezkatzen ninduen. Ez bakarrik dibujo guzia ikatzez egina izateaz eta sinadura bera soilik lapitzez edo harkatzez, baizik sinadura hura bera bai zen zalantzagarri. Hala ere, marrazkia esku onetik irtena zen, itxuraz emakumezko baten irudia, eta bere estiloz Inazio Zuloaga gure artista ospetsuarena.

Ikatzezko marrazki honek, lauki batean sartua, 49 x 37 zm. ditu neurriz. Duela zenbait urte, sinadura ikertzea bururatu zitzaidan eta hontarako E. Lafuente Ferrari-ren *La Vida y el Arte de Ignacio Zuloaga* (Donostia-Madrid, 1950) deritzan lehen argitalpen hartatik kopiatu nituen Zuloagaren sinadurak eta ez nion antzik aurkitzen. Egia esan, edozein artistari gertatzen zaio denborarekin sinadura bere itxuraz aldatzea; baina, hala ere, ez nion kidetasunik aurkitu.

Zuloaga pintoreak bazuen iloba bat izen-deitura berdinekoa, dibujogilea eta antzerako sinadura erabiltzen zuena, geroago inoiz "El Mozo" gehigarriz jarrita. Honen marrazki bat bada Euskaltzaindian bertan, Bilboko San Antongo eliza, udalak oroitzapenez emana; baina bere sinadura garai batean berdintsua izanarren, bere eskutikako arte estiloa bestelako zen. Aldi hartan, gehiagoko gabe, hor utzi nuen bertan behera ikerketa. Erabakirik gabe. Ba zirudien artistak marrazkia izenpetu gabe utzi zuela eta geroago norbaitek, behar bada norena zen jakinean, antzerako sinadura gehitu ziola.

Oroi, Azkuek 1935. urtean argitaratu zuen *Euskalerria-*

ren Yakintza-ren lehen tomoaren azala Zuloagaren "La merienda" deitu laukia edergarriz harturik egin zuela, eta hemendik ohartu gindezke elkarren arteko harremana ba zela. Beraz, ez zen harritzekoa Euskaltzaindian Zuloagaren lan bat aurkitzea. Alfonso Irigoyenek geroztik esan didanez, Azkueren paper artean aurkitu omen zuen marrazki hau eta, ederra zelako eta Zuloagarena zen ustean, markuan sarturik jarri zuela.

Aurten, Grijelmo, S. A. inprimategiak, Zuloagaren marrazkiz argitaratu nahi zuen egutegirako idaz-lan bat eskatu zidan eta artista aipatuaren lanak lasaiago aztertzeko aukera nuenez, berriz ere Euskaltzaindiko marrazkia zetorkidan oroitzapenera, eta aukera hau aprobetxatu nuen aspaldi kezkatu nintzen ikerketa berritzeko.

Arestian esan bezala, estilo aldetik Zuloagaren eskua nabari zen, baina ziurtasunez jabetzeko xestelako agiriak lortu beharra zegoen. Lehen urratsa irudiaren atzekaldean agsrtzen den zirrimarra hartatik eman nuen. Lagun talde bat zenez, eta era hortara egin zituen lanak begiratuaz laster konturatu nintzen "Mis amigos" deitu obraren zirrimarra bat besterik ez zela.

"Mis amigos" deritzan obra hori ordea, ekitaldi askotan landua zen, 1920tik 1936. urtera bitartean eta guztiz bukatu gabe utzi zuen; bertan agertzen diren pertsonetatik zenbait, gerragatik, herbesteratu zirenez eta gure artista 1945. urtean hil. Petsonaje hoien artean daude Belmonte, Duque de Alba, Valle-Inclán, P. Uranga,...? J. Beobide, P. Baroja, Marañón, Ortega y Gasset, Maeztu eta Blasco Ibáñez, antza denez.

Lafuente Ferrari-ren lehen argitalpeneko liburu hortan 178-179 orrialdeen bitartean dakarren XXXV. igekia da, eta liburu berean 109. ilustrazioa lanaren hasiera adiarazten duena. Bigarren argitalpenean ere badator (Bilbomadrid, 1972); 106. igekia bera da. Eta J. M. Arozamenaren *I. Zuloaga. El Pintor, el hombre* (Donostia, 1970) deritzan obraren 255 eta 342 orrialdeetan ere ikus daiteke.

Zirrimarra ezagutzetik I. Zuloagaren obratzat ziurtasun osoa nuen. Orain ez zegoen inolako zalantzarik. Baina irudia bera nor ote zen? Hau erabakitzea, saio nekezagoa iduritu zitzaidan; eta gauzeri antza hartzen eta irudieri kidetasuna

Zuloagaren marrazkia Euskaltzaindian.

aurkitzen haurrak begi zoliagoa dutenez, gure seme gazte Oier lagun harturik hasi nintzen liburuetatik Zuloagaren lanak banan bana aztertzen. Honela, uste nuena, egi bihurtu zen: Oierrek igarri zion "Doña Purita" deritzan erretratua eta Euskaltzaindiko marrazkiko irudiaren aurpegia ber bera zirela. Eta hala da izan ece; elkarren parean ikustea besterik ez dago.

"Doña Purita" delako erretratua oriopinturaz egina da, E. Lafuente Ferrari-ren *La Vida y el Arte de Ignacio Zuloaga* deitu obra horren lehen argitalpenaren 140. ilustrazioan agertzen da. Zuloagaren familia du jabe eta Zumaiako Santiago etxean aurkitzen da. Lafuente Ferrari-gandik dakigunez, obra hau, 1941ean Madrid-eko erakusketa batean agertu zen lehen uldiz.

Euskaltzaindiko marrazki honetan irudiaren atzekaldean aurkitzen den jarlekua oraindik Zumaiako Santiago etxean gordetzen da, eta Getariako sakristauaren ("El campanero de Guetaria") erretratuko jarleku bera da.

"Mis amigos "eta" Doña Purita" lanen urte mugak gogoan harturik, 1920-1936 eta 1941, eta itxuraz bigaccen lana egiteko erabili zuela, Euskaltzaindiko marrazkiak gerra baino lehentxoago egina dela dirudi.

Dena dela, balio handikotzat jo genezake eta merezi du ondo zaintzea.

AZENTU DIAKRITIKOA EIBARKO EUSKARAN

Eibar, 1976-III-27

Imanol Laspiur

SARRERA

Hizkuntza bakoitzak badu nonbait, baduke, bere egitura, bere ahozkera eta bestelako berezitasunetatik at bere berea duen halako doinu edo tonuera propioa. Hizkuntza bakoitzak badu halako kantaketa eta melodia berezirik eta hori, batibat, azentuak, doinuerak damaio.

Hainbat hizkuntzak badu besteren hitz berdinik, baina oguzkeraz gain tonuerak bereizten duela, bata bestearengandik, esaten nuke. Hara, esaterako, frantses eta ingeles mintzairetako zenbait hitz berdinak baldin badira ere eta, zalantzarik ez pronuntziaketa ezberdina badute, noski, gehien bat azentuapen horrek bereizten dituela diot. Begira:

Frantsesez	*Ingelesez*
amnis*tie*	*am*nisty
lano*line*	*la*nolin
restau*rant*	*res*taurant
ma*dame*	*ma*dam
na*tion*	*na*tion
ques*tion*	*ques*tion
indica*tif*(-ve)	in*di*cative
se*cond*	*se*cond
expre*ssion*	ex*pre*ssion
men*tion*	*men*tion
occupa*tion*	occu*pa*tion
ameri*cain*	a*me*rican
no*tice*	*no*tice

Tonuera edo azentuapen horrek halako nortasun berezia eman ohi dio hizkuntza bati, zeinnahi hizkuntzari alegia.

Hala ere, denok dakigu, hizkuntza baten barnean badira azentu bidez bereizten diren esanahi ezberdinak. Gaztetxotan ikasiak ditugun honako hauek lekuko: espainolezko *cántara, cantara, cantará* hitzak, letra aldetiko idazkeraz berdinak izanik ere, azentuak diosku besterik direla bakoitzaren esanahiak. Berdintsu genituzke *secretaria* eta *secretaría* hitzen arteko esangureen aldea, edo *de* (preposizio) eta *dé* (aditz), edo *por qué* eta *porque, piso* eta *pisó* etabar.

Gaztelaniaz azentu prosodikoak ekarri du ondorean ortografikoa, baina gaurko nire honetan prosodikoari lotuko gatzaizkio. Egia esan, azentu prosodikoak ikaragarrizko garrantzia dauka nahiz hizkuntza batetan, halaber zein-nahi hizkeratan edota dialektotan. Zihur naiz, esate baterako, ingelesek *50* adierazteko eta 15-arekin bereizteko darabilten doinuak baduela zer ikusirik. Noski desberdin idatziak direna biok, baina pronuntziaketa baino garrantzi handiagoko dukete bien arteko azentu prosodikoaren aldea:

$\frac{\text{f i f t y}}{(\textit{fíf}\text{ti})}$ (= 50) $\frac{\text{f i f t e e n}}{(\text{fif}\textit{tíín})}$ (= 15)

Berdin ager dezakegu 60 eta 16 adierazteko alegia:

$\frac{\text{s i x t y}}{(\textit{síx}\text{ti})}$ (= 60) $\frac{\text{s i x t e e n}}{(\text{six}\textit{tíín})}$ (= 16)

EUSKARAREN BARNEAN:

Euskararen euskalkiek ez dute lehenago aipatu dugun *melodía* berdinik. Zenbait euskalkiren barnean, ordea, bada ere azentuapen ezberdin batek bakoitzari eman ohi dion melodia aparta. Inoiz, zoko-hizkera bat harantzagoko batengandik ezberdinki kantari datorkigu bere azentuapen berezi horren bidez, bere doinu propio bidez alegia. Horrela dira ezagun, eta oso gainera ezagun eta nabari, eibartar ala bergaraar ala arrasatetar ala ondarrutar mintzakerak, adibidez.

Uri horietako euskaldunek uka ezinezko lukete nongoak diren, bakoitzaren mintzakera bereziak salatzen baititu, baina batez ere doinuk, tonuerak, mintzaketa-kantak nolabait esatearren.

Egia esan, bada, euskara jatorrean, jator den nolabaiteko tonuera, nahiz eta bakoitzak bere doinu berezia ukan (hizkera bakoitzaren baitan alegia) denok jatortzat ematen dugun melodia hori. Zergatik, bestela, du ezagun hainbat eta hainbat euskaldun berrik euskaldun berri dela? Joskera aldetik, adizjoko aldetik etabar ongi molda baliteke ere, zer du falta izan doinu edo melodia "jator" eta egoki hori ezezik? Bada euskararen baitan azentuamodu ugari xamarrik, baina nolanahi dela ere badirateke euskalki bakoitzak eta zoko-hizkera ere bakoitzak taiutzen dituen doinuera jator estandarizatu batzuk.

Baina utz dezadan jakintsuentzat euskararen azentu araketa, kontuan ukan ditzagun R. M. Azkueren, Sebero Altuberen, Jose Basterretxearen, Koldo Mitxelenaren eta besteren batzuen saiakerak, baina, agian, egiteko dago oraindik euskalkien arteko azentuapen ezberdin eta berezien azterketa lan sakon eta aberats bat. Beraz, gaurko neure zeraren harira itzul nadin eta horri lot nakion.

Bazter bakoitzak baduela Euskal Herrian halako mintzadoinu berezia esan dut. Begira, adibidez, urien arteko euskaldoinu eta azentuapena eta Eibar eta Bergara har ditzagun, esate baterako. Biok ditugu mendebaldeko euskalkian kokatzen diren zoko-hizkerak. Eibartarrak, mintzakeraz, "esdrujuluak" direla esaten nuke eta Bergarakoak (*bergarrak* bertoko hizkeran), ordea, "llanoak". Adibide esaldi bat jar dezagun, baina lehenik Eibarko euskal azentuapen eraz eta ondoren Bergarakoaren moduz. Begira:

– A*mé*riketatik e*tó*rri dan ame*rí*kanua (esaten luke EIBARTARRAK).

– A*mé*riket*tá*tik e*tó*rri dan amerika*nú*a (esaten luke BERGARATARRAK).

Esaldi horietan tonu nagusiak dira soilki markatu eta aski dateke bataren eta bestearen arteko azentuapen liferentzia ikusteko.

Hara baina, arakatze sakonago edo-ta zehatzago bat egin ez badezagu ez daiteke argi ikus bakoitzaren musikaltasun osorik, ukan ere benetako musikaltasun gama bat baitute.

Bada esaldi bakoitzotan *tonuera kurba* edo gorabeheradun doinu osaturik eta baita zoko-hizkera bakoitz horretako esaldiaren nortasuna markatzen duen musikal erritmo bat. Musikaltasun hori ezberdina dugu bi esaldi berdinotan. *Talde foniko* batzuk dira tarte eta *talde foniko* horien izaerak, tonuerak, erritmoak eta portaerak dute, hain zuzen, taiutzen "carácter idiomático" esaten genukeena. Halaxe, bada, du hizkera bakoitzak doinu aldetiko bere "hizkuntz aiurri" propio eta aparta.

Lehen esan tonuera kurba horiek *azentuapen mailadi* zehatzak eratzen dituzte. Talde fonikoetan badira silaba goienak edo garaienak direnak eta beste batzuk doinu kurba horretan (mailadi batetan dantzatuz– kokatzen direnak, batzuk gorago, beste batzuk beherago, baina denok *silaba goienaren* azpikaldean. Silaba goien hori *tonu nagusia* da izango eta, beraz, *silaba nagusi* ere.

Talde fonikoetan baditugu 1.º, 2.º, 3.º, 4.º eta 5.º ere musikal mailan (grado musical) kokatzen diren tonuak. Lehengo exenplu bi horiek zehatzago aztertzean ikusiko ditugu bakoitzaren talde fonikoek bere baitan daukaten musikal mailadi edo gama, eta gama horiek dute, bakoitzaren nortasun bereziz, esaldi biok arras liferentziatzen, ez baitira bataren eta bestearen musikal mailadiok, ez eta ere erritmoa bera, ezberdin baizik. Dena den, ez dut erritmorik aztertuko, baina bai bestea oro, batez ere eskala musikaletan kokaturik eratu ohi diren tonuerak eta tonu-silabak.

Esana guzti hau aplika dezagun lehengo exenplu horretan, bakoitzari dagozkiokeen hiru talde foniko eginaz eta ikus:

```
   MERI
        KE          TO
           TA          RRI          RI
              TIK  E       DAN   ME    KANU
– A                                A            A
  1  5  4  3  2  1 4  3  2  1  2  4  2  1
```

(= eibartarreraz)

MERI TA
KE TIK TO
RRI
– A E DAN NU
AMERIKA A
1 5 4 5 4 1 4 3 2 1 3 1

(= bergaratarreraz)

Eibarko esaldian diren hiru talde fonikook ditugu esdrujula, baina argi ikus daiteke lehenbizikoa, areago dela, "sobreesdrújula" alegia. Bergarakoan erdiko talde fonikoa da Eibarkoaren berdin, baina beste biok "llanoak" dira nahiz eta lehen taldeko A/MERI tonu mailak 1/5-eko musikal erlazioz kokatuak izan, baina TA/TIK bukaerak du "llanotasuna" emattn, hobeki esanik, 4-5-4 tonu mailek. Goiko grafikoetan argi ikus daiteke esan nahi dudana, *goiera musikalak* lumerotan ere adieraziak baititut.

Ondorengo beste zenbait esaldi emango dut, baina sinpletuz eta musikal maila osorik eman gabe eta, hau bai, *silaba goien* edo *nagusia* eta garrantziz hurrengo dena azentuz eta marraz hitz bakoitzean markatuz:

a) "Or*má*xabalene*kú*a Barzelo*nára joán* da" (Bergaran, "llanoa")

b) "Ga*llás*teginékua Barze*ló*nara joan *dá*" (Eibarren)

Eibarko esaldian "sobreesdrújula" dugu lehen talde fonikoa, "esdrújula" bigarrena eta zorrotz bukatuz, "agudo" antzo, hirugarrena, hau da joan*dá*.

Azterketa hau zerbait hertsituz zera esan nezake, azken esaldiok bi talde foniko nagusitan zati ditzakegula eta ez hirutan, egokiago baitirudi honela. Izan ere, bi talde foniko nagusi ditugu soinukatea honetan; lehenbizikoa "tensiva" adarrari dagokiokeena eta bigarrena "distensiva" leritzakeenari. Ikus:

1 2
Ormaxabalenekua Barzelonara/joanda

Beraz, bigarren talde foniko horretan bi unitate foniko ditugu elkarri lotuak, edo hiru: *Barzelonara-joan-da*, edo

Barzelonara-joanda. Azterketa hau gehiago araka genitzake, batez ere euskararen egitura eta hitzak elkarren ondoan lotzearen bide berezia kontutan ukanez gero, baina aski dateke orain arte agertua, gaurko nire zera besterik baita.

AZENTU DIAKRITIKOA EIBARREN

Badugu Eibarko euskaran, azentu diakritiko deritzanaren bidez, idazkeraz eta ahozkabidez berdin diren hitzen arteko esanahi ezberdinik frango. Gogora dezagun, era berean espainolari buruz lehenxeago esan dugun hiru hitzetako multzoa: *cántara, cantara* eta cantará. Azentuak soilki, tonuerak, ditu bereizten bata bestearengandik, hirurotan pronuntziabide berdina izaki alegia. Orobat dut egingo Eibarko euskarak duen azentu prosodiko baina *diakritiko* bidez.

Eibartar jator eta peto bati beste eibartar peto batek honela esaten entzun badiezaio, adibidez, ''hau al*dá*tzekua da'', badaki entzuleak, eta zalantzarik gabe gainera, aldatzeko edo kanbiatzeko zerbaitez ari zaiola. Baina hori beharrean beste hau entzun badeza: ''hau alda*tzé*kua da'', badaki, noski baino noskiago, zerbait hori *Aldatze* izeneko kalekoa dela, eta ez dago bueltarik, zihurtasun osoa baizik.

Hots: Eibarko euskara honetan jartzen ari naizen eta jarriko ditudan azentuak diakritikotasun hori ikusteko ez beste dira, esana baitut euskarak ez duela azentu ortografikorik, ez eta beharrik ere.

Nornahik daki nolako *jatun* den Eibarko euskara, eta honekin zera nahi dut adierazi alegia, erdaratiko hainbat eta hainbat hitz hartu ohi duela batere alperraldirik gabe. Zenbaitek barre egiten dio eibartarrari honen euskara baldarra bailitzan, baina kanpotiko hitzez ala etxekoz eurrez mintza ohi da eibartarra eibartarreraz, hau da, euskaraz.

Horrengatik, nire lan honetan, eibartarrak erdarari hartu dizkion hitzak ere sartuko ditut, eibartar euskara estandarizatu horretan bere bereak bailiran darabiltza-eta.

Honen antzerako lanik beste euskalki batzutaz ere egin liteke, eta ez diot ingurutako uri eta hauzotan gauza berdina gertatzen ez denik, agian zenbait hitz berdinetan, batez ere

mendebaldeko hizkeratan, baina Eibartik urruti ez direnetan nagusiki.

Nolabaiteko kidetasunari bagagozkio, bosten bat ataletan zati genitzake aztertu nahi dudan hitz zerrenda. Ikus:

1. Euskal hitz jatorrak izanik, esanahia, zentzu eta kontzeptu desberdina dutenak. Adibidez:

   égua (hegoa, puntu kardinala) / *egúa* (= hegala)

2. Nahiz singularra, halaber mugagabea, pluraletik bereizten denekoa:

   izotzétan (= izotz artean, mugagabe zentzuz)
   izótzetan (= izotzen artean, plural mugatuan)

3. Euskarazko hitza bata, eta erdarazkoa bestea edota erdaratik hartua dena. Bien esanahiak ezberdinak alegia:

   erría (= errea / quemado, brûlé)
   érria (= alfabetoko R deritzan letra)

4. Inoiz sustrai berbera izanik ere nortasun berezi eta ezberdin bi bereizteko darabilguna:

   túrkua (= Turkiarra, Turkiakoa dena)
   Turkúa (= Soraluzen bizi izan zen eta guztiok ezagutu genuen turko itxurako mandatari famatua)

5. Hitz biak erdaratikoak izanik ere esanahi ezberdina dutenak:

   kokúa (= mozorroa, mamua, insektoa)
   kókua (= tropikoetako fruitu bat)

Esan beharra dut, bai, azken belaunaldi honetan beherakada handia egin duela Eibarko euskarak, gutitu eta murriztu egin baita, ahuldu eta txirotu ere. Badira, bestalde, erdaratik azken aldi honetan sartuak diren hitzak, sarri kanpo-kutsaduraz hartuak eta inoiz kaikukeriak eta ganberrismoak eragina. Esaterako, "A zelako *kária* dakan orrek gizonorrek" esatean, delako gizon horrek aurpegi gogorra duela nahi du adierazi, eta "arpegi gogorra jakak" ere esaten bada oraindik orain, *kária* hitza asko entzuten da. Berdintsu dugu honako esaldia: "Zure umiak *pápuak* ditxu ederrak", zera adierazteko alegia, delako ume horrek *masail* ederrak dituela.

Lan hau behar bezala ulertzeko hona hemen kontuan ukan beharreko bizpahiru puntu:

1. Eibarren ez da bereizten S letraren eta Z-ren hotsa. Biok S bezala oguzten dira. Baina sarri azentuapenak erabakitzen du esanahia, zerak alegia, diakritiko deritzan azentu horrek. Begira:

   – "Ori sosu*á* da" (zozoa, txoria dela du esan)
   – "Ori s*ó*sua da" (gatzik gabea, gustorik gabea dio)

   Azentuapen horiek duten indarrak ez du, inolaz ere, zalantzik jartzen zertaz mintzatzen ari garen.

2. -KO atzizkiak -KOA egin beharrean *-KUA* du egiten Euskal Herriko beste zenbait tokitan bezala. Honela:

   – "aste*kó* egunak" / = "astéku*a*k"

3. Kontu handia behar dugu ukan zenbait hitz soil den ikusiz ala beste hitz batzukin batean esaldi bat osatuz aurkitzen den, maiz aldatzen baitu azentuatu silaba. Lehenago aipatu ditugun melodi kurbak edo gorabeherak aldatu ohi dira. Ondorengo zenbait adibide ikus:

– "*bá*sua" (= edalontzia)
– "ba*sú*a" (= mendia...)
} 2 sustantibuok soilki hartuz.

Eta ikus orain zelako aldakuntzak dituzten talde fonikoek eta aztertu nahi dugun hitzaren silaba nagusi edo azentuatua nola tokiz aldatzen den hitzak elkarrekin desberdinki antolatu eta lotu ohi ditugunean. Izan ere berebiziko zerikusia dauka sintaxiak, hitzak elkartzean tonuera era batetara edo bestetara taiutuz. Har dezagun adibidez *bat* numeral izenlaguna (sustantibuaren atzekaldean) eta gero *hiru* (aurrekaldean): Begira:

a)
– *bá*so bat / ba so bat / (= edalontzi bat)
– hiru *bá*so / hiru ba so / (= hiru edalontzi)
2 4 1

b) { – ba*só* bat / ba^{so}bat / (= mendi bat)
{ – hi*rú* báso / hi^{ru} baso / (= hiru mendi)
2 4 1

Azken kasu horretan argi ikus dezakegu, (b) atalean alegia), talde fonikoaren izaera aldaketaz gain "baso" (mendi) hitzak tonuera aldatu duela, *bat* izenlagunarekin batean joanez gero ala *hiru*-rekin, silabok ezberdinki indartuz.

Azentuapen horiek berebiziko zertasun eta nortasuna ere ematen diote, sustantibuari kasu honetan, eta ez daitezke nehoiz bat besterekin nahas, hau da, beti daki mintzatzen ari denak –orobat entzuleak– zertaz ari garen, noiz edalontzia den eta noiz mendia, alegia. Baina *bi* zenbakia har dezagun orain eta nahiz aurrekaldean halaber atzean jar daitekeenez, ikus:

– *bá*so bi / ba$_{so}$bi / (= edalontzi bi)
3 2 1

– bi *bá*so / bi^{ba}so / (= bi edalontzi)
1 3 1

– ba*só* bi / ba^{so}bi / (= mendi bi)
1 3 1

– *bí* baso / bi$_{ba}$so / (= bi mendi)
4 2 1 = sol-mi-re.

Garbi dago, bada, hitzen joskerak kondizionamendu bat sor erazten duela azentuapenean eta, noski, bai kurba bai talde fonikoetan aldakuntzak eratzen dituela.

Azentuapenari esker, deklinabide osoan gorde ohi da hitzaren esanahia eta ez genituzke sekulan nahasbidean jarriko kotzeptu bi horiek, kasu honetan *edalontzi* eta *mendi* bereizketan. Adibidez:

— "*bá*sotik ura jausi da"
— "*bá*sora ardaua bota dot"
— "zein *bá*sotara bota dozu ardaua?"
— "ez dago *bá*sorik"
.....
— "bas*ó*tik egurra ekarri dot"
— "bixar bas*ó*ra zoiaz ala?"
— "zein baso*tá*ra juango zara?" / ba^{so}^{ta}ra /
— "itxasuan ez dago baso*rík*"
.....

Azterketa interesgarria egin daiteke azentuapen kontu honetaz zein-nahi euskalki hartuz. Azterketa hau sakon eta zabal izan ledin zehatz mehatz ikus, begira, araka, gonpara eta frogatu behar lirateke ez hitzak soilki, esaldiak ere baizik, baina baita ere hizlariaren une edo memento sikologikoa, pertsonak ez baitu berdin, mintzatzean, azentuapena erabiltzen, dela normalki mintzatuz, ala pozarren dela, ala triste, ala agindukeraz ari den, ala harridura ager. Hala ere beti du liferentziatzen hitzen arteko esanahia, baldin eta hitzon artean azentu diakritikoa bada. Ikus, esaterako, lehengo hitz biok eta esaldi erraz batzuk egin ditzagun:

— "básuak erosi dittut" / = ba^{su}ak / (3 2 1)

— "Zer erosi dozu, zer, zertzuk?"
— "*Bá-sú-ák*!"... / = basuak / = ba-su-ak (3; 3 3 3)

Honek zera du agertzen alegia, normalki mintzatzen ari garenean *básuak* hitza 3-2-1 musikal mailaketaz dela eratzen, baina galdetzailearen ekite isituaren eraginezko erantzun berrian indartu egingo du lehengo hitza bera eta 3-2-1-ko mailaketaren ordez 3-3-3-ko musikal mailaketa indartua egingo du.

Basúak (mendiak) hitza har dezagun, aurrekoaren pare gonbaratzeko eta lehen bezalatsu ikus:

— "Galdaraminoko bas*ú*ak erre dira" (= ba^{su}ak) (1 3 2)

— "Galdaramiñon zertzuk erre dira, zertzuk?"

— "Ba*súák*, ba-*sú-ák*!... /= ba-su-ak/
1 3 3

Erantzun indartuetan, berdin, ez dute *edalontzi* eta *mendi (báso/basó)* hitzek bakoitzari dagokion esanahirik galtzen, azentu diakritikoari esker alegia, beti gorde erazten baitu honek, hizlariaren edozein egoera psikologikotan, hitz bakoitzaren kontzeptu eta esanahi argia.

Azentuapen arlo honetan ikaragarrizko mundu handi bat dugu eta lehenxeago esan dudanez, egiteko dukegu, oraindik orain, euskalkien arteko azentu arakatze sakon eta zehatza. Baina gaurko nire asmoa mundu handi horretan sartzea ez denez gero —Jainkoak lagun— aldendu samar bilakatu bide zaidan harira itzul nadin berriz.

Eibarko hitzen zerrenda hori, lehen esana bezala, bost atal berezitan zati nezakeen arren, baina gehiegi konplika ez zekigun, atal bakar batetan eman nuen, alfabeta ordenari hertsiki lotuz, 1976-ngo Apirilaren 30-ean Euskaltzaindiak Donostian ukan zuen batzarrean.

Batzarre haretako zenbaiten aburuz, biren bat ataletan banandu behar nukeela esan zitzaidan, hau da, bata gramatika aldetiko zerikusiaren eraginaz dena eta bestea hitz biren bereizketa hutsa, librea, besterik gabe. Haritschelar jauna izan nuen gehien bat interesatu zena alegia, eta hark esana kontutan hartzekoa zaidanez gero, horixe noa egiten, atal bi nagusitan zati: 1a) Euskal gramatikaz adieraz edo esplika daitezkeen hitzen zerrenda, azentu diakritikoa dela medio alegia. Lehen atal nagusi honen barnean zenbait ataltxo egingo ditut, "mugagabe" eta "mugatu plural" zentzuz bereiztua, "singular egile" eta "plural"aren arteko aldea agertzen duena etabar izenburupetan. 2a) Besterik gabe hitz bi —bost axola nondikoak ala zertazkoak diren—, bata bestearen aurrean jarriz azentu diakritikoaren eraginez ager eta bereiz. Beraz:

1. ATALA

a) Hitz *mugagabe* eta *mugatu pluralen* arteko bereizketa.

b) *Singular egile* (activo) eta *plural activo/pasivo* artekoen aldea.

d) Nahiz pertsona baten nahiz gauza baten izena, zenbait dendaren edo lantegiren edo giza-elkarteren izenarengandik bereizten dena.

2. ATALA

— Gramatika aldetiko zerikusirik gabe azentu diakritikoaren eraginez hitz bat, den denean, beste batengandik bereizten denekoa.

Nola ager tonu nagusia, hau da, silaba azentuatu nagusia? Azentu gangurrez ala azpimarratuz? Hitzen bereizketa ikusteko silaba nagusia maila bat altxatuz egingo dut. Beraz, silaba goratu hori da izango *tonu nagusia* edota tonu nagusiduna. Baina, hots, ez du horrek musikal kurba edo mailaketa zehatz eta osoa agertuko, silaba horretan dela baizik azentu gorena, indartuena eta, beraz, aski deritzadanez, izkutuan dira izango bestelako silaba *tonika* eta *atonak* oro, hark menpean baititu besteok eta, hori badakigunez gero, ez daukagu lehenxeago egin dugun araketa zehatzaren antzera egiteko premiarik.

Adibidez, har dezadan zein-nahi hitz: FRAKADUNAK, esaterako, eta noiz *singular egile* eta noiz *plural* den jakiteko azentu diakritikoz dakigunez gero, izatez, ondoren agertuko ditudan musikal eskalaz eratuak ditugu biok:

a) Singular egile = FRA^{KA}^{DUN} AK = re-mi-fa-re (= 1-2-3-1).

b) Plural $\left\{\begin{array}{l}\text{egile}\\ \text{ezegile}\end{array}\right.$ = FRA^{KA}$_{\text{DUN}}$ AK = re-la-fa-re (= 1-5-3-1).

Hori horrela bada ere, egitan, ez dut musikal eskala eredu horren arabera emango nire hitz zerrenda, silaba tonika nagusia maila bat soilki altxatuz baizik eta horixe da, hain xuxen, lehen azaldu nahi nuena. Beraz, kurba foniko horiek daukaten edo daukaketen musikal eskalan —nire erabidez eta erakuntzaz alegia— DUN = fa = 3 baldin bada *singular egile* horretako silaba tonika nagusia eta KA = la = 5 *pluralezkoan*

baldin badugu, hala ere maila bakar batetan jasoz edo altxatuz agertuko ditut, honela, adibidez:

– FRAKA^{DUN}AK = Singular egile (aktivo).

– FRA^{KA}DUNAK = Plural egile nahiz ezegile.

Lehenbiziko horretan, eta morfologia aldetik begiratuz, FRAKA-DUN-AK bada ere haren estruktura, ez dago, fonetikari dagokionez alegia, FRAKA-DUN-AK ala FRAKA-DU-NAK (FRAKA^{DU}NAK) den segurantzarik, zeren eta ahoazkatzean, agian, FRAKA-DU-NAK ebakiera hartzen baita, baina letra lotzez gain den garrantzia ez da nahiz era batera nahiz bestera aldatzen edo galtzen silabaren azentuapen kontu honi soilki bagagozkio. Goazen, beraz, aurrera, –N– horren loturan poto egin gabe.

Hitz zerrendaren silaba tonika nagusia maila bakarrean altxatuz emango badut ere, adibide esaldiak jar ditzadanean azentu ortografikoak eta azpimarratuak ditut jarriko, adibidez: "frakad*ú*nak esan dau" eta "fra*ká*dunak etorri dira" (edota "...esan dabe", ezpaita inguru hauetan egile pluralaren –e– letrarik ezagutzen).

Eta besterik gabe, goazen hitz zerrenda ikusten:

1. ATALA

GRAMATIKA ALDETIK AGER DAITEKEENA

a) *Hitz mugagabe eta mugatu pluralaren arteko bereizketa.*

Euskal deklinabidean hogei kasu ditut kontsideratzen nik, baina Eibarko euskalkierari gagozkio eta *zertazko* kasua erabiltzen ez denez gero, eta azentu diakritikoak zenbait deklinakasutan zerikusirik ez duena ere aldamenera utziaz, hamairu kasuz osatzen den hizjokoa dut emango. Nire ustezko hogei kasu horien ordena zaintzen dudala adierazteko, horren arabera dut errespetatuko zenbakien ordena bera. Horrela, falta diren lumeroek dute adieraziko nire ustezko

deklinabide oso horretan tokirik ez duten hitzak, azentu diakritiko kontu honetan sartzen ez direnak alegia.

ABAR hitza

	Mugagabe	*Mugatu plurala*
4.	ABARR^{EN}	A^{BARR}EN
5.	ABARR^{E}KIN	A^{BARR}EKIN
7.	ABARR^{EN}TZAT	A^{BARR}ENTZAT
8.	ABARR^{EN}TZAKO	A^{BARR}ENTZAKO
9.	ABARR^{EN}GAITTIK	A^{BARR}ENGAITTIK
11.	ABARR^{E}TAN	A^{BARR}ETAN
12.	ABARR^{E}TAKO	A^{BARR}ETAKO
13.	ABARR^{E}TATIK	A^{BARR}ETATIK
14.	ABARR^{E}TARA	A^{BARR}ETARA
15	ABARR^{E}TARAKO	A^{BARR}ETARAKO
16.	ABARR^{E}TARUTZ	A^{BARR} ETARUTZ
17.	ABARR^{E}TARAIÑO	A^{BARR}ETARAIÑO
18.	ABARR^{E}TARAIÑO	A^{BARR}ETARAIÑOKO

Zenbait adibide esaldi:

– Zure granujia abarrétan dabil (mugagabe).

– Onek umiok zuen etxe osteko abárretan ibili dittuk (plural).

Abar hitza bezalatsu dira portatzen *adar, bedar, bular, edur, egur, gaillur, izotz, lur, ur, urdin, zikin...*:

Mugagabe	*Mugatu plural*
ADARR^{E}TAN	A^{DARR}ETAN
BEDARR^{E}TAN	BE^{DARR}ETAN

BULARR^{E}TAN	BU^{LARR}ETAN
EDURR^{E}TAN	E^{DURR}ETAN
EGURR^{E}TAN	E^{GURR}ETAN
GAILLURR^{E}TAN	GAI^{LLURR}ETAN
IZOTZ^{E}TAN	I^{ZOTZ}ETAN
LURR^{E}TAN	LURR$_{ETAN}$
URDIN^{E}TAN	UR^{DIN}ETAN
UR^{E}TAN	UR$_{ETAN}$
ZIKIN^{E}TAN	ZI^{KIN}ETAN

— IZOTZ eta UR hitzen deklinabide osoa ikus dezagun:

Mugagabe	*Mugatu plurala*
IZOTZ^{EN}	I^{ZOTZ}EN
IZOTZ^{E}KIN	I^{ZOTZ}EKIN
IZOTZ^{EN}TZAT	I^{ZOTZ}ENTZAT
IZOTZ^{EN}TZAKO/-DAKO	I^{ZOTZ}ENTZAKO/-DAKO
IZOTZ^{EN}GAITTIK	I^{ZOTZ}ENGAITTIK
IZOTZ^{E}TAN	I^{ZOTZ}ETAN
IZOTZ^{E}TAKO	I^{ZOTZ}ETAKO
IZOTZ^{E}TATIK	I^{ZOTZ}ETATIK
IZOTZ^{E}TARA	I^{ZOTZ}ETARA
IZOTZ^{E}TARAKO	I^{ZOTZ}ETARAKO
IZOTZ^{E}TARUTZ	I^{ZOTZ}ETARUTZ
IZOTZ^{E}TARAIÑO	I^{ZOTZ}ETARAIÑO
IZOTZ^{E}TARAIÑOKO	I^{ZOTZ}ETARAIÑOKO

OHAR. Silabak horrela dira izan, baina pronuntziaketan honako loturaz egin ohi dela esan liteke, baina, dena den, berdin da gordetzen silaba tonika nagusia:

– izo$^{\text{tzen,}}$ izo^{tze}kin, izo^{tzen}tzat, izo^{tzen}tzako... *mugagabean.*

– i^{zo}tzen, i^{zo}tzekin, i^{zo}tzentzat, i^{zo}tzentzako... *mugatu plural.*

– *UR* hitza, batez ere silaba bakarreko baitugu; portaera bereziz:

Mugagabe	*Mugatu plurala*
UR^{EN}	UR$_{\text{EN}}$
UR^{E}KIN	UR$_{\text{EKIN}}$
UR^{EN}TZAT	UR$_{\text{ENTZAT}}$
UREN^{TZA}KO-DAKO	UR$_{\text{ENTZAKO-DAKO}}$
UR^{GAI}TTIK	UR$_{\text{ENGAITTIK}}$
UR^{E}TAN / URE^{TAN}	UR$_{\text{ETAN}}$
URE^{TA}KO	UR$_{\text{ETAKO}}$
URE^{TA}TIK	UR$_{\text{ETATIK}}$
URE^{TA}RA	UR$_{\text{ETARA}}$
URE^{TA}RAKO	UR$_{\text{ETARAKO}}$
URE^{TA}RUTZ	UR$_{\text{ETARUTZ}}$
URE^{TA}RAÑO	UR$_{\text{ETARAÑO}}$
URE^{TA}RAÑOKO	UR$_{\text{ETARAÑOKO}}$

Adibide esaldiak:

– Orrek zezen orrek zein adarrétan daka apurtua?
– Gure úmiak bedarrétan dabiz gustora.
– Nere gurasuak egurrétara juaten ziran sarri.
– Zein izotzén bildur zara zu?
– Izotzétatik atara-izu txanpana, Martiña!
– Kontuz, ume, uretárutz juan barik!
– Ume kóskorrak giñanian beti zikinétan ibiltzen giñan.
– Zein bularrétan daka gatxa zure lengusiñiak?

Mugagabeak

– Begiratu, zezenak adárretan darabil mutilla!
– Or goixan dittuzuen egúrretan dabiz zuen oilluak.
– Neguan eitten dittuen izótzen bildur zara beti.
– Goiko izótzetatik igesik jatxi dira órrek fristixok.
– Beko úretarutz joiazak ónek errekatxuok.
– Joku zikíñetan ibiltziak ez daka gauza onik.
– Bulárretan ez dakala ezer esan jetzak medikuak.

Mugatu pluralak

OHAR. Kontura gaitezkeenez, aztertu hitz guzti horiek kontsonantez bukatzen dira eta, dakigunez, euskalki orotan dateke berdin jazotzen, mugagabe formetan kontsonantezko bukaera daukaten hitzek idazkera berbera dute-eta mugagabe pluraletan. Horrela, guk Eibarren, eta beste zenbait tokitan ere, azentuapen ezberdin bidez dugu bereizten mugagabea eta mugatu plurala. Berriz esan beharra nuke ez dugula Eibarren ezagutzen, Mendebalde osoan ere ez, ez eta Gipuzkoan, zenbait euskalkik daukan –EK egile esangurako atzizki aberatsa. Hemen beti da esaten *-ak*, nahiz ezegile denean halaber egile, adibidez: "edurr*ak* etorri ziran", eta "edurr*ak* tapau eben zulua".

– Honaz gero, agian bi gauza behar genituzke ikusi. Bata, Izadian egoera eta izaera fisiko bat adierazten duten hitzak, berez bai daukate, euskaraz, mugagabe zentzua, hara nola, esaterako:

– *urétan nabil, edurrétara* noia, *izotzétan* konserbau...

Bestea, Izadiko izaera fisiko horretatik at diren hitzak, *adar, bular, madal...*, mugagabe formaz ager dakizkigun zenbait galdera eta galdegai

b) **Singular egile (activo) eta plural artekoen aldea.**

Ataltxo honetan *singular egile* den hitza *plural egile* nahiz *ezegile* denarekin bereizten deneko azterketa dugu egingo.

Baina zer, nola eta noiz da gertatzen hori? Begira:

1. Hitz bat, sustantibo bat, *-a* artikulu singularrez mugatzean lau silabatako eta "llano" baldin bada, edo beste era batetara esanaz, artikulu mugatzaile singular hori hartuz lau silabatako hitz "llano" bilaka badadi, alegia, *dantzaríxa, albokúa, umetsúa, itxasúa* etabar (denok lau silabatako eta azentuapenez "llanoak"), orduan gertatzen zaigu fenomenu hori. Begira *-ak* (eta *xak*) singular egilearen eta *-ak* plural atzizkiak hartzean nola den eratzen:

Singularrean	*Pluralean*
dantza^{ri}xak	dan^{tza}rixak
albo^{ku}ak	al^{bo}kuak (aldamenekoak)
ume^{tsu}ak	u^{me}tsuak
.....	.....

Hots! Singularrean "llano" direnak pluralean esdrujula dira bilakatzen, baina kontu izan beti dela lau silabaz osatuekin gertatzen, ez bestela. Hala ere...

2. Salbuespen bezala kontsidera genitzake honako hitz hauek: *gizon, mutil, onena* (honena)... aipatu erregelakoen silaba kopurua ukan ez arren ere esdrujula bilakatzen baitira pluraletan. Begira:

---

baitago tarte: "zein", "zenbat" etabar galdekizunen eraginez, edo "zenbaitt", "orrenbeste" etabar zenbatasunezko adberbiuekin, edo 2-3-4...10... zenbakien ondoren. Adibidez: "Ainbat emakume bularr*ék* eruaten detzaz begixak atzian orri", "Arbolako bi mada*lé*tatik bera lotuko dittut sokak". Ez dezagun ahaz pluraletan denok dutela azentuapen ezberdina.

– gi^{zon}ak	^{gi}zonak
– mu^{ti}llak	^{mu}tillak
– o^{ne}nak (honenak)	^{o}nenak (hauenak)

Baina bizpahiru salbuespen kenduz gero erregela antzo har dezakegu *lau silabatako hitz eta sustantibu "llano" mugatu singularra* "esdrujula" bilakatzen dela pluralean (nahiz pasivo nahiz activo).

Ez gaitezen eror, ordea, berez *-a* itsatsi edo organika deritzana daukaten hitzen tentaldian, Eibarren, beste zenbait herrialdetan bezala (batez ere mendebaldekotan) *-a* itsatsia duten hitzek artikuluz mugatzean *-IA* eta *-XIA* (-ia/xia) bukaera hartu ohi baitute. Hara nola, esaterako:

– as-ta-mí-a	(baina *as-ta-ma* bat)
– al-bo-kí-a	(baina *alboka* bat)
– ma-ta-zí-a	(baina *mataza* bat)
– fris-ti-xí-a	(baina *fristixa* bat)

Beraz, *astama, alboka, mataza* etabar hitzek *-a* mugatzailea hartzean lau silabatako bilakatu ohi zaizkigu: *astamía, albokía, matazía* etabar, eta "llanoak" gainera, baina ez dira, hauek, aztertu nahi ditugun eta aztertzen ari garen lau silabatako hitzen zerrenda horretan sartzen, plurala egitean *hiru* silabatako bihurtzen dira-eta.

Begira:

– Gure *astamíak* arrantza egiten dau, baina *ástamak badatoz.*

– Zure *albokíak* soinu ona dauka baina *álbokak jo dittuez.*

Azalpena argi dagoela uste dut eta, besterik gabe, goazen hitz zerrenda ikusiz, alegia, azentu diakritikoak plurala esdrujula alda eraziz bereizten dituen hitzen zerrenda:

SINGULAR EGILE	*PLURAL*	
ABA^{DI}AK	A^{BA}DIAK	(apaizak / apaizak, -ek)
ABE^{RA}TSAK	A^{BE}RATSAK	
ABI^{OI}AK	A^{BI}OIAK	
ABO^{GAU}AK	A^{BO}GAUAK	
ABOS^{TU}AK	A^{BOS}TUAK	(AGOSTUAK ere esaten da)
ADAR^{DUN}AK	A^{DAR}DUNAK	
ADA^{RI}XAK	A^{DA}RIXAK	(ahariak, / -ak, -ek)
ADUR^{DUN}AK	A^{DUR}DUNAK	(adurra duenak, / dutenak, -ek)
ADUR^{TSU}AK	A^{DUR}TSUAK	(adur ugari duenak/-ak, -ek)
AFA^{RI}XAK	A^{FA}RIXAK	
AGIN^{DU}AK	A^{GIN}DUAK	
AGI^{RI}XAK	A^{GI}RIXAK	
AGUA^{ZI}LLAK	A^{GUA}ZILLAK	
AGU^{RI}AK	A^{GU}RIAK	(agureak, -ak/-ek)
AINGE^{RU}AK	AIN^{GE}RUAK	
AINTZA^{LLI}AK	AIN^{TZA}LLIAK	(agintariak, -ak/-ek)

AITXU^{ME}NAK	AI^{TXU}MENAK	(adimenak, -ak/-ek)
AKOR^{DU}AK	A^{KOR}DUAK	
AKU^{LU}AK	A^{KU}LUAK	(akuiluak, -ak/-ek)
ALA^{KU}AK	A^{LA}KUAK	(halakoak, -ak/-ek)
ALBO^{KU}AK	AL^{BO}KUAK	(albokoak, -ak/-ek)
ALDA^{MEN}AK	AL^{DA}MENAK	
ALDER^{DI}XAK	AL^{DER}DIXAK	(alderdiak, -ak/-ek)
ALE^{GIÑ}AK	A^{LE}GIÑAK	
ALE^{MAN}AK	A^{LE}MANAK	(Alemaniarrak, -ak/-ek)
ALKA^{TI}AK	AL^{KA}TIAK	(alkateak, -ak/-ek)
ALKI^{ZUN}AK	AL^{KI}ZUNAK	(botereak, autoridadeak)
ALMA^{ZEN}AK	AL^{MA}ZENAK	
ALMI^{DOI}AK	AL^{MI}DOIAK	
ALPER^{KI}XAK	AL^{PER}KIXAK	(nagiak, alperrak, -ak/-ek)
AMES^{GIÑ}AK	A^{MES}GIÑAK	(ameslariak, -ak/-ek)
AMO^{KU}AK	A^{MO}KUAK	

Ohar. Zaharrek *amokúak* eta *amókuak* badiote ere, gaurregungo gazteek ''antxuélokuak'' esaten dute, (de anzuelo) alegia.

AMO^{RRAIÑ}AK	A^{MO}RRAIÑAK	(amuarrainak, -ak/-ek)
ANDA^{LUZ}AK	AN^{DA}LUZAK	
ANDE^{RU}AK	AN^{DE}RUAK	(anda eramaleak, -ak/-ek)
ANTXU^{MI}AK	AN^{TXU}MIAK	(antxumeak, -ak/-ek)
ARBI^{DI}AK	AR^{BI}DIAK	(galtzadak, harbideak)
ARLO^{TI}AK	AR^{LO}TIAK	(arloteak, -ak/-ek)
ARDAU^{DUN}AK	AR^{DAU}DUNAK	(ardoa duenak, -ak/-ek)
ARA^{GIN}XAK	A^{RA}GIXAK	(janaritakoa ez...)
ARE^{TSU}AK	A^{RE}TSUAK	(hondartsuak, -ak/ek)
ARGI^{DUN}AK	AR^{GI}DUNAK	
ARMA^{GIÑ}AK	AR^{MA}GIÑAK	
ARMO^{ZU}AK	AR^{MO}ZUAK	(gosariak, -ak-ek)
ARPE^{GI}XAK	AR^{PE}GIXAK	(aurpegiak, -ak/-ek)
ARRA^{TOI}AK	A^{RRA}TOIAK	
ARTO^{DUN}AK	AR^{TO}DUNAK	

ARTO^{SAI}LLAK	AR^{TO}SAILLAK	
ARTZAI^{LLI}AK	AR^{TZAI}LLIAK	(hartzaileak, -ak/-ek)

Ohar. Halako hitzetan "artzalliak" edo "artzailliak" berdin litzateke, silaba lotura horretan ezpaita garbi ikusten -tzalli- ala -tzailli- esan ohi den.

ASA^{RRI}AK	A^{SA}RRIAK	(haserreak, -ak/-ek)
ASTO^{DUN}AK	AS^{TO}DUNAK	
ATA^{JU}AK	A^{TA}JUAK	(lasterbideak, -ak/-ek)
ATAUN^{GU}AK	A^{TAUN}GUAK	(Ataun urikoak, -ak/-ek)
ATE^{GIÑ}AK	A^{TE}GIÑAK	
ATE^{KU}AK	A^{TE}KUAK	(atekoak, -ak/-ek)
ATZA^{PARR}AK	A^{TZA}PARRAK	
ATZAUN^{DI}XAK	A^{TZAUN}DIXAK	(atzapar handiak, -ek)
ATUN^{TSU}AK	A^{TUN}TSUAK	(atunez ugariak, -ak/-ek)
ATZO^{KU}AK	A^{TZO}KUAK	
AURRES^{KU}AK	AU^{RRES}KUAK	
AURTEN^{GU}AK	AUR^{TEN}GUAK	

AUSPO^{GIÑ}AK	AUS^{PO}GIÑAK	
AUTO^{BUS}AK	AU^{TO}BUSAK	
AUZO^{KU}AK	AU^{ZO}KUAK	
AUZO^{LAN}AK	AU^{ZO}LANAK	
AXE^{RI}XAK	A^{XE}RIXAK	(azeriak, -ak/-ek)
AZPI^{KU}AK	AZ^{PI}KUAK	
AZUR^{TSU}AK	A^{ZUR}TSUAK	(hezurtsuak, -ak/-ek)

B letraz hasten direnei heldu baino lehen, adibide-esaldi batzuk jar ditzagun A letraz hasten diren hitzez osatuak:

— Abo*gáu*ak esan dau.	— A*bó*gauak esan dabe.
— Zure ada*rí*xak gogor tope eitten dau.	— Baina Agiñazpin a*dá*rixak be ez dira makalak.
— Atzoko afa*rí*xak gaitx ein zestan.	— Bai ba, beti zabizie a*fá*rixak eitten eta ori ez dok ona.
— Ire agin*dú*ak min emon jetzak Txolauari.	— Izan be, min emoten juek ire a*gín*duak, zorrotzak dittuk-eta.
— Atzaun*dí*xak min emoten jestak.	— Euki be aundixak dakazak ik a*tzáun*dixak.

BABA^{JAN}AK BA^{BA}JANAK

BERE^{KOI}XAK	BE^{RE}KOIXAK	(berekoiak, -ek)
BERDE^{DUN}AK	BER^{DE}DUNAK	(berdez jantziak, -ak/-ek)
BERTA^{KU}AK	BER^{TA}KUAK	(bertakoak, -ak/-ek)
BEZE^{RU}AK	BE^{ZE}RUAK	(bezeroak, -ak/-ek)
BETA^{ZAL}AK	BE^{TA}ZALAK	
BETI^{KU}AK	BE^{TI}KUAK	(betikoak, -ak/-ek)
BETON^{DU}AK	BE^{TON}DUAK	(betondoak, -ak/-ek)
BIAR^{GIÑ}AK	BI^{AR}GIÑAK	(langileak, -ak/-ek)
BIU^{RRI}XAK	BI^{U}RRIXAK	(bihurriak, -ak/-ek)
BIXI^{GU}AK	BI^{XI}GUAK	
BIZAR^{DUN}AK	BI^{ZAR}DUNAK	
BIZAR^{TSU}AK	BI^{ZAR}TSUAK	
BOLA^{RI}XAK	BO^{LA}RIXAK	(bolariak, -ak/-ek)
BOLTSA^{DUN}AK	BOL^{TSA}DUNAK	(poltsadunak, -ak/-ek)
BONBE^{RU}AK	BON^{BE}RUAK	(suhiltzaileak, -ak/-ek)
BOSTE^{KU}AK	BOS^{TE}KUAK	(bostekoak, -ak/-ek)

BAKE^{TSU}AK	BA^{KE}TSUAK	
BALO^{RI}AK	BA^{LO}RIAK	(balioak, ausardiak, -ek)
BALLE^{KU}AK	BA^{LLE}KUAK	(hitz konposatuetan)
BARRI^{TXU}AK	BA^{RRI}TXUAK	
BARRU^{KU}AK	BA^{RRU}KUAK	(barrukoak, -ak/-ek)
BASO^{KU}AK	BA^{SO}KUAK	(mendikoak, -ak/-ek)
BAZTAN^{GU}AK	BAZ^{TAN}GUAK	(Baztan herrialdekoak, -ek)
BEDAR^{JAN}AK	BE^{DAR}JANAK	(belar-janak, -ak/-ek)
BEDAR^{SAI}LLAK	BE^{DAR}SAILLAK	(belar sailak -ak/-ek)
BENTE^{RU}AK	BEN^{TE}RUAK	(bide-ostatukoak, -ak/-ek)
BERA^{KU}AK	BE^{RA}KUAK	(beherakoak, -ak/-ek)
BERAN^{DU}AK	BE^{RAN}DUAK	
BERA^{TU}AK	BE^{RA}TUAK	(beratualdiak, -ak/-ek)
BERBA^{DUN}AK	BER^{BA}DUNAK	(hitza duenak, -ak/-ek)
BERBA^{TSU}AK	BER^{BA}TSUAK	(hiztunak, -ak/-ek)
BERBI^{KIÑ}AK	BER^{BI}KIÑAK	(birabarkiak, -ak/-ek)

BOTA^{DUN}AK	BO^{TA}DUNAK	(''bota'' oinetakodunak...)
BULAR^{TSU}AK	BU^{LAR}TSUAK	
BURGA^{LES}AK	BUR^{GA}LESAK	(Burgoskoak, -ak/-ek)
BURU^{TSU}AK	BU^{RU}TSUAK	
BURU^{KU}AK	BU^{RU}KUAK	(burukoak, -ak/-ek)
BUZTA^{RRI}XAK	BUZ^{TA}RRIXAK	(uztarriak, -ak/-ek)
DANTZA^{RI}XAK	DAN^{TZA}RIXAK	(dantzariak, -ak/-ek)
DEBA^{KU}AK	DE^{BA}KUAK	(Deba urikoak, -ak/-ek)
DENDA^{RI}XAK	DEN^{DA}RIXAK	(dendariak, -ak/-ek)
DESBAR^{DIÑ}AK	DES^{BAR}DIÑAK	
DIA^{BRU}AK	DI^{A}BRUAK	(deabruak, -ak/-ek)
DIRU^{DUN}AK	DI^{RU}DUNAK	
DIRU^{TSU}AK	DI^{RU}TSUAK	
DOLO^{RI}AK	DO^{LO}RIAK	(Zaharrek diote horrela eta ez gazteek)
DOTO^{RI}AK	DO^{TO}RIAK	(dotoreak, -ak/-ek)
DROGO^{SU}AK	DRO^{GO}SUAK	(drogazaleak, nahastezaleak, saltsa-zaleak, -ak/-ek)

DUA^{KU}AK	DU^{A}KUAK	(dohainiak, -ak/-ek)
DUAN^{GU}AK	DU^{AN}GUAK	(jantzakurrak, -ak/-ek) (El, los gorrones)
DUDA^{KU}AK	DU^{DA}KUAK	(dudakoak, -ak/-ek)
EDUR^{TSU}AK	E^{DUR}TSUAK	(elurtsuak, -ak/-ek)
EGO^{KI}XAK	E^{GO}KIXAK	(egokiak, -ak/-ek)
EGO^{SI}XAK	E^{GO}SIXAK	(egosiak, -ak/-ek)
EGUAL^{DI}XAK	E^{GUAL}DIXAK	(eguraldiak, -ak/-ek)
EIBAR^{KU}AK	EI^{BAR}KUAK	(Eibar urikoak, -ak/-ek)
EIÑAL^{DI}XAK	EI^{ÑAL}DIXAK	(enginaldiak, -ak/-ek)
ELBA^{RRI}XAK	EL^{BA}RRIXAK	(elbarriak, -ak/-ek)
EMEN^{GU}AK	E^{MEN}GUAK	(hemengoak, -ak/-ek)
ENRE^{DU}AK	EN^{RE}DUAK	(nahaspilak, matazak...)
ERAN^{TZUN}AK	E^{RAN}TZUNAK	
ERAS^{TUN}AK	E^{RAS}TUNAK	(eraztunak, -ak/-ek)
ERDAL^{DUN}AK	ER^{DAL}DUNAK	(-*dal*- eta -*del*-, biak)
ERDEL^{DUN}AK	ER^{DEL}DUNAK	(-*del*- eta -*dal*-, biak)

ERE^{GI}XAK	E^{RE}GIXAK	(irekiak, -ak/-ek)
ERE^{MU}AK	E^{RE}MUAK	
ERI^{TXI}XAK	E^{RI}TXIXAK	(eritziak, -ak/-ek)
ERMU^{KU}AK	ER^{MU}KUAK	(Ermua urikoak, -ak/-ek)
ERO^{SI}XAK	E^{RO}SIXAK	(erosiak, -ak/-ek)
ERO^{SU}AK	E^{RO}SUAK	(erosoak, -ak/-ek)
ERPOI^{DUN}AK	ER^{POI}DUNAK	(harpoidunak, -ak/-ek)
ERRA^{MU}AK	E^{RRA}MUAK	(ereinontzak, -ak/-ek)
ERRA^{ZOI}AK	E^{RRA}ZOIAK	(arrazoiak, -ak/-ek)
ERRE^{GU}AK	E^{RRE}GUAK	
ERRE^{KAU}AK	E^{RRE}KAUAK	(mandatuak, -ak/-ek)
ERRE^{TE}NAK	E^{RRE}TENAK	
ERRE^{ZOI}AK	E^{RRE}ZOIAK	(ERRE- eta ERRA- arrazoiak, -ak/-ek)
ERRE^{ZU}AK	E^{RRE}ZUAK	(otoitzak, -ak/-ek)
ERRI^{A}LAK	E^{RRI}ALAK	(errealak, (dirua) -ak/-ek)
ESKE^{KU}AK	ES^{KE}KUAK	(eskekoak, -ak/-ek)

ESKO^{ZE}SAK	ES^{KO}ZESAK	(Eskoziarrak, -ak/-ek)
ESKRI^{BAU}AK	ES^{KRI}BAUAK	(zaharrek bakarrik darabilte hitz hau)
ESKUZ^{KU}AK	ES^{KUZ}KUAK	(eskuz egin ohi duenak)
ESNE^{DUN}AK	ES^{NE}DUNAK	(esne sailtzaileak, -ak/-ek)
ESNE^{TSU}AK	ES^{NE}TSUAK	
ESPA^{ÑOL}AK	ES^{PA}ÑOLAK	

OHAR.—Honetan esan beharra genuke, agian, ESPA*ÑO*LAK singular *maskulino* egile dela, ESPA*ÑO*LIAK formak egiten baitu *femeninoa* eta nahiz femenino nahiz maskulino pluralarentzat ES*PA*ÑOLAK, plurala beti esdrujula.

ESPA^{RRU}AK	ES^{PA}RRUAK	(zaharrek darabilte)
ESPAR^{TZU}AK	ES^{PAR}TZUAK	(= ''esparto'')
ETXE^{DUN}AK	E^{TXE}DUNAK	
ETXE^{GIÑ}AK	E^{TXE}GIÑAK	(etxeginak, -ak/-ek)
ETXE^{KU}AK	E^{TXE}KUAK	(etxekoak, -ak/-ek)
EUSKAL^{DUN}AK	EUS^{KAL}DUNAK	
EUSKAL^{TA}RRAK	EUS^{KAL}TARRAK	(euskaldunak -ak/-ek)

EZA^{GUN}AK	E^{ZA}GUNAK	(hitz hau, honela, zaharrek darabilte. Gazteek EZAUNAK)
EZA^{RRI}XAK	E^{ZA}RRIXAK	(ezarriak, baina ''poztizo'', ''advenedizo'' ere adierazten)
EZBAR^{DIÑ}AK	EZ^{BAR}DIÑAK	(EZBARDIÑAK eta DESBARDIÑAK, biok darabiltza eibartarrak)
EZBI^{A}RRAK	EZ^{BI}ARRAK	(ezbeharrak, -ak/-ek)
EZERR^{E}ZAK	E^{ZERR}EZAK	(ezer-ezak, -ak/-ek)
EZJA^{KIÑ}AK	EZ^{JA}KIÑAK	(ezjakinak, -ak/-ek)
EZKON^{DU}AK	EZ^{KON}DUAK	
EZKON^{GEI}XAK	EZ^{KON}GEIXAK	(ezkongeak, -ak/-ek)
EZKUR^{DUN}AK	EZ^{KUR}DUNAK	(ezkurra duenak, -ak/-ek)
EZKUR^{TSU}AK	EZ^{KUR}TSUAK	(ezkur asko duenak, -ak/-ek)
EZKU^{TU}AK	EZ^{KU}TUAK	(ezkutu denak, -ak/-ek)
EZLA^{KU}AK	EZ^{LA}KUAK	(paregabeak, -ak/-ek)
EZLEI^{XA}LAK	EZ^{LEI}XALAK	(ezleialak, faltsuak, -ak/-ek)
EZTE^{GU}AK	EZ^{TE}GUAK	
EZTI^{TSU}AK	EZ^{TI}TSUAK	
FEDE^{DUN}AK	FE^{DE}DUNAK	

FILAN^{DE}SAK	FI^{LAN}DESAK	(Finlandiakoak, -ak/-ek)
FOTE^{RU}AK	FO^{TE}RUAK	(fota egileak, okinak, -ak/-ek)
FRAKA^{DUN}AK	FRA^{KA}DUNAK	
FRANTXU^{LE}TAK	FRAN^{TXU}LETAK	(''Flageolet''ak? Txilibitu bereziak. ''Frantsesak'' ere bai.
FRONTOI^{KU}AK	FRON^{TOI}KUAK	(pelotalekukoak, -ak/-ek)
GABE^{KU}AK	GA^{BE}KUAK	(gauekoak, -ak/-ek)
GABON^{GA}BAK	GA^{BON}GABAK	(gabon-gauak, -ak/-ek)
GAIXO^{TSU}AK	GAI^{XO}TSUAK	(gaixoberak, -ak/-ek)
GALBU^{RU}AK	GAL^{BU}RUAK	
GALE^{PER}RAK	GA^{LE}PERRAK	
GALTZA^{LLI}AK	GAL^{TZA}LLIAK	(galtzaileak, -ak/-ek)
GALTZER^{DI}XAK	GAL^{TZER}DIXAK	(= Zaharrek soilki)
GANGA^{LLU}AK	GAN^{GA}LLUAK	(Gangailu(-lo)ak, -ak/-ek)
GARA^{GARR}AK	GA^{RA}GARRAK	
GARI^{DUN}AK	GA^{RI}DUNAK	
GARI^{SA}LLAK	GA^{RI}SALLAK	(gari-sailak, -ak/-ek)

GARRA^{SI}XAK	GA^{RRA}SIXAK	(garrasiak, -ak/-ek)
GATXI^{ZEN}AK	GA^{TXI}ZENAK	(gaitzizenak, -ak/-ek)
GATZA^{LI}AK	GATZ^{A}LIAK / GA^{TZA}LIAK	(Gatz-aleak, -ak/-ek)
GATZON^{TZI}XAK	GATZ^{ON}TZIXAK	(gatzontziak, -ak/-ek)
GAUTXO^{RI}XAK	GAU^{TXO}RIXAK	(gauxoriak, -ak/-ek)
GAZTAI^{DUN}AK	GAZ^{TAI}DUNAK	(gazta duenak, -ak/-ek)
GAZTAI^{GIÑ}AK	GAZ^{TAI}GIÑAK	(gaztaginak, -ak/-ek)
G/JENO^{VE}SAK	GE^{NO}VESAK	(génovatarrak, -ak/-ek)
GERRA^{KU}AK	GE^{RRA}KUAK	(gudakoak, -ak/-ek)
GERRE^{RU}AK	GE^{RRE}RUAK	(gudariak, -ak/-ek)
GIZAL^{DI}XAK	GI^{ZAL}DIXAK	(gizaldiak, -ak/-ek)
GOGO^{TSU}AK	GO^{GO}TSUAK	
GOIXE^{KU}AK	GOI^{XE}KUAK	(goizekoak, -ak/-ek)
GOIZ-AL^{DI}AK	GOIZ^{AL}DIAK	(Bai *goizaldixa,* bai *goizaldia,* hitz biok erabili ohi dira Eibarren *goizalde* edo *egunabar* adierazteko)
GOIZ-AL^{DI}XAK	GOIZ^{AL}DIXAK	

GOIZA^{LI}AK	GOI^{ZA}LIAK	(goi-zaleak, -ak/-ek)
GORA^{KU}AK	GO^{RA}KUAK	(gorakoak, -ak/-ek)
GORRI^{DUN}AK	GO^{RRI}DUNAK	
GORRO^{TU}AK	GO^{RRO}TUAK	(gorrotoak, -ak/-ek)
GOZA^{MEN}AK	GO^{ZA}MENAK	
GRABAU^{KU}AK	GRA^{BAU}KUAK	(grabatu artean ari denekoak)
GUARDA^{SOL}AK	GUAR^{DA}SOLAK	(euritakoak, -ak/-ek)
GUDA^{RI}XAK	GU^{DA}RIXAK	(gudariak, -ak/-ek)
GURA^{SU}AK	GU^{RA}SUAK	(gurasoak, -ak/-ek)
IBI^{LI}XAK	I^{BI}LIXAK	(ibiliak, ibilaldiak, -ak/-ek)
IGA^{RI}XAK	I^{GA}RIXAK	(igeriak, -ak/-ek)
IGEZ^{KU}AK	I^{GEZ}KUAK	(iazkoak, -ak/-ek)
IKAZ^{DUN}AK	I^{KAZ}DUNAK	
IKAZ^{GIÑ}AK	I^{KAZ}GIÑAK	
IKU^{BI}LLAK	I^{KU}BILLAK	(= Ukabilak, -ak/-ek)
ILLIN^{TXI}XAK	I^{LIN}TXIXAK	(ilintiak, ilindiak, -ak/-ek)

INDAR^{TSU}AK	IN^{DAR}TSUAK	
INFAR^{NU}AK	IN^{FAR}NUAK	(infernuak, -ak/-ek)
INFRA^{ÑU}AK	IN^{FRA}ÑUAK	(infernuak, / Gazteek INFRAÑUA diote, zaharrek INFARNUA.
IPUR^{DI}XAK	I^{PUR}DIXAK	(ipurdiak, -ak/-ek)
IRA^{SAIL}LAK	I^{RA}SAILLAK	(ira sailak, -ak/-ek)
IRI^{TXI}XAK	I^{RI}TXIXAK	(iritziak, usteak, -ak/-ek)
IRRIN^{TZI}XAK	I^{RRIN}TZIXAK	(irrintziak, -ak/-ek)
IRU^{DI}XAK	I^{RU}DIXAK	(irudiak, -ak/-ek)
IRU^{TXU}RRAK	I^{RU}TXURRAK	(*iruzurrak*. Baita ere hiru planoren ertzez egin *''zokoak''*
ITTU^{RRI}XAK	I^{TTU}RRIXAK	(iturriak, -ak/-ek)
ITXA^{SU}AK	I^{TXA}SUAK	(itsasuak, -ak/-ek)
IRLAN^{DE}SAK	IR^{LAN}DESAK	(Irlandarrak, -ak/-ek)
IRU^{KU}AK	I^{RU}KUAK	(hirukoak, -ak/-ek)
ITXO^{GIÑ}AK	I^{TXO}GIÑAK	(itoginak, itukinak, -ak/-ek)
ITXO^{MEN}AK	I^{TXO}MENAK	(itomenak, -ak/-ek)

ITZA^{RI}XAK	I^{TZA}RIXAK	(ehiztariak. Eibarren gaur egun ''kazarixa'' esaten da, baina Toribio Etxeberriak ''eitzarixa'' eta ''itxarixa'' ere jasoak ditu).
IXU^{KU}AK	I^{XU}KUAK	(''Ixu'' izena duen Eibarko mendi barrenekuak, -ak/-ek)
IZAR^{DI}XAK	I^{ZAR}DIXAK	(izerdiak, -ak/-ek)
JABE^{DUN}AK	JA^{BE}DUNAK	(jabea duenak, dutenak/-ek)
JAEN^{GU}AK	JA^{EN}GUAK	(Jae-goak, -ak/-ek)
JAKI^{TUN}AK	JA^{KI}TUNAK	
JAPO^{NE}SAK	JA^{PON}ESAK/JA^{PO}NESAK	(Japondarrak, -ak/-ek)
JATOR^{DU}AK	JA^{TOR}DUAK	
JAUNGOI^{KU}AK	JAUN^{GOI}KUAK	
JAURE^{GI}XAK	JAU^{RE}GIXAK	(jauregiak, -ak/-ek)
JESTO^{RI}AK	JES^{TO}RIAK	(gestiogileak, -ak/-ek)
KAFE^{DUN}AK	KA^{FE}DUNAK	(kafea duenak, duenak/-ek)
KAFEZ^{KU}AK	KA^{FEZ}KUAK	(kafezkoak, kafez eginak...)
KALE^{KU}AK	KA^{LE}KUAK	(kalekoak, -ak/-ek)
KAMI^{OI}AK	KA^{MI}OIAK	

KANPE^{OI}AK	KAN^{PE}OIAK	(= ''Txapeldunak'', -ak/-ek)
KANTO^{RI}AK	KAN^{TO}RIAK	(kantariak, -ak/-ek)
KAPI^{TAN}AK	KA^{PI}TANAK	(kapitainak, -ak/-ek)
KAPI^{TAL}AK	KA^{PI}TALAK	
KARTA^{DUN}AK	KAR^{TA}DUNAK	(karta duenak, dutenak/ek)
KARTE^{RU}AK	KAR^{TE}RUAK	(postariak, -ak/-ek)
KARTOI^{GIÑ}AK	KAR^{TOI}GIÑAK	(kartoiginak, -ak/-ek)
KARTOIZ^{KU}AK	KAR^{TOIZ}KUAK	(kartoiz eginak, -ak/-ek)
KASKA^{RIÑ}AK	KAS^{KA}RIÑAK	(kaskarinak, buruarinak...)
KATA^{LAN}AK	KA^{TA}LANAK	(Kataluniarrak, -ak/-ek)
KATE^{DUN}AK	KA^{TE}DUNAK	(katea duenak, dutenak/-ek)
KATU^{DUN}AK	KA^{TU}DUNAK	(katua, duenak, dutenak/-ek)
KAZA^{RI}XAK	KA^{ZA}RIXAK	(ehiztariak, -ak/-ek)
KEZKA^{TSU}AK	KEZ^{KA}TSUAK	
KIRI^{BI}LLAK	KI^{RI}BILLAK	(kiribilak, -ak/-ek)
KOLO^{RI}AK	KO^{LO}RIAK	(koloreak, margoak, -ak/-ek)

KONZE^{JA}LAK	KON^{ZE}JALAK	(zinegotziak, -ak/-ek)
KONZE^{JU}AK	KON^{ZE}JUAK	(herri Etxeak, -ak/-ek)
KOÑA^{TU}AK	KO^{ÑA}TUAK	Gazteek galdua dute (koinatuak, -ak/-ek)
KORDO^{BE}SAK	KOR^{DO}BESAK	(cordobakoak, -ak/-ek)
KORO^{NE}LAK	KO^{RO}NELAK	
LABA^{RI}XAK	LA^{BA}RIXAK	(labariak, -ak/-ek)
LASTOZ^{KU}AK	LAS^{TOZ}KUAK	(lastoz eginak, -ak/-ek)
LASTUR^{KU}AK	LAS^{TUR}KUAK	(lasturkoak, -ak/-ek)
LAUTA^{SUN}AK	LAU^{TA}SUNAK	(lau, zelai izateak, -ak/-ek)
LEGEZ^{KU}AK	LE^{GEZ}KUAK	(legezkoak, -ak/-ek)
LEPA^{TSU}AK	LE^{PA}TSUAK	(konkortsuak, -ak/-ek)
LIMA^{RI}XAK	LI^{MA}RIXAK	(lima tresnaz ari denak, -ek)
LIMOIZ^{KU}AK	LI^{MOIZ}KUAK	(limoizkoak, -ak/-ek)
LORA^{DUN}AK	LO^{RA}DUNAK	
LORA^{TSU}AK	LO^{RA}TSUAK	
LOTSA^{RI}XAK	LO^{TSA}RIXAK	(lotsariak, -ak/-ek)

LUMA^{DUN}AK	LU^{MA}DUNAK	
LUMA^{TSU}AK	LU^{MA}TSUAK	
LUZE^{DUN}AK	LU^{ZE}DUNAK	
MAAS^{DUN}AK	MA^{AS}DUNAK	(mahatsa duenak, dutenak,-ek)
MADA^{RI}XAK	MA^{DA}RIXAK	(madariak, -ak/-ek)
MALTZA^{KU}AK	MAL^{TZA}KUAK	(Maltzagakoak, -ak/-ek)
MARRO^{KI}XAK	MA^{RRO}KIXAK	(Marruecoskoak, -ak/-ek)
MESE^{DI}AK	ME^{SE}DIAK	(mesedeak, faboreak, -ak/-ek)
MILA^{NE}SAK	MI^{LA}NESAK	(Milan-darrak, -ak/-ek)
MILLA^{KU}AK	MI^{LLA}KUAK	(Milakoak, -ak/-ek)
MENDI^{KU}AK	MEN^{DI}KUAK	(mendikoak, -ak/-ek)
MODU^{KU}AK	MO^{DU}KUAK	(modukoak, erakoak, -ak/-ek Gaurregungo balaunaldiak ''morokuak'' dio).
MOKOR^{DU}AK	MO^{KOR}DUAK	(mokordoak)
MORDO^{LLU}AK	MOR^{DO}LLUAK	(mordoiloak, -ak/-ek)
MORO^{KI}LLAK	MO^{RO}KILLAK	(morokilak, -ak/-ek)
MORRO^{LLU}AK	MO^{RRO}LLUAK	(morroiloak, -ak/-ek)

MOSKU^{KU}AK	MOS^{KU}KUAK	(Mosku-koak, -ak/-ek)
MOZO^{LU}AK	MO^{ZO}LUAK	(mozoloak, -ak/-ek)
MUSLA^{RI}XAK	MUS^{LA}RIXAK	(muslariak, -ak/-ek)
NABAR^{MEN}AK	NA^{BAR}MENAK	
NAIGU^{RI}AK	NAI^{GU}RIAK	(nahigureak, desirak, -ak/-ek)
NASTO^{TSU}AK	NAS^{TO}TSUAK	(nahasleak, jostariak, -ak/-ek)
NEGRE^{RU}AK	NE^{GRE}RUAK	(''negreroak'', Eibarren langile zapaltzaile, explotatzaile)
NEGU^{KU}AK	NE^{GU}KUAK	(negukoak, -ak/-ek)
NEKA^{TSU}AK	NE^{KA}TSUAK	(neke askokoak, -ak/-ek)
NESKA^{MI}AK	NES^{KA}MIAK	(neskameak, -ak/-ek)
OBRE^{RU}AK	O^{BRE}RUAK	(langileak, ''biargiñak''. Eibarren ''biargiñ'' da izen zaharra, baina sozialismo garai hasieratik gaur arte ''obrero'' hitza ere sartua dugu. Gaurregun biok darabiltzagu.
OGI^{DUN}AK	O^{GI}DUNAK	
OGI^{GIÑ}AK	O^{GI}GIÑAK	(ogiginak, -ak/-ek)
OGI^{JAN}AK	O^{GI}JANAK	

OKA^{RAN}AK	O^{KA}RANAK	(aranak, -ak/-ek)
OLA^{KU}AK	O^{LA}KUAK	(horrelakoak, -ak/-ek)
OLLA^{GO}RRAK	O^{LLA}GORRAK	(oilagorrak, -ak/-ek)
ONDA^{KIÑ}AK	ON^{DA}KIÑAK	(hondakinak, -ak/-ek)
OÑAZ^{TU}AK	O^{ÑAZ}TUAK	(oinaztuak, -ak/-ek)
OIÑAZ^{PI}XAK	OI^{ÑAZ}PIXAK	(oinazpiak, -ak/-ek)
ORDEZ^{KU}AK	OR^{DEZ}KUAK	(ordezkoak, -ak/-ek)
ORI^{DUN}AK	O^{RI}DUNAK	(kolore oridunak, -ak/-ek)
ORMA^{GIÑ}AK	OR^{MA}GIÑAK	(ormagileak, -ak/-ek)
OROL^{GI}XAK	O^{ROL}GIXAK	(oroldioak, goroldiak)
ORRA^{ZI}XAK	O^{RRA}ZIXAK	(orraziak, -ak/-ek)
ORRI^{TSU}AK	O^{RRI}TSUAK	(hostotsuak, -ak/-ek)
ORTU^{DUN}AK	OR^{TU}DUNAK	(baratzedunak, -ak/-ek)
ORTU^{KU}AK	OR^{TU}KUAK	(baratzekoak, -ak/-ek)
OSTA^{TU}AK	OS^{TA}TUAK	
OZKI^{RRI}XAK	OZ^{KI}RRIXAK	(hozkirriak, -ak/-ek)

OZTA^{SUN}AK	OZ^{TA}SUNAK	(hoztasunak, -ak/-ek)
PABO^{NU}AK	PA^{BO}NUAK	(erdaraz "pavón" deritzanari Eibarren "pabonua" eta "fabonua" esaten zaio, zera, burdinazko zenbait tresnari herdoilaren kontra gainekaldean ematen zaion bainu ilun bati.)
PAPAR^{DU}AK	PA^{PAR}DUAK	(papardoak, -ak/-ek)
PAPAR^{DUN}AK	PA^{PAR}DUNAK	(paparra duenak, dutenak/-ek)
PARIS^{KU}AK	PA^{RIS}KUAK	(Paris-koak, -ak/-ek)
PEKA^{TU}AK	PE^{KA}TUAK	(bekatuak, -ak/-ek)
PEKIN^{GU}AK	PE^{KIN}GUAK	(Pekin-goak, -ak/-ek)
PERU^{KU}AK	PE^{RU}KUAK	(Peru-koak, -ak/-ek)
PITXAR^{DUN}AK	PI^{TXAR}DUNAK	
PIXO^{TSU}AK	PI^{XO}TSUAK	(pisutsuak, -ak/-ek)
PORTU^{GE}SAK	POR^{TU}GESAK	(Portugaldarrak, -ak/-ek)
POSPO^{LIÑ}AK	POS^{PO}LIÑAK	(pospolinak, -ak/-ek)
POTO^{LU}AK	PO^{TO}LUAK	(potoloak, lodiak, -ak/-ek)
POTRO^{SU}AK	PO^{TRO}SUAK	(potrosoak, -ak/-ek)

POZKI^{ZUN}AK	POZ^{KI}ZUNAK	
POZTA^{SUN}AK	POZ^{TA}SUNAK	
PUTE^{TXI}AK	PU^{TE}TXIAK	(putetxeak, -ak/-ek)
SAGAR^{DUN}AK	SA^{GAR}DUNAK	
SAKRIS^{TAU}AK	SA^{KRIS}TAUAK	
SENI^{DI}AK	SE^{NI}DIAK	(senideak, -ak/-ek)
SOKA^{DUN}AK	SO^{KA}	
SOSI^{GU}ZAK	SO^{SI}GUZAK	(soseguzak, geldiroiak, -ak/-ek)
SUKAN^{PAI}AK	SU^{KAN}PAIAK	
SUTON^{DU}AK	SU^{TON}DUAK	(sutondoak, -ak/-ek)
ZAKU^{DUN}AK	ZA^{KU}DUNAK	
ZARA^{GI}XAK	ZA^{RA}GIXAK	(zahagiak, -ak/-ek)
ZERRA^{RI}XAK	ZE^{RRA}RICAK	(zerrariak, -ak/-ek)

Aurrera jo baino lehen ez dezagun ahantz Eibarren ''s'' bezala ahoazkatzen direla ''z'' guztiak. Beraz, *zakuduna,* adibidez, ''sakuduna'' esaten da, *zerraria* beharrean ''serrarixa'', ''saragixa'', ''saintzaillia'' etabar.

TAILAN^{DE}SAK	TAI^{LAN}DESAK	(Thailandiarrak, -ak/-ek)
TALLAR^{DUN}AK	TA^{LLAR}DUNAK	(lantegidunak, -ak/-ek)
TEMO^{SU}AK	TE^{MO}SUAK	(kaskagogorrak, temakorrak, -ak/-ek)
TITI^{TSU}AK	TI^{TI}TSUAK	(dititsuak, ditihandiak, -ak/-ek)
TOKA^{MEN}AK	TO^{KA}MENAK	(tokamenak, heredentziak, -ak/-ek)
TORE^{RU}AK	TO^{RE}RUAK	(zezenlariak, -ak/-ek)
TORNE^{RU}AK	TOR^{NE}RUAK	(tornulariak. /Zaharrek ''torniatzallia'' diote, gazteek ''tornerua'').
TORRE^{KU}AK	TO^{RRE}KUAK	(dorrekoak)
TRAPUZ^{KU}AK	TRA^{PUZ}KUAK	(trapuzkoak, mantarrezkoak)
TRIPA^{TSU}AK	TRI^{PA}TSUAK	(= -ak/-ek)
TROLE^{BUS}AK	TRO^{LE}BUSAK	(= -ak/-ek)
TXALTXA^{KU}AK	TXAL^{TXA}KUAK	(Eibarren ''Txaltxakua'' izena duen baserrikoak, -ak/-ek)
TXAPEL^{DUN}AK	TXA^{PEL}DUNAK	(= -ak/-ek)
TXARA^{KU}AK	TXA^{RA}KUAK	(Txarakoak. Eibarren bada ''Txarakua'' izena duen mendi beha)
TXARRI^{DUN}Ak	TXA^{RRI}DUNAK	(zerridunak, -ak/-ek)
TXIMI^{ÑU}AK	TXI^{MI}ÑUAK	(ximinoak, -ak/-ek)

TXIPI^{ROI}AK	TXI^{PI}ROIAK	(= -ak/-ek)
TXIRI^{KI}LLAK	TXI^{RI}KILLAK	(Makilatxo batzuez egin ohi zen jolas edo jokuak ''Txirikileta jokua'' zuen izena. Guk ezagutu genuen, baina galdua da jadanik).
TXORI^{DUN}AK	TXO^{RI}DUNAK	
UDA^{KU}AK	U^{DA}KUAK	(udakoak)
UGA^{RI}XAK	U^{GA}RIXAK	(ugariak, -ak/-ek)
ULE^{DUN}AK	U^{LE}DUNAK	(iledunak, -ak/-ek)
ULE^{TSU}AK	U^{LE}TSUAK	(iletsuak, -ak/-ek)
UME^{DUN}AK	U^{ME}DUNAK	(= -ak/-ek)
UME^{TSU}AK	U^{ME}TSUAK	(= -ak/-ek)
UME^{ZAIÑ}AK	U^{ME}ZAIÑAK	(umezainak, -ak/-ek)
URAL^{DI}XAK	U^{RAL}DIXAK	(uraldeak, uholdeak, -ak/-ek)
URAUN^{DI}XAK	U^{RAUN}DIXAK	(ur-handiak, -ak/-ek)
URBA^{TU}AK	UR^{BA}TUAK	(= -ak/-ek)
URBUZ^{TAN}AK	UR^{BUZ}TANAK	(izainak, -ak/-ek). Gure zaharrek diote ''urbuztana''. Guk gaztetxotan ''odol txupatzekua'' esan ohi genuen Eibarren.

URDIN^{DUN}AK	UR^{DIN}DUNAK	(= -ak/-ek)
URREZ^{KU}AK	U^{RREZ}KUAK	(urrezkoak... -ak/-ek)
URTE^{KU}AK	UR^{TE}KUAK	(urtekoak, -ak/-ek)
USAI^{MEN}AK	U^{SAI}MENAK	(= -ak/-ek)
ZAINTZAI^{LLI}AK	ZAIN^{TZAI}LLIAK	(zaintzaileak, -ak/-ek)
ZAKU^{DUN}AK	ZA^{KU}DUNAK	
ZARA^{GI}XAK	ZA^{RA}GIXAK	(zahagiak, -ak/-ek)
ZARAUZ^{KU}AK	ZA^{RAUZ}KUAK	(Zarautzkoak, -ak/-ek)
ZAZPI^{KU}AK	ZAZ^{PI}KUAK	(zazpikoak, -ak/-ek)
ZERE^{GIÑ}AK	ZE^{RE}GIÑAK	(zereginak, -ak/-ek)
ZERRA^{RI}XAK	ZE^{RRA}RIXAK	(zerrariak, -ak/-ek)
ZORA^{MEN}AK	ZO^{RA}MENAK	(= -ak/-ek)
ZORTZI^{KU}AK	ZOR^{TZI}KUAK	(zortzikoak, -ak/-ek)
ZUBI^{GIÑ}AK	ZU^{BI}GIÑAK	(zubigileak, -ak/-ek)
ZULO^{GIÑ}AK	ZU^{LO}GIÑAK	(zulatzaileak, zulogileak)
ZUMAZ^{KU}AK	ZU^{MAZ}KUAK	(zumez eginak, -ak/-ek)
ZUREZ^{KU}AK	ZU^{REZ}KUAK	(= -ak/-ek)
ZURI^{DUN}AK	ZU^{RI}DUNAK	(= -ak/-ek)

Horra ba hor, zerrenda hori nolabait emana. Hala ere ez dateke osoa, zenbait hitz eta sustantibu ontzitik kanpora gelditua izango bait zait, hara nola, adibidez, honen frogagarri, zerrenda hori bukatuz gero bururatu ditudanak:

ANKA^{DUN}AK	AN^{KA}DUNAK	
ANKA^{KU}AK	AN^{KA}KUAK	
ARUZ^{KU}AK	A^{RUZ}KUAK	(harantz doanak, -ak/-ek)
ATZAZ^{KA}LAK	A^{TZAZ}KALAK	(hatzazalak, -ak/-ek)
ATZAZ^{KO}LAK	A^{TZAZ}KOLAK	(hatzazalak, -ak/-ek)
BATE^{KU}AK	BA^{TE}KUAK	
BASTOI^{DUN}AK	BAS^{TOI}DUNAK	(makiladunak, -ak/-ek)
BEGI^{DUN}AK	BE^{GI}DUNAK	
BEGI^{KU}AK	BE^{GI}KUAK	
BERRIZ^{KU}AK	BE^{RRIZ}KUAK	(Berriz urikoak, -ak/-ek)
BESA^{GAIÑ}AK	BE^{SA}GAIÑAK	
BESO^{DUN}AK	BE^{SO}DUNAK	(besoa duenak, dutenak, -ek)
BESO^{KU}AK	BE^{SO}KUAK	
BOTOI^{DUN}AK	BO^{TOI}DUNAK	

DESBER^{DIÑ}AK	DES^{BER}DIÑAK	
EITZA^{KU}AK	EI^{TZA}KUAK	(''Eitza'' izena duen Eibarko hauzune batekoak, -ak/-ek)
FIGU^{RIÑ}AK	FI^{GU}RIÑAK	
MILLOI^{KU}AK	MI^{LLOI}KUAK	
GARGAN^{TU}AK	GAR^{GAN}TUAK	
GAZTAI^{DUN}AK	GAZ^{TAI}DUNAK	
KANPAI^{DUN}AK	KAN^{PAI}DUNAK	
MILI^{TARR}AK	MI^{LI}TARRAK	
OGEI^{KU}AK	O^{GEI}KUAK	
ONTZI^{KU}AK	ON^{TZI}KUAK	(ontzian denak, direnak/-ek)
ONUZ^{KU}AK	O^{NUZ}KUAK	(honantz bidean den/direnak)
ORBEL^{DUN}AK	OR^{BEL}DUNAK	(hostodunak, -ak/-ek)
POTZU^{KU}AK	PO^{TZU}KUAK	(putzuan denak/direnak, -ek)
SAMA^{KU}AK	SA^{MA}KUAK	(samakoak, lepokoak/ -ak/-ek)
SASI^{KU}AK	SA^{SI}KUAK	
SURRE^{KU}AK	SU^{RRE}KUAK	(sudurrekoak, -ak/-ek)

TRIKI^{TI}XAK	TRI^{KI}TIXAK	(trikiti dantzak, -ak/-ek)
UMO^{RI}AK	U^{MO}RIAK	
URGEL^{DI}XAK	UR^{GEL}DIXAK	(geldi den... / diren urak, -ek)
TXANPON^{DUN}AK	TXAN^{PON}DUNAK	(dirudunak, -ak/-ek)
.....	.....	

Hala ere, egina dena aski eta argi dela nioke. Eta atal hau bukatzeko zenbait adibide esaldi jar dezagun, Eibarko euskaran alegia:

– Gizon bake*tsú*ak ez dau gerrarik emoten.	– Gizon ba*ké*tsuak ez baiña gerréruak biar dittu Euskalerrixak.
– Barru*kú*ak ez daki kanpokuaren barririk.	– Ba*rrú*kuak kanpokuen barri jakin biar leukie.
– Bixi*gú*ak prezio aundixa egin dau aurten.	– Ik ekarri dittuan bi*xí*guak fresko freskuak dittuk.
– Zure semiak dantza*rí*xak urten dau, e?	– Emengo dạn*tzá*rixak dantza ederrak eitxen ditxue (eitten dittue).
– Gauza dua*kú*ak ez daka preziorik.	– Du*á*kuak beti dittuk merkiak.
– Elgoibarko ekipuak ala Eibar*kú*ak irabazi jok?	– Elgoibarkuak (ez juek) etxuek irabazi; Ei*bár*kuak irabazi juek.
– Gabeko erre*zú*ak bakia emoten ei detsa lotarako gure amari.	– Abade batzuen e*rré*zuak luziak eta aspergarrixak dira. oindiñok be.
– Mendiko ibi*lí*xak on eitten desta ("on eitxesta" ere).	– Mendiko i*bí*lixak beti eitten dabe on.
– Karameluen artian kafez*kú*ak lagatzen desta aoko gustorik onena. Limoiz*kú*ak be bai.	– Neri be ka*fé*zkuak gustatzen jataz geixen. Ka*fé*zkuak eta li*mói*zkuak.
– Jaungoi*kú*ak zigortuko ei dittu munduko pekatuak.	– Zeiñ jaungoikok baiña, jaun*gói*kuak asko dagozeta munduan?
– Zu, mutikotan, moro*kí*llak potolotzen zinduzen.	– Izan be, ez ziran edozelakuak nere amak eitten zittuan mo*ró*killak.
– Ire ugezaba negre*rú*ak diru asko egin jok.	– Ugezaba geixenak ein juek dirua eta geixenak dittuk ne*grér*uak.

– Ez bostekúak eta ez zazpikúak ez detsu emongo triunfo aundirik.	– Bajakixat, Zazpíkuak, zortzíkuak eta bostékuak etxuek (ez juek) asko balio. Emen batékuak eta irúkuak dittuk nausi.
– Diru ugaríxak kalte eitten jetsak gizonari, millakúak asko baliko ez bajok-be.	– Neri dirufalta ugárixak eitten jestek kalte. Millákuak biar jittuagu asko emen, millákuak. Emen motxaillak dittuk ugárixak.

b-bis) *Zenbait erakusle edo demostratibu*

Singularra eta plurala bereizten ari garen ataltxo honetan sar genezake zenbait erakusle edo demostratibu ere, batez ere izenorde denean, Eibarren azentu diakritikoak agertzen baitu noiz den *bateko* eta noiz *anitz*, biok berdin idazten badira ere alegia. Beraz, diakritikotasun horrek eman dezakeen hainbat deklinabide ager dezagun:

AU (= hau)		ONEK (= hauek)	
O^{NEK}	(honek)	O$_{NEK}$	(hauk/hauek)
O^{NE}$_{RI}$	(honi)	O$_{NERI}$	(hauei)
O^{NEN}	(honen)	O$_{NEN}$	(hauen)
O^{NE}$_{KIN}$	(honekin)	O$_{NEKIN}$	(hauekin)
O^{NEN}$_{TZAT}$	(honentzat)	O$_{NENTZAT}$	(hauentzat)
ONEN^{TZA}$_{KO/-DAKO}$		O$_{NENTZAKO/-DAKO}$	(hauentzako)
ONE^{GAI}$_{TTIK}$	(honegaitik)	O$_{NEGAITTIK}$	(hauengatik)

(1) Datibuan, singularrean alegia, ''ONI'' (honi) ere erabiltzen da, baina zaharrengan dugu. Gazteek ''oneri'' forma darabilte.

O^{NE}$_{GAN}$	(honengan)	O$_{NEGAN}$	(hauengan)
ONE^{GAN}$_{DIK}$	(honengandik)	O$_{NEGANDIK}$	(hauengandik)
ONE^{GA}$_{NA}$	(honengana)	O$_{NEGANA}$	(hauengana)
ONE^{GA}$_{NAKO}$	(honenganako)	O$_{NEGANAKO}$	(hauenganako)
ONE^{GA}$_{NUTZ}$	(honenganantz)	O$_{NEGANUTZ}$	(hauenganantz)
ONE^{GA}$_{NAIÑO}$	(honenganaino)	O$_{NEGANAIÑO}$	(hauenganaino)

OHAR.—Bizidunekiko azken sei forma hauek zaharrek soilki darabiltzate gaurregun. Gazteek ez litzakete asma ere egin. Zakarrek berek ordea, —zenbaitek bederen— jan egiten dute G letra, ezkutatu samar honelatsu ahozkatuz: "onéan"/"ónean", "oneándik"... etabar.

	ORI (= hori)		ORREK (= horik/horiek)	
	O^{RREK}	(horrek)	O$_{\text{RREK}}$	(horik eta horiek)
(2)	O^{RRE}RI/orri	(horri)	O$_{\text{RRERI}}$	(horiei)
	O^{RREN}	(horren)	O$_{\text{RREN}}$	(horien)
	O^{RRE}KIN	(horrekin)	O$_{\text{RREKIN}}$	(horiekin)
	O^{RREN}TZAT	(horrentzat)	O$_{\text{RRENTZAT}}$	(horientzat)
(3)	O^{RREN}TZAKO/-DAKO	(horrentzako)	O$_{\text{RRENTZAKO/-DAKO}}$	(horientzako)
	ORRE^{GAI}TTIK	(horrengatik)	O$_{\text{RREGAITTIK}}$	(horiengatik)
(4)	ORRE^{GAN}	(horrengan)	O$_{\text{RREGAN}}$	(horiengan)
	ORRE^{GAN}DIK	(horrengandik)	O$_{\text{RREGANDIK}}$	(horiengandik)
	ORRE^{GA}NA	(horrengana)	O$_{\text{RREGANA}}$	(horiengana)
	ORRE^{GA}NAKO	(horrenganako)	O$_{\text{RREGANAKO}}$	(horienganako)
	ORRE^{GA}NUTZ	(horrenganantz)	O$_{\text{RREGANUTZ}}$	(horienganantz)
	ORRE^{GA}NAIÑO/-KO	(horrenganaino/-ko)	O$_{\text{RREGANAIÑO/-KO}}$	(horienganaino/-ko)

(2) HAU erakusle datibo singularrari buruz esan duguna bera esan dezakegu HORI erakuslearen datibo singularraz ere, adibidez, zaharrek "horri" esan ohi dutela eta gazteek "horreri".

(3) Forma zaharra, morfologi aldetik, *orrentzako* da, eta geroztikoa dukegu *orrenDAKO*, gaurregun bezala alegia.

(4) Esaldi baten barruan *orregán*, adib. "orregán daukat esperantzia", baina hitz deklinatua bakar dugunean *orrégan* egin ohi du. Adibidez; "Norégan esan dok"? —"*Orrégan*", "orregán dakatela".

Hemen ere, -GAN/ hizkiaren *G* letra jan egin ohi da sarri ahozkatzean, "orreán"/"órrean", "orreána"/"órreana" etabar esanaz.

ZENBAIT ADIBIDE ESALDI:

– *Onék* egixa diño beti.	– Ba, ónek bestiok gizurra diñue.
– *Onén* aitta nere laguna da.	– Baitta ónen (hauen) gurasuak be.
– Orrékin noia mendira (batekin).	– Ez, órrekin juango aiz (horiekin).
– Orréndako txamarria erosi dot. (batentzakoa alegia).	– Ba, órrendako beste órrendako be erosi biarra dago. (horientzako).
– Orrék eztaki ezer.	– Ezta órrek be, eztakixe.
– Orregándik ez dago gauza onik. (horrengandik).	– Baiña órregandik bai (horiengandik).

Erakusleak *izenlagun* funtzioa duenean (ez izenorde kasuan) gauza kurioxoa gertatzen da Eibarko euskaran, delako erakusle hori sujetoaren aurrekaldean eta atzekaldean kokatzen baita, hau da, bi erakuslez inguratua agertzen da sujetoa. Atzekaldean kokatzen dena, ia-ia sufijo antzo loturik ahozkatu ohi da. Begira:

– Orrék gizon orrek txapel aundixa darabil.	(*Gizon horrek* adierazteko)
– Orí mutil-ori ez da Mikel.	(*Mutil hori* adierazteko)
– Orregáittik umiorregáittik zagoz zu katigu beti.	(Ume horrengatik alegia)
– Orrén biargiñorren anaia nerekin egon zan soldau.	(*Langile horren* anaia...)
– Oní etxioni/oneri etxioneri/ teillatua jausi jako.	(*Etxe honi* adierazteko)

– Orrékin neskiorrekin baabil galdu eingo (egingo) aiz.	(*Neska horrekin*)
– Orréndako pelotarixorréndako pelota ona dok au.	(*Pelotari horrentzako*)
– Orréndako alkatiorrendako.	(*Alkate horrentzako...*)
– Órrentzako mutíkuontzako bizikletia ekarri juat.	(*Mutiko horientzako...*)

A = (hura)

A^REK	(hark)
A^RE_KIN	(harekin)
A^REN	(haren)
A^REN_TZAT	(harentzat)
A^REN_TZAKO/-DAKO	(harentzako)
ARE^GAI_TTIK	(harengatik)
A^RE_GAN	(harengan)
A^RE_GANDIK	(harengandik)
A^RE_GANA	(harengana)
ARE^GA_NAKO	(harenganako)
ARE^GA_NUTZ	(harenganantz)
ARE^GA_NAIÑO	(harenganaino)

AREK (haik/haiek)

A_REK	(haik/haiek)
A_REKIN	(haiekin)
A_REN	(haien)
A_RENTZAT	(haientzat)
A_RENTZAKO/-DAKO	(haientzako)
A_REGAITTIK	(haiengatik)
A_REGAN	(haiengan)
A_REGANDIK	(haiengandik)
A_REGANA	(haiengana)
A_REGANAKO	(haienganako)
A_REGANUTZ	(haienganantz)
A_REGANAIÑO	(haienganaino)

Aurreko erakusleekin bezala jar genitzake adibide esaldiak eta lehenik *izenorde* bezala erabiliz ikusiko dugu:

– Ar*é*k (=hark) galantak esan dittu.	– Nere ustez *á*rek ez dakixe ezer. (=haiek).
– Are*kín* ba-abil ez aiz txarto ibiliko. (Harekin).	– Hi *á*rekin ibiltzen ba aiz obe izango dok. (=haiekin).
– Ar*é*kin etorri nok. (harekin).	– Ni *á*rekin etorri naiz (haiekin).
– Ar*é*ntzat erosi dot hau. (Batentzat, harentzat).	– Ba nik beste *á*rentzat. (haientzat).
– Are*gá*na noia aguro. (harengana).	– An zain dagozen *á*regana be juan biar dogu ba (haiengana).
– Are*gái*ttik gagoz gu txarto (harengatik).	– Gu ostera, *á*regaittik (haiengatik).
– Are*gán*dik ez eizue gauza onik espero. (=harengandik).	– Kontuz, *á*regandik bez (be ez) (haiengandik).

Ohar. Nehoiz bada silaba azentuatu nagusia aldatzen, baina hala ere beti beti da pluralarekin bereiztuko. Adibidez:

– Arékin etorri nok
– Arekín ba-abil ... } Biok dira batekin (harekin)

Garbi ageri da hitzen arteko loturak inoiz doinua alda erazten duela kurba fonikoan, lehenago azaldua bezala.

Hirugarren pertsona singularrari, orobat pluralari, dagozkion erakusle horietan ere letra laburketa bat gertatu ohi da eta –G– galtzen da ahozkatzean, bizidunekikoetan alegia. Honela:

– *aréan* (harengan), *areána* (harengana), *areándik* (harengandik)...

Aurrerago ikusi bezala, erakuslea *izenlagun* dugunean sujetoaren aurrekaldean eta atzekaldean jarririk erabili ohi da Eibarren:

– *Arekin* maixua*kin* asko ikasi genduan. (=*Maisu harekin* adierazteko)

– *Aregaittik* suerte txar *aregaittik* gagoz du ola. (=Suerte txar harengatik...).

Baita ere:

– *Aregaittik* suerte txarra*gaittik* gagoz gu ola.

Inoiz honela esan ohi da *haren* erabiltzean:

– *Arén* gizon*an* esanak. (sing) – *áren* gízon*en* esanak (plu.)

Esaldi guzti horiek, esanguraz bederen, *izenlagun erakusleak* dituzte agertzen. Hala ere, badirudi, esaldi egituraz, izenaren aurrekaldean kokatua den erakuslea *izenordea* dela eta atzekaldean doakiona dela *izenlagun*. Hala ere ez nuke zeharo baieztatuko, esangurak *izenlagun* zentzua baitu adierazten eta ez izenordearena. Agian arrazoi bi hauetan datza egia:

a) Eibartarrak aspaldiko *gizon au, gizon ori* etabar formak baztertu gabe geroztik *au gizon-au, ori gizon-ori* etabar bikoitzak ditu hartu. Baina zergatik? Espaiñeraren *este, ese* etabar erakusleak izenaren aurrekaldean kokatzearen kutsadurak eraginik, alegia *este hombre, ese hombre* etabar? Agian bai. Beraz, erdaratikako kutsaduraz erakuslea aurrekaldean jartzeko ohitura hartu du noizbait eibartarrak, baina lehenagokoa utzi gabe, zera alegia, atzekaldean jartzea baztertu gabe eta, honela, erakuslea bikoiztu duke.

b) Izenaren aurrekaldean kokatzen den erakuslea *izenordea* izan daiteke, egitan, eta atzekaldean kokatua *izenlaguna*. Baina zergatik, hala ere, bi erakusle? Nire ustez, esaldia indartze gogo batek eragina. Beraz, esaldiaren esan-nahia indartu nahizko gogo horrek *izenorde* erakuslea du koka erazi izenaren aurrekaldean. Horrela, indartze hori izenordeak du egiten, aurrekaldean kokatuz, noski, eta ondorengo sujetoa argiro seinalatuz. Gero, betiko forma zaharra. Horra hor bi erakusleok izenaren inguru pilatuak. Harrez gero, agian, mintzairen erabilkerak eragin ohi duen aldakuntza dela medio, ohiturazko bilakatu da esaera bikoitz hori eta kito.

OHAR.—Azentuapen gorabeheran sarri aldatu egin ohi da silaba azentuatua erakusle bikote horiek gertatu ohi direnean. Begira, esaterako, lehengo zenbait esaldi:

— Orr*é*k gizon *ó*rrek txapel aundixa darabil.
— Or*í* mutil *ó*ri ez da nere aitta.
— Orr*é*n biargiñ *ó*rren (*orrén* ere bai) anaia.

Beraz, izenordeak direnean: *onék, orrék, onén, orrén* etabar.

Baina izenlagun direnean:
— onék gizon *ónek*.
— orrék gizon *órrek*.
— onén etxi-*ónen* tellatua.

Baina:
— Orre*gái*ttik gizon orre*gái*ttik nago izurrauta.
— Orren*tzá*ko mutil orren*tzá*ko da au ogixau.

Hori singularrezkoetan. Baina pluralezko formetan gauza berezia da jazotzen erakusleari gagozkiolarik: aurrekaldeko erakusleak betiko forma eta doinuera mantentzen du, haserako *O* letra horretan azentua kargatuz.

Baina izenaren ondorengo erakusleak bere forma aldatzen du eta intentsidadezko *-ok, -okin* etabar forma laburtuetan da bilakatzen. Begira:

— Zuen taldeko *órrek* mútill*OK* jatorrak dirudixe.
— Bai, *órrekin* mútill*OKIN* konfiantza osua euki zeikezue.
— Ezin izan dogu aurkittu *órrendako* nésk*ONDAKO* etxerik.
— Zuek *órregaittik* trunboioiOGAITTIK zagozie bildurtuta.

Ikus bakoitzaren adierazpena:
1.ª mutil horiek
2.ª mutil horiekin
3.ª neska horientzako...
4.ª trumoi horiengatik

Ez nadin honetan gehiegi luza, aski baideritzat, eta noan erakusle kontu hau laster bukatzen. Begira, lehengo erakusle horien ondorio bezala beste izenorde hauen jokoa, *-a* mugatzailez osatuena alegia:

O^{NE}NA	(honena)	^{O}NENA	(hauena)
O^{NE}NAK	(honenak)	^{O}NENAK	(hauenak)
ONE^{NA}RI	(honenari)	^{O}NENARI	(hauenari)
ONE^{NA}NA	(honenarena)	^{O}NENANA	(hauenarena)
ONE^{NA}KIN	(honenarekin)	^{O}NENAKIN	(hauenarekin)
ONE^{NAN}TZAT	(honenarentzat)	^{O}NENANTZAT	(hauenarentzat)
ONE^{NAN}TZAKO/-DAKO	(honenarentzako)	^{O}NENANTZAKO/-DAKO	(hauenarentzako)
ONE^{NA}GAITTIK	(honenarengatik)	^{O}NENAGAITTIK	(hauenarengatik)
.....		.....	
ONE^{NI}AN	(honenean)	^{O}NENIAN	(hauenean)
ONE^{NE}TIK	(honenetik)	^{O}NENETIK	(haunetik)
ONE^{NE}RA	(honenera)	^{O}NENERA	(hauenera)
ONE^{NE}RUTZ	(honenerantz)	^{O}NENERUTZ	(hauenerantz)
ONE^{NE}RAKO	(honenerako)	^{O}NENERAKO	(hauenerako)

etabar.../honen etxean/hauen etxean, honen etxetik/hauen etxetik etabar adieraziz alegia, pluraletan beti haserako *O* horretan azentua kargatzen duelarik.

Ondorengootan berdin gertatzen da. Ikus:

O^{RRE}NA	/ ^{O}RRENA
O^{RRE}NAK	/ ^{O}RRENAK
ORRE^{NA}RI	/ ^{O}RRENARI
ORRE^{NA}NA	/ ^{O}RRENANA
ORRE^{NA}KIN	/ ^{O}RRENAKIN
ORRE^{NAN}TZAT	/ ^{O}RRENANTZAT
ORRE^{NAN}TZAKO	/ ^{O}RRENANTZAKO
ORRE^{NA}GAITTIK	/ ^{O}RRENAGAITTIK

Adibide esaldiak:

Singular

– Ori etxiori *onéna* da. Joxena.
– Zeiñen umiak artu dau min? Orrenak andriorrenak, *orrénak*.
– Au sarixau (sari hau) ez da zure semiantzat, *orrenántzat* da. /(horrenarentzat).

Plural

– Au lur au *ónena* da. Pedrona eta Simonena.
– !Baiña *órrenak* ez, órren umiak ez dira ibiltzen-eta errekan.
– Ori liburu eder ori ez da zuen eskolako maixuantzat, *órrenantzat* baiño. / (horienarentzat).

ZENBAIT MASKULINOK ETA ESANAHI ARRUNTEK FEMENINOAREKIN DUEN BEREIZKUNTZA

Maskulino eta arrunt		*Femeninoa*	
FRAN^{SE}SAK	(= ak/-ak/-ek)	FRAN$_{SE}$SAK	(= -ak/-ek/plural)
IBON^{E}RI	(= Ibon-i)	I^{BO}NERI	(= Ibone-ri)
IBON^{E}KIN	(= Ibon-ekin)	I^{BO}NEKIN	(= Ibone-rekin)
IBON^{EN}TZAT		I^{BO}NENTZAT	
IBON^{EN}TZAKO/-DAKO		I^{BO}NENTZAKO/-DAKO	
IBON^{E}GAITTIK		I^{BO}NEGAITTIK	
IGON^{E}RI	(= Igon-i)	I^{GO}NERI	(= Igone-ri)
IGON^{E}KIN		I^{GO}NEKIN	
IGON^{EN}TZAT		I^{GO}NENTZAT	
IGON^{EN}TZAKO/-DAKO		I^{GO}NENTZAKO/-DAKO	
IGON^{E}GAITTIK		I^{GO}NEGAITTIK	
IGON^{E}NA		I^{GO}NENA	
IGON^{E}NAK		I^{GO}NENAK	

IGON^{E}NARI
IGON^{E}NANTZAT
IGON^{E}NANTZAKO/-DAKO
IGON^{E}NAGAITTIK
IN^{GLE}SAK
JON^{E}RI (= Jon-i)
JON^{E}KIN
JON^{EN}TZAT
JON^{EN}TZAKO/-DAKO
JONE^{GAI}TTIK
JON^{E}NA
JON^{E}NAK
JONE^{NA}RI
JONE^{NA}NA
JONE^{NA}KIN
JONE^{NAN}TZAT

I^{GO}NENARI
I^{GO}NENANTZAT
I^{GO}NENANTZAKO/-DAKO
I^{GO}NENAGAITTIK
IN$_{GLE}$SAK
JO$_{NE}$RI (= Jone-ri)
JO$_{NE}$KIN
JO$_{NE}$NTZAT
JO$_{NE}$NTZAKO/-DAKO
JO$_{NE}$GAITTIK
JO$_{NE}$NA
JO$_{NE}$NAK
JO$_{NE}$NARI
JO$_{NE}$NANA
JO$_{NE}$NAKIN
JO$_{NE}$NANTZAT

JONE^{NAN}TZAKO/-DAKO	
JONE^{NA}GAITTIK	
JONE^{NI}AN	(Jon-enean)
JONE^{NE}KO	(Jon-eneko)
JONE^{NE}TIK	(Jon-enetik)
JONE^{NE}RA	(Jon-enera)
JONE^{NE}RAKO	etabar
JONE^{NE}RUTZ	
JONE^{NE}RAIÑO	
JU^{LE}NERI	(Julen-i)
JU^{LE}NEKIN	(Julen-ekin)
JU^{LE}NETZAT	(Julen-entzat)
JU^{LE}NENTZAKO	(etabar)
JU^{LE}NEGAITTIK	
JU^{LE}NENA	(Julen-ena)
JU^{LE}NENAK	(Julen-enak)

JO^{NE}NANTZAKO/-DAKO	
JO^{NE}NAGAITTIK	
JO^{NE}NIAN	(Jone-renean)
JO^{NE}NEKO	(Jone-reneko)
JO^{NE}NETIK	(Jone-renetik)
JO^{NE}NERA	(Jone-renera)
JO^{NE}NERAKO	etabar
JO^{NE}NERUTZ	
JO^{NE}NERAIÑO	
JU^{LE}NERI	(Julene-ri)
JU^{LE}NEKIN	(Julene-rekin)
JU^{LE}NENTZAT	(Julene-rentzat)
JU^{LE}NENTZAKO	(etabar)
JU^{LE}NEGAITTIK	
JU^{LE}NENA	(Julene-rena)
JU^{LE}NENAK	(Julene-renak)

*JU*LENENARI	*(Julen-enari)*	JU^{LE}NENARI	(Julene-renari)
JULENENANA	(Julen-enarena)	JU^{LE}NENANA	(Julene-renarena)
JULENENAKIN	(Julen-enarekin)	JU^{LE}NENAKIN	(Julene-renarekin)
JULENENANTZAT		JU^{LE}NENANTZAT	
JULENENANTZAKO/-DAKO		JU^{LE}NENANTZAKO/-DAKO	
JULENENAGAITTIK		JU^{LE}NENAGAITTIK	
JULENENIAN	(Julen-enean)	JU^{LE}NENIAN	(Julene-renean)
JULENENEKO	(Julen-eneko)	JU^{LE}NENEKO	(Julene-reneko)
JULENENETIK		JU^{LE}NENETIK	
JULENENERA	(Julen-enera)	JU^{LE}NENERA	(Julene-renera)
JULENENERAKO		JU^{LE}NENERAKO	
JULENENERUTZ		JU^{LE}NENERUTZ	
JULENENERAIÑO		JU^{LE}NENERAIÑO	
JULENENERAIÑOKO		JU^{LE}NENERAIÑOKO	

Deklinabide berdinak era genitzake beste zenbait euskal izen hartuz eta maskulinoa femeninoarengandik bereiztu, azentuapena soilki aldatzen delarik, adibidez ANTXON eta ANTXONE, EGUEN eta EGUENE, KARMEL eta KARMELE etabar izenak har bagenitza.

Izen nagusiekin zenbait exenplu:

Gizonezkoari dagozkio	*Emakumezkoari dagozkio*
**– Ibonéri esan detsat.	– Ez detsat Ibóneri esan.
– Ibonékin noia mendira.	– Ibónekin ez naiz juango.
– Ibonénian egon naiz.	– Ibónenian ondo dagoz danak.
– Júlenenetik nator.	– Julénenetik ez.
– Júlenenera daroiat au.	– Julénenera bixar eruango dot.
– Antxonéneraiño noia. (Antxon-en etxeraino alegia)	– Antxóneneraiño ez.

(**) Berriz esan beharra dago datiboa erabiltzean, eibartar zaharrek *Ibon-i/Ibone-ri, Julen-i/Julene-ri, Antxon-i/Antxone-ri* etabar esango luketela, jatorki, baina gazteek ez, beti beti *-eri* atzizkia erabiltzen baitute.

(*) MAR KE SAK (gizonezkoak) MAR KESAK (emakumeak)

(*) *Fransésak, inglésak, markésak* esatean, hau da, azken silaba aurretikoan azentua jarriaz, zentzu arrunta da adierazten, berdin baita:

Fransésak	esan dau	(frantsez gizonezkoak)
	etorri dira	(arrunt, plural pasivo)
	ekarri dabe	(arrunt, plural, aktivo)

Baina esdrujula antzo ahozkatu ohi denean beti beti femenino esangura du, osoki, beraz emakumezkoaz ari garela

genekike zalantzarik gabe, ezpaitago okerbiderik. Ikus, adibidez:

– Markesen andrak *márkesak* dira.
– *Fránsesak ínglesak* baiño polittauak ei dittuk.

d) *Nahiz pertsona nahiz gauza baten izena zenbait dendaren edo lantegiren, edo giza-elkarteren edo izen komertzializatu batengandik bereizten deneko zerrenda:*

AL^{PE}RRAK	(nagiak, alperrak)	"ALPE^{RRAK}"	(Mutil eta futbol talde baten izena)
A^{MAI}KAK BAT	(Il-ak bat dagite)	"AMAIKAK-^{BAT}"	(Futbolari talde bat)
A^{NA}YAK	(anaiak)	"ANA^{YAK}"	(zenbait lantegi)
AN^{KA}ZI^{KI}ÑA		ANKA^{ZI}KIÑA	(oin zikiñak dituen norbaiti esan ohi zaio)
^{AS}TELENA	(Astearen lehen eguna)	"ASTE^{LE}NA"	(Eibarko pelota leku famatuaren izena. Baita taberna bat ere)
^{AS}TELENAK	(astearen lehen egunak)	"ASTE^{LE}NAK"	(Pelota leku horrek)
^{AS}TELENARI	(...lehen egunari)	"ASTE^{LE}NARI"	(Frontoiari, pelotalekuari)
AU^{RRE}RA	(aitzinara)	"AURRE^{RA}"	(Fundizio lantegi bat)
BE$_{TI}$ GAZ^{TE}	(beti gazte)	"BETI-^{GAZ}TE"	(Futbolari talde bat)
BE$_{TI}$ GOL	(beti gol)	"BETI-^{GOL}"	(Futbolari talde bat)
DA$_{NOK}$ BAT	(denok bat)	"DANOK-^{BAT}"	(Langeti baten izena)
DA$_{NONA}$	(denona, guztiona)	"DA^{NO}NA"	(Inprimategi bat, kooperatiba antzo eratua)

^{DA}NONAK	(denonak, guztionak)	DA^{NO}NAK	(''DANONA'' izeneko inprimategiak)
^{DA}NONARI	(guztionari)	DA^{NO}NARI	(''DANONA''-ri)
^{DA}NONAKIN	(guztionarekin)	DA^{NO}NAKIN	(''DANONA''-rekin)
ELO^{RRI}XO	(Elorrio uria)	''E^{LO}RRIXO''	(Eibarko Elorriar dendari bat)
ELO^{RRI}XOK	(Elorrio uriak)	E^{LO}RRIXOK	(''Elorrixo'' dendariak)
ELO^{RRI}XORI	(Elorrio uriari)	E^{LO}RRIXORI	(''Elorrixo'' dendariari)
ELO^{RRI}XOKIN	(Elorrio uriarekin)	E^{LO}RRIXOKIN	(''Elorrixo'' dendariarekin)
ELO^{RRI}XONTZAT	(Elorrio uriarentzat)	E^{LO}RRIXONTZAT	(''Elorrixo'' dendariarentzat)
ELO^{RRI}XOGAITTIK	(Elorrio uriagatik)	E^{LO}RRIXOGAITTIK	(''Elorrixo'' dendariagatik)
E^{TXE} ONA	(etxe ona)	''ETXE^{O}NA''	(denda bat)
E^{TXE} ONAK	(etxe onak)	ETXE^{O}NAK	(''ETXEONA'' dendak)
E^{TXE} O^{NA}RI	(etxe onari)	ETXE^{O}NARI	(''ETXEONA'' dendari)
E^{TXE} O^{NA}KIN	(etxe onarekin)	ETXE^{O}NAKIN	(''ETXEONA''-rekin)

E^{TXE} O^{NAN} TZAT	(etxe onarentzat)	RTXE^{O}NANTZAT	(''ETXEONA''-rentzat)
E^{TXE} O^{NAN}TZAKO	(etxe onarentzako)	ETXE^{O}NANTZAKO	(''ETXEONA''-rentzako)
E^{TXE} ONA^{GAI}TTIK	(etxe onarengatik)	ETXE^{O}NAGAITTIK	(''ETXEONA'' dendagatik)
E^{TXE} ZARRA	(etxe zaharra)	''ETXE^{ZA}RRA''	(deitura, abizen)
E^{TXE} ZARRAK	(etxe zaharrak)	ETXE^{ZA}RRAK	(''Etxezarra'' deituradunak)
E^{TXE} ZA^{RRA}RI	(etxe zaharrari)	ETXE^{ZA}RRARI	(''ETXEZARRA''-ri)
E^{TXE} ZARRAN	(etxe zaharraren)	ETXE^{ZA}RRAN	(''ETXEZARRA''-ren)
E^{TXE}ZA^{RRA}KIN	(etxe zaharrarekin)	ETXE^{ZA}RRAKIN	(''ETXEZARRA''-rekin)
E^{TXE} ZA^{RRAN}TZAT	(etxe zaharrarentzat)	ETXE^{ZA}RRANTZAT	(''ETXEZARRA''--rentzat)
E^{TXE} ZARRAN^{TZA}KO	etxe zaharrarentzako)	ETXE^{ZA}RRANTZAKO	(''ETXEZARRA''--rentzako)
E^{TXE} ZARRA^{GAI}TTIK	(etxe zaharragatik)	ETXE^{ZA}RRAGAITTIK	(''ETXEZARRA''-gatik)
JA^{TO}RRAK	(jatorrak, iaioak)	''JATO^{RRAK}''	(Gizatalde baten izena)
JESTO^{RI}A	(gestio gizona)	JES^{TO}RIA	(Gestio erakundea)
JESTO^{RI}AK	(gestio gizonak)	JES^{TO}RIAK	(Gestio erakundeak)

Ohar.—Erdaratik hartu hitz horrekin deklinabidea egin dezakegu: jestoríari/Jestóriari etabar...

KALAMUA (Eibarko mendi bat) "KALAMUA" (Eibarko taberna baten izena)

Mendi izen honekin eta horren oihartzunez tabernari jarritakoarekin deklinabide osoa egin dezakegu. Ikus:

Mendi izena	*Taberna izena*
KALAMUA	KALAMUA
KALAMUAK	KALAMUAK
KALAMUARI	KALAMUARI
KALAMUAN (Kalamuaren)	KALAMUAN (noren)
KALAMUAKIN	KALAMUAKIN
KALAMUANTZAT	KALAMUANTZAT
KALAMUANTZAKO/-DAKO	KALAMUANTZAKO/-DAKO
KALAMUAGAITTIK	KALAMUAGAITTIK
KALAMUAN (non)	KALAMUAN (non)
KALAMUAKO	KALAMUAKO

KALAMUATIK	KALAMUATIK
KALAMUARA	KALAMUARA
KALAMUARAKO	KALAMUARAKO
KALAMUARUTZ	KALAMUARUTZ
KALAMUARAIÑO	KALAMUARAIÑO
KALAMUARAIÑOKO	KALAMUARAIÑOKO

MAIONA	(mahai ona)	''MAIONA''	(Sagardo marka bat)
MAIONAK	(mahai onak)	MAIONAK	(''MAI-ONA'' markak)
MAIONARI	(mahai onari)	MAIONARI	(''MAI-ONA'' markari)
MAIONAN	(mahai onaren)	MAIONAN	(''MAI-ONA''-ren)
MAIONAKIN	(mahai onarekin)	MAIONAKIN	(''MAI-ONA''rekin)
MAIONANTZAT	(mahai onarentzat)	MAIONANTZAT	(''MAI-ONA''rentzat)
MAIONANTZAKO		MAIONANTZAKO	(Marka horrentzako)
MAIONAGAITTIK		MAIONAGAITTIK	(''MAI-ONA''-gatik)
MERKIENA	(merkeena)	''MERKIENA''	(Denda baten izena)
MERKIENAK	(merkeenak)	MERKIENAK	(''MERKIENA'' dendak)

MER$^{}$KIENARI	(merkeenari)	MERKI^{E}NARI	(''MERKIENA'' dendari)
MER$^{}$KIENAN	(merkeenaren)	MERKI^{E}NAN	(''MERKIENA''-ren)
MER$^{}$KIENAKIN	(merkeenarekin)	MERKI^{E}NAKIN	(''MERKIENA''-rekin)
MER$^{}$KIENANTZAT	(merkeenarentzat)	MERKI^{E}NANTZAT	(''MERKIENA''-rentzat)
MER$^{}$KIENANTZAKO/-DAKO		MERKI^{E}NANTZAKO/-DAKO	
MER$^{}$KIENAGAITTIK	(merkeenagatik)	MERKI^{E}NAGAITTIK	(''MERKIENA''-gatik)
O$^{}$NENA	(hoberena)	''O^{NE}NA''	(Denda eta magazin izena)
O$^{}$NENAK	(hoberenak)	O^{NE}NAK	(''ONENA'' biltokiak)
O$^{}$NENARI	(hoberenari)	O^{NE}NARI	(''ONENA'' dendari)
O$^{}$NENANAN	(hoberenaren)	O^{NE}NANAN	(''ONENA''-ren)
O$^{}$NENAKIN	(hoberenarekin)	O^{NE}NAKIN	(''ONENA''-rekin)
O$^{}$NENANTZAT	(hoberenarentzat)	O^{NE}NANTZAT	(''ONENA''-rentzat)
O$^{}$NENANTZAKO	(hoberenarentzako)	O^{NE}NANTZAKO	(''ONENA''-rentzako)
O$^{}$NENAGAITTIK	(hoberenagatik)	O^{NE}NAGAITTIK	(''ONENA''-gatik)
SARAS^{QUE}TA	(deitura, abizen)	''SA^{RAS}QUETA''	(Eskupeta fabrika)
SARAS^{QUE}TAK	(deitura hori duen nor-nahik)	SA^{RAS}QUETAK	(''Sarasqueta fabrikak)

Hara baina, deklinabide osoa eman diezaiogun:

Abizen edo deitura	*Eskupeta fabrika*
SARAS^{QUE}TA	"SA^{RAS}QUETA"
SARAS^{QUE}TAK	SA^{RAS}QUETAK
SARAS^{QUE}TARI	SA^{RAS}QUETARI
SARAS^{QUE}TAN (Sarasketaren)	SA^{RAS}QUETAN (Sarasketaren)
SARAS^{QUE}TAKIN	SA^{RAS}QUETAKIN
SARAS^{QUE}TANTZAT	SA^{RAS}QUETANTZAT
SARAS^{QUE}TANTZAKO	SA^{RAS}QUETANTZAKO
SARAS^{QUE}TAGAITTIK	SA^{RAS}QUETAGAITTIK
SARAS^{QUE}TANIAN	SA^{RAS}QUETANIAN
SARAS^{QUE}TANEKO	SA^{RAS}QUETANEKO
SARAS^{QUE}TANETIK	SA^{RAS}QUETANETIK
SARAS^{QUE}TANERA	SA^{RAS}QUETANERA
SARAS^{QUE}TANERAKO	SA^{RAS}QUETANERAKO
SARAS^{QUE}TANERUTZ	SA^{RAS}QUETANERUTZ
SARAS^{QUE}TANERAIÑO	SA^{RAS}QUETANERAIÑO
SARAS^{QUE}TANERAIÑOKO	SA^{RAS}QUETANERAIÑOKO

OHAR. SARASQUETA kontu honetan agian, eskupeta fabrika den horretan, lehengo azentuapen zahar eta jatorra gorde bide da. Beraz, gaurregungo deitura edo abizen adieraztea *Saraskéta, Saraskétak* etabar egiten bada ere, izen berdineko lantegi bat sor baledi azentuapen berdinez esango litzateke, hau da, entrepresa, merkatalgo eta gaurregungo erdal kontsumo-gizartearen kutsadurapean. Ikus dezakegunez, bada, lantegi horri era zahar eta jatorrez deitzen diogu, hau da, gure aitona-amonek deitu zioten eraz, horrela gorde baitugu gaur egun arte. Egun beste lantegi edo dendaren bat irekiko balitz apellidu antzo azentuatuko litzateke, biok bailirateke "gaztelaniatuak" Baina, hor dugu, bitxi bezala, lantegi horren izenburuan gordea, Eibartar azentuapen zahar eta jatorra.

TXO^{KU}A (txokoa, bazterra) "TXO$_{KUA}$" ("Bar Txoko" deritzan taberna)

Izen hitz honek merezi du Eibarko deklinabide osoa ematea:

Txokoa, bazterra	*Bar edo taberna*
TXO^{KU}A	TXO$_{KUA}$
TXO^{KU}AK	TXO$_{KUAK}$
TXOKU^{A}RI	TXO$_{KUARI}$
TXO^{KU}AN (txokoaren)	TXO$_{KUAN}$ ("Txoko"-aren)
TXOKU^{A}KIN	TXO$_{KUAKIN}$
TXOKU^{AN}TZAT	TXO$_{KUANTZAT}$

TXOKU^{AN}TZAKO/-DAKO	TXO$_{KUANTZAKO/-DAKO}$
TXOKU^{A}GAITTIK	TXO$_{KUAGAITTIK}$
TXO^{KU}AN (txokoan)	TXO$_{KUAN}$ (''Txoko''-an)
TXO^{KO}KO	TXO$_{KOKO}$
TXO^{KO}TIK	TXO$_{KOTIK}$
TXO^{KO}RA	TXO$_{KORA}$
TXO^{KO}RAKO	TXO$_{KORAKO}$
TXO^{KO}RUTZ	TXO$_{KORUTZ}$
TXOKO^{RAI}ÑO	TXO$_{KORAIÑO}$
TXOKO^{RAI}ÑOKO	TXO$_{KORAIÑOKO}$
TXO^{KO}TZAT	TXO$_{KOTZAT}$
TXO^{KO}RIK	TXO$_{KORIK}$

Oraindik ere esan beharra ote? Azentuapenak garrantzi izugarria du esangura bereizteko. Eibartarrak ez du esaten, adibidez, ''Bar Txókora noia'' nahiz eta taberna horrek BAR TXOKO izena ukan, ''Txókora noia'' soilki baizik, eta esaera horrek argiro du erakusten tabernara doala eta ez inolazko beste bazter batetara eta, guztia, lehenbiziko *o* horretan azentu nagusia kargatze horri esker. Dena den zenbait exenplu ikus dezagun:

— *Joxe txokóra doia.* (Badakigu pelotalekuko txokora edo jakineko beste txokoren batetara doala.)

— *Joxe Txókora doia.* (Badakigu, horrela entzutean, Txoko deritzan tabernara doala.)

UMO^{RE} ONA (umore ona), (alaitasuna)	"UMORE^{O}NA" (Gizatalde baten izena) Elkarte batena.
ZAZ^{PI} GAZTE (zazpi gazte)	"ZAZPI ^{GAZ}TE" (futbol talde eta gizatalde izena)
ZAZ^{PI} GAZTEK (7 gaztek)	ZAZPI ^{GAZ}TEK (ZAZPIGAZTE"-k)
ZAZ^{PI} GAZ^{TE}RI (7 gazteri)	ZAZPI ^{GAZ}TERI ("ZAZPIGAZTE"-ri)
ZAZ^{PI} GAZTEN (7 gazteren)	ZAZPI ^{GAZ}TEN ("ZAZPIGAZTE"-ren)
ZAZ^{PI} GAZ^{TE}KIN (7 gazterekin)	ZAZPI ^{GAZ}TEKIN ("ZAZPIGAZTE"-rekin)
ZAZ^{PI} GAZ^{TEN}TZAT	ZAZPI ^{GAZ}TENTZAT
ZAZ^{PI} GAZ^{TEN}TZAKO/-DAKO	ZAZPI ^{GAZ}TENTZAKO/-DAKO
ZAZ^{PI} GAZ^{TE}GAITTIK	ZAZPI ^{GAZ}TEGAITTIK
ZAZ^{PI} GAZTE^{RIK}	ZAZPI ^{GAZ}TERIK ("ZAZPIGAZTE"-rik)
ZAZ^{PI} GAZ^{TE}TZAT	ZAZPI ^{GAZ}TETZAT

2. ATALA

Atal honetan, esana bezala, gramatika aldetiko zerikusirik gabe azentu diakritikoaren eraginez hitz bat, den denean, beste batengandik bereizten deneko liferentzia dugu agertuko.

Hasera, ALDATZE hitzarekin emango dugu, baldin eta aldapa adierazteko *aldats* bada ere idazkera jatorra. Baina Eibarren "aldatz" da oguzten, hau da, *z* letraz, eta horrela dugu ezagutzen bertako kale bat, hain zuzen ni nerau bizi naizen kalea, "ALDATZE" kalea. Izen hau *aldatze* edo kanbiatze aditz sustantibatuarekin dugu konparatuko. Hona hemen:

ALDATZE edo kanbiatze zentzuz	*"ALDATZE" kale izenaren zentzuz*
AL^{DA}TZIAN (kanbiatzean)	ALDA^{TZI}AN (ALDATZE kalean)
AL^{DA}TZEKO (kanbiatzeko)	ALDA^{TZE}KO (ALDATZE kaleko)
AL^{DA}TZETIK	ALDA^{TZE}TIK
AL^{DA}TZERA	ALDA^{TZE}RA
AL^{DA}TZERAKO	ALDA^{TZE}RAKO
AL^{DA}TZERUTZ	ALDA^{TZE}RUTZ
AL^{DA}TZERAIÑO	ALDA^{TZE}RAIÑO
AL^{DA}TZERAIÑOKO	ALDA^{TZE}RAIÑOKO
AL^{DA}TZERIK	ALDA^{TZE}RIK
AL^{DA}TZEKUA	ALDA^{TZE}KUA

AL^{DA}TZEKUAK	ALDA^{TZE}KUAK
AL^{DA}TZEKUARI	ALDA^{TZE}KUARI
AL^{DA}TZEKUAN	ALDA^{TZE}KUAN
AL^{DA}TZEKUAKIN	ALDA^{TZE}KUAKIN
AL^{DA}TZEKUANTZAT	ALDA^{TZE}KUANTZAT
AL^{DA}TZEKUANTZAKO	ALDA^{TZE}KUANTZAKO
AL^{DA}TZEKUAGAITTIK	ALDA^{TZE}KUAGAITTIK
AL^{DA}TZEKUARI	ALDA^{TZE}KUARI
AL^{DA}TZEKOTIK	ALDA^{TZE}KOTIK
AL^{DA}TZEKORA	ALDA^{TZE}KORA
AL^{DA}TZEKORAKO	ALDA^{TZE}KORAKO
AL^{DA}TZEKORUTZ	ALDA^{TZE}KORUTZ
AL^{DA}TZEKORAIÑO	ALDA^{TZE}KORAIÑO
AL^{DA}TZEKORAIÑOKO	ALDA^{TZE}KORAIÑOKO
AL^{DA}TZEKOTZAT	ALDA^{TZE}KOTZAT
AL^{DA}TZEKORIK	ALDA^{TZE}KORIK

Bizpahiru adibide esaldi ikus dezagun:

– *Adáltzeko* erropia artu eta aldatu zaittez.

– *Jantzi* bustixa berandu *aldátzetik* etorri jatzu eztula.

– Orrek ez dau *aldátzerik* nai, beti lako burugogorra da.

– *Aldatzéko* etxiak euzki begittan dagoz, ederto.

– *Aldatzétik* bera nindoiala jausi egin nintzan ixa.

– Emendik ez da *Aldatzérik* ikusten, baiña bai Elgeta kalia.

ARME^{RU}A	(harmagizona) (harmagina)	AR^{ME}RUA	(harmatokia)
ARME^{RU}AK	(harmaginak)	AR^{ME}RUAK	(harmatokiak)
ARME^{RU}ARI	(harmaginari)	AR^{ME}RUARI	(harmatokiari)
ARME^{RU}AN	(harmaginaren)	AR^{ME}RUAN	(harmatokiaren)
ARME^{RU}AKIN	(harmaginarekin)	AR^{ME}RUAKIN	(harmatokiarekin)
ARME^{RU}ANTZAT	(harmaginarentzat)	AR^{ME}RUANTZAT	(harmatokiarentzat)
ARME^{RU}ANTZAKO/-DAKO		AR^{ME}RUANTZAKO/-DAKO	
ARME^{RU}AGAITTIK		AR^{ME}RUAGAITTIK	
ARME^{RO}TZAT	(harmagintzat)	AR^{ME}ROTZAT	(harmatokitzat)
ARME^{RO}RIK	(harmaginik)	AR^{ME}RORIK	(harmatokirik)

OHAR. Ezkerrakaldeko zutabe horretan *harmagin* edo harmakonpontzaile zentzuzko hitzak ditut jarri eta eskuinaldekoan *harma gordetoki* esanguradunak.

Aurrerakoan, ahal delarik bederen, ez dut deklinabiderik emango, luzeegi joango bait zait bestela nire zerrenda oso hau. Beraz, sustantibu izenak soilki ditut emango, besterik gabe, eta inoizka zenbait sustantiburen deklinabide osoa, adibidez *baso, onena* eta beste hitz interesgarriren bat datorkigunean, benetan interesgarri baideritzat horien deklinabideari, halaber esangurari. Hona, beraz:

AR^{TI}A	(artea, zuhaitz mota)	AR$_{TIA}$	(artea, edergintza)
A^{ZI}A / ''A^{SI}A''	(haza)	A$_{SIA}$	(''Asia'' izeneko lurrandi edo kontinentea)
ASTE^{KU}A	(astekoa, 7 egunetakoa)	AS$_{TEKUA}$	(hastekoa, hasera emateko dena)
AS^{TI}A	(astea, 7 egun)	AS$_{TIA}$	(hastea, hasera ematea)
ATE^{KU}A	(atekoa)	A$_{TEKUA}$	(ATE deritzan terrorista erakundekoa)
A^{TI}A	(atea./leihoa ez)	A$_{TIA}$	(ATE erakundea, ATE-a)
AU^{TU}A	(berria, albistea)	AU$_{TUA}$	(automobila
BA^{RRI}A	(irria, barrea)	BA$_{RRIA}$	(burdinazko makila, barra)
BA^{SU}A	(basoa, oihana)	BA$_{SUA}$	(edalontzia)

Basoa, oihana	*Edalontzia*
BA^{SU}A	^{BA}SUA
BA^{SU}AK	^{BA}SUAK
BASU^{A}RI	^{BA}SUARI
* BASU^{AN} (basuaren)	^{BA}SUAN (edalontziaren)
BASU^{A}KIN	^{BA}SUAKIN
BASU^{AN}TZAT	^{BA}SUANTZAT
BASU^{AN}TZAKO -DAKO	^{BA}SUANTZAKO -DAKO
BASU^{A}GAITTIK	^{BA}SUAGAITTIK
* BA^{SU}AN (basoan)	^{BA}SUAN (edalontzian)
BA^{SO}KO	^{BA}SOKO
BA^{SO}TIK	^{BA}SOTIK
BA^{SO}RA	^{BA}SORA
BASO^{RA}KO	^{BA}SORAKO
BA^{SO}RUTZ	^{BA}SORUTZ
BASO^{RAI}ÑO	^{BA}SORAIÑO

BASO^{RAI}ÑOKO	^{BA}SORAIÑOKO
BA^{SO}TZAT	^{BA}SOTZAT
BA^{SO}RIK	^{BA}SORIK

* Ohar nola den bereizten *basuán/basúan* (noren/non) baso, oihan, mendi denean.

Deklinabide mugagabea ere eman genezake, adibidez:

basok	^{ba}sok
ba^{so}ri	^{ba}sori
bason (basoren)	^{ba}son (edalontziren)
ba^{so}kin	^{ba}sokin
ba^{son}tzat	^{ba}sontzat
.....	.....

Ez du merezi osoa ematerik. Baita ere, BASOKUA hitza harturik beste deklinabide bat genuke:

baso^{ku}a	^{ba}sokua
baso^{ku}ak	^{ba}sokuak
baso^{ku}ari	^{ba}sokuari
baso^{ku}an	^{ba}sokuan
.....	.....

Pluralarekin berdin egin dezakegu. Hara:

BA^{SU}AK	^{BA}SUAK
BA^{SU}ERI	^{BA}SUERI
BA^{SU}EKIN	^{BA}SUEKIN
BA^{SU}ENTZAT	^{BA}SUENTZAT
BA^{SU}ENTZAKO/-DAKO	^{BA}SUENTZAKO/-DAKO
BA^{SU}EGAITTIK	^{BA}SUEGAITTIK
BA^{SU}ETAKO	^{BA}SUETAKO
BA^{SU}ETATIK	^{BA}SUETATIK
BA^{SU}ETARA	^{BA}SUETARA
BA^{SU}ETARAKO	^{BA}SUETARAKO
BA^{SU}ETARUTZ	^{BA}SUETARUTZ
BA^{SU}ETARAIÑO	^{BA}SUETARAIÑO
BA^{SU}ETARAIÑOKO	^{BA}SUETARAIÑOKO

BE^{LI}A	(belea)	^{BE}LIA	(beila/''gau beila'')
BE^{TI}A	(betea, hutsa ez)	^{BE}TIA	(meadarra, zerroa)

BO^{TI}A	(zahatoa/oinetakoa)	BO$_{TIA}$	(jauzia, saltoa, botea)
E^{GI}XA	(hegia, mendi hegia)	E$_{GIXA}$	(egia, gezurra ez dena)
E^{GU}A	(hegala, hegoa)	E$_{GUA}$	(Hegoa, iparraren aurrekaldea, bestaldea)
ELI^{XI}A	(eliza)	E$_{LIXIA}$	(helizea, errota)
E^{MI}A	(emea, arra ez)	E$_{MIA}$	(''M'' letra, EME-a)
E^{RRI}A	(errea, suak errea)	E$_{RRIA}$	(''R'' letra, ERRE-a)
E^{ZI}A/''ESIA''	(hezea)	E$_{SIA}$	(''S'' letra, ESE-a)
FRES^{KU}A	(freskoa, hozkiroa)	FRES$_{KUA}$	(aurpegigogorra, lotsagabea)
FRUTE^{RU}A	(frutaria)	FRU^{TE}RUA	(fruitontzia)
GAU AR^{GI}XA	(gau argia, gaua argia dela dio)	GAUAR^{GI}XA	(gaueko argia)
GRA^{SI}A	(txistea, irrigarritasuna)	GRA$_{SIA}$	(lantegi mekanikotako industrial koipea)
JOYE^{RU}A	bitxigilea, bitxisaltzailea)	JO^{YE}RUA	(bitxi-ontzia)
KA^{LI}A	(kalea, karrika)	KA$_{LIA}$	(urlilia / 1.''calla'')
KAR^{GU}A	(ardura, agintea)	KAR$_{GUA}$	(salaketa, akusazioa)

KA^{RI}A	(karea)	KA$_{RIA}$	(aurpegigogorra, lotsagabekeria)
KA^{TI}A	(katea)	KA$_{TIA}$	(suspensoa/''refusé''; etsaminetako hutsa)
KO^{KU}A	(mozorroa, hartxoa)	KO$_{KUA}$	(tropikoetako fruitu moeta bat)
KONSE^{JU}A	(herri-kontseilua, herri-etxea)	KON^{SE}JUA	(kontseilua, aholkua)
KU^{MI}A	(kumea, animaliaren kumea)	KU$_{MIA}$	(sehaska)
LI^{GI}A	(galtzerdiak lotzeko lokarri elastikoa)	LI$_{GIA}$	(futbol txapelketa)
LIMA^{KU}A	(lima deritzan tresneritzakoa)	LI$_{MAKUA}$	(Peru-ko LIMA deritzan uri nagusikoa)
LO$_{RENA}$	(LORE izena duen emakumearena)	LO^{RE}NA	(Frantziako eskualdea)
MAN^{TXI}A	(orbana, zikina)	MAN$_{TXIA}$	(La Mancha lurraldea)
* MAR^{KU}A	(malkoa)	MAR$_{KUA}$	(markoa, forma geometriko itxien ertza)

* Badirudi forma zaharra ''malkúa'' dela Eibarren, baina l/r aldakuntza ezagunagatik asko erabiltzen da gaurregun -r- letraz ahozkatua.

ME^{TI}A	(gari, belar *piloa*)	^{ME}TIA	(helmuga, helburua)
O^{NE}NA	(honena)	^{O}NENA	(hoberena / hauena)

Hitz bi hauek deklinabidean jar ditzagun:

(honena)		*(hoberena/hauena)*	
O^{NE}NA	(honena)	^{O}NENA	(a - hauena) (b - hoberena)
O^{NE}NAK	(honenak)	^{O}NENAK	(a - hauenak) (b - hoberenak)
ONE^{NA}RI	(honenari)	^{O}NENARI	(a - hauenari) (b - hoberenari)
ONE^{NAN}	(honenaren)	^{O}NENAN	(a - hauenaren) (b - hoberenaren)
ONE^{NA}KIN	(honenarekin)	^{O}NENAKIN	(a - hauenarekin) (b - hoberenarekin)
ONE^{NAN}TZAT	(honenarentzat)	^{O}NENANTZAT	(a - hauenarentzat) (b - hoberenarentzat)
ONE^{NAN}TZAKO	(honenarentzako)	^{O}NENANTZAKO	(a - hauenarentzako) (b - hoberenarentzako)

ONE^{NA}GAITTIK	(honenagatik)	^{O}NENAGAITTIK	(a - hauenarengatik) (b - hoberenarengatik)
ONE^{NI}AN	(honenean)	^{O}NENIAN	(a - hauenean) (b - hoberenean)
ONE^{NE}KO	(honeneko)	^{O}NENEKO	(a - haueneko) (b - hobereneko)
ONE^{NE}TIK	(honenetik)	^{O}NENETIK	(a - hauenetik) (b - hoberenetik)
ONE^{NE}RA	(honenera)	^{O}NENERA	(a - hauenera) (b - hoberenera)
ONE^{NE}RAKO	(honenerako)	^{O}NENERAKO	(a - hauenarako) (b - hoberenerako)
ONE^{NE}RUTZ	(honenerantz)	^{O}NENERUTZ	(a - hauenerantz) (b - hoberenerantz)
ONE^{NE}RAIÑO	(honeneraino)	^{O}NENERAIÑO	(a - haueneraino) (b - hobereneraino)
ONE^{NE}RAIÑOKO	(honenerainoko)	^{O}NENERAIÑOKO	(a - hauenerainoko) (b - hoberenerainoko)
O^{NE}NIK	(honenik)	^{O}NENIK	(a - hauenik) (b - hoberenik)
ON^{TZI}A	(ontza/txanpona)	^{ON}TZIA	(on bilakatzea)

PA^{GA}TZIA	(pagadia)	PA$_{GA}$TZIA	(ordaintzea)
PA^{PU}A	(Guinea Berriko biztanlea)	PA$_{PU}$A	(masail lodia)
PI^{KI}A	(bikea)	PI$_{KI}$A	(erresumina, pikea)
PI^{KU}A	(pikua (fruitu)	PI$_{KU}$A	(tontorra)
POLI^{ZI}A	(hertzaina)	PO$_{LI}$ZIA	(poliza, seilua)
PO$_{RR}$UA	(porrua/barazki	PO^{RR}U$_{A}$	(ziria, engainua; *sartu* aditzarekin batean erabili ohi da)
PRE^{SI}A	(uharka, urtegia)	PRE$_{SI}$A	(harrapakina)
PU^{RU}A	(zigarro purua)	PU$_{RU}$A	(hutsa, garbia)
SAL^{TSI}A	(saltsa)	SAL$_{TZ}$IA	(saltzea/erostea ez)
SEGU^{RU}A	(segurua, zihurra, arrisku gabea)	SE^{GU}RUA	(aseguro erakundea, aseguro agiria)
SO^{LU}A	(soroa, alorra)	SO$_{LU}$A	(kantari bakarti baten kantaldia)
TA^{SI}A	(katiluan, kikara)	TA$_{SI}$A	(tasa, balio, salneurria)
TE^{I}A	(tea/ te infusioa)	TE$_{I}$A	(''T'' deritzan letra)

TIN^{TE}RUA	(tintontzia)	TINTE^{RU}A	(tintagilea, tinta duena)
T^{O}NUA	(doinua, tonua)	TO^{NU}A	(kolore ñabardura)
TRAPE^{RU}A	(piltzarkaria trapu erostailea)	TRA^{PE}RUA	(zatartokia, traputokia)
T^{UR}KUA	(Turkiarra)	''TUR^{KU}A''	(Soraluzeko mandatari damatu baten ezizena)
TXAPE^{RU}A	(txapagilea, txapero zaintzailea, eta Eibarko gizon baten ezizena)	TXA^{PE}RUA	(lantegietan langilen sar-ateratzeak zeintzeko izan ohi diren txapatokia)
TXIS^{TU}A	(ahoko txistu glandulek darien ura)	TXIS$_{TUA}$	(euskal txirula)
U^{LI}A	(ilea, biloa)	^{U}LIA	(oleoz eta barnizez pintaturiko mahaioihal berezia: hulea)

Hona hemen zela genukeen deklinabide osoa:

(ilea, biloa)	*mahaioihala*
u^{li}a	u$_{lia}$
u^{li}ak	u$_{liak}$
uli^{a}ri	u$_{liari}$
uli^{an} (ilearen)	u$_{lian}$ (mahai oihalaren)
uli^{a}kin	u$_{liakin}$
uli^{an}tzat	u$_{liantzat}$
uli^{an}tzako/-dako	u$_{liantzako/-dako}$
uli^{a}gaittik	u$_{liagaittik}$
u^{li}an (ileanen)	u$_{lian}$ (mahai oihalean)
u^{le}ko	u$_{leko}$
u^{le}tik	u$_{letik}$
u^{le}ra	u$_{lera}$
ule^{ra}ko	u$_{lerako}$
u^{le}rutz	u$_{lerutz}$
ule^{rai}ño	u$_{leraiño}$
u^{le}tzat	u$_{letzat}$
u^{le}rik	u$_{lerik}$

Baina era horretan genuke ere plurala:

u^{li}ak	u$_{liak}$
u^{li}eri	u$_{lieri}$
u^{li}en	u$_{lien}$
u^{li}ekin	u$_{liekin}$
u^{li}entzat	u$_{lientzat}$

u^{li}entzako	^{u}lientzako
u^{li}egaittik	^{u}liegaittik
u^{li}etan	^{u}lietan
u^{li}etako	^{u}lietako
u^{li}etatik	^{u}lietatik
u^{li}etara	^{u}lietara
Etabar...	.....

ZE^{RU}A (zerua, ortzea)	^{ZE}RUA (''zero'' deritzan zenbakia)

Zerua, ortzea	*Zero zenbakia*
ZE^{RU}A	^{ZE}RUA
ZE^{RU}AK	^{ZE}RUAK
ZERU^{A}RI	^{ZE}RUARI
ZE^{RU}AN (noren)	^{ZE}RUAN (noren-zeren)
ZERU^{A}KIN	^{ZE}RUAKIN
ZERU^{AN}TZAT	^{ZE}RUANTZAT
ZERU^{AN}TZAKO	^{ZE}RUANTZAKO
ZERU^{A}GAITTIK	^{ZE}RUAGAITTIK
ZE^{RU}AN (non)	^{ZE}RUAN (non)

Baina, hots, aurrerakoan o/u letrek ere bereizten dute eta, beraz, ez dezakegu deklinabidea buka: *zerutik/zerotik, zerura/zerora* etabar.

Baina pluralak bai du, bai, deklinabide osoa:

ZE^{RU}AK	^{ZE}RUAK
ZE^{RU}ERI	^{ZE}RUERI
ZE^{RU}EN	^{ZE}RUEN

ZE^{RU}EKIN	^{ZE}RUEKIN
ZE^{RU}ENTZAT	^{ZE}RUENTZAT
ZE^{RU}ENTZAKO -DAKO	^{ZE}RUENTZAKO -DAKO
ZE^{RU}EGAITTIK	^{ZE}RUEGAITTIK
ZE^{RU}ETAN	^{ZE}RUETAN
ZE^{RU}ETAKO	^{ZE}RUETAKO
ZE^{RU}ETATIK	^{ZE}RUETATIK
ZE^{RU}ETARA	^{ZE}RUETARA
ZE^{RU}ETARAKO	^{ZE}RUETARAKO
ZE^{RU}ETARUTZ	^{ZE}RUETARUTZ
ZE^{RU}ETARAIÑO	^{ZE}RUETARAIÑO
ZE^{RU}ETARAIÑOKO	^{ZE}RUETARAIÑOKO
ZORRU$_{A}$ (zorroa, zakua)	* ZO$_{RRUA}$ (azeria, maltzurra)
ZO^{ZU}A/"SO^{SU}A" (zozoa)	^{SO}SUA (gatzik gabea, gustorik gabea)

* Eibarren gaurregun "azerixa" ere erabilia da oraindik orain, baina sendo sartua dugu "zorrua" hitza, baina batez ere pertsona maltzurrari buruz erabilia edo maltzurra adieraziz.

Hauxe dut, beraz, Eibarko euskaramodu horren azentu diakritikoari buruz nolabait moldatu dudan lana.

Azalduriko hitzok soilki emanak dira gehien batez, baina interesgarri litzateke, arras, esaldi bat hartuz eta sintaxi aldaketak eginik, hitz bakoitzaren portaera aztertzea era litezkeen sintagma berrien baitan. Izan ere, sintagma batetako hitzen arteko ondoratzeen, elkartzeen eta kateatzeen aldakuntzek azentuapenaren portaera alda bai dezakete eta, horrekin batean, talde fonikoaren doinuera eta kurba bera eta, zera, horretan datzan nortasuna ere alegia.

Sintaxiak eta azentuapenak badute, beraz, hitzen konbinaketan, elkarren arteko zerikusirik anitz. Baita garrantzirik, esaldia bare ala desirazko den ala ez, agindukera den ala ez, harridura den ala ez ere etabar.

Ikus dezagun, adibidez, bizpahiru exenplu txiki:

1. "*Mendiko* $i^{\overset{3}{bi}}$*lixak* onak dira" / *Mendi* ^{i}*bilixak* onak dira.

Genitibo horrek "nongotasuneko" -KO atzizkia galtzean eratu ohi den genetibo itxiak alda erazi du *ibilixak* hitzaren azentu gorenaren tokia, azentu goren hori silabaz aldatuz alegia.

2. "Ha^{re}kin ibiliko naiz", baina "Hare^{kin} bahabil hobe.

Bigarren esaldiak desira bat agertzen du eta *harekin* erakusle *soziatiboa* "agudo" bilakatu da azentuapen aldetik, lehenbizikoan "llano" bazen ere.

Honek, euskal hizkuntzaren —gutien batez bederen euskalkien— azentuapen eta doinuera osoaren arakatze sakon batetara eraman gintzake, morfologia bera oso kontutan hartuz. Baina interesgarri bezain sakon eta korapilatsu dukegu oraindik egin gabe den lan izugarri hori eta nahi lukeenarentzat irekiak gelditzen dira ateak. Abia bekizkigu bide horretan barna gure euskal hizkuntzalari trebeok.

Imanol Laspiur Zabala

OHAR. (EUSKALTZAINDIAREN laguntzaile berritzat hartu nindutelarik, 1976.III.27an Gipuzkoako Diputazioan Euskaltzaindiak ukan zuen Batzarrean eman nuen hitzaldia.)

HIZTEGIA

TXORI IZENAK EIBARREN

1978-IX-29

J. San Martin

Norbaitek esana du zenbait euskal hiztegitan baino txori izen gehiago aurkitzen dela Eibarko gaitzizenetan (izenordeetan). Hau aitortzea gehitxoizango da, baina bai esan dezakegu gaurko kalekume askok ezagutzen dituzten txoriak baino gehiago ez dela hain gauza gaitza, eta gaitzizenen kontua ornitologiaz oso aberatsa dugula ikusteko, nere *Zirikadak* liburuko "Txorien arrapatakak" deritzan gertaera (1) eta Toribio Etxebarriaren *Viaje por el país de los recuerdos*-ko "Los apodos" (2) irakurri besterik ez dugu. Hemen diodana egiztatzeko: Kukua, Zozua, Txori, Belia, Birigarrua, Txirixua, Eperra, Arranua, Mosolua, Gautxorixa, Txepetxa,... kaleko bataioz ezagutu ditugun pertsonajeak dira. Maiz, beren emazteei ere itsatsirik geldítutakoak, *-esia* atzizkiaz gehiturik. Adibidez: Arranosia, Kukusia, Txorixesia, Mosolosia ta abar, emakumezko popularrak izan ditugu gure Eibarren.

Eibarren, bertako Diana ihiza-arrantzale elkarteak, 1958ko ekainean *taxidermia*-zko erakusketa bat eratu zuen eta orduko elkarrizketatik interesatu nintzen herriko txori izenak biltzeraz. Izan ere, holako lan bat burutzeko herri aukerakoa da Eibar, zeren ihizari giroa aspaldikoa baita. Agiriak erakusten digutenez, XV. menderako suzko armak egiten ziren eta XVI.ean bertan anitz egin zen bai gerrarako eta bai ihizarako ere (3).

---

(1) J.S.M. *Zirikadak* (Zarautz, 1960), 82 orrialdea.

(2) T. Etxeberria, *Viaje por el País de los recuerdos* (México, 1968), 84 orr.

(3) G. Mujika, *Monografía histórica de la villa de Eibar* (Irún, 1910), pp. 76-99. Batzuk. *III Semana de Antropología Vasca* tomo II (Bilbao, 1976). "Cuarta parte. Armas", pp. 173-272.

Txori izenak lehendik ere bilduak ziren, baina, gutienez, zerrenda bati lekukotasuna eman nahi nuen, zientziaz ezagutzen diren hitz teknikoz hornituaz. Horretarako, lehengo lanekin baliatu beharra izan nuen, T. Aranzadi, E. Eguren eta P. Garmendiak RIEV (4) aldizkarian argitaratutakoetatik eta K. Etxegaraik G.G.P.V.N.-ren Bizkaiko tomoan (5). Lehen zerrenda hura, euskaraz, gazteleraz eta teknika hitzez, zenbait ihizari ezagunen artean banatu nuen, gehigarriak eta zuzenketak egin zezaten.

Baina, bitartean, Donostiako Arantzadi Natur Zientzia taldeko ornitologia sailekoak txori izenen batasunezko nomenklator bat argitaratu zuten Munibe (6) aldizkarian. Zerrendaren bukaeran ematen ditu bibliografiazko iturriak. Gero lan honetan oinarritu zen Peterson, Mountfort eta Hollom-en (7) *Guía del Campo* ezagunaren euskarazko izenak ere obra berean sartzeko eta hemendik aurrera, lan hau, oinarrizkotzat jo beharrezkoa dugu euskerazko ornitologia lanetan, batez ere hiztegi kontuan. Horregatik, nere lehengo lan hura berritu beharra izan nuen erdal itzulpenezko izena eta zientziakoa bera azken nomenklator honetara errenditzeko.

Badira beste lan batzuk txori izenez, Imanol Mendiolak Euzko-gogoan egina, Martín Iziar-en *Gure txoriak* eta beste (8), baina izenetaz ez dute zientifikotasun gehiegirik eta ezertariko nahasterik izan ez dezagun *Guía de Campo de las aves*

---

(4) T. Aranzadi, *Nombres vascos de aves*, RIEV, III (1909) 160-167 orr. E. Eguren, *Sobre algunos nombres de pájaros*, RIEV, XXV (1932), 262-271 oor. P. Garmendia, *Nombres de aves en euskera*, XXV (1932), 294-309 orr.

(5) C. Echegaray. *Geografia General del País Vasco-Navarro*, "Vizcaya" tomoaren 281-286 orr.

(6) Grupo de Ciencias Naturales Aranzadi, "Repertorio de nombres vascos de aves adoptado por la Sección de Ornitologia del Grupo de Ciencias Naturales Aranzadi" *Munibe* aldizkaria, XIII (1961), 310-326 orr.

(7) R. Peterson, G. Mountfort eta P.A.D. Hollom, *Guía de Campo de las aves de España y demás Países de Europa*. Segunda edición basada en la edición inglesa revisada y ampliada en colaboración con I. J. Ferguson-Lees y D. J. M. Wallace. Prólogo por Sir J. Huxley. Traducción y adaptación española por M. González Díez (Ediciones Omega, S. A. Barcelona, 1967).

(8) I. Mendiola, "Abere-itz-eta edo Abere-itz-adi" *Euzko-gogoa* (1956-1957); M. Iziar, *Gure txoriak* (Zarautz, 1966); Margo ederdun Enziklopedia eta beste.

de España y demás Países de Europa deritzanean oinarritu naiz Eibarren bildutako hauei gazteleraz eta zientziazkoan bere ordezko ize a hautatzeko. Hala ere, aitortu beharra dut, inoiz beste izen hauetan ere badirela guti batzuk zerbait nahastuak aurkitzen direnak. Ohar hau kontuan hartzetik aparte, beste batzutan izen batentzat, zientziazkoak inoiz bi edo hiru izaten dituela, familia edo mota berekoetan diferentzia gutiko berezkuntzak direlako; baina holakoetan bi edo hirurak batekin jartzen dira. Urrengo, espezie bat izen bakarrakin erabiltzen denean, *común* hartua dugu, arruntenean oinarritzen delako.

Lan honen bete beharra ezta besterik izeneri lekukotasuna eta ere berean zientziaz behar duten zehaztasuna ematea baizik. Horrez gainera, euskal hiztegia hornitzeaz bat Eibarkoa bera osatu. Toribio Etxebarriak egin zigun hiztegi nagusia bera gehitu eta hobetu (9), lehendik egiten natorrenaren jarraipenez (10). Oraingo honetan hemen aurkezten ditudan izenok guztiz ehun ta hogeta bat dira, Batzuk Jatorriz Eibarkoak ez badira ere, guziok Eibarren bilduak; bertan ezagutzen direnak. Eibartar ihizariak noranahi zabaldu dira beren ihizazaletasunak eraginik eta izen hauetako asko han eta hemen ikasiak izan daitezke, baina harremanezkoa izate honek ez du ukatzen bertako lekukotasunik.

Izen hoietako asko txorien hotsetik sortuak dira, onomatopeyaz, erdaretan ere gertatzen den bezala. Txori hiztegitxo honen aurkezpen ohar hauek bukatzeko, hotsezko hitzen adierazpenezko esaldi bat eman dezadan. Guk, ibiliz, pausu sanoagatik "dzanga-dzanga" esan ohi dugunez, poliki aritzeaz "txiri-txiri" esaten dugu eta hitz honek zer ikusirik badu eibartar ihizarien artean; ikus aipatu dudan T. Etxeberriaren hiztegi nagusi hortan "txiri-txiri" hitzez dakarren esaldia. Nik neuk era hontara entzun izan dudan hitz jokoa: "Han doia Urlia, txiri-txiri txara-txara, txoritxara txarara".

(9 T. Echebarria, *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*. EUSKERA, X-XI (1965-1966).

(10) J. San Martín, *Eibarko hitz teknikoak* EUSKERA, III (1958), 141-158 orr.; IV (1959), 135-139 orr.; *Léxico técnico empleado en la industria eibarresa, III Semana de Antropología Vasca* (Bilbao, 1976), tomo II, 375-381 orr. Eta honez gainera: *Perretxiku izenak Eibarren*. EUSKERA, XX (1975), 317-324 orr.

Hemen, ondorean doaz txori bibliografia iturriak eta osatu dudan zerrenda, beste nornahiri antzerako lanean lagungarri izateko eran.

* * *

aata, aate, ánade real *(Anas platyrhynchos).*
abejoia, avión común *(Delichon urbica).*
abendu, gavilán *(accipiter nisus).* Azkuek, *abendu arre,* gavilán pardo.
abutarda, *avutarda (Otis tarda).*
amilotx, herrerillo común *(Parus caeruleus).*
antzarra, ánsar común *(Anser anser).*
araba zozo, estornino pinto *(Sturnus vulgaris).*
argi ollar, abubilla *(Upupa epopo).*
aritxarrua, especie ornitológica de nuestros montes (T. Etxebarriak dakar, baina nik ez dut ezagutzen).
arraipardua, águila moteada *(Aquila clanga).*
arrano, águila real *(Aquila chrysaetos).*
arrano txiki, azoria, azor *(Accipiter gentilis).*
arranotxoa, aguilucho pálido *(Circus cyaneus),* aguilucho lagunero *(Circus aeruginosus),* aguilucho cenizo *(Circus pygargus).*
artatxori, gorrión molinero, campestre o triguero *(Passer montanus).*
xasantzarra, ánsar campestre, ganso silvestre *(Anser fabalis).*
basollarra, urogallo *(Tetrao urogallus).*
basollua, sisón *(Otis tetrax).*
basontza, cárabo común *(Strix aluco).*
bela, cuervo *(Cmrvus corax).*
belatxinga, corneja negra *(corvus corone).*
berdeloi, escribano soteño *(Emberiza cirlus).*
birigarro, biriarro, zorzal común *(Turdus philomelus).*
burriu, *cigüeña común (Ciconia ciconia).*
buzoka, buitria, buitre común *(Gyps fulvus).* Durangaldean **saia** deritzana.
buztanikara, rabilargo, aguzanieves *(Cyanopica cyanus).*
buztanikara, lavandera blanca *(Motacilla alba),* lavandera boyera *(Motacilla flava).*
durduria, durdula, zorzal charlo *(Turdus viscivorus).*
egabera, avefria *(Vanellus vanellus).*

egazabala, alondra común *(Alauda arvensis).*
eper, perdíz común *(Alectoris rufa).*
eper gorri, perdíz roja *(Perdix rubra).*
eper urdin, perdíz pardilla *(Perdix perdix).*
eper zuri, perdiz nival *(Lagopus mutus).*
erlejale, abejaruco común *(Merops apiaster).*
ernara, golondrina común *(Hirundo rustica).*
erretxinol txiki, carricerín común *(Aerocephalus schoenobaenus).*
eskillaso, arrendajo común *(Garrulus glandarius).*
ezkur txori, picogordo *(Coccothraustes coccothraustes).*
gabillara, gavilán *(Accipiter nisus).*
gabillara urdiña, aguilucho cenizo *(Circus pygargus).*
galeperra, galiperra, codorniz *(Coturnix coturnix).*
gallupa, pinzón real *(Fringilla montifringilla).*
garrapo, agateador común *(Certhia brachydactyla).*
gaubela, garza real *(Ardea cinerea),* garza imperial *(Ardea purpurea).*
gautxori, chotacabras gris *(Caprimulgus europaeus).*
itxas antzar, ganso de mar, pato de mar.
itxas arrano, águila pescadora *(Pandion haliaetus).*
itxas eperra, canastera *(Glareola pratincola).*
itxas ernara, charrán común, golondrina de mar *(Sterna hirundo).*
itxas mika, ostrero *(Haematopus ostralegus).*
kaio, kaixo, gaviota reidora, común, *(Larus ridibundus).*
kalandres, calandria común *(Melanocorypha calandra).*
kardantxillo, jilguero *(Carduelis carduelis).*
karrastarro, zorzal charlo *(Turdus viscivorus).*
katanarra, trepador azul *(Sitta europaea).*
kuku, cuco *(Cuculus canorus).*
kuliska, zarapito real *(Numenius arquata).*
kurrollo, grulla común *(Grus grus).*
larratxori, alondra común *(Alauda arvensis), tarabilla norteña (Saxicola rubetra).*
larrolloa, alcaraván *(Burhinus oedicnemus).*
lorabatzalle, camachuelo común *(Pyrrhula pyrrhula).*
mendiollarra, urogallo *(Tetrao urogallus).*
mika, urraca *(Pica pica).*
mingor, agachadiza común *(Gallinago gallinago).*
mingor txiki, agachadiza chica *(Lymnocryptes minima).*
mirotxa, halcón común *(Falco Peregrinus).*

mirua, milano real *(Milvus milvus).*
mozolo, gaberdiko mozolo, lechuza común *(Tyto alba),* mochuelo común *(Athene noctua).*
neguta, pinzón vulgar *(Fringilla coelebs).*
okil, pito real *(Picus viridis).*
okil baltza, pito negro *(Drycopus martius).*
okil txiki, pito menor *(Dendrocopos minor).*
ollagorra, chocha perdiz *(Scolopax rusticola).*
ontza, buho chico *(Ario otus),* autillo *(Otus scops).*
ontz erriala, buho real *(Bubo bubo).*
ormatxori, gorrión común *(Passer domesticus).*
otatxori, papamoscas collarino *(Ficedula albicollis).*
paranda, parandia, pinzón vulgar *(Fringilla coelebs).*
pauso, pagauso, paloma bravia *(Columba livia).*
pauso txikia, paloma zurita *(Columba oenas).*
pauso zuria, paloma torcaz *(Columba palumbus).*
poxpolin, pospolin, galeper, codorniz *(Coturnix coturnix).*
sai, buitre común *(Gyps fulvus). Izen hau eibarren ezaguna da baina durangaldian hartua nonbait.*
sasi txori, ruiseñor común *(Luscinia megarhynchos).*
tarin, lúgano *(Carduelis spinus).*
txantxagorri, petirrojo *(Erithaucus rubecula).*
txepetx, reyezuelo *(Regulus ignicapillus),* chochín *(Troglodytes troglodytes).*
txinbo, papamoscas.
txinbo burubaltz, curruca capirotada *(Sylvia atricapilla).*
txinbo buztangorri, colirrojo real *(Phoenicurus phoenicurus).*
txinbo karkarra, txinbo erriala, torcecuello *(Jynx torquilla).*
txinbo karkarra, tarabilla común *(Saxicola torquata).*
txinbo reala, alcaudón real *(Lanius excubitor).*
txinbotxia, *(Caudatus major).*
txirio, txirixo, mosquitero común *(Phyllascopus collybita).*
txirri, vencejo común *(Apus apus).*
txirriskilla, pardillo común *(Acanthis cannabina).*
txirriskilla, *(Fringilla citrinella).* Beste zenbait tokitan **zirriskilla** deritzana.
txirriskilla, verdecillo *(Serinus serinus).*
txirta, curruca zarcera *(Sylvia communis),* zarcerilla *(Sylvia curruca).*
txirta oriska, bisbita campestre.
txitxalapur, ave de rapiña.
txitxi, mosquitero silbador *(Phylloscopus sibilatrix).*

txitxi, bisbita común *(Anthus pratensis)*, bisbita arbóreo *(Anthus trivialis)*.
txiu, mosquitero común *(Phylloscopus collibita)*.
txiu, avión común *(Delichon urbica)*.
txonta, pinzón vulgar *(Fringilla coelebs)*.
txori, nombre genérico de pájaros o aves.
txori gaiztua, alcaudón real *(Lanius excubitor)*.
txorzabal, alondra común *(Alauda arvensis)*.
ur martiñeta, martín pescador *(Alcedo atthis)*.
ur zozo, mirlo acuático *(Cinclus cinclus)*.
ureperra, rascón *(Rallus aquaticus)*.
urretxindorra, ruiseñor común *(Luscinia megarhynchos)*.
urollo, focha común *(Fulica atra)*.
urollo, urollo baltza, polla de agua *(Gallinula chloropus)*.
uso, usu, paloma torcaz *(Columba palumbus)*.
usu tortola, tórtola común *(Streptopelia turtur)*.
zerzeta, cerceta común *(Anas crecca)*.
zezentxori, avetoro común *(Botaurus stellaris)*.
zozo, mirlo común *(Turdus merula)*.
zozo papar, mirlo capiblanco *(Turdus torquatus)*.

HERRI ADMINISTRALGO HIZTEGIÑO BATEN ESKABIDE ETA PREMIAZ

1979- -III - 30

José Luis Lizundia

Zornotzako "Comisión Gestora Municipal" delakoak eskatu digu Herri Administralgoko hiztegi bat: Bertako seme denetik eta bertan bizi gainera J. J. Zearreta lankideari eskatu nion jestio bat egiteko eta aitzen emateko nola ez dagoen horrelako hiztegirik; gainera, guk dakigularik gaztelaniaz ere ez dago.

Baina Udalbatzar berrietan, Alderdi eta Koalizio askok errebindikatzen dutenez, elebitasun administratibo bat eskatuko dute; eta, orduan, Euskaltzaindiak erantzun bat eman beharko du. Ez da aski itzulpen bati azalezko kritika arin bat egitea.

Itzultzaileak, eta berdin zait kasu hontan, Euskaltzaindiko zerbitzua, nahiz Eusko Kontseiluko itzultzailea, nahiz beste edonor. Zeren arazo latza, hontan baitago, hots, ez dugula gai hauetarako hizkuntza *zehatz* ez *finkaturik*. Ez dute balio, gehienetan erabiltzen den "zirkunlokio" edo inguruketak eta administral arazoetan gutxiago.

Euskal Kontseilua sortu zenean, aldizkari batetan "Kontseilu" hitzaren aurka "batzorde" proposatzen zen. Guk uste genuen "batzorde" hitza "comisión" esateko hedaturik zegoela.

Albiste pozgarri bat dugu hala eta guztiz ere "UZEI-K" *Zuzenbide* hiztegi batetarako aintzasmo bat burutu digu. Oso lan interesgarria, benetan, UZEI kideek egindakoa; batez ere Fernando Mendizabal, Jose Antonio Arana, Paulo Agirrebaltzategi, Paulo Iztueta, Fidel Oleaga eta abarrek landutakoa.

Ba dakit, gainera, Xabier Kintanak ere lan hortan bere parte izan duela. Hortariko lan bat goraipatzearren Fernando Mendizabalaren *"Jus" edo "Deretxo objetiboa"* euskaraz delako lana aipatu nahi nuke.

Honelako ladak qehor ditugu, halegia, gairik gai, ikertzen, honela euskara ofizialkidetasun bide normalizatu batetara eta ez sinbolismo mundura eramateko.

UZEI-k hartu duen eremua zabalegia da egungo ene gairako, kontutan hartzekoa bada ere. Nide xedea herri administral hiztegiño bat, behin behinekoa bederen, burutzea litzateke, Euskaltzaindiari Zornotzako eskabidearen antzekoak etorriko baitzaizkio, zorionez. Lehen lana erdaratako, zeren ez baitugu frantzesa ere ahaztu behar, hitz zerrenda mugatzea litzateke. Alde batetik erakundeen izenena eta bestetik administral hizkuntzarena.

Ondoren bibliografia bat prestatzea, batez ere, lehengo lanak ezagutzeko eta zihur asko hor izango dugun oihana sailkatzeko. Zeren hitzak nahasiegi aurkituko ditugu eta.

Jarraian erizpide batzu finkatu beharko ditu horretarako izendatzen den batzordeak. Eta hemen hizkuntza mundukoei erregu bat egiten diet herri administrazio munduko gizon bezala. Zehaztasuna eta ez *Anizkeria* izan behar dutela lehen erregela bezala.

Ezin dugu jarraitu "Batzar Nagusia" hitza "junta general", "Concilio" eta beste edozer adierazteko nahasiz.

Behin baino gehiagotan konbentzionalki bada ere bereiztu beharko dira hitzei zehaztasun ttinko bat ezarriz, hori erdaraz ere horrela egiten baita.

Erabiltze administratibo edo instituzional bat ezarririk.

	electropintura	elektrapintura
	anodizado	anodizatu
	galvanizado	galvanizatu
	nikelado	nikeleztatu
	cromado	kromoztatu
	sherardizado	sherardizatu
	plateado	zilarreztatu
	cobrizado	kobreztatu
	cobrizado	kobreztatu
	dorado	urreztatu
	estañado	eztainuztatu
	emplomado	beruneztatu
	protección no metálica:	babes ezmetaliko
	nitruración	nitruraketa
	fosfatación	fosfataketa
u/2	modificantes; aditivos:	aldatzaileak; gehigarriak:
	modificadores de fraguado	helketa aldatzaileak
	inhibidores de fraguado	helketa inhibitzaileak
	aceleradores de fraguado	helketa azeleratzaileak
	retardadores de fraguado	helketa atzeratzaileak
	aireantes	airegarriak
	colorantes	koloretzaileak
	decolorantes	margultzaileak
	endurecedores	gogorgarriak
	secantes	xukagarriak

	disolventes	solbatzaileak
	ablandores de agua	ubigungarriak
	espumantes	apartzaileak
	antiespumantes	antiapargarriak
	emulsivos	emultsionatzaileak
	catalizadores	katalisatzaileak
	aceleradores	azeleratzaileak
	retardadores	atzeratzaileak
	resitentes a la helada	izozgogorgarriak
	que mejoran la trabajabilidad	lanerrazkarriak
	plastificantes	plastikagarriak
	retenedores de agua	urgordetzaileak
	floculantes	flokulagarriak
	coagulantes	gatzagarriak
u/3	materiales que resisten formas especiales de ataque	eraso mota bereziak erresistitzen dituzten ekaiak
	fungicidas	onddohiltzaileak
	insecticidas	insektizidak
	cresota	kreosota
	aceite de alquitrán	mundrun olio
	impregnaciones	uhiladurak
	caldo bordeles	Bordel salda
u/4	retardadores de llama	gar-atzeratzaileak
	tratamiento ignifugos	tratamendu subabestaileak
u/5	abrillantadores	distiratzaileak
	endurecedores de superficie	azal-gogorgarriak
u/6	materiales hidrofugos	ekai hidrofugoak
	silicona	silikona
	impermeabilizantes	iragazkaiztaileak
u/9	otros	beste zenbait
	absorbentes de rayos ultravioleta	ultramore--xurgatzaileak

	refrigerantes	hozkarriak
	lubricantes	labaingarriak
	desengrasante	deskoipatzaileak
v	pinturas	pinturak, tindurak
v/1	imprimación	inprimazio
	tapaporos	xulobetegarri
v/2	pigmentos	pigmentuak
	colorantes	koloregaiak
v/3	aglutinantes	aglutinagarriak
	minerales	mineralak
	cal apagada	kare hil, kare mariatu
	yeso	igeltsu
	cemento	zemento
	silicato	silikato
	fluosilicato	fluosilikato
	orgánicos	organikoak
	cera	ezko, argizari
	parafina	parafina
	cola	lekeda
	goma	goma
	caucho	kautxu
	colodion	kolodio
	grasos	koipatsuak
	aceite de pescado	sain
	aceite linaza	linazi olio
	aceite de soja	soia olio
	aceite de nuez	intxaur olio
	aceite de amapola	mitxeleta olio
	aceite de adormidera	lobelar olio
	aceite de ricino	errizin olio
	aceite de castor	kastore olio
v/4	barnices	bernizak
	lacas	lakak
	resinas	erretxinak
	resina de copal	kopal erretxina
	betun de judea	judeako bitumen
	latex	latex
	resina fenólica	erretxina fenoliko
	resina vinílica	erretxina biniliko

	resina celolósica	erretxina zelulosiko
	colofonia	kolofonia
	laca de clorofila	klorofilazko laka
	laca de cochinilla	artahar laka
	anilina	anilina
	fucsina	fuksina
	sandaraca	sandakara
v/5	pintural al óleo	olio pinturak
	barniz	berniz
	barnicado	bernizatu
	esmalte	pikailadura, esmalte
	esmaltado	pikailatu, esmaltatu
v/6	pinturas en emulsión	emultsio pinturak
v/8	pintura al cemento	zemento pintura
	pintura a la cal	kare pintura
	pintura al agua	urpintura
	temple	tenpera
	acuarela	urmargo
	pintura a la cola	lekeda pintura
v/9	otras pinturas	beste zenbait pintura
	pinturas metálicas	pintura metalikoak
w	materiales auxiliares	ekai lagungarriak
w/1	antirroña	antiherdoi
w/3	fuels	fuelak
	gas	gas
	fuels líquidos	fuel isurkorrak
	fuels sólidos	fuel solidoak
w/4	agua	ur
w/5	ácidos	azidoak
	alcalis	alkaliak
w/6	fertilizantes	ongarriak
	fetilizantes	ongarri

	orgánicos	organikoak
	fertilizantes	ongarri
	inorgánicos	ez-organikoak
w/7	materiales limpieza	garbiketa ekaiak
	detergentes	garbikariak
	abrasivos	urragarriak
w/8	explosivos	lehergaiak
	dinamita	dinamita
	trilita	trilita
	pólvora	polbora
w/9	otros	beste zenbait

BESTE GAI BATZU

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

EUSKALDUN BATEN AGURRA MILAURTEBURUAN

Jaiotza ospagarri zaigu, bizitza berez ederra delako eta euskaldun naizen aldetik pozten nau gazteleraren mila urteko bizitzaren ospaketak, eta aintzinatik bizi nahiez eta bizi ezinez datorren beste hizkuntza honetatik agurrez nator.

"Glosas Emilianenses" deritzanetatik sortu zen hizkuntza horren ernetzea eta *Cantar del mio Cid* -ekin loratu zen literaturagintzara XII. mendean eta geroago urrezko mendea ezagutzera helduko zena.

Agurtzen dut, eta denbora berean erromantzetiko hizkuntza horren zoria bekaiztu ere bai. Eta, agerpen hau, mendeetan herriz eta literatura idatzian tokia utziz etorri den euskal hizkuntza honetatik egiten dut.

Denok dakigu gazteleraren garrantziaz, eta lerro hauetan ez dut ezer idatziko bestek nik baino hobeto adieraziko dutenetik. Honegatik, hain zuzen, nahiago dut, adierazpen bidez eta zenbait ideiaren zabalkundez oharrak egitea, batez ere hizkuntzak elkarren artean muturrik mutur etsai bezala ez agertzearen alderako asmoz. Bakoitzak bere kultur ingurua du eta inor ezin daiteke baztertu, ezta ere tratu txarrez erabili. Honegatik, orainarte hain gaizki informatua izan denaren egoera hontatik, barkatuko didazute euskararen eta euskarazkoaz bereziki jardutzeagatik.

Euskarak, neolitoz garaian artzaingoaren aldi hartan hazi zenak, erromatarren inperioak bere indarrez bultzaturik, Penintsulako hizkuntzak desegin zituen garaian, bazterturik utzi zuen gure hau. Zokoraturik eta makalik gelditu zen euskara Pirineoko mendebaldean gorderik. Erromanzeak loratzen ziren garaian etzuen jakin edo etzuen lortu idazterik eta

ezta lortuko ere oso berandura arte. Bere lehen idatzien agerpena, zenbait hitz eta izenez, Akitaniako hilarrietan agertzen da Kristoren ondotikako lehen mendeetan, eta lehen esaldiak *Glosas Emilianenses* deritzan agiri zaharretan, gazteleraren sorrerarekin batean. Hain zuzen, erromanzeetatik gaztelera formatzerakoan euskarak izan zuen bere zer ikusia, kronikagileak euskaraz zekitenez, hotsak ez ezik, hor dugu zenbait egitura ere euskararen kutsapenezkoak dituenaren lekukotasunez. Kutsapenok, R. Menendez Pidal zenak aipatu zituen *El idioma español en sus primeros tiempos* eta *En torno a la lengua vasca* idaz-lanetan, batez ere azkenengo honen bigarren kapituluan.

Pizkundearekin hasi ziren euskal literatura idatziaren lehen kinuak, ahozko literaturaren usarioak lehenagotikakoak baldin badira ere. Baina garai modernoetan euskarak ez du izan eskoletarako sarrerarik. Eta hau izan da gure hizkuntzak hazkuntza normal baterako izan duen eragozpen nagusia.

Politika oinarrizko erabakietara eroaten jakin ez duten lekuetan, gobernatzeko ideal ereduzko adibidetzat hartuaz, esate baterako, helvetiakoa eredutzat izan daitekean bezala, ezin bestean hil edo biziko egoera latz eta zailera bultzatzen dira lehendik aski baztertuak diren hizkuntzak, bere naturalezaz dituzten zailtasunez gainera, eta, inoiz, honek sortzen ditu gizarteko egon ezinak eta iraultzak. Hola delarik, gaur egun gure herriak bizi dituen eragozpenak hortik sortuak bai dira.

Frankoren errejimenak, euskara biziko bazen, une nekez eta larri batera eroan zuen, eta honen ondorioz, erantzun natural bezala, euskaldunok gure hizkuntzaren alderako kontzientziaz jabetzera bultzatu ginduzen eta hontatik hasi zen azken hamar urteetan ezagutu dugun euskalduntzearen gorapena. Euskaltzaindiaren aginduz eta laguntzaz Siadeco deritzan etxeak egina duen *Euskara hizkun-gizarteko ikerketa* lanean ikus daitekeen bezala. Gainera sektore pribatuaren laguntza soilez ezagutu den birreuskalduntzea da.

Baina behar beharrezkoa du euskarak hezkuntzako maila guzietan sarrera izatea eta era berean komunikabideetan ere, batez ere telebistan, mintzairaren bizitza gordeko bada.

Kontuan izan behar dugu ez garela eskubide berdinen jabe, haur euskaldunak gaztelera soilean hezitzera behartzen direlarik, eta hizkuntzaren galera herri baten kultur bizitzaren pobretasuna denez. Gainera, euskarak aintzinako hizkuntzen tipologia zaharra gordetzen duenez mintzairaren eta literaturaren ikerketerako materialik aski eskaintzen digun harrobia dugu. Berau galtzeaz, euskaldunok gure nortasunaren elementurik bereizgarriena galduko genuke eta Espainiak bere historiaren errealitate zati bat. Hola delarik, kontzientziaz, gaurko euskaldunok ez dugu inolako eskubiderik arbasoegandik jasotako kultur ondasuna gure semeei ukatzeko.

Baina, batez ere, argi geldi bedi, euskararen salbamena ez dadila izan gaztelerari tokia kentzeko asmoz. Euskaldunok, hizkuntza tipien jabe diren guziak bezala, beste handiago baten premian gara gure harremanen zabalkundez, eta hizkuntza handiago hau gaztelera izan daitake, gure lurraldean mendeetan hain naro ezarria dagoanez eta gainerako Penintsulako herrialdeekin anaitasunera hurbiltzen gaituanez. Eta, ez dut esan nahi unibertsalagoa den ustez, askok esan ohi duten bezala, ez, zeren unibertsaltasuna euskara ere partaide den orokortasunean denez eta berau galtzeaz Unibertsoak bere izatearen zati bat galdu lezakeelako, eta, unibertsaltasunari begira, ez litzateke bidezko, ez zilegi eta ez etika helburu.

Bizitza maitatzen dugu eta eskubide guzia dugu bere alde. Batez ere hizkuntza bakoitzak bere inguru duen kultur izateagatik.

Gazteleraren milagarren urteburua ospatzen dugun une honetan eta hizkuntza bakoitzak merezi duen begiramenez, ospagarri genuke kultur ekintzaz arduratsu bizi garen gizonok, ahaleginduko bagina giza-eskubideak gauza guzien gainetik jartzen. Baina, batez ere, mila urteren buruan elkarrekin harremanean bizi izan diren hizkuntzak, egungo gertaera eta ideen gainetik, hauek herriarentzat igarogarri direnez, nahiz aldakuntza eta berritze asko eskaini, guziok betiko anaitasuna izan dezagun. Hala bedi.

Juan San Martin
Euskaltzaindikoa

SALUDO DE UN VASCO EN EL MILENARIO

Siempre es de celebrar un nacimiento, porque la vida de por sí es hermosa, y desde mi condición de vasco celebro el milenario de vida de la lengua castellana, desde esta otra lengua milenaria y agónica desde la antigüedad.

De las *Glosas Emilianenses* brota el florecer de la lengua que tomaría cuerpo literario con el *Cantar de mío Cid*, en el siglo XII y, más tarde, conocería su siglo de oro.

Saludo y al propio tiempo envidio la suerte de esa lengua romance. Y lo hago desde esta otra lengua que durante centurias tuvo que ir cediendo espacio en territorio y en la literatura escrita.

Todos conocemos la importancia de la lengua castellana, y no repetiré en estas líneas aquello que otros puedan describir mejor que yo. Por ello considero preferible anotar otros aspectos orientados a la intercomunicación informativa, con la sana intención de mostrar que a dos lenguas no se las debe enfrentar como a rivales. Cada una tiene su entorno cultural y ninguna debe ser maltratada o excluída. Por esto, desde nuestra situación poco y mal informada hasta la fecha, me dispensarán que me incline preferentemente a hacer una exposición del euskara y sobre el euskara.

El vascuence o euskara, que se desarrolló en el estadio pastoril en los tiempos del neolítico, sufrió su arrinconamiento cuando otras lenguas peninsulares desaparecían con el empuje del latín durante el imperio romano. El euskara quedó arrinconado y maltrecho en un reducto del occidente pirenáico y, al florecer los romances, no acertó como ellos con la escritura hasta épocas muy tardías. Su presencia escrita apa-

rece en las lápidas aquitanas en los primeros siglos después de Cristo, con simples nombres y vocablos; y las primeras frases propiamente dichas, en las *Glosas Emilianenses*, paralelamente al nacimiento de la lengua castellana. Este hecho nos da a entender que en esa transición del romance vulgar al castellano, es cuando se interfiere el euskara, con cronistas que sabían o entendían el vascuence, influyendo en algunos aspectos de la fonética e incluso en la propia estructura de la lengua naciente, como atestigua R. Menéndez Pidal en sus obras *El idioma español en sus primeros tiempos* y *En torno a la lengua vasca*, capítulo segundo de ésta.

Con el Renacimiento comenzaron los primeros brotes de la literatura culta en vascuence, aunque indudablemente existía la tradición oral. Pero en tiempos modernos no ha tenido acceso a la escuela. Y este ha sido el defecto que ha impedido un desarrollo normal del idioma vasco.

Allí donde la política no se ha sabido orientar hacia las soluciones básicas, tomando como ejemplo los modelos ideales de gobernar, como puede ser para el caso el modelo helvético, arrastra a unas dificultades extremas de vida o muerte al idioma reducido que, por su naturaleza, cuenta con dificultades propias. Y, en ocasiones, esto viene a crear desequilibrios de tipo social. De hecho, parte de los problemas que está sufriendo nuestro pueblo son derivados de ello.

El régimen de Franco arrastró al vascuence a una situación extremadamente difícil para poder sobrevivir y, tal vez, en consecuencia, como reacción natural, impulsó a los vascos a una concienciación en favor de su lengua y de ahí que ha conocido un proceso de recuperación en los últimos diez años, como se puede comprobar en el *Estudio socio-lingüístico del euskara*, trabajo realizado por el centro Siadeco bajo el encargo y la colaboración de la Real Academia de la Lengua Vasca. Recuperación que se debe única y exclusivamente a la iniciativa privada.

Pero es menester disponer de acceso a la enseñanza en sus distintos niveles y a los medios de comunicación, sobre todo a la televisión, para poder asegurar la supervivencia del idioma.

Hemos de ser conscientes de que no disponemos de igualdad de oportunidades, mientras a los niños euskaldunes

se les obligue a estudiar únicamente con el castellano, y de que la pérdida de un idioma constituye un empobrecimiento en la vida cultural de un país. Además, el vascuence es mantenedor de una tipología antigua capaz de ofrecer una importante fuente informativa para las investigaciones lingüísticas y literarias. Con su extinción, los vascos perderíamos el elemento más importante de nuestra propia identidad, y España una parte de su realidad histórica. En conciencia no tenemos ningún derecho a no transmitir a nuestros hijos el legado cultural que hemos heredado de nuestros antepasados.

Pero, ante todo, ha de quedar bien claro que la salvación del vascuence no presuponga negar espacio al castellano. Los vascos, como toda lengua minoritaria, necesitamos de otra más amplia que nos permita una expansión comunicativa, y ésta debe ser la castellana, asentada ya desde siglos en gran parte de nuestro país y que nos acerca fraternalmente al resto de la Península. Y, no lo digo por más universalidad, como afirman algunos, puesto que el universalismo está en la pluralidad donde también interviene el euskara y con su extinción el universo perdería una parte de su ser, lo que no sería ni justo ni ético, en aras de una mayor universalidad.

Amamos la vida y tenemos pleno derecho a ella. Máxime por el entorno cultural que encierra cada idioma.

Celebramos el milenario del castellano y celebraríamos la comprensión y el respeto que se merece cada lengua, y que, los hombres interesados por las actividades culturales, nos esforcemos en anteponer los valores humanísticos sobre todo lo demás. Y, sobre todo, hagamos que las lenguas que han vivido en relaciones durante mil años, al margen de los acontecimientos de nuestros días y de las ideas, por muchas renovaciones que nos aporte, que han de ser pasajeras para la vida de un pueblo, merezcan eterna fraternidad.

Juan San Martín
De la Real Academia de la Lengua Vasca

Con motivo de cumplir el milenario de la lengua castellana, a petición de la Cátedra de Lengua y Literatura del Instituto Nacional de Burgos, el Ministerio de Cultura, a través de la Delegación provincial, se encarga en la edición de un libro

conmemorativo de dicha efemérides y solicitó de un académico de Euskaltzaindia un breve trabajo en torno a la "visión de la lengua vernácula con respecto al castellano". El mismo, nos complace recoger en nuestras páginas para el conocimiento de nuestros lectores.

1967-1977: LIBURUAK ETA BATASUNA

Donostia: 79-3-78

Joan Mari Torrealday

SARRERA: Azterketaren helburua eta metodologia (1).

Euskaltzaindiaren Arantzazuko Biltzarrea dela eta, hamar urteren buruan, han sorturiko batasun ereduak zernolako onarpena izan duen jakin nahian, azterketa pila bat egitea erabaki du Euskaltzaindiak. Gure lan lau, idazkulturaren eremuan sartzen da, eta idazleei egindako inkestarekin osatzen.

Zer den lan hau? Liburu ikerketa bat, edo nahiago bada, liburuei egiten zaien galdeketa edo inkesta bat. Objetibutasunik handiena bilatuz, eritzien mundutik at, praxia aztertzera jo dugu, hotr, azken lo urteotako liburugintza eskuetan harturik, euskara mota bakoitzean, zer, zenbat eta nola idatzi den.

1967 urtean hasten da gure bilaketa.11 urteren azterketa egin dugu, beraz. 1967-1977 bi urteok barne.

Ikerketa hau, ikerketa soziologikoa da. Kontzeptu linguistikoekin maiz aritu arren, liburuaren hizkuntza, aztergai edo ikerketaren objetu da. Eta perspektiba, soziologikoa. Lan hau, bada, ez dago ez literaturaren, ez gramatikaren, ez linguistikaren ikuspegitik egina.

Aldez aurretik ohar hau egiteak munta handia du, analisiaren eta ondorioen irakurketa tertzioz eta behar bezala ulertu ahal izateko. Pentsatzen nago, kasu bat aipatzearren, harrigarri gerta dakiokeela hizkuntzalari bati, Ipar aldeko euskalkiak oro denak batean kontabilizatzea. Soziologiaren

---

(1) *Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra* delako liburuan "1967-1977: Liburuak eta Batazuna" izenez 504-522 orrialdetan agertzen den hitzaldiaren lauki eta xifren textu esplikatzailea da lan hau, eta beraz harekin batera irakuztzekoa.

begitik, ez dago deus harritzekorik hor. Soziologia, ezaguna denez, azterketarako ezaugarri diren multzoen bila baitoa, eta gure kasu honetan, pisu espezifikuaren aldetik oso ahula da, euskalki horien kopurua banan banan kontatuz gero. Eta bada hola jokatzeko beste arrazorik ere.

Nola egin dugun azterketa.

Ohar bezala nahiago nuke beste textu hau:

Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra delako liburuar "1967-1977: Liburuak eta Batasuna" izenez 504-522 orrialdetan agertzen den hitzaldiaren lauki eta xifren textu esplikatzailea da lan hau, eta beraz harekin batera irakurtzekoa.

11 urteotako liburu sailari bi tratamendu desberdin eman diogu.

1) Hiru urtetako liburuak denak aztertu ditugu:

– 1967: Arantzazuko Biltzarre aurreko urtea izanik, gure analisirako "año cero" bezala delako. Bidebatez, Baionako erabakien (1964) eragina ere neur genezakeen horrela.

– 1972: Bost urte geroago, eztabaida bizi bizian zelarik. Batasuna "epe laburrera" jakiteko aukeratu genuen.

– 1977: Handik bost urtetara hau ere. Izpirituak baretu direlarik, eta batasunak aurrera egin duelarik, azter daitekeen azken urtea delako.

2) Hasiera batetan, hiru urte horien bidez liburugintza osoa aztertzeko asmoa genuen. Hiru urte testigu ziren, bada, esan ditugun arrazoiengatik.

Gerora, azterketa xehetu eta sakondu nahian, hiru urte horien tarteko urte guztietako errepresentazioa izango zen "muestra" bat egin genuen, horrela liburugintza osoa aztertzeko. Analizatzeko liburuen hautapena zozpidez edo txotx eginaz lortu zen, % 95 fidapen tarte emanik, proportzioen estimazioaren errakuntza tartea, altuenean ere, % 2, gora ala behera, zitekeelarik.

"Zozpidezko muestreo" edo "muestreo aleatorio" horren erabidean, orrialde kopuruz eta euskalkiz zerrendatu

genituen liburuak, eta zerrenda horiei "zozpidezko zenbakien Montecarlo taula" aplikatu genien.

Honela bada, 431 liburu aztertu ditugu denetara: 210 muestreokoak eta 221 esandako hiru urte horietakoak. Horrez gain, ihazko (1977) aldizkarien analisia ere egin dugu (40ren bat aldizkari).

Hiru parte nagusi ditu azterketa honek:

1) Liburuaren identifikazio txartela edo fitxa. 2) Liburuaren textu masa. 3) Liburuaren hizkuntz azterketa.

Goazen parteok banan banan ikusiz. Edo hobe, astirik ez baitugu, telegrama moduan egingo dugu lehengo bietan, hirugarren partea astiroago ikusi ahal dezagun.

1) Liburuaren identifikazio txartelean, datu hauk jaso ditugu: titulua, egilea, originalea ala itzulpena, euskara mota, argitaletxea, herria, urtea, orrialdeak, neurriak luze zabalean, kolekzioa, gaia.

2) Textu masaren koantifikapena.

Helburu koantitatiboa du honek: zenbat idatzi den jakitea, zehatz mehatz kontrolatzea.

Alde honetatik, egilearen produkzioari egin dakiokeen hurbiltzapenik sakonena eta zehatzena da, unitatez edo orrialdez egin ohi dena baino askoz gehiago. Guk hirurak egin ditugu.

Textu masaren kalkulua egiteko, hona nola jokatu dugun: joaldiak lerroko, lerroak orrialdeko, eta orrialde idatziak (zuriune guztiak kendurik) zenbatuz atera ditugu joaldiak oro. Eta gero, hauek foliotara bil-laburtu ditugu. Horrela, orain, badakigu zenbat izki duen liburu bakoitzak, zenbat joaldi eta zenbat foliotan sartzen den liburu bakoitza.

Hor dituzue datuak; bi modutara emanak: liburuen lodieraz orrialdeak eta folioak. Eta urtez urte orrialdeak eta folioak.

3) Hirugarren partea: HIZKUNTZ AZTERKETA.

Gure Biltzarre honetarako, hiru partetan garrantzizkoena, hirugarren hau da, noski: zernolako hizkuntza erabilketa

duen liburu bakoitzak jakitea. Sistemakikoki aztertu dugu, bada, 431 liburu horien hizkuntza, eta berdin 1971 urteko aldizkariena. Bistan da: puntu batzutan bakarrik aztertu dugu hizkuntza hori, ez denetan, gure eginkizuna ez da eta, Hizkuntz Atlas bat egitea, batasunarekiko jarrera ezagutaraztea baizik:

Batzordearen akordioz eta behar ziren kontsultak eginaz, Joseba Intxausti eta biok 23 azterpuntu erabaki genituen. Zein erizpiderekin? Bitan banatzen da erizpide nagusia: bateko, Arantzazutik Bergarako bide horretan, arrazoin honengatik eta harengatik, eztabaidatuak izan diren puntuak, edoeta batasunarekiko onarpen edo arbuiapena adierazteko esanguratsu direnak (nahiz orokorki nahiz euskalkiz). Hori bateko. Eta besteko, aurkierrazak direnak (liburu guztietan aurki daitezkeenak).

Ongi dakigu 23 puntu horietan ez dutela denek berdinbaliorik, ez eta gutiagorik ere. Kasu: ez naiz hizkuntz-balioaz ari orain, siozologiaren aldetik begiratutako azter-balioaz baizik. Balio-neurketa horren arabera, azterpuntu batzu oso zehatz begiratu ditugu. H, N, L, eta beste esate baterako. Beste batzu ostera, bidenabar bezala, hau da, bidebatez aurkitzea eta kontutan hartzea, zaila ez izanik, merezi zuelako. X, TX, Asoziatiboa eta holakoak.

23 hizkuntz puntu horietan, ortografiari 14 dagozkio, 4 deklinabideari eta 5 aditzari. Hona banan banan:

Ortografian: H sei puntutan (bi bokale berdinen artean, erakusle eta kidekoetan, hitz haseretan, bi bokale ezberdinen artean, eta kontsonante ondoko silabikoa eta oklusiboa. Eta gero, N/Ñ, L/LL, J/Y, I, I/Y, J, X, X/CH, TX/TCH, marra eta apostrofoaren erabilera.

Deklinabidea: Ergatibo plurala (-EK/ -AK), datibo plurala (-EI, -AI, -ERI, -ER), asoziatiboa (-KIN/ -GAZ, -KILAN), HAUEK/HONEEK; HONEIK.

Aditza: Aditz izen mugagabearen erabilkera (-TU), -(I), UKANen erabilkera (DUT, DET, DOT, DÜT), Dieza-, Dezai-aditz sistemak, Hainitzailea (-IT-/-Z), bokale lotzailea (-E-/-A-).

Goazen orain hiru arlook aztertzera, puntuz puntu eta

aldakinez aldakin ez bada ere, puntu seinalagarri batzutara mugaturik behintzat.

Hasteko, hor dituzue laukiak. Hiru lauki mota:

1) Lehen mailako informazioa biltzen dutenak: azterpuntu bakoitzaren datuak jasoz.

2) Urtez urteko datuak, dinamika erakusteko.

3) Beste konbinaketa zenbait, esangarri diren batzu: hizkuntza motarekin, esaterako.

A) ORTOGRAFIA

1) Lehen arazoa: Hren erabilera

Batasuna dela eta ez dela, Hren hauziak harrotu ditu gehienbat bazterrak. Ortografian burrukarik handiena hementxe hezurmamitu da. Ukazina da Hren protagonismoa.

Guk sei puntutan banatzen dugu Hren arazo hau. Hona hemen, seiak batean, erabilerak:

– H bi bokale berdinen artean	63,3
– H izenorde eta kidekoetan	62,4
– H hitz haseretan	62
– H bi bokale ezberdinen artean	62,7
– Kontsonante ondoko H silabikoa	3,5
– Kontsonante ondoko H oklusibo aspiratua	3

Lehen begi kolpez, bi bloke bereizten dira hemen: bat, lehenbiziko lauek osatua: H batasun seinale da lauretan. Eta alderantzira beste bietan. Baina ikusten duzue: bi azkenetan H biziki guti erabilia da: % 3,5 eta % 3 bakarrik.

Erabilkera hauek direla eta, ondorio bat nabarmentzen da hemen: Hren erabilkeran ez dago erdibiderik. Esplika nadin. Berdin da Arantzazun Euskaltzaindiak "begi onez" ikusi zuena zer den eta gainerakoa zer. Lau kasu hauetan, proportzio beretsutan erabiltzen da H. Alegia, "Zahar" Hrekin idazten duenak, "Hau", "Herri", "Bihur" Hrekin idazten ditu, eta "Senar" eta "Ikusi" Hrik gabe, gainera. Erdibideko jarrera edo postura bikoitz guti dago Hren aurrean: hartu ala utzi egin ohi da gehienetan.

Erdibiderik ez dagoela esan dut. Baina egon badago jadanik erdibidea H kontuan. Baionako proposamenduen izpirituan, han erabaki bait zen "erdibidea bilatu nahiz" hain zuzen, kontsonante ondoko H guztiak eraunztea. Horrela Hrik gehienak kendu direla aitortu behar da egiaren ohoretan, oharrarazten du Txillardegik.

> Hri buruzko datuak hor dituzue: 013, 014, 015, 016, 017, 018 laukietan, erabilera bakoitzaren barnezehaztasun eta guzti. Esaterako, lehenengo kasuan, zenbatek erabiltzen duten "Zahar", "Zaar" eta "Zar".

Goazen aurrera. Orain arte Hri buruz ikusia, plano bakarreko fotografia bat bezalatsu da. Hor ikusi duguna da, % 60tik gora liburu direla H normalki erabili ohi dutenak. Multzo horretan sartzen dira euskara batuz idatziriko liburuak nahiz gainerakoak. Orain interesatzen zaiguna hau da, ordea: baina zein neurritan bakoitzetik? Zein da euskara mota bakoitzak (euskara batuak gizpuzkerak, bizkaierak, zuberoerak, etc.) Hren erabilerari buruz duen jarrera?

"Hizkuntz mota eta batasun formak" izeneko laukia hartuz, pare bat gauza ikustea posible da: bat, euskara batuak edo baturanzkoak H osoki ontzat ematen duela, kontsonante ondokoa salbu. Eta bi, bizkaierak gipuzkerak baino aisago hartzen duela H. Bizkaieratik batasunerantz ari direnen jokabidearen eragina da hori, zalantzarik gabe.

Ipar aldeko euskalkiek Hri buruz duten jokabidea ezaguna zaigu. Haien hauzia, kontsonante ondokoetan dago. Ba, hauek ere guti erabili ohi dute H hori. Haien % 23,6k bakarrik erabiltzen du kontsonante ondoko H silabikoa eta gutiagok, % 13k oklusiboa.

2) Bigarren arazoa: *Bustidura: N- eta L-ren erabilkerak.*

Bi hauen erabilera paretsu joan ohi da: bata erabiltzen duenak bestea ere bai, alegia.

Arazo honek ez du, noski, Hren protagonismorik. Eta, arrazoi horregatixe agian, idazlearen aldetik halako arreta bizirik ere ez, bikoiztasun dexente agertzen bait da –hots, IN, IÑ, eta IÑ, Ñ liburu berean). Utzikeriaz eta axolarik ezaz, gure ustez. Ez erabakiz.

019-020 laukiak begien aurrean, hor ikusten dugu zein izan den erabilera nagusia. Lehenengo erabilerak batean harturik (hau da, ''baina eta baiña'') % 86 osatzen dute bien artean. Ñ eta LL soileko enplegu horrek ez du etorkizunik.

Euskara motez IN eta IL horien enplegua aztertzen badugu, lehenbiziko joera finkaturik aurkitzen dugu: euskara batuak IN, IL erabili ohi du (% 94 pasea bietan). Bizkaitarren artean, hemen ere, giputzengan baino erresistentzi gutiago dute IN, IL horiek: % 9tik gora erabiltzen dira bizkaieraz, eta % 2 bakarrik gipuzkeraz.

Bizkaieran forma bat bakarra nagusitzen da: IÑ-k % 73,2 du. Gipuzkera sakabanatuago dago: % 55 IÑrentzat eta % 43 Ñ soilarentzat.

3) Jren arazoa ez dugu aipatuko orain hemen. Ez baita puntu honetan hauzi larririk. Bigarren mailako azterketa da. Hor dituzue datuak.

X/CH, eta TX/TCH direlakoetan ere berdin. Ez du merezi horretan luzatzeak. Grafia zaharra ia galdurik dago.

4) *Marraren eta apostrofuaren arazoa.*

Gezurra badirudi ere, batasun zeinurik garbienetakoa bilakatu da marratxoaren eta apostrofuaren enpleguen artean egin ohi den hautapena.

Bi horien erabilera zein izan den garbi dager 026 laukian.

''Hizkuntza mota eta batasun formak'' izeneko laukiak, bere aldetik, ondo erakusten du batasun bideak marraren erabilera darabilela. Onarpen horrek erresistentziak Gipuzkoan eta Bizkaian aurkitzen ditu. Gipuzkeraz idazten dutenen artean, marratxoaren lekuan apostrofua % 78,4 erabiltzen da, eta bizkaieraz, % 69,6.

Marraren eta apostrofuaren erabilera zuzenaren kasuan, interes berezia du zera jakiteak, alegia, zein izan den eboluzioa. Izan ere, Arantzazuko Biltzarrean (1968) txosten gisa definitu bazen ere, egiazko erabakiak 1971koak dira.

Azken erabaki hauen zain egon ote da idazlea? Urtez urteko zerrenda hartuz ikus daiteke hori.

"*Urteak* eta marra edo apostrofuaren erabilkera" laukia. Bistan da 1971ko erabakiek izan dutela eraginik, baina utz dezagun eragintxoan, ez gehiago, Arantzazutik bertatik bait zuen bide hori onartua idazleak.

B) DEKLINABIDEA

Deklinabideaz lau arazo kontrolatu ditugu. Bi bereziki inportanteak: *ergatibo* eta *datibo pluralen* enplegua. Eta beste bi, hola, bidebatez bezala aztertuak: bata, *asoziatiboa* (-KIN/-GAZ, -KILAN) bizkaierari eta baxenafarrerari eta zuberoerari dagokiena, eta bestea bizkaierazko *erakusleak*.

Lehenbiziko bietaz mintzatuko gara orain hemen.

1) Ergatibo pluralaren arazoa

027 laukia eskutan, aski esannahitsua da dobletik gora izatea horrekin ergatibo plurala idatzirikoen kopurua. Bai, hala da. Baina hala ere, esan beharra dago, zalantzazko kasu ugari detektatu ditugula, era bikoitz asko: -EK batzutan eta -AK beste batzutan.

Euskalkien artean, "*Hizkuntz mota* eta batasun formak" laukian ikusten denez, -EK horren onarpena bizkarierari kostatzen zaio gehien gehiena: % 16,1 bakarrik da hala idazten duena.

2) Datibo pluralaren arazoa

Lau aukeretan bat da nagusi: -EI: % 61,5, 1968 % 16,7 zuenak berak. Teoria asko egin da hemen. Baina, egia esan, batasun forma honek ez du aurrean beste bat, alternatiba gisan presenta daitekeenik. Beste bi formarik erabilienak (-AI eta -ERI) ez daude hain hedatuak. Eta bai sakabanatuak.

Euskara batuak -EI forma onartu du: % 87,5. Eta bigarren lekuan, -ERI agertzen da. Horrek baluke esplikaziotxo bat, gure ustetan: Baionako Biltzarrean (1964) idazlearen aukeran utzi zela bien erabilera. Geroztikako aldaketaz asko ez dira enteratu.

Datibo pluraletan, gipuzkera arras sakabanatua aurkitzen da. Gipuzkeraz ere -EI forma da erabiliena: % 39,2.

Ondoren, hurbilik, hori, bai, -AI dator: % 32,3. -ERI delakoak ere baditu jarraitzaileak (% 25,5). Zeintzu dira hauek? Bada gipuzkeraren inguruko joera bat, supra-gipuzkera bezala izendatua izan daitekeena, eta kasu honetan -ERI hori -EI-ren alternatiba gisa aukeratua dute.

Bizkaierak bi forma darabiltza nagusienik. Gehiena -AI forma da (% 50), baina -EI bera ere gizpuzkerak baino proportzio handiagoan (% 41). -ERI formak hemen ez du arrakastarik.

Ipar aldean, -ERI da nagusi (% 76,3). Gainerakoak, bazter-erak dira. -ER bera ere bai, % 13,1 bakarrik erabili bait da. Gauzarik harrigarriena, hontan datza: -EI batasun formak ez du ia jarraitzailerik batto ere.

3) Asoziatiboaren arazoa ez dugu ikusten

Bizkaiko erakusleen arazoa ere ez.

029 eta 030 laukietan dituzue.

C) ADITZA

Aditzean batasunarekin zerikusi duten 5 arazo ikutu ditugu. Horietatik bat bizkaierari dagokiona, hainitzailearena. Orokorrak besteak.

1) Aditz izen mugagabearen arazoa

Ikus 031 laukia.

Batasunerako zuzen bezala eman den moduan erabiliriko aditz forma hauk, gutienik % 58,2 badira, alegia, "ekar dezake" idazten dutenak. Bigarren modu batetan, hots, "ekar dezagun" bai baina "ekarri dezake" idazten dutenak, ia % 11 bide dira. Baina ez nago hala den baiezteko seguru seguru, bereizketa honetan, potentzialaren eta subjuntibo edo inperatiboaren erabilketa desberdin honen kontrol zehatza eramatea nekezegia gertatu bait zaigu. Baina nahiz eta ehuneko iraunkor bat izan % 11 hori, ez dut uste hor erdibide finkatu-

rik antzeman daitekeenik, fluktuapen gehiegitxo bait dago erabilera horien artean. Batzutan modu batera edo bestetan bestera idatziak. Badirudi "belarrira" gogorregi egin ohi dela infinitibo hutsa kasu horietan denetan erabiltzea.

Batasun forma hori onartzeko żailtasun handienak ez datoz, jakina. Ipar aldekoen aldetik, baizik eta bizkaieraren eta gipuzkeraren partetik. % 51,7 aldiz partizipioa erabiltzen du bizkaierak eta % 45 aldiz gipuzkerak, hau da, batasun-forma ez dena.

2) UKAN adizkien arazoa

Puntu hau ere ez dugu ikusiko.

Ohar batekin aski da. DUT erabiltzeak ez du batasuna derrior adierazten. Izkelgien testigu ere bada. Eta gainera, supra-gipuzkeraren aditz ere bai, nahiz eta gero "gera, zera, diteke" eta holako giputz formak erabili.

*3) *EZAN adizkien arazoa*

DIEZA- eta DEZAI- aditz sistemak ziren puntu honetan guk aztertu nahi genituenak. Eta bereziki hauxe jakiteko: DIEZA- sistema horrek zer onarpen praktiko izan duen idazleen aldetik.

Tamalez, nekezegi eta ezinezko gertatu zaigu beti forma horien aurkitzea. Horregatik, zehaztugabeetan % 48,5 sartu behar izan dugu.

Aditz forma hau 1973-ra arte ez zen ofizialki onartua izan. Geroztikakoa da erabilera, beraz. Hori dela eta, zifra orokorrak ez du zentzu handirik kasu honetan. Hala ere esan dezagun, alde gutirekin bada ere, (% 26,3 DIEZA-k eta % 23,2 DEZAI-k), berak duela lehentasuna. Baina ikusten dugu zein apalak diren portzentaiak. Urtez urte begiratuta ere apalak dira erabileraren portzentaiak.

4) Hainitzailearen arazoa

Ez du iruzkin edo komentariorik behar. Bakar bakarrik hauxe: bizkaieran ere 60,7 liburuk –IT– pluralizadora erabili duela. Uste genuena baino gehiago.

5) Bokale lotzailearen arazoa

Inoiz arrakastarik izan badu ere, hirugarren forma horrek, hots, bokale lotzailerik gabekoak (dula, esaterako), ez du jadanik zer eginik.

Lehen forma —E— gailendu da, jadanik definitibuki, dirudi. Batasun bideak erabat onarturik du: % 96,8. Bizkaierak eta gizpuzkerak, aldiz, bigarren formari itsatsiak jarraitzen dute: —A— erabiltzen du bizkaierazko % 82ak eta gipuzkerazko % 85,2k. (Bizkaieraren barruan handiagoa da —E— bokale lotzailearen pisu espezifikua).

ERANSKINA: **1977ko aldizkarien azterketa**

Idazkultura bere osotasunean neurtzeko, premiazko da aldizkarietara jotzea ere, eta gehiago gure kulturan, bestetan baino erlatibuki handiagoa bait da aldizkarien protagonismoa. Ihazko aldizkarien azterketa burutu dut nik: horien denen textu masa eta hizkuntz azterketa. Liburutan bezalatsu.

Lehen puntu bezala, egin dezagun ihazko liburugintzaren eta aldizkarien konparaketa:

	Eusk. batua	Gip.	Bizk.	IEH	Zeh.	Denetarik
Liburugintza	63,7	23,6	4,3	8,1	0,3	
Aldizkariak	63,9	15	5,6	10,7	—	4,8

(Esan bezala, "denetarik" sail horretan, hizkuntzpolitikarik ez dutenak sartu ditugu. Hala, ere, esan beharra dago, horietako gehienek euskara batua gehienbat erabiltzen dutela.—Karkulu hau, textu masaren arabera egindakoa da.)

Oraindik gehiago ere idatzi da euskaraz. Izan ere, gure azter-alorretik kanpo gelditu dira aldizkari politikoak, prentsa klandestinoa, orri sueltoak, panfletoak, eranskailuak, hormako paperak, publizitatea... Horiek denak kontuan hartuz, batasunaren aldeko ehuneko handiago litzateke.

Aldizkari mota guztiek ere ez dute jokabide bera euskara batuari buruz:

	Eusk. batua	Gip.	Bizk.	IEH	Denetarik
Kulturazkoak	75,5	—	—	—	25
Erlijiozkoak	30	10,2	10,5	7	42
Astekariak	60,9	16,7	1,1	21,3	—
Egunkariak	69,5	24,8	5,7	—	—

Komentario gisa:

— Kulturazkoetan ia osoki onartua da batasuna. % 75 horrek oso osoan onartzen du, eta % 25 horretan gehienak: *Gaiak* eta *Karmel* aldizkariek ere euskara batuan eman bide dute gehiena, edo parte on bat behintzat.

*Jakin*ek, *Zehatz*ek eta *Elhuyar*ek zer esanik ez.

— Erlijiozkoetan definitzen da gutien situazioa. Edozein hizkuntz motatara irekirik, % 42, hizkuntz-politikarik gabe alegia. Aldizkari hauetan, hizkuntz politikarik gabekoetan, erabiltzen den euskara batua kontuan eduki gabe ere, euskara batuan publikatu da hemen ere gehiena: % 30,3.

— Astekarietan (*Zer* ere barne sartuz) % 60,9 du euskara batuak. Bizkaiera dabil eskasena astekari alorrean.

— Egunkarietan are handiagoa da batuaren aldeko ehunekoa. % 69,5, euskara batuan. Alegia, *Egin, Deia*ren linea ofiziala (aparte kontatu ditugu hemengo izkelgiak), *Hoja de Lunes*-en Joan San Martinen artikuluak, Ohar bat, gainera: euskara batuaren ehunekoa aurten askoz altuagoa litzateke, ihaz baino, ihaz, *Deia* urterdian hasi baitzen, eta *Egin* irailean.

AZKEN HITZAK

Hainbeste zifra, zenbaki, ehuneko eta xehetasun gorabehera, "euskara batua zertan da" galdetuko du norbaitek, hau da, zertan da onarpen soziologikoaren aldetik.

Lauki hauek aditzera ematen dutena, nolabait billaburtzen saiatuz, hitz batzu esango ditut.

Hasteko, badirudi hau esan daitekeela: euskara batuaren eredu honek lortua du jadanik frantsesek esan ohi duten "point de non-retour" hori, Villasantek esan duen bezala "imparable" da, atzera nekez egin dezake aski onartua eta finkatua dagoela, nahiz eta erabaki asko oraindik hartu gabe eta finkatzeke egon.

Batasun mota honi konpetentzia egingo dionik ez da ikusten. Hor dituzue datuak. Egia esan, ez dago aurrean alternatibarik, ez euskalkitan eta ez euskalki gainetik. Kopurutan gipuzkera dator bigarren, baina % 23;6tik ez da pasatzen, eta gainera, hobeki aztertuz, gipuzkeraren beraren barruan, bertan, ere ez dago batasunik (Esaterako: L / LL, N / Ñ, ergatibo pluralean, datibo pluralean, Ukanen adizkietan, bokale lotzailean... sakabanatuegi aurkitzen da gipuzkera).

Oso osoan ez bada ere, ikusten da batasun eredu onartu eta jarraitu bat badagoela. Ez dakit ona ala txarra den: guk ez genuen holakorik galdetzen. Jarraitua zen ala ez jakin nahi genuen. Eta egia esan, hortarako jarri ditugun seinaleak ongi jarraitua dela batasun hori esan digute. Ehunekoak aski altuak dira beti (agian salbuespen batekin: DIEZA- aditz-sistemarena, baina aurretik esan dugu datu falta handia dugula hor).

Jakina, batasun-formatzat jo genitzakeen hauek, ez dira euskara batua deitu hizkuntz standard hortan bakarrik ematen. Euskalkitan ere eman ohi dira. Batasun forma horiek euskalkiek nola betetzen dituzten ere interesatzen zaigu. Erabilera hori "*Hizkuntz mota* eta batasun formak" laukian ikus daiteke. Ohar pare batekin aski dut hemen:

— Ipar aldekoentzat zeinu hauetako asko ez dira baliagarri batasun hizkuntzaren egiazko ezagugarri gisan. Bi kasutan bai, ordea: Kontsonante ondoko Htan eta Datibo pluraletan. Kontsonante ondoko H horietarik guti erabiltzen dutela ikusi dugu arestian. Seinale ona, positiboa. Baina, hona beste alderdia, negatiboa hau: —El datibo pluraleko formara ez dira fitsik ere hurbildu. -ERI delakoarekin jarraitzen dute ia osoki, % 2,6 liburutan soilik agertu da -EI forma.

— Aipatu ditugun batasun-zeinu horien onarpenak, pisu espezifiku handiagoa du bizkaieran gipuzkeran baino. Baina bizkaierak, bere aldetik, beste kasu batzutan erresistentzi gehiago egiten du: Hala nola, ergatibo pluralean, aditz izen mugagabean, UKANeko formatan.

— Gipuzkeran, batasunarekiko formen aurreko jarrera, burrukagune izan diren puntutan, itxiagoa dirudi. H kontuan, esate baterako. Erresistentzi asko du beste zenbait puntutan ere: marra, ergatibo plurala, datibo plurala, "izenkiak", bokale lotzailea.

Eta azken puntu bat.

Batasuna-Euskalkiak. Elkarren kontra? Elkarren etsai?

Lauki horietatik bi ondorio ateratzera ausartzen naiz. Bat, batasunak ez dituela euskalkiak hil. Hor daude, eta ondo bizirik, textu masaren kontaketak agertu duenez. Ikus *Urtearen eta Hizkuntz motar*en arauera orrialdeak eta folioak" taula.

Eta bigarren ondorioa: idatziaren mailan, batasunak ez diela euskalkiei lurrik jaten. Funtzio eta zeregin desberdinetan erabili ohi dira euskara standard hori eta euskalkiak. Esaten ari naizen hau, oraindik gai guztietan ez da garbi garbi agertzen, baina gaien araberako hizkuntz moten espezializazioranzko joera bat soma daiteke. Eta somatu bakarrik ez. Gai batzu (filosofia, soziologia, zientzia politikoa, Deretxoa, Natur Zientziak, Antolakuntza, jeneralean lan teknikoak, zientziazkoak) euskara batuan ateratzen dira gehienbat gaur egun bertan. Zein batean zein bestean, hots, berdintsu euskara batuan ala euskalkitan, argitaratu ohi dira beste gai mota batzu (adibidez, Orotarik, Irakaskuntza, Arte Ederrak, Literatura...). Eta azkenik, badira beste gai mota batzu, gehiena euskalkitan eman ohi direnak: erlijioa, etnologia, nekazaritza, geografia...

Osagarritasun gisako egoera bat ari da sortzen, eta, ondorioz, gure euskal kultura normaltzen: luzarora gabe, oraingo joerak jarraitzen badu, euskara standard baten aukera edo euskalkiena gaiak, publikoak eta idatziaren eginkizunaren funtzioak erabakiko dute.

EUSKAL HITZ ELKARTUEZ (1)

Bergara, 1978-IX-6

Andolin Eguzkitza

0. Hitz-moldadura alemanez deitu ohi den "Wortbildung" delako hori bezala ulertzen badugu, h. d., "formación de palabras / formation de mots" deritzana legez, maila bi ezberdin daitezke:

1. Elkarketa.
2. Erakarketa,

azkena, hizkiz egina izateagatik, aurrizkiz, artizkiz zein atzizkiz izan daitekeela.

Honako txostentxo honetan hitz elkartuen ortografiaz zerbait esaten saiatuko gara, horretarko baina, eta aurrera egin ahal izateko "hitz" kontzeptuaren definizio garbi bat behar dugu, behin behineko bada ere, denok onartu behar duguna. Horregatik, eta aski on datekeelakoan, Wolfgang Motsch-en (1) proposamendua dakargu hona. Haren ustez *hitz*aren mugaketa egoki bakarra definizio sintaktikoa da, eta hori dela eta Noreen eta Henzen-en definiziokerak arbuiatzen ditu, hots, psikosemantikoak eta barnedefinizioak. Horrela, bada, perpausa baten zterketaz honako mugaketa hauk ematen ditu:

---

(1) *Oharra:* Lan hau "Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra" delako *Euskera* aldizkarian 671. horrialdean agertu zen. Lana nola ez zen amaitzen orain ematen dugu.

---

(1) Wolfgang MOTSCH, "Zur Stellung der Wortbildung in einem formalen Sprachmodell", in *Vier Aufsätze*, Studia Gramatica I, Akademie Verlag, Berlin, 1971, 33-37 ork.



P = perpausa

IE = izenesaldia edo esaldi nominala

AE = aditzesaldia edo esaldi berbala

S = Subjektua

Er = erakuslea

Adb = adberbioa

— *Konstrukzioak:* bi unitatez bederen osaturik dauden elementu edo konplexuak.

— *Morfemaklaseak:* indibiduez bakarrik ordezka daitezkeen elementuak.

— Era honetara ere *hitzaren maila* definitzen du. Haren ustez, morfemaklase bakoitza beraren funtzio sintaktikoaren arauera sailkatzen badira bakarrik, h. d., erro, aurrizki, deribaziomorfema eta deklinabide- edo flexiomorfematan sailkatzekotan bakarrik, egin daiteke mugaketa hori.

a) Flexio edo deklinabidemorfemaklaseak duten ezaugarririk bereziena, dioenez, zera da, haien elementuak deribaziomailarik gorenean egotea, hitzunitateak markatzen duen mailan, hain zuzen.



b) Enborrak, beraz, deklinabidemorfemen egoterik ezaz defini daitezke. Hortxe oinarri eginda, deklinabidemorfemekin batera konstrukzio bat osatzen duten morfemak edo morfema multzoak *enbor* bezala definitzen ditugu.

c) Hitzak orduan enborrak dira, edo eta enbor batez eta deklinabidemorfemez osatzen diren konstrukzioak.

Amaitzeko diogun enborren elementu bezala, honako morfemaklase hauk ematen dituela Motsch-ek:

erroak, aurrizkiak eta atzizkiak

– erroek enborrak ordezka ditzakete edo eta atzizkiez eta aurrizkiez konstrukzio bat osa.

– Aurrizkiek bere eskumatan dagoen erro batez enbor bat osa dezakete.

– Atzizkiek ezkerretan dagoen erro batez enbor bat osa dezakete.

1. Euskal hizkuntzan moldadurak daukan garrantziaz ez dut uste ezer gehitzea beharrezkoa denik, hain baitago argi. Edozein kasutan ere, esan dezagun bide hori duela euskarak hitz berriak sortzeko erarik egokien eta aberatsena, eta mundu berrira bezala, hala kultura berrira oraingo ekantze mingarri honetan, geure hizkuntzari sistema horren erabiltzeko eskubidea aitortzen diogunok, h. d., guti gora behera ingelespidea hartu barik, zuzenagotzat alemana jotzen dugunok, saiatu egin behar dugu halako erizpide xehe eta xahu batzu ateratzen, estetikak (nork bere dauzkan gustuak, alegia) eta hein batez tradiziorik ezak sortzen dizkiguten eragozpen eta bide malkartsuak ahal den hobekien gainditu ahal izateko.

Bide honetan, erakarketaren arloan, ez dago problema larregi, ez bada lege fonetikoen erabilkuntzan, hizkuntzaren historia ondo dazagutenek dutelarik hor hitza. Elkarketaren landan, ordea, arras bestelako da arazoa, Euskaltzaindiak eman zituen erizpideak ez zirelako ez erraz ez eta argi betetzeko (2), eta are txarrago dena, nire ustez, aski desegoki; kasu batez zera proposatzea da, lau silaba baino gehiago

(2) Luis VILLASANTE, "Idatz arauak", *Euskera* XVI, 1971, Bilbo.

dauzkaten hitz elkartuen elementuak aparte idatzi behar direla. Hori proposatzean ez bide da konturatu —eta hemen gorago kritikatu dugun argudio psikologiko horietako bat erabiliko dut—, hiztunak, agian testuak daukan indar izugarriagatik, ez duela *hitz elkartu berri* hori hitz-tzat jotzen, eta beraz bidea mozten zaiola lexikoan, hizkuntzaren altxor lexikografikoan sar dadin edo sar daitekeen.

2. Nire ustez, eta hau da txosten honetaz egin nahi dudan proposamendua, sarreran hitzari buruz aurkeztu dugun definizioa kontutan hartuta, *euskaraz hitzok batera idazten dira inolako apurketarik gabe lerro batetik bestera igarotzeko ez bada*. H. d., "hitz elkartuak elkarrekin idatziko dira beti, edozein dela luzera eta edozein dela gerta daitekeen itxura optikoa". Eman dezagun, eta adibide estremoso bat jartzearren:

"*hizkuntzalaritzahiztegiautoregaisotasunik* ezagunena zoratasuna da".

Egia da ez duela honek tradizio handirik euskal hizkuntzan, hala ere egokitasun gramatikaletik aparte, Bizkaian eta neurri apalagoaz beste Euskal Herriko toki batzutan dagoen izen eta toponimo luzeen kasua edo tradiziotxoa ere aipa daiteke:

Urazurrutia, Solagurenbeaskoa, Magunazelaia, Gabikagoxeaskoa edo *Uriartebidaurreta* eta *Agirreazkuenaga*.

Erregela "unibertsal" honi, haatik, muga hauk jar lekizkioke:

— Marra elkarte kopulatiboetan, onomatopoetikoetan eta hitz baten berresaketaz osatzen diren lokuzioetan erabil liteke, aita Villasantek dioenez:

nagusi-langileak, neba-arrebak, zeru-lurrak, koinatu-koinatak, nahas-mahas, ikusi-makusi, erdara-merdara, tarteka-marteka, zuri-zuri, mokoz-moko (3) e. a.

---

(3) Luis VILLASANTE, *Palabras vascas compuestas y derivadas*, editorial franciscana de Aránzazu, Oiñati, 1974, 43-44. ork.

— Hitzok halako modu ero batez direnean luze, marra sartzeko askatasuna utz liteke; gorago aipatu kasuan honela ere idatz liteke:

hizkuntzalaritzahiztegi-autoregaisotasun edo eta *hizkuntzalaritza-hiztegi-autore-gaisotasun*

edo dena delakoa, hala ere, marraz bada ere, beti baturik nire ustez.

— Marra ere kasu honetan erabil liteke, elkartepunduan dauden hotsak elkartzeko erraz ez direnean:

hitz-moldadura, itsas-txori, eliz-zerga, hots-zulo e. a.

kasuok, baina, zehatz-mehatz definitu beharko lirateke.

Salbuespen bakarra, nire ustez, kopuru bat adierazten duten hitzek osatuko lukete, "artalde" bezalakoak ez badira, h. d., hitz bezala euskal lexikoan sartu direnak ez badira, aparte idatziko nituzkeenak:

gizon multzo, liburu pilo, kaka mordo, emakume talde e. a.

3. Esan dugun guztia garrantzia izugarria duela erakusteko etsenplu zerrenda bat emanen dut handik eta hemendik hartuta; gehienak, baina, "Zortzi urte arteko ikastola hiztegia" delakotik izanen dira. Nik batera idatziko ditut kasu guztietan nola agertu edo proposatu diren kontutan hartu gabe:

lurjalgune	*burdinxafla*
Haitz-lerro	*urlurrin*
uretorri	fluordistira
hibaiadar	elektrakorronte
urlaster	*kaletren*
itsaskorronte	*elektrabobina*
izarsail	*elektraenergia*
izarlaino	*sokajauzi*
lurresfera	*ezpatadantza*
izarrurte	*bolatoki*
astronomiurte	*zezenplaza*
txandalazterketa	*kopatxapelketa*
xakejoku	*diplomazigizon*
torpeduntzi	*diplomaziharremanak*

kanpoministro
lehenministro
finantzaministergoa
liseriketaparatu
oskoljanzki
neuroizpiño
itsaslabar
eskilamihi
medikuntzafakultate
oinarrilege
sindikatuastekari
arransaltzaile
barneministro
gobernulehendakari
kulturmintegia
liseriketabakuola
neurojario
janzkiberrikuntza
dirulaguntza
oligozenaldi
unibertsitaterretore
konstituziozuzen
literaturkritika

BERRIAK

"BAI EUSKARARI" KANPAINA ANTOLATU ZUTENEI ESKERRAK EMANEZ

Bittor Artola, Iñaki Azpitarte, Pedro M.ª Basañez, Jose M.ª Beaskoetxea, Jon Castañares, Juan M.ª Covian, Alberto Elorriaga, Enrique Ibabe, Iñaki Juaristi eta J. J. Zearreta.

Jaunak:

Guztiok dakigu nolako eragina, nolako zirrara eta oihartzuna izan duen "Bai Euskarari" kanpainak.

Kanpaina horren eratzaileak, bada, une hontan, hementxe ditugu geure artean, geurekin. Gizon prestu hoiek gabe ez genuen ezer egin ahal izango. Jaun hoien burubihotzetan erne zen kanpaina hori egiteko lehen asmoa. Beroiek antolatu zuten, beroiek etengabe egon dira gainean, eta beroiei esker bere helburuak lortu ditu kanpaina horrek. Beroien laguntza, oso-osoko ardura eta emaitza gabe Euskaltzaindiak ezer gutxi egin zezakeen. Arlo hoietan trebe direnen eskua behar-beharrezkoa genuen, eta jaun hoiek eskua ezezik, baita bihotza eta astia eta dena eman digute.

Kanpaina bukatu da, baina Euskaltzaindiak ezin ahantz ditzake jaun hauek.

Eskerrak ematen dizkiegula esateak badu halako hitz hutsal eta hotz baten itxura. Ordaindu, berriz, guk ezin ordain diezaiekegu, inondik eta inolaz ere, euskaragatik eta Euskaltzaindiagatik jaun hoiek egin duten lana.

Orduan zer egin? Mututu? Hori ere ez, noski.

Zuei, bada, jaunoi, Euskaltzaindiaren izenean hauxe esan nahi dizuet:

Zuek egin duzuen lan hau, hutsean, dohan eta urririk egin duzuen lana, ordu askotako, neke, buru-hauste askotako lan eskerga hau, ongi konpreniten eta ulertzen dugu. Badakigu, alegia, lan guzti honen esannahia zein den. Badakigu

zer adierazi nahi duzuen horrekin. Gure elkargoan, Euskaltzaindian, hemen gauden gizon kaxkarron gainetik dagoen zerbait ikusten duzuela irudikatua: Euskara, noski, gure herriaren ondasuna. Gure herriak, herri bezala, duen agergarri eta lokarririk baliozkoena. Eta nola Euskaltzaindia ondasun hori zaintzeko eta bizirik ateratzeko jarririk dagoen, hortik eta horregatik izan da kanpaina honen alde agertu duzuen gogo beroa. Hortik eta horregatik zuen gureganako borondatea. Badakigu zuen emaitza ez dela guregatik, ez dela guretzat. Errepresentatzen dugun izpirituzko ondasun horrengatik izan dela, alegia.

Esan nahi dizuet, bada, zuen emaitza horren esannahi hau ongi jaso eta ulertu dugula. Eta zuen keinuak adierazten duenari erantzunez, Euskaltzaindiaren izenean esan nahi dizuet gure elkargoa kemen eta arnasa berriz hornitua atera dela kanpaina hunetarik. Santimamiñeko zelaian esan nuena berriro esan nahi dut: Hemendik aurrera, zuen laguntza eta atxikimenduari eskerrak, eta herriaren erantzunari eskerrak, gure elkarte hau oldar berriz eta gogotikago lotuko dela bere zeregin handiak betetzera.

Eta gure aldetik, gure eskerronaren agergarritzat, oroikailu xume hauek eskeini nahi izan dizkitzuegu. Har itzazue, otoi, gure borondate eta gogo onaren seinale bezala.

Donostian, 1978 irailak 29

Ed. Seix Barral-ek ateratako "CURSO DE LENGUA VASCA"REN AURKEZPENEAN

Donostian, 1978, urriak 6

Jaun-Andreak: Gau on guztioi!

Zinez, euskaldunak ez gaude ohituak euskal ikasbide baten aurkezpenean hunelako jaun ospetsuak ikustera.

Real Academia Española-k bere mandataria bidali digu: Antonio Tovar jauna. Egia esan, jaun hau geurea ere badugu. Euskaltzaindiak, euskararen alde egin dituen lanen esker erakutsiz, euskaltzain ohorezko izendaturik dauka Tovar jauna. Berak jarri zuen Salamancan Larramendi katedra eta hainbeste azterketa eginik ditu euskararen alorrean. Dena dela, gaur Real Academia Españolaren ordezkari bezala etorri zaigu hunera.

Gero hemen ditugu Ramón Aramon jauna, Institut d'Estudis Catalans delakoaren izenean, Basilio Losada jauna Real Academia Gallegaren izenean, Frederic Roda jauna, etab. Jaun hauek ere –aitortu beharra dut– ez dira guretzat arrotzak. Orai baino lehen gurekin har-emanean ibiliak dira. Esate baterako, Euskaltzaindiaren urrezko ezteiak ospatu zireneko ospaketan gurekin ziren, eta bai geroago ere, Espainiako herri-hizkuntzen Simposium bat antolatzeko bilera bat Iruñean egin zenean.

Baina oraikoan euskal ikasbide baten aurkezpena ospatzera etorri dira, eta egite hau benetan eskertzekoa eta estimatzekoa da. Ongi etorriak, bada, jaunok, Euskal Herrira!

* * *

Egiazki obra berri baten aurkezpena baino gehiago da gaurko ospaketa hau. Euskarari halako omenaldi bat egin

nahi izan diote hunera bildu diren jaunak. Espainiako Penintsulan gaur mintzo diren hizkuntzetan euskara dela zaharrena eta bereziena ez da ez dakienik.

Indoeuroparren uholdeak Europa guztia estaldu zuenean, hor gelditu zen euskara, lehenagoko aroen lekuko bakar eta bakarti bezala. Horregatik esan du Tovar jaunak Euskal Herrian, euskarari esker, orai hiru mila urte indoeroparren uholdeak murgil arazitako estratoen aztarna aurkitzen dugula.

Eta Ramón Menéndez Pidal jaunak hunako hitz gogoangarri hauek esan zituen: "Zuen herri hunek badu zori handi bat: Hispaniako aintzinatearen erlikiarik beneragarriena gordetzen duela. Bestek gehiago balio lezake arte aldetik, miretsiago eta gutiziatuago izanen da gehienetan, baina hizkuntza hunen garrantzia duenik ez da. Beronen estudio sakona egin gabe ezingo dira sekula Hispaniako zibilizazioaren oinarriak eta lehen urratsak osotoro argitu, eta zibilizazio hori ez da bere muinean konprenitua izango".

Juan Karlos erregeak, berriz, Euskaltzaindiaren Onartze Dekretoan hunela dio: Euskara dela Europako hizkuntzarik zaharrenen agerbide bakarra. Eta jarraitzen du: "Hori dela eta, makina bat jakitun argik hizkuntza huni kasu eman eta bere estudio eta azterketak eskeini dizkio. Aski izan bedi, beste batzuen artean, Humboldt, Bonaparte, Van Eys, Schuchardt, Cejador, Azkue, Menéndez Pidal eta Tovar-en izenak gogoratzea".

Badu, bada, euskarak Espainiako beste hizkuntzen omenaldia hartzeko titulurik aski.

* * *

Baina hau txanponaren aurpegietarik bata baizik ez da. Kanpotarrek euskarari egiten dizkioten omenaldiek ez digute beste alderdia ahantz arazi behar. Omenaldiekin ez gaitezen harroputz geldi. Espainiako herri hizkuntzen artean osasunez kaskarrena eta ahulena ere euskara da, noski. Erramu eta ereinotzen artean ez gaitezen, bada, lokart. Euskara ez da vitrina batean sartua edukitzeko eta kanpotarrei harro-harro

erakusteko daukagun pitxia. Hizkuntzak ezpainetan erabiltzeko dira, edo bestela ez dira ezer. Hizkuntzaren bizia zabaltzea, sendotzea eta bultzatzea izan bedi gure lehen kezka.

Eta horretarako egina da, hain zuzen, gaur aurkezten den euskal ikasbide hau. Beste hizkuntza biziak ikasteko erabiltzen den metodoa bera egokitua izan zaio euskarari. Barcelonako Barral Argitaldari famatuak agindu zion lan hau Amuriza jaunari eta argitaldari berberak agertu du.

Amuriza jauna, berriz, ezaguna dugu geure artean, euskal arloan atera dituen lanengatik: euskal aurrizkiei buruz lan ardurazko bat egina eta aterea du *Euskera* Euskaltzaindiaren aldizkarian. Eta argitara gabe dauka beste bat atzizkiei buruz. Euskarara hainbeste itzulpenak eginak ditu eta argitaratuak: Aldous Huxley-ren Bai Mundu zoroa, Maite Rungis-en Ekonomiako lehen pausoak, bi tomotan, eta abar. Bertsolaria ere bada. Euskaltzain laguntzailea ere bai. Gaur argitaratzen duen liburu berri huni buruz ez noa deus esatera, zeren aski xehetasun emango baitigu euskeratzaileak berak.

Edozein modutan ere, eskerrak eman beharrean naiz bereziki Cataluñako argitaldari huni gure mintzairari egin dion zerbitzu bikain hunengatik.

Eta eskerrak, azkenik, kanpotik nahiz bertotik ospaketa hunetara etorri zareten guztioi.

(Euskaltzainburu jaunaren hitzak)

EUSKALTZAINDIAREN BULEGO BERRIAK BILBON

Bizkaiko Diputazio Jauregian, 1978-XII-29

Euskaltzainburuaren hitzak:

Amorrortu jaun, Bizkaiko Diputazioaren Lehendakari agurgarri horri:

Ondo gogan dut non eta noiz izan zen. Durangoko Liburu azokan Euskararen Liburu Zuriaren aurkezpena ospatu zen egunean. San Blas jatetxean elkarrekin afaldu genuen, eta afal bitartean erregu bat egin nizun: Euskaltzaindia bulego edo toki berri baten premian zegoela Bilbon, Ribera kaleko etxe hura meharregia bihurtu zela Euskaltzaindiak ezagutu duen hazkundearentzat. Beste aldetik, lau euskal Diputazioen sorkaria izanik Euskaltzaindia, bidezkoa zela Diputazioaren etxean bertan guk bulego hori edukitzea. Era hortara Diputazioarekin ditugun lokarri eta loturak sendotu baizik ez zirela egingo.

Eta zuk ederki baino ederkiago erantzun diozu gure eskariari. Gau Euskaltzaindiak bere bulego berriaren estreinaldia egiteko eta zuri gure eskerrona agertzeko, Bizkaiko Diputazioaren etxe honetan egin nahi izan du batzarre hau. Ez dugu ahaztutzen Bizkaiko Diputaziotik irten zela Euskaltzaindi hau sortzeko lehen asmoa edo iniziatiba. Eta orai ere, ahal dela, lau probintzietako Ordezkaritzek lau Diputazioen etxean egotea nahi dugu euskararen aldeko gure lana zuen babespean hobeki egin ahal izateko.

Eta gure amets hau, Bizkaiari dagokion aldetik, zuri eskerrak, egia bihurturik ikusten dugu.

Eskerrik asko, bada, jauna.

AMORRORTU JAUNARI ESKER-DIPLOMA EMATEAN

Bilboko bulego berrietan, 1979, martxoak 16

Francisco Amorrortu jauna:

Euskaltzaindia Euskal Herriko lau Diputazioek sortua da. Ezin hautsizko lokarriak ditu, beraz, Diputazio horiekin. Gu orai ere horretan gaude. Diputazioen itzalpean egin nahi dugu geure lana.

Bizkaiko Diputazioak eman dizkigun bulego berri eta eder hauekin lotura horiek sendotu besterik ez dira egingo. Emaitza honengatik Euskaltzaindiak bere esker ona agertu nahi dio Bizkaiko Diputazioari. Eta zu, Amorrortu jauna, Diputazioko buru zarela gertatu baita bulego berrien emate hau, guk ere geure esker onaren agergarritzat oroikailu xume hau eman nahi izan dizugu eta ematen dizugu bihotz-bihotzez. Eskerrik asko! Fr. Luis Villasante.

IBERDUERO-REN DIRU LAGUNTZA JASOTZEAN

Bilbon, 1979, urtarrilak 16

Jaunak, agur!

Ongietorriak izan zaiteztela Euskaltzaindiaren etxe honetara.

Eta ongietorrizko hitza esan bezain laster, bihoa bestea, eskerronezkoa, zeren ongi baitakit laguntza eskeintzera etorri zaretela. Iberduero-k Oinharrizko Euskararen bigarren mailako librua argitaratzeko hiru miloiko laguntza eman nahi du. Ez da hutsaren pare.

Badakit, gainera, euskararen aldeko zuen kezka ez dela gaur goizekoa. "Bai Euskarari" kanpainarako ere Iberduerok milioi bat eman zuen.

Eta Oinharrizko Euskararen lehen mailako librua argitaratzerakoan ere lagundu zuela badakit.

Gainera —eta xehetasun honek axolarik handiena du guretzat—, jakin dudanez, Iberduero-ko langileek, euskaraz ikasi nahirik, berek egin zuten libru horren eta ikasbide horren lehen esperientzia, librua oraindik argitara gabe zegoenean. Horrek zerbait esan nahi du zuen euskararen aldeko gogoa jakiteko.

Eskerrik asko, bada, bihotz-bihotzez.

Señores: Bienvenidos seáis a esta casa de la Real Academia de la Lengua Vasca "Euskaltzaindia", Institución, como sabéis, creada en 1918 por las cuatro Diputaciones del país para velar por la vida y cultivo de la lengua vasca, por este legado o patrimonio tan caro al país vascongado, que es el euskara. Y dicho esto, y sabiendo, como sé, que venís a dar,

mi segunda palabra, obligada pero sincera, es: Gracias! Eskerrik asko!

Iberduero quiere subvencionar con una pingüe ayuda —tres millones— la publicación, que ya está en marcha, del segundo grado de Oinharrizko Euskara o euskara básico.

Me consta además que esta preocupación de Iberduero por ayudar a las iniciativas en pro del euskara no es de ahora. A la campaña "Bai Euskarari" contribuyó también con un millón.

Ayudó asimismo a la publicación del primer grado de Oinharrizko Euskara. Y lo que es más significativo y valioso para nosotros: fueron precisamente los empleados de Iberduero los que en su afán por aprender el euskara hicieron la primera experiencia de este método de euskara básico, aun antes de que se imprimiera el libro. Esto dice mucho como testimonio del interés de la casa por el euskara.

Ciertamente, esta iniciativa del Oinharrizko Euskara es una de tantas en que la Academia se ha visto abocada por fuerza de las mismas circunstancias o estado de la lengua y del país. Ante el hecho innegable —y que constatamos a diario— de que tantísimas personas adultas y desconocedoras de este idoma solicitan aprenderlo; y ante el hecho, también constatado, de que el aprendizaje de una lengua para una persona adulta que está inexorablemente enrolada en el tren de la vida con sus múltiples ocupaciones e ineludibles quehaceres, resulta las más de las veces una tarea de éxito dudoso e incierto, al menos si no se procede con un método bien calculado y programado, que economice al máximo al alumno la dispersión de energías hacia cosas menos necesarias y las polarice en lo que es sustantivo y medular; la consideración de todo esto, digo, es lo que hizo que la Academia tomara cartas en este asunto y decidiera impulsar esta iniciativa.

Para ello creó en su seno una Comisión encargada de perfilar este Euskara básico, reducido o simplificado, y de estudiar con rigor y según los últimos adelantos la metodología de su enseñanza. Al frente de la Comisión figura, como todos saben, el P. Imanol Berriatua, que ha realizado varios viajes a Israel con el fin de estudiar de cerca cómo proceden los israelíes en la enseñanza del hebreo a tantos miles de

inmigrantes adultos que llegan al país desconociendo la lengua, y que normalmente no tienen edad ni tiempo ni condiciones para poder estudiar el hebreo con todos sus pelos y minucias, pero que, por otra parte, anhelan integrarse en el país, y lo consiguen, efectivamente, mediante un tipo de hebreo un tanto simplificado, pero funcional. La experiencia es interesante y no deja de ser válida, al menos en parte, para nuestro caso, salvas siempre las diferentes circunstancias de los dos pueblos, su distinto entorno, etc.

Comprendo que esta iniciativa del Oinharrizko Euskara es delicada, entraña sus riesgos. Pero ¿podía la Academia inhibirse o cruzarse de brazos sólo porque puede entrañar riesgos, sobre todo viendo una demanda a la que de otra forma no se le podía dar abasto? Después de madura deliberación, la Academia, como he dicho, nombró la citada Comisión y dejó en sus manos el llevar adelante este experimento. Aun no es tiempo para juzgar de los frutos. Además siempre cabe rectificar los fallos o desaciertos que, sobre la marcha, puedan descubrirse.

La Real Academia de la Lengua Vasca tiene el honroso cometido de velar por los intereses lingüísticos del euskara. Ella por supuesto está abierta a todas las empresas y entidades del país que desean coadyuvar y potenciar la actuación de la Academia sin que ello signifique intromisión alguna en los cometidos de la misma. Por ello la Academia no podía dejar de aceptar la ayuda de Iberduero, que se ordena directamente a la promoción del euskara.

Sólo me resta reiterar una vez más el agradecimiento de Euskaltzaindia por esta notable ayuda de Iberduero a la causa del euskara.

Berriz ere Eskerrik asko!

Fr. Luis Villasante

GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA PROBINTZIALAREN DIRU LAGUNTZA JASOTZEAN

Donostian, 1979, otsailak 2

Euskaltzainburuaren hitzak

Jaunak:

Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren ardura, euskararen ardura esan nahi dut, ez da oraiko kontua. Badakigu bere sorrera egunetik gaur artio zer eta zenbat egin duen Aurrezki Kutxa Probintzialak euskararen alde.

Eta guzti hori gutxi balitz, Bai Euskarari kanpainako bere emaitza eskeintzen dio gaur Euskaltzaindiari.

Euskaltzaindiari esan dut. Baina nik ongi dakit eta ongi ohartzen naiz eskupeko hori ez dela guregatik eta ez guretzat ere.

Gure Instituzioan –Euskal Herriak bere lau Diputazioen bidez euskara zaintzeko jarri zuen Euskaltzaindi honetan– irudikatua eta mamitua eta gorpuztua bezala ikusten duzue zuek euskara, gure herriaren ondasun berezi hau, eta horren alde, hain zuzen, izan da zuen emaitza.

Honelako oparia jasotzean nik badakit zor berri batekin, erantzunkizun larri batekin eta zama astun batekin lotuak eta zamatuak gelditzen garela. Erantzunkizun berariazko eta apartekoa hartzen dugula geure herriaren aintzinean.

Eta zor honi, hitz ematen dizuet, geure ahalen neurrian kemen eta oldar berri batekin erantzuten saiatuko garela.

Eskerrik asko esatea, hitz hotz bat esatea da, noski, baina esan beharrekoa halaz ere. Har ezazue, otoi, barrenbarrendik eta bihotz-bihotzetik esana baita. Eskerrik asko,

bai zuen gaurko emaitzagatik eta bai euskararen alde beti agertu duzuen kezka eta arranguragatik ere.

Ea guztion artean gure mintzaira bere egoera larriahuletik atera eta beste egoera hobeago batera aldatzen asmatzen dugun! Halabiz.

ADEGUI-REN EMAITZA HARTZEAN

(Donostian, urriak 6, 1978)

Jaunak:

Zuek Euskaltzaindiari eman nahi izan diozuen emaitza hartzerakoan, nahasia bezala ikusten dut neure burua, zer egin eta zer esan ez dakidala. Alde batetik, zuen eskupekoa ez da hutsaren pare. Eta bestetik, nik badakit –ondo jakin ere– eskupeko hori ez dela guregatik eta ez guretzat ere. Gure Elkargoan irudikatua ikusten duzuen izpirituzko ondasun horren alde –euskararen alde, alegia– izan da zuen gaurko emaitza.

Eta hunelako oparia jasotzeaz nik badakit zor berri batekin, erantzunkizun larri batekin eta zama astun batekin zamatuak gelditzen garela. Bai. Gure herriaren aurrean erantzunkizun berariazko eta aparteko bat hartzen dugu gaur.

Zor huni, geure ahalen neurrian, kemen eta oldar berriz erantzuten saiatuko garela hitz ematen dizuet.

Zuek, berriz, zeuen opariarekin gauza bat aditzera eman duzue: euskararen balioari buruz baduzuela kontzientzia bat bizi-bizia eta ernea. Hortan ispilu eta eredu azaldu zarete. Eskerrik asko, jaunak, bihotz-bihotzetik!

Ea guztion artean euskara bere egoera ahuletik atera eta beste egoera hobeago batera eramaten asmatzen dugun! Halabiz.

Euskaltzainburuak

"ITXASKARIA" LIRURUAREN AURKEZPENEAN

Bilbon, 1979, martxoak 16

Jaun-Andreak

Petronor enpresa 10 urteko mutiko izatera heldu omen zaigu. Bere haurtzaroa gainditu du, beraz. Gertakari hau nolabait ospatzeko, ez du maizenik egin ohi den bezalako bestarik antolatu: jan-edanak, hitz iheskorrak, txaloak, tabakoaren kea, eta kitto. Ez. Gure artean gutxitan egiten dena egin du: urte muga hau libru batekin ospatu, alegia. Eta ez nolanahiko libruarekin. Mugarri antzo geldituko den libru batekin baizik.

"Itxaskaria" ez da libru arrunt horietako bat. Euskaldunak eta itsasoa da beronen muina. Sigfrido Koch jaunaren argazki miragarriek alde batetik, eta gure espezialistarik hoberenen —Caro Baroja, Barandiaran, Altuna, Pelay, Basterretxea, Oteiza, Busca Isusi— lanek bestetik, eraiki dute monumentu iraunkor hau. Lanok, gainera, erdaraz eta euskaraz daude.

Eta hori gutxi balitz, 500 ale Euskaltzaindiari hutsean ematen dizkio Petronor-ek.

Euskaltzaindiaren izenean "eskerrik asko" esatea badakit zerbait hits eta hotz esatea dela, baina esan beharrekoa, eta bihotz-bihotzez eta barren-barrendik esaten dudana.

Libruaren xehetasunetan ez naiz sartuko, zeren bertan parte hartu duten jaunak berehala mintzatuko baitira.

Euskaldunak eta itsasoa: gai benetan hunkigarria hauxe! Itsas hegian edo hegitik gertu xamar jaio garenontzat tira berarizkoa du itsasoak, halako lilura ezin esanezko bat. Nire

jaio hauzoari Errenteria deritza, eta zerbait salatzen digu horrek: itsasotik hara zetozen untziek han zergaren bat pagatzen zutela. Nik arez eta gatzez betetako gabarrak ezagutu ditut itsasotik errekan gora etortzen. Ikusgarri liluragarria izaten zen hura guretzat.

Eta erreka izan ohi genuen geure jolastokirik atseginena. Arrantzuan egitea edo egiten zutenei ikusmiran egotea. Aingirak, karramarroak, kolajak, arrain gorriak... zer ez zen ur haietarik ateratzen! Inoiz bateltxo bat ere egin genuen, harro-harro errekan ibiltzeko, izenburu, bandera eta guzti: "El pirata negro".

Bai, erreka bazter haiek erakarpen indar berezia zuten guretzat.

Urtean behin edo birritan, eta beti egun jakinetan –Santiago eta San Inazio egunean– Txatxarramendi eta Laidara joaten ginen –edo eroaten ginduzten–. Hura besterik zen. Itsaso zabalaren zabala ikustea! Eta inoiz han untzi handixkaren bat begiztatzea. Adibidez, "Nemrod" izena zuena. Hura zoramena guretzat!

Salbatore Mitxelenak badu olerki bat: "Urruti mina". Bertan kantatzen du euskaldunak, itsasoari esker, hor barrenean tinkaturik daraman kezka eta jorana. Egintza orokor eta handietarako grina. Iparragirre-ren "Boga Boga"k ere ez ote digu hori bera gogoarazten?

Nolanahi den, jaunak, euskaldunek eta itsasoak elkarrekin duten zer-ikusia ikasteko, hor dugu Petronor-ek egin arazi duen libru gotorra: "Itxaskaria".

Eskerrak berriz ere Petronor-i, eta bereziki Petronor-en Zuzendari den Fernandez Cuesta jaunari.

ADITZA BATZEKO BATZORDEAREN HISTORIAZ ZERBAIT

76-X-26
Xabier Kintana

Euskaltzain jaun-andreok:

Aditz batzordearen kide naizen aldetik, erabat harrituri utzi nau Euskaltzaindiaren aldizkariaren azken zenbakian (Euskera,XXII, 2. aldia, 1977.eko uztailetik abendura, 667-672. horr.) agertu den artikulu batek, hemen aipatu nahi dudanak, hain zuzen.

Duela bi urte, euskaltzainburuak aditz batzorderako idazkari den Patxi Altunari, gure batzordearen historia egitea eskatu zion, horrela, Euskaltzaindiaren historiarako, aditzaren batasuna bezalako arazo batetan zer nolako prozedura eta erabideak erabili genituen azal zezan. Eskari bidezko honi erantzunez, Patxi Altunak, 1975.eko uztailaren 29an, Donostian, Euskaltzaindira bere txostena agertu zuen. Hura irakurtzean, ordea, Berriatuak eta biok zenbait punturekin ez gentozela bat adierazi genuen.

Izan ere, Patxi Altunaren txostenean, euskaltzainburuak eskaturikoarekin eta idazkari bategandik espero izateko den objektibotasunarekin, gure eritziz behintzat, inondik ere akort ez ziren uste pertsonal eta balorapen subjektiboak ageri ziren. Alde batetik, guk geuk ez genekusan zergatik aipatu behar ziren bertan Gabriel Aresti defuntuaren humore eta izaerari buruzko kontu badaezpadako batzu, ez eta, behialako Euskal Idazleen Elkartearen izenean argitaraturiko *Batasunaren Kutxa*ko zinak edo Mitxelena jaunaren "Lan hautatuak" deritzon liburuko eritziak ere, berauk guztiok batzordetik kanpoko arazoak izanik.

Gure oharrak aditzean, bertan zeuden euskaltzainek

arrazoia eman ziguten, Patxi Altunaren txosteneko zenbait puntu kentzea erabakiz.

Nolanahi dela ere, Donostian erabakia ez bezala, ustekabean noski, *Euskera* aldizkarian Altunaren lana zegoen zegoenean eman da argitara, eta jadanik hor dago, historiarako, Euskaltzaindiaren txosten ofizial gisa. Beronen aurrean, jakina, ezin nagoke ixilik. Alde batetik, beharrezkoa iruditzen zait Euskaltzaindiari txosten horri buruz lehen hartu zen akordioa betetzeko eskatzea, horretarako horko eritzien erantzunkizuna argituz, eta, bigarren, hor pertsona biren izenak zin-hausletzat iraintzen direnez gero, jadanik bere defentsa pertsonalki egiterik ez duenaren eta neronen izenean, zenbait salakuntza, 667-670. horrialdeetakoak bereziki, azalduz.

1969.eko Irailean, oso oker ez banago, Arantzazuko batzarrearen ondoan Euskaltzaindiak batasunerako bidean aurrerago joateko asmo garbirik ez zuela ikustean, zenbait idazlek, geure kontura, bilera bat egin genuen Baionan. Hartan, oraindik batzeko zeuden puntuen artean, aditza ukitu zen eta orduantxe hasi eta hurrengo bileretan ere arazo berbera eztabaidatu genuen. Lapurtar eta nafar-giputz aditz laguntzaileen arteko istiluan akordiorik ez genuenez gero,1970.eko Martxoaren 29an, proposamen gisa, Euskal Idazleen Elkartekook, liburu batetan aditz sistema biok argitaratzea erabaki genuen, handik eta 1971.eko Abenduaren azken egunerarte, Mitxelenari haiez bere eritzia emateko denbora emanik, beronek hobetsiko zuena guztiok onartuko genuela zin eginez. Aipatu epea bukatu aurretik baina, Euskaltzaindian hauteskundeak egin eta, euskaltzainburu berriarekin, batasuna aurrera eramateko pauso ofizialak berriro hasi ziren, eta 1971 urtearen hasieran, aditza batzeko batzorde bat izendatu zen, gu hartan geundelarik.

Euskaltzaindiak aditzaren batzordea jartzean, bistan zegoen, Akademiaz kanpoko bilerak alde batera utzi behar ziren. Harez gero, Euskaltzaindiaren aginduz eta hautaz izendaturik geundenok, batzorde batetan bildu eta eztabaidatzeko beharkia hartzen genuen geure gain. Zinak eta horrelakoak Euskaltzaindiarena moduko epaibide bat ez zenerako irtenbidetzat ongi zegokeen, baina ordurez gero gauzak, geure eritziz bederen, aldatuak ziren. Eta hau ez zen Arestiren

eta neronen uste pertsonala bakarrik. Behin batean, Bilboko bilera batetan geundelarik, norbaitek zinaren arazoa aipatzean, Arestik berak Mitxelenari arazo hori gogora erazi zion, beronek hura "alde batera utzi beharra zegoela" erantzunez. Alfonso Irigoyenek, bestalde, Euskaltzaindiaren batzordetik kanpoko zinak eta entzutean, bere protesta goraki agertu zuen, bertan geundenok *argudio eta arrazoiez* aditza aztertzeko izendatuak ginela esanez, eta aldez aurretiko erabakiak hartzera joatekotan, aski zatekeela Mitxelena bera bakarrik izendatzea, besteak haren eritzira kondiziogabeki makurtuko baziren. Mitxelenak berak, jakina, ez zeritzon bidezko jokabide horri eta batzordeak, horrela, bere lana normalki hasi zuen, paradigmak xeheki aztertuz.

Historia, neronen ikuspegitik, hauxe da eta ez du, iruditzen zaidanez, Euskaltzaindiarekin zer ikusi handirik. Horregatik oraindik ulertzeke nago, bestela esan arren norbaitzuri mina emateko eta zauriak berretzeko ez bada, zertarako sartu behar ziren txosten horretan Euskaltzaindiaren Aditz Batzordearenak ez diren kontuok, ez eta eskutitz partikular batzu ere, gure batzordearen historia egiteko atxakiaz. Hortik hasiz gero, batzordekide bakoitzaren ideologia, erlijioa, helburu politikoak eta gustu pertsonalak ere sartu beharko lirateke —eta hau ere, zoritxar haundiz, Euskaltzaindian egin nahi izan da!— Akademiaren ageriak mundutar aldizkari baten gisako zerbait bilakatuz.

Ez da seriosa, ene ustez, bide hori eta batzordearen idazkariari, toki guztietan bezala, aseptikotasun handiagoa eskatu beharko litzaioke, hasteko, honelako gertakariak balorapen pertsonalik gabe eta *hirurgarren* pertsonan kondatzen ohi direla gogora eraziz. Besterik ez.

GEORGIAKO BIDAIAZ ZENBAIT BERRI

78-VIII-24
Xabier Kintana

Ihazko Urriaren 28ko bileran Georgiarekiko harremanez mintzatu nintzaizuen. Orain, urtebete geroago, arazo berberaz are berri gehiago eman beharrez nagokizue. Dakizuenez, harreman horien helburua, geure herri eta hizkuntzen arteko loturak arakatzeko, georgiar euskalariak eta euskaldun kartvelologoak elkarren artean trukatzea zen, horrela bakoitzak bestearen herrian bertako hizkuntza hobeki ikas zezan.

Akordio horren arauera, aurtengo Apirilaren hasieran, Georgiako Zientzien Akademiak (*Metznierebatha Akademia*), Xotha Rusthaveli izeneko Literatur Institutuaren bidez, hara joateko deia bidali zidan. Horretarako behar nituen baimenak lortu ondoren, Maiatzaren 20an, goizean Madriletik irtenik, hegazkinez joan eta, gauerako, Tbilisin, Georgiako hibiburuan aurkitzen nintzen. Gonbitea hirur hilabetetarako bazen ere, etxeko arazoengatik, bi hilabete besterik ezin ukan·dut eman Sovietar Errepublika horretan. Egoitza eta bestelako gastu guztiak, bidaia izan ezik, bertako Zientzien Akademiaren kontura izan dira.

Bertan, egia esan, era guztietako erraztasunak eta begikotasunak jaso ditut, bai Akademiaren aldetik eta bai georgiar herri osoaren aldetik ere.

Bi hilabeteotan Literatur Institutuan aritu izan naiz georgiera modernoa ikasten. Horretarako, Institutuko zuzendaria den Aleksandre Baramidze jaunak irakasle egokiak jarri zizkidan, ongi lagundu zidatenak. Hizkuntza mintzaturako, Revaz Mirianaxvili, Nestan Iordanixvili eta Darejan Danelia nituen, txandaka. Berauekin, goizero, hamarretatik

ordu batetararte aritzen nintzen. Arratsaldean, berriz, Sergei Serebryakov irakaslearekin *Vephxis-tqaosani*-ren (= "Tigrelarruduna") hizkuntza klasikoa, hau da, Rusthaveliren poema nazionalarena, aztertzen saiatzen nintzen, euskarara egiten ari naizen itzulpena ahalik eta zuzenenik emateko. Iluntzeetan, astean zenbait aldiz, Yuri VI. Zytsar eta Greta Txantladze irakasleekin geure hizkuntzen arteko kidetasunez niharduen, elkarren estudioen berri jakiteko.

Irakasle biok Tbilisiko Unibertsitatean, Philologiako ikasleentzat, aukerako asignaturatzat euskara ematen dute, guztira dotzena bat ikasle ukanik. Beraien eskariz Unibertsitatean euskarazko eskolak ematera joan nintzen, larunbatero, goizean, ordu pare bat emanez. Gaiak: hitz elkartu eta eratorriak, aditz systema (laguntzaile eta Synthetikoak) eta euskal literatura.

Prentsak eta beste komunikabideek ene berri eman zuten behin baino gehiagotan, eta horren kariaz georgiar herritarrek interes handia agertu zuten euskaldun "bizi" (hots, benetako) bat ezagutzeko. Hori dela eta, bai Tbilisiko Unibertsitatean, Azterlari gazteen klubean (*Axalgazrda Metzniertha Klubi*), Phothi eta Gelathi-ko Herri-Akademietan eta beste zenbait tokitan hitzaldi publiko batzu eman behar ukan nituen, bai eta Georgiako telebistan ere. Hitzaldi guztiok georgieraz eta euskaraz ematen nituen, aldez aurretik georgiar itzultzaile batekin gidoia prestatuz.

Georgiako herri xeheak, Hvedelidze eta Kiknadze moduko dibulgatzaile baikorrak direla medio, zin-zinez uste du euskaldunok eta georgiarrak etorki berekoak garela, eta anaiatzat tratatzen ninduten guztiek. Gauza bera uste zuten, konturatu nintzenez, errusiar askok ere. Euskal-georgiar jatorkidetasuna erabat frogatutzat ematen zuten, gainera, eta horregatik, neronek arazoa oraindik hain garbi ez dagoela azaltzen nienean, bat baino gehiago harritu eta haserratu ere egiten zitzaidan. Kondatzen zidatenetik, bertan izan zirenean, René Lafon eta Jan Braun irakasleek ez zuten inolako dudarik agertu.

Baina jakintsu mailan arazoa besterik da. Era ona eskaini zitzaidan bertan Arnold Txikobava eta Akaki Xanidze moduko hizkuntzalari seriosekin hitz egiteko. Berauk zuhu-

rrago eta erreserbatuagoak ziren. R. Lafon eta Karl Boudaren lanei esker, ba zekiten, bai zer nolako kidetasunak agertzen dituen euskarak kartveliar hizkuntzekin, bai eta oraindik horik ez direla aski etorkidetasuna frogatutzat emateko ere.

A. Txikobavak, Niko Marr-en eskola lurperatu zuenak, oraindik kaukasiar hizkuntza guztien jatorkidetasunean sinesten zuen, behialako baikortasun hura ez badu ere. Belaunaldi gaztea, ordea, Matxavarianiren bidetik abiatuz, oso eskeptikoa da hypothesi horretaz. Unibertsitatean, bestalde, Mesopotamiako hizkuntza zaharretara zuzentzen dituzte begiak askok orain, sumerierara, bereziki.

Ene ustez, kaukasiar hizkuntzen eta euskararen arteko arazo honetan bi bide har daiteke. Lehena zera dateke, Txikobavaren jarrera onetsiz, kaukasiar hizkuntza guztien jatorkidetasuna ontzat eman (osetiera, azerbaidzanera eta honelakoak, noski, kanpoan utziz) eta horrela aitzinkaukasiera berreraikitzen, errekonstruitzen, saiatu, bertako hizkuntz familia guztien erro komunak aurkitu arte. Hori egin ondoren, sustrai pankaukasiko horik aitzineuskararekin gonbara litezke, eta horrela, nork jakin, guztien jatorri komuna topatu.

Esandako bide hau, ordea, bistan dago, oso luzea dateke, eta euskaldunok, lehen phasean behinik behin, geographiaz eta bibliographiaz hain urrun gelditzen zaizkigun mintzaira ugariak direla eta, oso nekez har dezakegu parte hor. Gerta daitekeena ere da, gainera, dokumentu eta biderik ezaz, Kaukasiako hizkuntzen kidetasun ustezko hori frogaezina izatea, ondoko euskal gonbaraketa guztien kaltean.

Lehen bide honen ondoan, eta hautakizun gisa, ba da, eta holaxe jakin erazi nien bertan, bigarren bat, neronek, ezin bestean gainera, aukeratua. Hau da, euskara Kaukasiako hizkuntz familia bakoitzarekin, independenteki alderatzea. Izan ere, kaukasiar hizkuntza guztiak etorki berekoak ez balira ere, gerta daiteke, bertako familiaren batek, edo batek baino gehiagok, euskararekin zer ikusirik edukitzea. Eta era honetan euskaldunok, oraindixek geure ahaleginak egin genitzake argia egiten.

Nik neuk, hain zuzen, aspaldiko urteotan hegoaldeko hizkuntz familia hartu dut ikergaitzat, hartveliar hizkuntzak;

georgiera bereziki. Hautapen honen arrazoiak oso argiak dira: hauxe da, nagoen egoeran, aztertzeko erosoena, literatura zaharrez V mendetik ongi dokumentaturik baitago. Gaur egun georgiera laur milioi lagunen eguneroko hizkuntza da, Georgiako mintzaira nazionala eta ofiziala, administrazio, irakaskuntza eta komunikabide maila guztietan erabilia. Ipar Kaukasiako beste hizkuntzek, oraino biziak –eta haietako batzu ofizialak eta idatziak izan arren– ez dute textu zaharrik, gehienak oraintsu idazten hasiak izanki.

Mitxelenak jadanik behin baino gehiagotan seinalatu duenez, methodologiaz onhartezinezkoa da, dena dela, euskara Kaukasiako edozein hizkuntza edo dialektorekin gonbaratzea, hainbeste berbeta artean kasualitateek, nahiztaez, gertatu behar baitute. Hauxe litzateke, nik uste, Lafonen eta Boudaren akatsik larriena.

Egin ditudan azterketen ondorioz, ni neuk –norbaitek euskararen etorkiak ez nauela biperrik arduratzen uste badu ere, "deabruak didala behatzaile bezainbat aditzaile!"– zenbait korrespondentzia phonetiko aurkitu uste ditut euskara eta kartveliar hizkuntzen artean, hurrengo lan batetan azaltzeko ditudanak.

Kontutan hartu behar dugu, hala ere, euskara eta beste hizkuntza bat edo batzuren arteko jatorri harremanak aztertzerakoan, ez dugula, zoritxar haundiz, indoeuropar edo semitar hizkuntzek aldamenean erabiltzeko ukan duten materiale eta dokumentapenik. Mosaiko bat, zatiko guztiak edo eta gehienak, nahasirik bada ere, ditugunean, pazientziaz osa daiteke. Geure kasuon, aldiz, mosaikoaren pieza gehienak falta ditugu. Ondorioa, hortaz, apalagoa izanen zaigu ezinbestean.

Horregatik, hizkuntzalarion alde, eta laguntzailetzat, bestelako azterlariak ere beharrezkoak ditugu: aurrehistorialariak, arkheologoak, ethnologoak, musikologoak etab. Guztien artean lana, nik uste, ez da hain zaila gertatuko.

Zentzu honetan, Georgiako Kultur ministrariarekin, Unibertsitateko errektorearekin eta beste zenbait azterlarirekin (arkheologoekin bereziki) mintzatzeko era ukan nuenèan, Euskal Herri eta Georgia arteko kultur harremanak gehitu eta sendotzeko komenientzia aipatu nuen, oso begi onez har-

turiko proposamendua berau. Euskal Kontseilu Nagusiak, ekonomi hornizioz betexeago dagoenean edo, zerbait egin lezake hor.

Baina ikasketak ez dira enekiko bukatu. Zientzien Akademiak ba du Atzerriko erakundeekin argitarapen trukaketa zerbitzu on bat eta Euskaltzaindiko bibliothekara kartveliar hizkuntz eta literatur liburu ugari bidaltzekotan gelditu dira, gure agerkarien truke. Zinta magnetophonikoak ere eskuratzeko era ukan dut, georgiera mintzatuaren estudioak hemen aurrera eramateko.

Euskaltzaindiak, bere aldetik, orain ekonomi egoera pixkat erosoagoa duela eta, hona etortzeko antzeko deia egin berri die Tbilisiko Unibertsitateko euskal irakasle biei, Yuri VI. Zytsar eta Greta Txantladzeri. Noiz etorriko diren, ordea, oraindik ez dakigu.

Eta besterik ez; hitz bi, beharrezkoak gainera, gure Akademiari eskerrak emateko, bidaia honetarako eskaini dizkidan erraztasun eta laguntzagatik.

SIADECO: EUSKARAREN HEDAPENAREN PLANGINTZARAKO OINARRIAK

egin
28-X-78

Euskaltzaindiaren bilera

Según un estudio presentado ayer por SIADECO en la reunión mensual de la Academia de la Lengua Vasca, reunida en la Diputación de Guipúzcoa, en San Sebastián, para el año 1985 habrá más de un millón de vascoparlantes en Euskadi.

Para responder a la demanda global de enseñanza de euskara que previsiblemente surgirá de aquí a 1985, será necesaria, además de mantener la infraestructura existente, una inversión de unos 17.000 millones de pesetas en nueva infraestructura, profesorado y locales sobre todo. Para responder a cualquier planificación que se pueda hacer sobre estas previsiones es del todo punto necesario según SIADECO que tal planificación corra a cuenta de un Ente Político Vasco capacitado para llevarla a cabo.

Donostia (Egin). Atzo arratsaldean ospatu zen hileroko azken ostirale guztietan bezala Euskaltzaindiaren bilera. Hogeita hamabosten bat euskaltzain bildu ziren Donostiako Diputazioko bilera aretoan.

Bizkaiko Aurrezki Kutxaren eta Durangoko Liburu Azokaren sari banaketan parte hartuko duten euskaltzainak izendatu ondoren, goizean euskaltzainak izendatu ondoren, goizean euskaltzain batzordeek izandako bileren berri eman zen. Fonema palatalen idazkerari buruzko batzordeak txosten bat aurkeztu zuen, idazkera proposamendu bat eginaz. A. Ibinagabeitia sariaren batzordeak, hartutako erabakien berri eman zuen, ondoren lehen saria Jose Uria Irastorza "Bitotxe"ren "Sagardo biltzea" lanarentzat, eta bigarrena Iñaki Azkune "Ekin eta Jarrai"ren "Akustika" lanarentzat.

Elebitasunari buruzko dekretu gaierako batzordeak, egindako bi bileretan aurreratutakoaren berri eman zuen. EKNak egindako projektua oinarritzat harturik, Nafarroaren dekretu horren menpean sartzen saiatu dira, Nafarroak lehendik dituen abantailak galdu gabe.

Euskararen erabilkera

Beste zenbait puntutxoren ondoren, SIADECOko Iñaki Larrañaga jaunak "Euskara erabiltzearen normalitzapenari begira geroko plangintza, batetarako oinarriak" lana aurkeztu zuen. SIADECOk hain zuzen, hiru liburutan banatu du bere garaian Euskaltzaindiak euskararen egoera eta etorkizunbideei buruz eskatutako lana. Lehendik argitaratuak ditu "Euskararen liburu zuria" eta "Euskararen estudio soziolinguistikoa". Oraingo hau hirugarrena eta azkena da. Euskararen hedapenaren plangintza bat egiteko nahita nahiez ezagutu beharrezkoak diren prebisio soziologikoak dira SIADECOren liburu berri honen gaia.

Liburu honetan, gaurregungo egoera analizatu ondoren (1975ko datuak erabiltzen dira ikerketa honetan) euskararen erabilkerak datozen urteetan (1985 arte) izango duen eboluzioaren prebisioak egiten dira, bai guraso-haurren arteko trasmisioari dagokionez, bai irakaskuntzaren aldetik (ikastoletan, zentro pribatuetan, zentro estataletan) eta bai alfabetatze euskalduntze mugimenduaren aldetik. Gainera komunikabideetan eta zerbitzu publikoetan euskara erabiltzeak duen edo ukan dezaken eraginaren ikerketa bat ere egiten da. Datu aipagarria da euskaraz dakitenen ehuneko hogei inguruk irakurtzen duela.

Euskara ikasteko bide hoik erabiliz, 1985rako milioi bat pasatxo pertsona izango dira euskaraz jakingo dutenak. Hori lortzeko, orain existitzen den infraestruktura mantenduz aparte sortuko diren beharrei erantzuteko, bai ikastoletan, zentro ofizialetan, bai euskalduntze mugimenduan seien bat maila irakasle gehiago beharko dira, ia beste hainbeste gela berri, eta dagoena mantenduz aparte aurrerapen horri eusteko 17.000 milioi gehiago beharko dira. Dirutza hauek ez dira izutzekoak, kontutan hartzen bada Hezkuntz Ministeritzaren aurtengo presupostua hirurehun mila milioi pezetatik gorakoa dela.

Aginte politikoa behar

Mugimendu hori mantentzeko nahita nahiezkoa da –dio SIADECOk– aginte politiko euskaldun bat izatea, SIADECOk eman dituen datu hauetan finkaturik euskararen erabilkeraren plangintza bat egiteko helburuak finkatu, medioak aukeratu, lehentasun mailak erabaki arlo bakoitzean programa zehatzak finkatu eta behar diren finantza bideak aurkituz behar diren erabaki guztiak hartzeko ahalmena izango duen euskal aginte politikoa.

1978.URTEKO BATZARRETARA ETORRI DIREN EUSKALTZAIN ETA LAGUNTZAILEEN ZERRENDAK

EUSKALTZAINAK:

P. Lafitte	(9 aldiz)
L. Villasante	(9)
J. Haritschelhar	(8)
A. Irigoyen	(8)
J. San Martin	(8)
J. M. Satrustegi	(8)
E. Larre	(6)
E. Knörr	(6)
A. Zavala	(6)
X. Diharce	(5)
J. L. Davant	(3)
J. Hiriart-Urruty	(2)
L. Mitxelena	(2)
F. Krutwig	(2)
E. Erkiaga	(2)
A. Irigaray	(1)
J. M. Lojendio	(1)

Ezin etorria adierazi duten euskaltzainak:

P. Larzabal	(9)
J. Hiriart-Urruty	(7)
X. Diharce	(4)
J. L. Davant	(4)
E. Larre	(2)
J. M. Lojendio	(2)
J. M. Satrustegi	(2)
E. Knörr	(2)
J. Haritschelhar	(1)
L. Mitxelena	(1)
A. Zavala	(1)

EUSKALTZAIN LAGUNTZAILEAK:

P. Xarritton	(9)
Goikoetxea-Maiza	(9)
J. J. Zearreta	(8)
J. L. Lizundia	(7)
J. L. Alvarez Enparantza "Txillardegi"	(6)
M. Atxaga	(5)
X. Garmendia	(5)
J. Ferdez. Setien	(5)
J. A. Etxebarria	(4)
J. Intxausti	(4)
J. A. Letamendia	(4)
L. M. Mujika	(4)
X. Kintana	(4)
J. A. Retolaza	(4)
A. Zatarain	(4)
I. Berriatura	(3)
P. Arregi	(3)
P. Uribarren	(3)
X. Mendiguren	(3)
X. Aranburu	(2)
I. Beobide	(2)
Nicolás Alzola	(2)
J. Garmendia	(2)
X. Gereño	(2)
Mikel Lasa	(2)
Mikel Zarate	(2)
J. M. Lekuona	(2)
J. Oregi	(2)
I. Sarasola	(2)
J. M. Torrealday	(2)
P. Altuna	(1)
L. Akesolo	(1)
J. M. Aranalde	(1)
J. M. Iriondo	(1)
I. Laspiur	(1)
J. Etxaide	(1)
B. Gandiaga	(1)
M. Ugalde	(1)

HOMENAJE A DON ANTONIO TOVAR

Sería por mi parte pretencioso llevar a las páginas de *Euskera*, revista de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, noticias sobre su académico de honor Don Antonio Tovar porque el curriculum de este insigne profesor de lingüística y su obra son suficientemente conocidos por todos aquellos que aman y estudian la lengua vasca. Pero han ocurrido en mi país algunos hechos que creo merecen ser vistos desde aquí como homenaje al señor Tovar.

En mis anuales visitas a Euskal Herria he tenido oportunidad de entrar en contacto con su cultura y con su idioma. Abundante es la información que he obtenido y muchos los libros que he adquirido, entre ellos *La Lengua Vasca* (1954) y *El Euskera y sus parientes* (1959) escritos por el insigne académico. Por ello, cuando supe que había llegado a la Universidad de Tübingen como profesor de Lingüística Comparada, me ocupé de seguir sus pasos como hombre de cultura en nuestro país. Y así pude recoger el artículo que el día 19 de enero de 1968 le dedicó el *Schwäbisches Tagblatt* (Diario de Suabia) de Tübingen en el Estado de Baden-Württemberg bajo la rúbrica "Das Porträt" o El Retrato. En dicho artículo, titulado *Antonio Tovar. Seine Wiege stand in Valladolid* (Antonio Tovar. Su cuna estaba en Valladolid) se da una biografía a partir de su nacimiento en la capital castellana en 1911. La guerra de 1936 hizo temblar las "torres de marfil" de los hombres de ciencia, pero Tovar perseveró en España donde a pesar de todo creía que podría mejorar el sistema que se había implantado con el grito de "muera la inteligencia". A los seis años de este ex-abrupto, en 1942, pudo instalarse como profesor en la Salamanca de Unamuno donde de 1951 a

1956 fue rector. Para entonces ya había dado a luz el primero de sus libros citados y en marzo de 1958 firmaba en la Universidad de Tucumán (Argentina) el prólogo al segundo.

Entre ambos libros habían pasado cosas graves en España. El año 1956 fue el de las primeras inquietudes estudiantiles, pero el germen de nuevas posibilidades en la Universidad fue sofocado tan resueltamente en su origen que toda esperanza de reforma se desvaneció por el momento. Tovar tuvo que fijar su cátedra en el extranjero, pasando de Buenos Aires a Tucumán y de aquí a Illinois en los Estados Unidos.

Ocurrió entonces que por fallecimiento de Hans Krahe quedó vacante la cátedra de Lingüística Comparada de la Universidad "Eberhard-Karl" de Tübingen. Esta población, con 70.00 habitantes, tiene una Universidad con 19.500 estudiantes, siendo el centro alemán con más porcentaje de estudiantes universitarios. Se albergan en ella todas las facultades típicas, excepto Ingeniería, Veterinaria y Arquitectura. Y para satisfacción entonces de Tovar, es la única Universidad alemana del tipo clásico, con libertad de enseñanza, tal como lo había concebido Humboldt. A ella fue llamado Antonio Tovar en 1967 y en ella ha permanecido estos 12 últimos años. Tübingen es para Tovar una ciuda maravillosa que le hace recordar la Salamanca medieval, con su mercado y con su Universidad. Hay algo, no obstante, a lo que no se puede acostumbrar y es el tráfico de sus calles. Pero es aquí feliz porque además vive en la paz campesina del barrio de Kilchberg; hasta la calle donde vivía últimamente, Am Keltengrab, que significa "cerca de la tumba céltica" le ambienta en su profesión.

La responsabilidad de Tovar al aceptar la cátedra de Tubingen no era pequeña. Esta cátedra de Lingüística Comparada había sido fundada en 1925 y cubierta entonces por Ernst Sittig, gran investigador de la lengua cretense. Sustituyó a éste el ya citado Hans Krahe y a su muerte era nombrado Tovar tercer catedrático de la especialidad. En estos doce años el profesor español ha elevado su cátedra a alturas de primera fila en el mundo de los estudios de la indogermanística clásica, tanto es así que hay en estos momentos 28 opositores a la cátedra que deja libre Antonio Tovar. Según se dice en Tübingen el campo abierto por éste es tan amplio que

se piensa en dividir en dos la cátedra tovariana: una para la indogermanística clásica y otra para la etno-lingüística, campo en el que nuestro profesor ha cosechado importantes triunfos.

El 6 de febrero de 1979 la Oficina de Prensa de la Universidad de Tübingen publicaba un suelto en el que se decía: "La medalla de bronce de la Universidad será entregada el viernes, 9 de febrero de 1979, a las cuatro de la tarde, al profesor doctor Antonio Tovar por el presidente de la Universidad. El profesor Tovar es director del Seminario para Lingüística Comparada y va a celebrar su jubilación después del curso de verano. Con este homenaje se distinguen los méritos especiales que el señor Tovar ha contraído por su servicio a la ciencia y cultura alemana y extranjeras así como por el prestigio que ha dado a la Universidad Eberhard-Karl".

Efectivamente, el 9 de febrero pasado, tras una *laudatio* pronunciada por el eminente lingüista Eugenio Coseriu, el presidente de la Universidad, Adolfo Theis, impuso a Tovar la medalla de bronce. El coro *Romania cantat*, dirigido por un vasco, Francisco Javier Oroz Arizkuren, interpretó una canción con letra del propio Tovar en ocho idiomas distintos, entre los que estaba el euskara.

"Hombre del Renacimiento" ha sido Tovar a lo largo de los 45 años de su carrera intelectual, afirmó Coseriu, llegando al dominio de lo absolutamente insólito. Hasta 1972 Tovar publicó en castellano, en alemán, en inglés, en francés y en latín hasta 265 títulos sobre lingüística, arqueología, filología, historia, prehistoria, etc. En los siete últimos años su ritmo de publicaciones ha llegado a ser aún más intensivo. Es posible vivir al lado de Tovar y sin embargo no poder llegar a conocer todas sus facetas. ¿Habrá un solo Antonio Tovar? preguntaba Coseriu.

Por su parte, Antonio Tovar expuso "meditando en alta voz" los problemas de la universidad actual. Hasta 1933 el modelo de universidad humboldtiano había sido considerado como ideal en todo el mundo: financiada por el Estado, pero libre en su gestión, era una fecunda organización del trabajo científico. Pero la costosa ciencia actual, la investigación que tantos millones exige, las clínicas gigantescas, etc. no pueden ser regidas ya por una república igualitaria de profesores.

Agradeció por fin a la Universidad de Tübingen "los años felices y más fecundos de mi vida académica" y añadió: "al venir aquí ocurrió un milagro a lo Mahoma. No me fue posible organizar en España una Universidad según el modelo humboldtiano de las universidades alemanas y súbitamente, como Mahoma que no pudo hacer que la montaña llegara a él, he vivido el milagro de que la montaña, esto es Tübingen, me llevara a mí hasta ella".

El día 12 de febrero el diario Schwäbisches Tagblatt dedicaba dos artículos a la fiesta del homenaje: *Cien años de Apofonía* y *Más allá de la Indogermanística*, ambos firmados por Wilfried Schäfer, del Deutsches Institut für Fernstudien (Instituto alemán de estudios a distancia), lingüista e indogermanista, que según me ha manifestado personalmente, ha realizado durante un semestre estudios de euskara.

Y nada más, sino enviar desde Köln un saludo a Euskaltzaindia y a todos mis amigos euskaldunes.

Klaus Niebel

1979. URTERAKO EUSKALTZAINDIAREN BATZAR EGUTEGIA

Datorren urteko batzar egutegia egikeran, azken urteotan egin duddan bezalaxe, kontuan izan ditut gure euskaltzain edo euskal idazle ospatsuen mendeurrenak. Horretarako Villasante eta Onaindiaren liburuetan oinarritu naiz, eta baita ere "EUSKERA" gure aldizkarian.

Euskalari ospatsu biren mendeurrenak ditugu helduden urtean, GEORGES LACOMBE bata eta SEBER ALTUBE bestea. Euskaltzaindiaren sortze sortzetik ez baziren euskaltzain izendatu ere, bai lehen hutsuneak betetzeko. Elkargoan martxan jarrita, urte betera, 1920an, beraz, aski goiz.

Lacombe Orthezen jaio zen 1879ko urtarrilaren 3ln. Aita, Agenais, kaskoin herrialdekoa zen, eta Estatu funtzionaria, eta toki maiz aldatzen zelako, Biarnon jaiotzea tokatu zitzaion Georges haurrari. Ama amikuztarra izanik, euskararen mundutik ez zen urrun egongo. Guri ez zaigu tokatzen Lacomberen euskaltzaletasuna eta euskal lanen berri ematea.

Horren berri badago liburu eta aldizkarietan, eta gehiago galdetzekotan, jo Piarres Lafitte euskaltzain eta lankiderengana, berak, Lacomberi buruz egin bai zuen Euskaltzaindian sartzeko egunean bere sarrera hitzaldia (ikus, *Euskera*, 1953, I, 36 orr.). Laster dugu, beraz, amikuztar jatorrizko jaun honen mendeurrena, datorren hilaren ondarrean.

Iparraldeko euskaltzaleak zenbait gertakizun programatzekoak dira: euskararen aldeko kanpaina bat, Euskaltzaindiaren nortasun ofiziala lortzea, Baionan gure Ordezkaritza tinko bat muntatzea, "Charte Culturelle" delakoa burutzea eta abar. Guzti horren hasiera emateko, Georges

Lacomberen mendeurrena izango da seinale eta egutegi irekitze, Euskaltzaindia bera Baionan bilduaz hila bete barru, Urtarrilean.

Seber Altube dugu bigarren ospakizun nagusi. Leinztarra zen, eta prezizkiako, Arrasaten jaio zen 1879ko Azaroaren 8an, bertako XVI Bataio Liburuak, 262. orrialdeak dioskunez.

Ez dut uste, nik eta hemen, bere bizitza eta lanei buruz zertan ihardun behar dudanik. Zeren inor izan bada Azkuerekin batera, Euskaltzaindian eta euskararen munduan, jaun eta nagusi Seber Altube izan da. Batez ere gerra aurreko *EUSKERA*n aurki dezake edonork bere lanen berri, Villasante eta beste askok egin dizkio aipamen ugari, eta zehatzago bere bibliografia bilatzeko jo beza nahi duenak, Jose Antonio Arana Martija gernikarrak, Arrasateko Udaletxean irakurritako zerrenda osora, *EUSKERA*, 1974, 262-266 orrialdeetan agertzen denera.

Gure hizkuntzak, eta bere Akademiak hainbeste sor dion gizon honek, merezi du handikiro ospatzea. Horretarako, datorren Abenduan, bere jaioterrian aspaldiko "santotomasetako" feria festa famatuetan, Euskaltzaindiak bere IX. Biltzarra egingo du, gramatika, Altubek hainbeste maite zuen lan gaia, gai nagusia izanik.

Bestalde, ez da ahantzi behar, 21 urtekin Gernikara joan zela bizitzera, hango alaba batekin ezkondu zela, bertako alkate ere izan zela, eta han hil zela 1963ko Abuztuaren 27an. Hamabost urte beteko dira, beraz, egun horretan, eta Euskaltzaindiak bere aurtengo Uztaileko batzarrean, munduan zehar euskarari buruz lanean diharduen jakintsu eta euskaltzaleen Biltzar bat antolatzeko erabaki bat hartu zuen. Euskal Herria nazio bezala ezerk adieraten badu, beste edozerk baino hobeto, hizkuntzak da, eta munduan zehar sinbolu hiri ezagun bat badu, Gernika da hain zuzen, Altuberen bigarren herria. Biltzar bat antolatzeko, Nazioarteko Kongresu gisako bat, ez dago denbora gehiegirik, hemendik udara, baina bai behar bada, horren preludio gisako Lehen Topaketa batzuk, zeinetan euskalari arrotzak, fisikoki elkar ezagutza bat izateko aukera izan dezaten, bestelako harremanak ugaritu, eta nolabait instituzionalizatu, eta hemendik urte ba-

tzuetara egin daiteken eta oso beharrezko den Nazioarteko Biltzar handi horren zimendarriak jarri. Abuztuaren 27a, astelehena denez, gainera, egun seinalatua beti Gernikan, izan daiteke Topaketa hoiekin lehen urrats apal bat hasteko egun aproposa, azken ostiralean, 31n, Euskaltzaindiaren hileroko batzarrearekin amaitzeko.

Hirugarren ospakizun bat ere programatzen dugu datorren urterako, Maiatzerako kalkulatuaz, eta hau da Iruñeko Euskaltzaindiaren Ordezkaritza ofiziala, Nafarroako Diputazioaren "Cámara de Comptos" delakoan irekitzea.

Ez da bestalde, inaugurazio huts bat izango. Alde batetik, "Euskararen Lekukoen" Euskaltzaindiaren lan sortako, lehen alea kaleratuko baita egun horretan, Apezetxea jaunak Elkanoko Leizarragaren lanetaz prestatzen ari dena.

Bestalde, apal edo handi, lau euskaltzale nafarren mendeurrena betetzen da helduden urtean, Juan Etxamendi "Bordel", Luzaiden munduratu zena, eta orain ehun urte, 1879an, Maiatzaren 30ean, bere jaioterrian hila. Bordelen bertsu eta lanen berri ongi inork ematekotan, José Mari Satrustegi euskaltzain eta idazkari berriak eman dezake, berak aztertu eta idatzi baitu zehatz eta mehatz euskaltzale luzaidarraz.

Bigarrena, Prudenzio Hualde Maio dugu, Bidankozen jaioa, eta 1879ko Abenduaren 9an, bere jaioterrian, hau ere, hila. Julio Urkijok, Azkuek, Nikolas Alzolak eta beste batzuk aztertu dituzte erronkariar honen euskal lanak, batez ere Bonaparte Printzearen erreguz Erronkariko euskara berezira itzuli zituen Ebanjelio eta dotrinak.

Hirugarrena, Zelestiko Peralta dugu, Aita Arrigarai izenarekin ezagunagoa euskal munduan, hasieratik beretik euskaltzain laguntzailea, denok dakizuen bezala, gramatika eta aditz lanetan nabarmendu zen Erriberako euskaldun berri hau. Datorren urtean betetzen dira, ehun urte jaio zela. Merezi du, zen eskualdetakoa izanik, eta baita gure artekoa ere, gure aipamena.

Azkenik, laugarrena, Aita Arrigarai bezala kaputxino ordenakoa hainbeste nafar euskaltzale ospetsu gerra aurretik eman zuen ordenakoa, hain zuzen, José Iturria dugu, Lezon bizia, baina Bortzirietako Arantza hirixkan, 1879ko Ekaina-

ren 6an jaioa. Ba ditu zenbait lan argitaratuak, bai eliz gaiez, eta bai abere eta piztiez, Iruñeko "Zeruko Argia"n, Donostiako "Argia"n eta Bilboko "Euzkadi"n idatzi zuen askotan, eta baditu argitaratu gabeko zenbait esku izkribu ere.

Ez da izango aukera txarra, beraz, Maiatzean, gure Ordezkaritza inauguratuaz batera, nafar idazle klasiko baten lanak argitaratzeaz batera, Nafarroako lau basterretako euskal idazle goraipatzea. Arantza, Luzaide eta Bidankoze, Pirineo guztia, ezkerretik eskubira, Bidasoatik Erronkarira, batetik, eta Erriberako Hegoaldeko herri bat, Azkoien bestetik, eta erdi erdian, Iruñerrian, Elkano. Azkenik Nafarroaren euskaltasuna, beste bide antzu askok baino hobeto erakutsiko du egun horretan Iruñean, boston aipamen eta omenetan egingo dugun batzarrean.

Beraz, gaur proposatzen dutan 1979 urterako batzar egutegia hau da:

Urtarrilaren 26an, Lacomberen omenezko batzarrea, Baionan;
Otsailaren 23an, hileroko arrunta, Donostian;
Martxoaren 30an, hileroko arrunta, Donostian;
Apirilaren 27an, hileroko arrunta, Donostian;
Maiatzaren 25ean, Leizarraga Elkanokoaren lanen argitaratzea, lau nafar euskal idazleei omen egiteaz eta Nafarroako gure Ordezkaritza irekitzeaz batera, Iruñean;
Ekainaren 29an, hileroko arrunta, Donostian;
Uztailaren 27an, hileroko arrunta, Donostian;
Abuztuaren 3lan, Seber Altuberen omenetan, Euskalarien Aurkiketen bukaera bezala, Gernikan;
Irailaren 28an, hileroko arrunta, Donostian;
Urriaren 26an, hileroko arrunta, Donostian;
Azaroaren 30ean, hileroko arrunta, Donostian; eta
Abenduaren 23an, Euskaltzaindiaren IX. Biltzarraren amaiera bezala, Seber Altuberen omenetan, Arrasaten.

Denak, azkenengoa izan ezik, ohi den bezala, azken ostiraletan.

Bilbon, 1978.eko Abenduaren 29an

J. L. Lizundia - Idazkari-ordea

PASADO, PRESENTE Y FUTURO DE LA LENGUA

Tele/Expre

Barcelona, 6 - VI - 79

EL LIBRO BLANCO DEL EUSKARA LLEGO AYER A BARCELONA

Seiscientas treinta mil personas hablan actualmente el euskera, según los datos aportados por el estudio monumental que sobre la lengua vasca han ido elaborando durante años un equipo de sociólogos, lingüistas e historiadores, y que ayer fue presentado en el aula magna de la Universidad Central de Barcelona.

El estudio ha sido promocionado por la Real Academia de la Lengua Vasca, coordinado por la sociedad de investigación aplicada SIADECO, y financiado por la Caja Laboral Popular, es decir, por los ahorros del pueblo vasco. El estudio, además de haber permitido crear un banco de datos, ha dado lugar al *Libro blanco del Euskara,* publicado hace un año y medio, y que analiza básicamente la evolución histórica del idioma comparándola con otras lenguas en similar situación. Ha dado lugar también a dos volúmenes sobre la situación actual del euskara, resumimos en el libro *Conflicto lingüístico en Euskadi,* que acaba de publicarse, y a otro libro con proyectos de futuro hasta 1985 titulado *Bases para un futuro plan de actuación en favor de la normalización del uso del Euskara.*

Según se informó ayer en la presentación de estas tres obras, actualmente son ya más las personas que aprenden el euskera que las que lo abandonan. Se está pues, desde hace unos años, en una fase de recuperación, después de años de regresión.

En esta regresión, el estudio distingue tres áreas: las castellanizadas (Navarra y Alava), las más erosionadas (las principales capitales, las zonas de más inmigración), y las zonas de contacto. En cuanto a los motivos por los que muchos euskaldunas (vascoparlantes) se han ido pasando al castellano, y, sobre todo, no han transmitido el idioma a sus hijos, Iñaki Larrañaga explicó que en algunos casos se ha llegado incluso a la aversión por el propio idioma, porque había sido motivo de sufrimientos y vejaciones, en la escuela, en centros oficiales... Citó los casos extremos de familias enteras que fueron despeñadas por el mero hecho de hablar solamente en euskera, y el de niños a los que el maestro les cortó el frenillo de la lengua por el mismo motivo.

Los autores del estudio no admiten el cmncepto de bilingüismo, porque no es una situación estable, sino que siempre es una fase de un proceso de sustitución. Utiliza por ello el concepto de diglosia, que define una situación sociolingüística donde conviven un idioma dominante, obligatorio para funciones formales, y un idioma en inferioridad de condiciones que sólo puede utilizarse de modo privado. El libro blanco aporta datos reveladores sobre el uso del euskera, obtenidos a través de una encuesta efectuada entre 1.500 familias. Luis Michelena habla en el prólogo del "purgatorio de la diglosia".

En cuanto a los proyectos de futuro, se valora muy positivamente la labor de las ikastolas —que actualmente, y a pesar de tener que autofinanciarse, tienen 50.000 alumnos y 2.000 profesores— y de las escuelas de enseñanza del euskera a adultos, donde actualmente están matriculadas 35.000 personas, como paso previo a la consecución de una Universidad vasca. La normalización de los medios de comunicación, que pasa básicamente por la obtención de una televisión propia, es otro de los pasos fundamentales hacia la consecución de un País Vasco donde todo el mundo hable vasco. No se contempla la problemática de posibles minorías lingüísticas distintas del vasco, porque el objetivo es conseguir una comunidad lingüística única. "Las opciones personales deben enmarcarse siempre en los derechos colectivos", se dijo en el acto de ayer.

J. Fabre

PRESENTACION DEL LIBRO BLANCO

Barcelona, 5 - VI - 79

Joan Krusellas (1)

MI DEFENSA DEL EUSKARA

"Hace unos tres años, en la Casa de Europa, en Bad Marienberg, tuve ocasión de asistir a un congreso internacional sobre las Minorías Europeas, en el cual estaban prácticamente representadas todas ellas.

El congreso era auspiciado por la Comisión Europea, asesora del Consejo de Ministros del Mercado Común, y uno de los principales temas de discusión fue el de las lenguas europeas. No sólo hablamos los congresistas de las diversas minorías si no incluso representantes de la Comisión.

Esto que se ha dicho aquí, hoy, señores, de que no existe no sólo texto sociolinguístico en euskara, aparte de no ser cierto por las evidencias que acaban de leernos, estaría desmentido por cuanto se dijo en aquellas reuniones. Algunos textos de Monseñor Añoveros nos fueron presentados como modelo de planteamiento sociolingüístico. Y tuvieron la aquiesencia de Europa entera en los congresistas. Eran del máximo interés por ser considerado Euskal Herria —allí Euzkadi—, como caso modelo cuyo planteamiento afectaba a todos, y, sobre todo, ayudaba a todos.

Claro que ocurrió, lo que hace tantos años suele ocurrir. El vasco que debía glosarlos no se había presentado. Y no se había presentado porque estaba en la cárcel. Le detuvieron

---

(1) Respuesta a un profesor de la Universidad central de Barcelona. La respuesta la hizo en catalán y la traducción es de Magda Capdevila.

precisamente para que no pudiese asistir. Tuve que hacer la glosa yo mismo.

Es el decurso de toda una historia. Negar en todo a Euskal Herria. De hecho, ya en 1545, Bernat Detchepare, o mejor Etxepare, escribió en euskara un texto sociolingüístico. En aquella época, y en la medida de aquél tiempo, cuando en el prólogo de su libro nos dice que le asombra que no se escriba en euskara, nos plantea un problema sociolingüístico. Aquello es "esta es la causa de que las demás naciones sean de opinión", o algo así. Etxepare defendió la lengua vasca frente al Estado francés y Etxepare fue a parar con sus huesos en la cárcel. Y no hay que decir cuántos han ido a parar a la cárcel por la misma causa desde Etxepare hasta nuestros días.

Bastarían estos dos hechos para negar la afirmación que aquí se ha hecho. Pero voy a hacer algo más que negar porque la afirmación se ha hecho en nombre de algo. Que alguien me diga qué texto se ha escrito en lengua castellana que podamos considerar como modelo de sociolingüística. Y con ello no ofendo a la lengua castellana. Que me lo digan. En toda caso sería la sociolingüística de una lengua jamás perseguida. Caso bien distinto. Con la misma diferencia que va del cóncavo al convexo.

Involuntariamente incluso, cualquier vasco nos hablaría de sociolingüística. No únicamente por los casos evidentes de persecución que nos han sido relegados hoy en esta sala si no por todo el decurso de hechos que cada uno ha presenciado en nuestras vidas. No, no se puede venir aquí a deciros que no se ha presentado jamás un texto sociolingüístico en vasco. Hay que venir aquí a agradecer vuestra presencia y a aprender de vuestro caso y de vuestros estudios y propuestas. Avaladas por el dolor que habéis sufrido pero también por vuestra fortaleza. Habéis venido porque estáis seguros de vosotros mismos.

Y esto de preguntaros qué clase de provecho pensais sacar de esta reunión. Me pregunto si acaso podríais sacar alguno que no sea aprender de vosotros mismos al estudiar vuestras propias reacciones ante casos como éste. Tenemos que agradeceros que hayáis venido.

No es la primera vez que se intenta poner el euskara en

un aprieto. Todos recordamos aquél caso tristemente famoso en que se dijo que el euskara no servía para enseñar ciencias atómicas. Y esto lo puedo explicar en inglés si lo desea el señor que os ha respondido. "Now you will see what happen here" (dije, dirigiéndome a él). "Ahora verá usted lo que va a ocurrir aquí". Se nos dijo que vuestra lengua —nuestra lengua—, no servía para la ciencia atómica. Y se nos dijo en nombre de la lengua impuesta.

Todos sabemos que en realidad, el desarrollo de la ciencia atómica tuvo lugar en secreto hasta después de la tristemente célebre explosión. La ciencia atómica por lo tanto, era secreta, y su vocabulario, como consecuencia, también.

Este vocabulario consiste en algunas palabras nuevas y una inmensa mayoría que existían siglos antes en inglés y en cualquier lengua. En realidad las originadas como consecuencia de la cuestión atómica fueron muy pocas. Yo mismo me traduje un manual de la Universidad de Manitoba. Y resultó que la inmensa mayoría de las palabras nuevas —no neologismos— eran incorporaciones de antiguas voces latinas y griegas a la lengua inglesa.

Esta incorporación, señores, lo mismo podían hacerla los castellanos que los suecos, los árabes o los miembros de la minoría de lengua urdu, de la India, como realmente han hecho. La podía hacer cualquier lengua.

Negar la posibilidad de hacerlo ya era un caso sociolingüístico. Pero se trataba de algo más que de negar ya que se trataba de impedir. Un empeño inútil por cuanto adaptar el léxico científico universal puede hacerlo cualquier pueblo, no excluyendo Egipto, por ejemplo.

Pero es más, porque resulta que se nos negaba en nombre de otra lengua, o sea, de otro pueblo. Un pueblo que no tiene nada que ver con el progreso que hasta hoy ha logrado la ciencia atómica, ni, por supuesto, nada que ver con el léxico que los americanos adoptaron.

Sobre ellos, nosotros tenemos la ventaja de que como lengua genuina, el vasco puede crear su propio léxico moderno. Todos habéis leído el libro de Mújika sobre los profijos como clave del euskara urbano y técnico. Todos sabemos

que renunciamos a ellos por disciplina académica. Pero podemos.

Pongamos por caso la palabra "television". Una voz lanzada por los anglosajones adaptando una palabra griega y una latina. Pero es que acaso hay alguien que a nivel de calle saque qué es lo significa "tele"? No. No lo hay.

Para ellos, los de "la clase" de cientifismo moderno, a nivel de pueblo este léxico no dignifica nada. "Tele", o sea "distancia", pasa como una simple codificación, que es sólo un aspecto no idiomático, o colateralmente idiomático, de la palabra. A nivel de calle sólo saben la palabra e ignoran que significa distancia.

Cualquier euskaldun sabe que "urruti" significa distancia. Y podemos hacer como los alemanes cuando dicen "Fernsehen". podemos completar la palabra con voces nuestras, vascas. La palabra sería "urrutikusketa". Bien vasca y comprensible para todos.

Nuestra rigidez académica nos impide emplearla. No por razones semánticas ni fientíficas, si no para hechar en cara a quienes nos hablan en semejante tono que, además de la flexibilidad de nustra propia lexicografía tenemos la de nuestra lengua como grupo que constituye dentro de las lenguas europeas.

Un grupo aparte. Constituido únicamente por el vasco. Es precisamente la lingüística alemana quien ha clasificado las lenguas que se hablan en Europa e Indoeuropeas, urálicas, altaicas, y, como grupos aparte, el maltés y el vasco.

Si dos mil años atrás ya existían las voces latinas y griegas que se han incorporado al léxico atómico, mil años antes de que Roma existiese y de que Grecia crease el propio nombre de Europa, ya existía el euskara. Euskal Herria ya tenía consistencia de pueblo como afirmó Bosch Gimpera en estas mismas aulas.

Esta es la lengua denostada. La que a venido a vernos. Toda ella un caso de sociolingüística único en el mundo. Acaso no se puede hablar del euskara sin hablar, con ello, de sociolingüística.

Hemos de agradecer aquí vuestra presencia. De nosotros poco habréis aprendido. En cuando a nosotros, con vuestra lección, hemos aprendido que esta lengua que resistió, las primeras embestidas de la historia, que superó la romanización, y la arabización, la persecución medieval, el desastre que sobrevino tras las guerras carlistas, y por último el franquismo, superará el post-franquismo''.

PRESENTACION DEL LIBRO BLANCO DEL EUSKARA

Avui

Dijous, 7 juny 1979
Página 11

CULTURA

L'ÈUSCAR, UN IDIOMA EN FASE D'EXPANSIO

L'idioma èuscar, actualment parlat per unes sis-centes trenta mil persones, ha superat ja la fase de regresió i, en l'actualitat, ja són més les persones que l'aprenen que no les que el deixen de parlat.

Aquest fet, fonamental en una collectivitat com la d'Euskadi, fou posat de manifiest en el transcurs de l'acte celebrat a l'Aula Magna de la Universitat de Barcelona, en el qual es va presentar *El llibre blanc de l'euskara* i els volums *Conflicto lingüístico en Euskadi, Estudio socio-lingüístic del l'euskara* i les *Bases para un futuro plan de actuación en favor de la normalización del uso del euskara*, L'acte fou presidit pel rector de la Universitat i eminent lingüista, doctor Badia i Margarit, i compta amb la presència d'una important delegació d'estudiosos bascos, que feren la presentació deis volums, entre els quals Joseba Intxausti, i Ricardo Badiola, de l'Acadèmia Basca.

El volum *Estuio sociolingüístico del euskara* ocupa un total de tretze volums que han estat elaborats per Siadeco, societat d'investigació, sola eis auspicis de l'Acadèmia de la Llengua Basca. En aquests tretze volums s'analitzen les arees de regretsió (Navarra i Alaba, especialment pel que fa a les capitals, on s'ha rebut un més gran nombre d'immigrants), les àrees de conservació i les arees d'expansió. El diagnòstic no pot ser sinó optimista, malgrat els entrebancs de tota mena —i

HIL BERRIAK

GABRIEL MANTEROLA URIGOITIA (1890-1977)

Gabriel Manterola Urigoitia abadea Euskaltzaindiko lehenengo urgazleetako bat genduan, 1919.urtean gure erakunde honen sorrera inguruan izendatua. Honegatik, urreeztaietan, 1968an, euskaltzain ohorezkora igoa.

Arratiako Zeanurin jaio zan 1890.urteko martxoaren 18 an eta herri berean hil zan 1977ko uztailaren 6an.

Ume nintzala ezagutu neban Eibarren; 1914tik 1937ra arte bertako abade izan zanez. Gizon jatorra eta alaia zan, herri guztia lagun ebana. Gogoratzen naiz jakitun entzutea eukala eta orduko sozialisten zuzendariegaz hartuemon onez berba egiten ebala. Gure umetzaroan, don Gabrielek eta Notxe abadiak, gorrien adiskide izatearen fama zeroien. Don Gabrielen liberaltasuna argi azaldu eban P. Zelaiak "Eibar" aldizkarian eskaini eutsan artikulu haretan (ikus "Eibar", 130 zenbakia, 1971. urteko otsailekoaren 12.orrialdean).

Gerratean herbesteratu zan. Eta hamar urteren buruan berrido itzuli zan eta geroztik bere jaioterrian igaro zituan azken urteak.

Buruz, gizon azkarra zan. Beralako bategandik, laga euskuzen idaz-lanak baino gehiago espero geinkezan, horretarako ahalmena eukanez; baina sorkundezko literaturan eta saiaeran ez eban askorik emon. Hala be, ez uste antzu gelditu zanik. 1916rako hasi zan euskaraz idazten. Urte horretatik 1931.era arte "Jaungoiko-zale" aldizkariaren zenbaki guztietan bi edo hiru lan argitaratzen ebazan. "Ekin"en ostera, lau urte t'erdian, astero astero hiru edo lau lan, eta horrez gainera, "Yakintza", "Zeruko Argia", "Redención", "Vida Vasca"

aldizkarietan be idatzi eban. Inoz bigarren deituraz izenpetzen eban, Urigoiti, eta sarri erabili ebazan izenordeak ziran Gama, Mitirga, eta abar.

Honako liburuen egile genduan: *Goi-izpiak* (1921) eta *Santuen bizitza laburrak* (1925). Horrez gainera, Schmid-en ipuinak itzuli ebazan, *Ipuintxoak* (1929) izenburuz liburutxo batean argitaratuak.

Hizlari be ibilia zan eta Euskaltzaindiak eratutako "Lenengo Euskalegunetako Itzaldiak" (1921) Durangon ospatu ziranean *Itzaldi bat* agertu eban, durangar seme ospetsuak eta euren lanak eta egintzak azalduaz, albiste asko agertuaz. Baita be, Euskaltzaindiak Txomin Agirre-ren gorazarrez eratu eban ospaketa haretan parte hartuaz, *Agirre euskaltzale* (Yakintza, 1934) zeritzon hitzaldiz.

Bestalde, gotzaien idazkiak bizkaieraz ipinten lan asko egin eban, lehenengo Mateo Mujika zanagaz eta gero Morcillo zanaren lehen partekoegaz. Dotrinak bizkaieratzen be lan egin eban.

Berrogei irudidun antzerki erako agerpenak *Yesu-Kristoren Nekaldia* zeritzana eta *Gabonetako Antzerti Yaunkoya*. Bigarren hau Bilboko Coliseo Albia-n aurkeztua izan zan.

Frantsezetik eta inglesetik gaztelerara erlijiozko gaiez zenbait lan itzuli ebazan. Bere azken urteetan *The Official Handbook of the Legion of Mary* euskeratu eban, baina ez dakit inon argitaratzerik izan eban.

Hain gizon apal eta zintzoa zan Gabriel, Goian bego.

J. S. M.

JOSE ANTONIO OARARTETA UNDABEITIA

Hirurogei eta hamazortzi urte zituela hil zitzaigun istripuz Bizkaiko Urberoagan, Markina inguruan, 1978ko Abenduaren 29ean abade on eta idazle trebea, Jose Antonio Oararteta Undabeitia. Goizeko zortziretan irten zan Gernikatik Donibanerantza bere adiskide Alberto Onaindia ikustera, Jose Urien Undabeitia, Mungiako osagilea, berebilaren eroale zalarik. Goizeko hamarrak inguruan errekara jausi ziren eta berebil barruan ito ziren biak. Goian beude.

Ajengiztarra zen Oararteta jauna, 1900.eko Otsailaren 18an jaioa. Gazte gaztetatik hartu zuen abadetzarako bidea, bera baino zaharrago zen Joxe Mari anaiak hartu zuen bezaeaf eta gero gazteago zen eta oraindik bizirik dagon Dionisiok hartuko zuen bezalaxe. Ezuen Jose Antoniok bere estudioetan zori makalik izan, Eguzkitza berbera izan zuen irakasle eta. Lekeition ikasi zituen maisu trebe honekin bere lehenengo ikasketak. Gero Gasteizera jo zuen Filosofi eta Teologi gaiak ikastera. Eleiz karrerako azken urteak Burgosen ikasiaz, bertan lortu zuen Teologiako Lizenziatura. Eta azkenean, 1923 ean hospatu zuen Meza Berria. Urte haietan Afrikatik ere ibili zen soldadutzako garaian.

Arabako Letonan bete zituen abadegintzako lehen hiru urteak eta Arano jaunaren eraginez Bizkaiko Ibarrangelura etorri zen 1926ean. Eta berriz euskal herri baten finkatuta zegoenez gero, euskaraz idazten hasi zen. Jesusen Bihotzari zuzenduta dago Ibarrangeluko parrokia eta harrizko irudi handi batek burutzen du eleiz dorrea: bere babespean idatzi zuen Oarartetak *Jesusen Biotzaren Illa,* 1931.ean Zornotzako "Jaungoiko Zale"ren irarkolan argitaratu zena. Baina

pilota partidu baten parte hartu zuela eta salatua izan zen eta Ibarrangelutik irten beharrean aurkitu zen. Mallabiako parrokiara destinatua izan zen eta Pradera organulariaren etxean ostatu zen. Azkenean Mateo Mugika Gotzai Jaunak apaiz honekin egindako okerra zuzenduz, Markinako parrokiara bidali zuen.

Gerraldiko egun larriak etorri zirenean, Markina utzirik Santoña eta Santanderretik zehar, 1937 ko Uztailean Bordelera jo zuen eta hile betean bertako Seminarioan bizi ondoren, Malinasko Kardenal Jaunak deituta Belgikara joan zen Abuztuaren 13 ean. Euskal haurren zaindari edo kapeilau bezela iraun zuen urte pare baten Belgikan eta handik Frantziara itzuli zen, Ammiens inguruan errefugiatuen artean bere abadegintzako lana zortzi urtetan eginaz. Azkenean, 1946 ean Ajengizen hauzotu zen. Gerraldiko gertaeren barri jakin nahi duanak badu Euskaltzaindiko Artxiboan zerikusirik, esaterako Oarartetak berak idatzitako *Cronican*. Jose Antonioren anai dan Dionisiok emandako originala dugu hemen Artxiboko paper artean.

1949 ko Apirilaren 20ean Lemoizko koajutore hautatua izan zen gure Oararteta jauna. Hala dio Jose Grauk izenpetutako agiri batek: "Por cuanto nos consta que en el Presbítero D. Jose Antonio Oararteta y Undabeitia concurren las circunstancias de aptitud, moralidad, celo y demás necesarias para el exacto y fiel cumplimiento de tal cargo..." Eta ordutik aurrean Lemoizen iraun zuen bai abadegintzako lanetan baita ere euskararen aldeko burrukan. Hirurogei eta hamaika urtedun zalarik Gernikara etorri zen behar zuen atsedena gozatzen. Eta gutxien uste genuean, joan zaigu mundutik betiko atsedenera.

Haren euskarazko lanak, baten faltan, Aita Santi Onaindiak ematen dizkigu *Euskal Literaturaren Historian* (V, 89-90 or.) Aipagarrienak hauek dira:

1. Aratuzteko Iru-urrena (Zornotza, 1930)
2. Jesusen Biotzaren I11a (Zornotza, 1931)
3. Manuale Sacramentorum, Imanol Lekuonarekin batera egindako itzulpena (Zornotza, 1934)
4. Sasi Ezkontza (antzerkia, Euzkadi egunkaria, 1934)
5. Baltzeoa pekatu ete da? (Zornotza, 1936)
6. Mirenen senargeya (Bermeo, 1936)

Oararteta (ezkerrean) eta Aita Onaindia Gernikako Batzar Etxean.

7. Misterio del Matrimonio (Bilbao, 1949)
8. Liturgi gaiak (Bilbon, Ibargutxi, Manterola eta beste batzuekin elkar lanean)
9. Begoñako Ama Birgiñari Bederatzi-urrena (Bilbo, 1963)
10. Mikel Goi Aingeruari Bederatzi-urrena
11. Ixidor Deunari Bederatzi-urrena
12. Arraseko M. Adam Kalonjearen "Sermons et Instructions" liburuen itzulpena
13. Igandeetako Sermoiak (argitaratu gabe; originalak Euskaltzaindiko Artxiboan daude, Dionisio Oararteta jaunak emanda)
14. Ekin, Anaitasuna eta Karmel aldizkarietan agertutako lan batzu.

Bilboko Udal Aurrezki kutxak antolatu zuen 1977 ean euskal literatur sari bat eta Oarartetak irabasi zuen bigarren saria bere *Zar-barri* liburuxkarekin.

Euskararen alde hainbat lan egin zuen euskalzale gizon honen oroimenez Euskaltzaindiaren aldizkarian zeozer geratu dedin idatzi dut bizitza eta aipamen laburtxo hau. Azkenengo urteetan adiskide izan nuen Jose Antonio Oararteta eta Undabeitia Jaunak merezi du eta.

Jose Antonio Arana Martija

BITOR GAUBEKA DUO

Larogei eta bost urte betetzeko zen Bermeoko seme hau aurton Martxoaren 9.ean bere hirian hil zenean, 1894.eko Apirilaren 12.ean jaioa zen eta.

Gaztetatik hartu zuen Gaubekak bere bizi guztirako izango zen ogibidea, hamabost urtedun zelarik Sarriako Irar-Erti Ikastetxera jo zuen Barcelona aldera eta. Bere lehenetariko idazki baten *(Euzko Deya,* 1921, IV - Iraila, 59-60 or.) *Irarkintze-* aren gorespena eman zigun, *irarkari* hitza bere izenpean jarriz eta lanbidea ikasi zuen tokia azalduz. Hemeretzi urtekin, 1913.ean, Gernikako "Goitia eta Ormaetxea"-ren irarkolan dugu Gaubeka lanean eta gerotxoago, Zirilo Artzubiagak eramanda, Zornotzako "Jaungoiko Zale"ren inprimategian.

Garai haretan Gaubekatarrak Busturiko Axpen bizi ziren eta gurasoen herrian bere kontura irarkola bat sortzea asmatu zuen Bitorrek. Makina txiki batez hasi zen Gaubeka inprimatzen eta bere eskuetatik irtendako lehenengo lanak bere anaia Galok idatzitako *Busturiko Ikastia* eta *Umetxuen Adizkidea* izan ziren. Urte gutxi barru Bermeon jarri zuen gero famatua izango zen irarkola eta bertatik irten ziren hainbat eta hainbat liburu eta liburuxka:

1923 Luis Jauregi: *'Egizko edertasuna.*
1925 *Almikako Ama Deunaren Bederatziurrena.*
R. Ortuzar: *Oroigarriak.*
Miguel de Arruza: *Método práctico para aprender vascuence.*
1926 Kandido Basabe: *San Iñazio'ren Ejertzioetako Gogarteak Bigarren Euskal Egunetako Itzaldiak.*
1927 *Gomutakia* (Franzisko Uzelairi Omenaldia).

Bitor Gaubeka Duo.

1928 Pablo Zamarripa: *Gramática Vasca.*
Zabala eta Otzamiz-Tremoya: *Historia de Bermeo, I.*
Eguskitza: *Arrateko Euskal Egunetan Itzaldia.*
1929 Pablo Zamarripa: *Anayak gara (Ipuina).*
Saber Altube: *Erderismos* (liburu bezala eta *(EUSKERA I-IV,* urte osoa).
1930 Pablo Zamarripa: *Kili Kili (Barre ipuinak).*
1931 Zabala eta Otzamiz-Tremoya: *Historia de Bermeo, II.*
1932 Jon Gurutz Ibargutxi: *Elei Ama Deunaren Ikurtonak edo Sakramentuak.*
Seber Altube: *El Acento Vasco en la prosa y en el verso* (liburu bezala eta *EUSKERA I-IV,* urte osoa).
1933 Pablo Zamarripa: *Vocabulario Vasco Castellano.*
Pantzeska Belaustegi: *Izar Argia.*
1934 *EUSKERA, I-IV,* urte osoa.
Aitor Goirizelaia: *Machin de Munguia.*
1935 Pablo Zamarripa: *Firi Firi.*
Conmemoración del IV Centenario de las Ordenanzas de la Cofradía de Bermeo.
Gabirel Jauregi: *Pisia.*
Zeanuriko Abade, Lekaide eta Lekaimen izenak EUSKERA, urte osoa.
1936 Gabirel Jauregi: *Kimia.*
Jose Antonio Oararteta: *Mirenen Senargeya EUSKERA,* urte osoa.
1937 *EUSKERA,* urte osoa.
1940 *Florencio* Amador Carrandi: *Ensayo Bibliográfico de obras y folletos publicados con motivo del Movimiento Nacional.*
1941 Jose Uzelai: *El Puerto y Ferrocarril de Bermeo.*
1946 Florencio Amador Carrandi: *Las procesiones de Semana Santa en Guernica.*
1951 *Gernikako Marijesiak.*
1958 Albizuri'tar Prantzisko: *Andra Mariaren Leretako Ila.*
1970 Juan Goitia: *España, Ibérica o Vasca?*

Eleiz Abestitxoak izenezko liburuxka bat ere eman zuen argitara, urterik gabe.

Inprimatzaile trebea izan bazen gure Bitor Gaubeka, idazle bezala ere agertzen zaigu. Bere lehenengo lana, 1922.-go EUSKERAN agertu arren, 1920.eko Lotazilan idatzi zuen. Gero kultur aldizkarietan agertu zen Gaubekaren izena, *Gautarbi, Bitxor,* Kistarzale, *Etxekua* eta *Garaitz* izenordez. Gaztetatik hasi eta idatzi zuen Bitorrek *Euzkadi, Euzko Deya, Busturiko Kistar Ikastia, Umetxuen adizkidea, Ereintza, Euzkerea, Agur* eta beste agerkari batzutan. Historia aldetik bere lanik mamitsuenak hauk izan ziren: *Matxitxako, Bermeo'ko lenengo Eleizea, Domenigus eta Albonika.* Baina beste gai batzu ere erabili zituen Gaubekak.

– *Euskaltzaindiak... Euzkera-Batasunatzaz ospatzen daun batzarreko artezkari eta bazkidei.* (In *Euskera,* 1922, I, 18-20 or.).

– *Polone neskatilxuba* (In *Euzko Deya,* 1912, II Garila, 27-28 or.).

– *Irakintzea* (In *Euzko Deya,* 1921, IV Iraila, 59-60 or.).

– *Adizkidia, laguna, notina* (In *Euzkerea,* 1932, VI, 109 or.).

– *"Eskualdi" itza erderazko "tanto" itzaren ordez.* (In *Euzkerea,* 1932, VII, 134 or.).

– Euzkel Iztegirako tantatxubak (In Euzkerea, 1932, IX, 180 or.).

Euskal idazle eta, gainera, euskal gaiak zabaltzen inprimatzaile bezala zebilenez gero, gerra aldian kanpora joan beharrean aurkitu zen Gaubeka. Eta beste alderditik etorri zenean, 1940.ean, inprimatzen hasi zen berriz jan ere egin behar zen eta sendiari irtenbide bat eman ere bai. Nahiz eta orduko giroko argitalpen batzu egin, isilezko liburuxkak ere atera zituen eta poliziaren zigorpean egon zen baten behintzat. Katalina Azpiri emaztearen izenean zabaldu zuen Gernikan Liburu denda bat eta Bitor, Gernikatik Bermeora zebilen irarkolarako lanak biltzen. Orduan ezagutu nuen: gizon apala, langilea, eta denen gainetik, euskalduna. Agur Bitor Gaubeka eta Duo.

Jose Antonio Arana Martija

ANALISIS DE DOS VERSIONES DE LA PRUFUNG EN SU EDICION DE 1821

ZUZENKIZUNAK

DICE	*DEBE DECIR*	*Pág.*	*Línea*
Schneider	Steiger	70 IV	desde abajo
dedica más	dedica poco más	71 VII	2
me-atzea (sic)	me-atzca (sic)	73 II	1
no visitó e ignoraba	no visitó Galicia e ignoraba	73 VII	1
Nettuto	Nettuno	74 III	9
llamar Jaizkibel	llamar al Jaizkibel	75 II	1
1521 de	152 de	75 II	4
interpelación	interpolación	75 V	4
interpela	interpola	62 II	2
Conflnas	Conflans	76 II	penúltima
...	112 m. y 82 y medio o sea 30 m. de diferencia	77 I	2
conjunción	conjugación	77 IV	1
...	es un error	78 II	última
...	H. in welchen dies geschehen, A. en que éste ha sucedido, E. nada	entre el IX y el X'	
AIETES	ALETES	79 bajo	penúltima
beurgeois	bourgeois	82 bajo	penúltima
número de	número y tema del	87 III	2
suceptible	susceptible	88 V	2
jedoch E. nach	jedoch meines Erachtens nach	88 VII	2

Justo Garate
San Lorenzo 444
5.500-MENDOZA
ARGENTINA

OHARRA: Azken *euskera* —Euskaltzaindiaren VIII. biltzarra— XXIV. zenbakia gabe, XXIII.a izan behar zen.

AURKIBIDEA

MINISTERIO DE EDUCACION, Decreto de Bilingüismo 7
Antonio Tovar, VASCO Y LENGUAS CAUCASICAS: INDICIOS TIPOLOGICOS 13

OMENALDIAK

Euskaltzainburuak, GEORGES LACOMBERI OMENALDIA 37
Piarres Xarritton, GEORGES LACOMBE EUSKALTZAIN ZENAREN LANAK ETA GUTUNAK 39
J. A. Arana Martija, BONIFAZIO ETXEGARAI ETA KORTA 45
Euskaltzainburuak, LOPEZ MENDIZABAL-dar IXAKA-ren MENDEURRENA 61
J. San Martin, ISAAC LOPEZ MENDIZABAL EUSKALTZAIN OHOREZKOA 63

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

BERGARAKO ADIERAZPENEAN AGINDUTAKOA BETETZEAZ .. 73
EUSKALTZAINDIKO BATZORDEEN BIR-ANTOLAKETA 75
EUSKALTZAINDIKO SAIL ETA BATZORDEEN ORGANIGRAMA 84
ALTUBE-tar SEBER JAUNAREN MENDEURRENA. EUSKALTZAINDIAREN IX. BILTZARRA ARRASATEN..... 87

KONTSONANTE BUSTI-PALATALEN GRAFIAZ EUSKALTZAINDIAREN AGIRIA 91
HEZKUNTZA MINISTERITZARI EGINDAKO ESKEA.—PETICION AL MINISTERIO DE EDUCACION Y CIENCIA..... 93
EUSKARA BATUA, EUSKALKIAK ETA TOKIAN TOKIKO HIZKERAK.—DECLARACION DE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA "EUSKALTZAINDIA": EL EUSKARA COMUN, LOS DIALECTOS Y LAS HABLAS LOCALES..... 101
X. Kintana, EUSKALTZAINDIARI ERREGUA..... 111
EUSKAL-HERRI HITZA EZ BAZTERTZEAZ.—QUE NO SEA RELEGADA LA PALABRA EUSKAL-HERRIA 115
BATZAR-AGIRIAK 119

BATZAR-TXOSTENAK

Literatura

J. M. Satrustegi, AIZKIBEL EUSKARA BATUAREN AINTZINDARI..... 153

Hizkuntza

K. Mitxelena, EUSKARAREN IZTERLENGUSUAK DIRELA ETA . 161

Ikerketa

P. Xarritton, PIARRES BROUSSAIN-en PAPERAK..... 167
J. San Martin, ZULOAGAREN MARRAZKIA EUSKALTZAINDIAN 171
I. Laspiur, AZENTU DIAKRITIKOA EIBARKO EUSKARAN 175

Hiztegia

J. San Martin, TXORI IZENAK EIBARREN 271
J. L. Lizundia, HERRI ADMINISTRALGO HIZTEGIÑO BATEN ESKABIDE ETA PREMIAZ..... 279
M. Zalbide, ZIENTZI ETA TEKNIKA ALORREKO HIZTEGI BATI BURUZ.—ARKITEKTUR HIZTEGIA 291

BESTE GAI BATZUK

J. San Martin, EUSKALDUN BATEN AGURRA MILAURTEBURUAN. SALUDO DE UN VASCO EN EL MILENARIO 331
J. M. Torrealday, 1967-1977: LIBURUAK ETA BATASUNA..... 339
A. Eguzkitza, EUSKAL HITZ ELKARTUEZ 353

BERRIAK

Euskaltzainburuak, "BAI EUSKARARI" KANPAINA ANTOLATU ZUTENEI ESKERRAK EMANEZ 361
Euskaltzainburuak, ED. SEIX BARRAL-ek ATERATAKO "CURSO DE LENGUA VASCA"ren AURKEZPENEAN 363
Euskaltzainburuak, EUSKALTZAINDIAREN BULEGO BERRIAK BILBON 367
Euskaltzainburuak, AMORRORTU JAUNARI ESKER-DIPLOMA EMATEAN 369
Euskaltzainburuak, IBERDUERO-ren DIRU LAGUNTZA JASOTZEAN 371
Euskaltzainburuak, GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA PROBINTZIALAREN DIRU LAGUNTZA JASOTZEAN 375
Euskaltzainburuak, ADEGUI-ren EMAITZA HARTZEAN 377
Euskaltzainburuak, "ITXASKARIA" LIBURUAREN AURKEZPENEAN 379
X. Kintana, ADITZA BATZEKO BATZORDEAREN HISTORIAZ ZERBAIT 381
X. Kintana, GEORGIAKO BIDAIAZ ZENBAIT BERRI 385
SIADEKO: EUSKARAREN HEDAPENAREN PLANGINTZARAKO OINARRIAK..... 391
1978. URTEKO BATZARREETARA ETORRI DIREN EUSKALTZAIN ETA LAGUNTZAILEEN ZERRENDAK 395
K. Niebel, HOMENAJE A D. ANTONIO TOVAR 397
J. L. Lizundia, 1979. URTERAKO EUSKALTZAINDIAREN BATZAR EGUTEGIA 401
I. Fabre, PASADO, PRESENTE Y FUTURO DE LA LENGUA. EL LIBRO BLANCO DEL EUSKARA LLEGO AYER A BARCELONA 405
J. Krusellas, PRESENTACION DEL LIBRO BLANCO. MI DEFENSA DEL EUSKARA 407

PRESENTACION DEL LIBRO BLANCO DEL EUSKARA. L'EUSCAR, UN IDIOMA EN FASE D'EXPANSIO 413

HIL-BERRIAK

J. S. M., GABRIEL MANTEROLA URIGOITIA 417
J. A. Arana Martija, JOSE ANTONIO OARARTETA UNDABEITIRA 419
J. A. Arana Martija, BITOR GAUBEKA DUO 423

ZUZENKIZUNAK (FE DE ERRATAS)

J. Garate, ANALISIS DE DOS VERSIONES DE LA PRUFUNG EN SU EDICION DE 1821 427